XABIER MONTOIA

HITZONTZIAK

Xabier Montoia

Hitzontziak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.eus/ebook

© 2017 Xabier Montoia
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2017ko azaroa
Edizio hau: 2017ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

1

Behin eta berriz. Behin eta berriz. Gauzak nire eskuetatik behin eta berriz igaro. Atertu gabe. Txikiak edo handiak. Behin eta berriz. Metalezkoak, plastikozkoak, paperezkoak: gauzak gauzak dira. Denak. Nire eskuek ukitu arte behintzat. Salgai bilakatu arte. Miraria nire esku lehorrek egiten dute, ez jainko ahalguztidun baten eskuek. Hartu, dena dakien nire aurreko begi gorritik pasatu eta horra miraria burututa: salneurri zehatza duen salgaia. Txanpon batzuen truke beste esku batzuek hartuko dutena. Botila bat olio edo botila bat ardo. Ia edozer izan liteke salgaia. Ni neu ere bai. Salgaia edo alokagaia.

Orduka alokatzen dut neure burua. Merke antzean. Zenbat ordu, hainbat euro. Gutxi. Gutxiegi duintasunez bizitzeko. Neure burua alokatzen dut, gorputz osoa. Bereziki ezker-eskuin etenik gabe mugitzen ditudan esku lakarrak. Salgaiek eta horien truke jasotako txanponek zikinduak.

Orduka alokatzen dut irribarrea ere.

Zaila izan zitzaidan denbora guztian irribarre egin behar hori, beharbada zailena. Gero hori ere ikasi

nuen, lehenago gustuko ez nuen beste hainbat gauza ere egiten ikasi nuen bezalaxe. Hemen ez dago beste aukerarik. Nagusiek, ikuskatzaileek eta arduradunek agindutakoa bete behar. Agindu inozoak izan daitezke, halakoxeak izan ohi dira, edo absurdoak. Berdin dio. Bete egin behar dira. Isilik. Irribarrez.

Estreinako egunetik jakinarazi zidaten. Adeitsuki hartu behar genituen bezeroak. Guztiak. Halaxe azaldu zidaten, uniformea eta nire izena zuen plastikozko txartela ematearekin batera. Mimatu ere egin behar omen genituen. Baietz nik, jakina, denari baietz. Badaezpada ere. Eta berdin arduradunak kutxetako batera eraman eta berari adi egoteko esan zidanean. Aulkian eseri eta hasi da erreskadan datozkion bezeroak irribarrerik zabalenarekin agurtzen. Egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu... Bazuen bezero bakoitzarentzat zer edo zer. Egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu... Askok ez zion agur edo irribarrerik itzultzen. Bost axola haiei gorbatadun itsusi haren adeitasuna.

Ordubete aritu zitzaidan arduraduna (Iñaki Aspe, bere txartelaren arabera) irakasle. Ondoren nire txanda iritsi zen. Atzean neukala, haren jarduna berritzen

ahalegindu nintzen: Egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...

Baldar aritu nintzen, zalantzati, baina biharamunean itzultzeko esan zidaten. Pott eginda baina pozik irten nintzen, ospatzeko gogoz: igotzen ari nintzen hiperrean, bezeroek hustutako apalategiak atzera betetzeari utzi eta kutxazain izango nintzen aurrerantzean. Eta, noski, Iturrira jo nuen.

Astegun buruzuria izanik ere, beteta zegoen. Barrako nire zokoa bilatu nuen jende artean. Biterik berehala ikusi ninduen, baina zegoen tokian bertan geratu zen, ikusi izan ez banindu bezala. Astazakila halakoa. Aspez gogoratu nintzen, pena bertan ez egotea, bezeroak nola hartu behar diren irakasteko: Gabon, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...

Hire bezeroa nauk, mozolo hori, aldarri egitekotan egon nintzen, Biteriri gaiztoz begira, nire aldarteak, nire sentimenduek bost axola ziotela seguru. Musika eta jendearen berbaroa ozenegiak ziren inoren oihurik entzuteko. Keinu bat baino ez nion egin, egarri nintzela adierazteko.

Asteazkena zen, ez ostirala, baina edan egin nahi nuen. Ospatzeko. Eta ahanzteko ere bai. Horretarako premia izaten dut sarri. Nahi ez nukeen asko daramat

aldean. Buruan zulo bat egin eta erabat hustuko nuke batzuetan. Zama handia zaizkidan oroitzapenetatik libratuko nintzateke, ahal banu. Ezin, ordea. Gustura daude nire garunean, ederki etxekoturik, hildakoak hilobietan bezain. Eskerrak lanean ez dudan gogoratzeko astirik. Bezeroen emana handiegia da, arreta beste edozertan jartzeko: Egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu... Behin eta berriz.

Eta hala ere ezin ahantzi!

Hala esaten dit Marik, gogoa beste nonbait dudala antzemandakoan. Ezagutzen nau Marisorginak. Ondo baino hobeto. Begiratu eta istantean daki buruan darabilkidana. Sinesgaitza? Ez horrenbeste: pare bat konturi jira eta bira pasatzen ditut egunak. Edo okerrago: kontu bakar bati, haren ustetan.

Ahantzi alproja hori, esaten dit. Erraza balitz bezala. Ahantz dezala berak, ahal badu, etxean duena: Adolfo. Batzuetan, Mari dagoen aldera begiratu eta haren irribarreak (Egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...) ezkutatzen duen iluntasuna ikusi ahal dut. Dirdira moduko bat egiten duen iluntasun oliotsu bat. Une bat baino ez da izaten, bezeroak patriketan aurkitu dituen txanpon guztiak niri eskaini bitartekoa. Nahikoa.

Bezeroek beren zaborra guri uztea atsegin dute. Traba egiten dien guztia utzi nahi izaten digute, txanpon txikiak izan edo beren baitako amorru zaharrak. Badakite gu garela horretarako egokienak. Ez digute begiratu ere egin behar. Jasotzeko gaude, horixe adierazten dute gure uniformeek: utz ezazu hemen soberan duzuna. Eta horixe egiten dute: pisu zaiena guri utzi. Badakite egin dezaketela. Urteak daramatzate horixe egiten. Gutxietsi, menostu, iraindu ahal gaituzte. Errieta egin, beren alabatxoak bagina bezala. Eta musu-truk, mespretxuaren ordaina gure betiko irribarrea baino ez dela izango ziur, burutik igarotzen zaien edozer botatzen digute, ez bat ez bi.

Batzuetan, irainak itzultzearekin egiten dut amets. Jaiki egiten naiz, eta haietaz uste dudana jakinarazten diet bertatik bertara. Bat-banaka aletzen dizkiet nire arrazoiak. Ametsetan.

Dena da posible ametsetan. Denon ametsetan. Posible da, esate baterako, Biteri eta biok elkarrekin bizitzea, hura nitaz maiteminduta egotea. Edota hipermerkatu bateko behin-behineko kutxazain izan ordez, unibertsitateren bateko irakasle izatea. Nire burua ikus dezaket, adi dagoen ikasle multzo baten aurrean, Hegel azaltzen:

Herrschaft und Knechtschaft.

Jaunaren eta esklaboaren dialektika. Zalantzarik gabe, nire gaia. Horren gainean egin nuen ikasketetako azken lana eta, ikusiak ikusita, ez dirudi halabeharrez izan zenik. Ba al da hau baino leku egokiagorik filosofo alemanaren teoria ospetsua ikertzeko? Ez dut uste. Marik, aldiz, oso bestelako iritzia du. Behin ere ez da unibertsitatean izan, baina argi du: txatxu zahar horren neskamea haiz, horretarako behar hau! Zulo bat haiz harentzat!

Zulo bat naiz, bai, onartzen diot nire artean. Zulo ilun bat. Beterik egon nahi duen zulo bat. Betetzerik ez dagoen zulo bat, azken batean. Eta horra hor koska: bete beharko nindukeenak ez nauela betetzen. Ez bete, ezta estali ere. Uko egiten dio-eta, behin eta berriz.

Ez umildu haren parean, eskatzen dit Marik. Nik ezetz, lasai egoteko, ez dudala halakorik egingo. Umiltzeko, guztiz eta osoki umiltzeko, hiperra dugu: zuzendaria, arduradunak, bezeroak. Ez dut beste inoren premiarik.

Biteriren jopua izan nahi nuke, haren neskamea. Hark, aldiz, nire nagusia, nire jauna izan nahi ote luke? Ez dut uste, haren ezezkorik biribilena jaso baitut

orain arte. Hitzik gabe adierazi dit, baina zenbait gauza ulertzeko ez da hitzen beharrik. Hala ere, ezin isilik egon. Neure baitan bada zerbait hitz eta pitz aritzera bultzatzen nauena. Etenik gabeko jario bat, gogaikarria. Nigandik irten nahian, zalapartaka aritzen zait isildu beharrekoa. Jakina, ez diot irteten uzten. Arriskutsua litzateke.

Isiltasunak babesten nau. Berezitzat hartuko naute. Edo harroputz. Auskalo. Gutxiesten ditudala pentsatuko dute, beraiek baino gehiago naizela uste dudala. Filosofoa deituko didate.

Filosofoa!

Ez dakit nork eman dien nire ikasketen berri. Nik ez, hori seguru. Sekulan ez dut filosofiaren hizkera haiekin erabili. Aitzitik, haien modura egiten ahalegindu naiz beti, onar nazaten. Gaizki hitz egiten ere ahalegindu naiz zenbaitetan. Itxuraz ondo hartu banaute ere, mesfidantzaren distira nabaritzen zaie begietan. Areago, sentipen ilun oldarkor bat antzeman uste izan dut batzuetan haien irribarre itxuraz xaloan. Ez dira nitaz fio. Hori uzten du agerian haien keinu bakoitzak. Nire kezkei, esaterako, barregarri irizten diete, umekeria huts. Benetako arazoak haienak dira. Baina ni ere diru premian nago, haiek bezala. Neuk ere jan egin

behar dut, eta jantzi eta etxeko alokairua ordaindu. Hik ez dun seme-alabarik. Ez, ez dut, egia, baina horrek ez du esan nahi dirurik gabe bizi naitekeenik. Inor ezin da dirurik gabe bizi. Filosofoak ere ez. Jan gabe ez dago filosofatzerik, goseak gogoa zorrozten duelako uste zabalduaren kontra. Zerbait zorroztekotan, erresumina zorrozten du goseak. Erresumina eta amorrua. Hori egunero ikusten dugu hiperrean. Jateko lapurtu behar dutenen amorrua, zaindariek harrapatutakoan. Biltegi ondoko gelatxora eramaten dituzte eta, batzuetan, haien oihuak entzun ditugu kutxetatik. Jan egin nahi dutela.

Jan?

Badute iluntzean etortzea botatzen dugunaren bila, besteek egiten duten moduan. Burua jaitsi eta lanean saiatzen naiz arreta osoa jartzen, lankideen kalaka ez entzutearren. Nire onetik ateratzen naute. Zergatik aztoratzen dira hainbeste. Azken finean, lapurrek ez diete inoiz ezer lapurtu, nik dakidala. Haien alde ere egon behar lukete. Benetan lapurtzen diguten lapur handiak mendekatzeko besterik ez balitz ere. Baina haien kontra daude. Lapur txikien kontra eta handien alde. Edo, bestela esanda, morroiak na-

gusien alde. Zapalduak zapaltzaileen alde. Jopuak jauntxoen alde. Betikoa: *Herrschaft und Knechtschaft*.

Hipermerkatuari esker bizi gara eta, lapurtuz gero, guri ere ari zaizkigu lapurtzen. Halakoak esaten dituzte, lotsarik gabe, beraiek izaki hipermerkatuari ahal duten guztia lapurtzen diotenak. Denak lapurrak. Hipermerkatuaren hierarkian duen tokiaren arabera lapurtzen du gutako bakoitzak. Guk gauza txikiak beti: gozokiak, txokolatea, pilak, paperezko zapiak... Ez naiz horretaz harro, baina damu ere ez. Niretzat, lapurretak baino gehiago ekintza politikoak dira, multinazional ahalguztidun bati egindako sabotajea. Hori esaten diot behintzat neure buruari. Gezurretan ari ote natzaio? Ziur aski. Baina gezurrak beharrezkoak dira. Errealitatearen erauntsi bortitzetik babesten gaituzte pixka bat. Eskerrak. Bestela elkar akabatuko genuke. Egiak ertz zorrotzak ditu. Zauri gaiztoak eragiten ditu. Horretaz gogoratzeko, neure gorputzaren orbainei begiratzea nahikoa. Eta, hala ere, gezurra beste behar dugu egia. Norberaren egia txikia, jakina, besteak (handiak, hau da, munduaren zoko-moko guztiak, ezkutuenak ere, argitzen omen zituztenak) errautsak haizetan baino ez baitira gaur egun. Hala gure egia txikia, nola gure gezur potoloak ere. Zein da nire egia?

Sarri galdetu diot neure buruari, eta nago bizitzea dela. Osoki bizitzea, ez bizirautea, nik egiten dudan bezala. Hil arte bizi, esaten zuen amak, gogoratzen ez dudan, gogoratu ezin dudan aitaren esaldi kutuna omen zena etsipenez berrituz. Hil arte bizi. Ederra, alajaina. Hura hala bizi izan zen, gutaz ahaztuta! Aita hil zenetik hogeitaka urte joan bada ere, lelo horrekin jarraitzen du oraindik amak. Ezin dio barkatu. Ez hari, ez haren lagunei, ez eta bere buruari ere. Niri ere ez, esan gabe doa. Baina dagoeneko ez dit axola. Ezin dut ezer egin. Ezin diot lagundu. Ez dit uzten. Biteri eta lankideak bezala, ez da nitaz fio. Neure ama ere ez. Horra egia. Horra mina. Horra nire gezurrak, txiki zein handi, ageri-agerian uzten dituena. Horra nire ispilu ankerra.

Bertan ikusten dudana itsusia da, beldurtzekoa. Nik ikusten dudana ikusten ote du Biterik ere? Erantzuna baiezkoa balitz, erraz ulertuko nuke zergatik ez didan kasu egin nahi. Nork maitatuko luke munstro bat? Inork ez, noski. Biterik badaki zerbait munstroez. Taberna batean egon beharrean unibertsitatean balego, munstrokerian doktore izango litzateke, zalantzarik gabe. Horregatik ez ote dit begiratu ere egin nahi? Baliteke. Zorioneko Biteri. Ihes egiten dit ikusi orduko.

Agurtzen dudanean, ozta itzultzen dit agurra. Burua igotzen du pixka bat eta hori izaten da dena. Edozein zakurri egiten dio niri baino kasu handiagoa. Esfingearen zakurtxo pekindar barregarri horri, adibidez. Ilezko bolatxo bat da, ia mutur eta begirik gabea, autismoraino berekoia eta zakarra. Hain txikia ez balitz, bere nagusiaren tankera bertsua luke.

Esfingea, aldiz, handia da gorpuzkeraz eta garaieraz. Ikusgarria, batez ere janzteko duen moduagatik. Atso bat da (ez, emakume zahar bat da), baina janzkera koloretsua darabil, modernoa, ia nerabe batena. Zaila da hura albotik pasatu eta begira ez geratzea. Buruak, hari begiratzeko baino gehiago, hura goitik behera aztertzeko itzultzen dira. Gizonak eta emakumeak itzultzen dira, batzuk disimuluan eta beste batzuk gabe. Emakume gehienok gaizki begiratzen diogu, baina esango nuke gizonek, batzuek behintzat, desiraz begiratzen diotela. Bera, berriz, inori begiratu gabe ibiltzen da, takoi altuko larruzko oinetako garestietatik munduarekiko uzkur. Talaia horretatik ikusten du dena, altzoan zakur mikroskopiko hori besoetan daramala. Azken aldian ez du ondo jaten, edo hoztu egin da, gajoa, esango dio entzuteko prest dagoen edonori, besoetan daukan aberetxoari musuka. Hain da

ahula, hain da gaixobera. Umetxo bat da, gaineratuko du lerdea dariola, nire bihotzekoa. Biterik ez lukeela gogoko ez baneki, barrez lehertuko nintzateke halakoak aditutakoan. Baina Biterirekin txantxa gutxi. Gizon iluna da, isila, bereziki nirekin. Lanean ari delako, seguru asko, esaten dit Marik. Haren modukoa haiz hi ere. Ezetz nik, funtsean alaia naizela, lasaia. Hemendik kanpo izango dun, ze, hemen uzkurra haiz oso. Ez dut harekin mokoka jardun nahi. Horretarako nahikoa du senarra. Alfer hori, hark esango lukeen bezala.

Alfer hori: inoiz deitu dion gozoena. Zoritxarreko Mari, horra zer esaten diodan nik, esan gabe noski. Beste kontrario bat gehituko nioke nire hemengo kontrarioen zerrenda ez motzari, bestela. Eta ez dut nahi. Gehiegi litzateke niretzat. Aurkari gehiegi, buruhauste gehiegi, zalaparta gehiegi. Bada dotoretasun kontua ere. Oihane gajoa, esaten dit hark sarritan (Biteri dela bide, gehienetan). Mari gajoa, esan ahal diot nik ordainetan. Baina isilik nahiago, orain arte bezala. Estilo kontua. Gainera, zertarako ezer adierazi? Pentsa dezala nahi duena. Egin dezala nahi duena. Badu horretarako adina. Alfer baten emaztea eta ume eder baten ama da, hiper honetako langilea izateaz gain. Jakin behar luke zertan den mundua. Badaki kaka noraino

hel daitekeen. Badaki egunero jatea ez dela hain erraza. Urdaila asetzeko premia itsusia dugu, zoritxarrez. Biziko bagara, bai. Eta denok bizi nahi dugu. Bizi, hildakoek ere bai. Edonola, baina bizi. Biziraun, behinik behin. Edonola. Eta horretarako ezin gorputza elikatu gabe utzi. Hezurrek behar dute. Larruazalak ere bai. Zelula bakoitzak. Materiak hil egin behar du, beste modu batez berpizteko. Hau da, desagertu egin behar du, berriz jaio eta ostera agertzeko. Materiak hala jokatzen du, eta gu materia gara. Materia hutsa. Marik sinesteko lanak baditu ere: Hori baino ez al gara? Zer gutxi garen, ba. Baietz nik, gutxi garela, ia ezer ez. Eta hark ezetz, nik diodana egia izanez gero, saltzen ditugun gauzak bezain gutxi ginatekeela. Horixe. Saltzen duguna baino askoz gutxiago gara eta. Argi eta garbi, nire ustez. Ikusi besterik ez dago Aspek nola jokatzen duen salgairen bat hondatzen denean. Sutan jartzen zaigu, salgai bakar horren galerak enpresa osoarena balekar bezala. Eta oso bestelakoa izaten da gure arduradunaren jarrera, hondatutakoa gutako bat denetan. Bi kasuetan kopetilun agertzen zaigu, baina salgaienean are ilunago. Horiek ordezkaezinak dira, nonbait. Gu ez. Gu hondatuz gero, zakarretara bota eta erraz aurkituko digute ordezko bana. Hemen esplota-

tua izan nahi duen jende mordoa dago bazterretan, eta badakite. Badute non aukeratu. Zerrenda luzeak dituzte, adin, sexu eta jatorri askotakoz beteta. Sarritan aipatzen digute. Beldurtzeko. Edozein arduradun edo begirale baino askoz eraginkorragoa baita beldurra. Horregatik erabiltzen dute. Lapurren aurka, noski, baina gure aurka ere bai. Lapurrak deitzen dituztenei kasu egiteko, seguritatekoak dituzte. Lapurrak deitu gabe lapurtzat gaituztenok zaintzeko, berriz, zerrendak. Zerrendak eta gu geu, esan gabe doa. Elkarren zaindari gaituzte, elkarren zelatari eta salatzaile. Musu-truk, gainera. Ordaindu, beste zerbaitengatik ordaintzen digute, errepikatzeagatik, alegia: Egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...

Horra gure lanaren funtsa: errepika eta, ondorioz, nekea. Zortzi, bederatzi, hamar orduko nekea, soldata iraingarri baten truke. Horixe dinagu, horixe baino ez, ez ahaztu. Mariren aholkuak sobera. Nahita ere, inork ezingo luke ahaztu, batez ere soldata jasotzeko oraindik pare bat aste falta direnean. Nekea, kutxan ordutan eserita egoteagatik. Nekea, bezeroen heziketa txarra eta errespetu ezagatik. Nekea, hiperreko bozgorailuetan kanta berdinak egunero entzun behar izateagatik. Nekearen nekez, nekea. Izan ere, zer ez da

nekagarria hemen? Hemen eta leku gehienetan, haserretuko litzaidake Mari: Hemendik kanpo ere zakurrak oinutsik.

Zakur guztiak ez dira berdinak, ordea. Esfingearenak, esate baterako, ozta du zerikusirik hiperreko zaborretan aztarrika ibiltzen diren zakur sasikoekin. Hark bere jabearen gutiziak jaten dituen bitartean (zabaldu ahoa txikitxo horrek, nire bihotza!), hondar ustelak marruskatu behar izaten dituzte hiper aldekoek. Letagin zorrotzak dauzkate, eta, gaitz erdi, horiei esker urra ditzakete plastikozko eta paper latzezko zorroak. Pok, aditzen da, haizea zorrotik irtetean. Ondoren alarau bortitzen bat eta lanean ari diren masail indartsuen hotsa baino ez. Goseak ezarritako musika. Zakurrak ahalik eta azkarren jaten saiatzen dira. Sabela bete eta gehiagoren bila jotzen dute hala ere. Pok gehiago entzuten dira laster, baita ezer lortu ezin izan dutenen ulu etsiak ere. Nori ari zaizkio deika? Zakur madarikatuak. Inork ez ditu hemen nahi. Traba egiten dute. Traba, janari hondarretan aztarrika ari diren dohakabeei, eta traba haiek eragindako nahaste-borrastea goizero garbitu behar dutenei, besteak beste. Zuzendaria eta arduradunak ere haserre dituzte, bezeroak ez ote dituzten uxatuko kezkatan. Langileok ez be-

zala, horiek ondo zaindu behar dituzte, orain arteko salmentak mantendu ez ezik, handitu ere egin nahi badituzte, Madrildik edo Paristik etengabe eskatzen zaien moduan. Gehiago saldu behar dugu, esaten digute, gehiago saldu behar duzue, esan nahi badigute ere. Obsesio hori dute. Bezero gehiago, salmenta gehiago, diru gehiago. Ez haztea urritzea da. Ez hazteak artaburuen zerrenda luzatzea dakar. Gainera, hipermerkatua ez da handitu behar duen bakarra. Langileok ere hazteko premian gaude. Hori espero dute gugandik. Enpresaren politika omen da. Politika horren adibiderik onena: Aspe. Biltegian hasi zen, kamioiak deskargatu, salgaiak pilatu, ordenatu eta halakoak egiten. Biltegitik dendara pasatu zuten gero, eta han apalategi hustuak atzera betetzen jarri zuten. Hortik aurrera geldigaitza izan zen haren igoera, bizkor-bizkorra. Apalategietatik kutxetara eraman zuten, eta bertan erakutsi zion zuzendaritzari ez zirela oker bera aupatzea erabakitzean. Hala iritsi zen arduraduna izatera. Gurea.

Aspe harro dago bere ibilbideaz: Nik egin badut, zuek ere egin dezakezue. Hori esan gabe ere, horixe adierazten digu ahal duen bakoitzean. Eta ez dabil oker, bere bidea baita enpresa honetan igotzeko bide-

rik zuzenena. Zurubi bat da, mailaz maila igo beharrekoa. Mailak lankideak dira. Horietako bat zapaldu eta hurrengoan ipini behar da oina, indar egin eta gora egiteko. Erraza da. Aspek gogorarazten digu: Gogor lan egin eta eman eskatzen zaizuena. Lan egin eta eman, beraz. Zerbait jasotzeko, aurrena eman egin behar. Formula ederra, benetakoa balitz. Batzuetan, eman bai, baina jaso ez da ezertxo ere jasotzen. Neure eskarmentuagatik diot hori, dena emanda ere, esku hutsik geratu eta gero. Behin baino gehiagotan gertatu zait. Hala ere, hori baino askoz okerragoa iruditzen zait eman nahi eta inork hartu nahi ez izatea. Biterirekin hori gertatzen zait. Hari edozer emateko prest ni, eta hark hartu nahi ez. Amorragarria. Ez hartu, ez eman: ezer ez. Haren esku balego, begiratu ere ez lidake egingo. Zorionez, taberna batean halakorik ezin egin. Nahitaez ni ikusi behar. Begietan min hartu arren. Tabernaren jabea bera balitz, ez ninduke harrituko sarrera galaraztea. Begitan nauka. Nik dakidala, inongo arrazoirik gabe nauka begitan, nolatan ezin ulertu. Beharbada ez zaio nire itxura gustatzen, edo, nik jakin gabe, gaizki-ulerturen bat gertatu da bion artean. Ez ninduke harrituko.

Gaizki-ulertutan aditua naiz, batez ere amari dagokionez. Zenbat ez ote dut harekin izan? Nahi baino gehiago. Beldurrez bizi da. Horrek zailtzen du dena. Bereizten gaituen horma da haren beldurra. Bizitza hondatu dio. Eta neuri ere hondatuko zidan, utzi izan banio. Baina ez nion utzi. Libre izan nahi nuen. Libre?, muturra okertu zidan Marik, amarenetik zergatik eta nola alde egin nuen kontatutakoan. Libre izan nahi nuen, bai, nahiz eta hemen bukatu. Paradoxa mingarria: zapalkuntzaren etxera askatasun bila etorri. Mingarria ez ezik, dibertigarria ere bada. Amarentzat bai, behintzat. Ondo gogoan dut zer esan zidan hiperrean hartu nindutela kontatu nionean. Haren etxeko sukalde ezin modernoagoan geunden, robot, labe pirolitiko eta beste hainbat trepetaz inguratuta. Nespresso bat eskaini zidan, telebistako iragarki batean bageunde bezala. Bere kezka agertu zidan orduan: moldatuko ote nintzen handik kanpo? Ez dakizu ezer egiten, bizitza liburu artean pasatu baino ez. Moldatuko naiz, ama, ez larritu. Moldatu, zu, filosofo bat? Horrekin ez dago jaterik. Eta nik: Horregatik etorriko naiz robot berrian egiten dituzun gutiziak jatera. Ez zidan ironia ulertu, eta bere etxera ez itzultzeko eskatu zidan. He-

mendik bazoaz, benetan zoaz, betiko zoaz, ez itzuli orain duzun dirua xahutu bezain pronto. Aditu?

Aditu.

Gorrotatu egiten dut galdera hori. Nirekin hizketan ari denak lelotzat hartzen nauela ematen du aditzera: Aditu? Tamalez, amak ez ezik, beste askok ere badarabil hitzetik hortzera. Aspek, noski, baita unibertsitatean behin-behineko irakasle dabiltzan nire garai bateko ikaskideek eta Marik berak ere. Sasi filosofo, sasi irakasle horietako batzuek galdera hori erabiltzen dute, haiek dauden lekura iristeko hainbat aholku emandakoan. Haiek dauden lekura! Non daudela uste ote dute? Batzuek badakite hiperrean lan egiten dudala, eta ia zoriondu egiten naute, hain toki niretzat egokian esplotatua izateagatik. Badakizu, esaten didate, zure doktoretzarako: jauna eta esklaboa eta hori dena. Bai, hori dena. Unibertsitatean jaun eta esklaborik ez balego bezala. Hipermerkatu batean baino askoz gehiago dago, ni bezain neskame-morroi dira. Begirale eta arduradunak izan ordez, tesi-zuzendariak eta behin betiko irakasleak dituzte. Bezeroak ere badituzte, gero eta gutxiago izanagatik. Antzera gertatzen omen da hiperrean ere, nire harridurarako, nire kutxako jende ilara ez dela sekula bukatuko iruditzen bai-

tzait. Krisia beste kontu batzuetan nabaritzen da. Jendeak erosten dituen gauzetan. Kantitatea ez da aldatu, kalitatea bai. Lehen litro bat olio erosten zuenak kantitate bera erosiko du orain ere, olibazkoa izan beharrean, ekilorezkoa. Horretan nabaritzen dut nik krisia. Batez ere horretan. Gero lapurrak daude, baina horietaz seguritateko zaintzaileak arduratzen dira. Tamala filosofiaren azokan zaintzailerik ez egotea, nire adiskide horiek guztiak kanporatzeko. Barregarriena, hala ere, hiperrean lan egiteko nire ustezko arrazoia da. Landa lana egiten ari naizelakoan daude hainbeste maite omen nauten horiek. Aspaldiko adiskide xaloak. Ez al dute beraiek ere alokairua hilero ordaindu behar? Ez al dute jan eta jantzi behar? Behin ere ez al dute zinemara edo tabernara joateko gogoa? Beharbada zonbiak dira. Beharbada denok gara zonbiak.

Batzuetan biziak osotoro hilda daude. Eta hilak, aldiz, bizi-bizirik. Horietako bat da gogoratzen ez dudan aita. Bizirik dago nigan, galderak egiten hasi nintzenetik. Jakin-minaren eztena nabaritu orduko, hartaz galdetu nion amari. Zeruan omen zegoen eta hori bide zen jakin behar nuen oro. Zeruari begiratzen nion nik orduan, eta ederki zapuztuta geratu ohi nintzen, han goian haizeak bultzatutako hodeiak besterik

ez bainuen ikusten. Hodei horien atzean irudikatzen nuen aita, irribarrez niri begira. Gero, bizitzak zauritu eta ordura arteko ipuinak barregarri bilakatu zitzaizkidan. Ipuinik gabe nola bizi, ordea? Hasieran posible zela uste nuen, baina laster ezetz, ezinezkoa zela jabetu nintzen. Hutsune handi bat nabaritzen nuen nire baitan, beste ipuin batzuek bete beharrekoa. Zein ipuinek? Horregatik aukeratu nuen filosofia. Makina bat zalantza nuen. Nire jakin-mina mugagabea zen. Funtsezko galderak iruditzen zitzaizkidanak nerabiltzan etenik gabe. Inguratzen ninduenaren zergatia ezagutu nahi nuen, ulergaitza zitzaidan mundua pixka bat ulertu. Argi izpi bat behar nuen iluntasun hartan. Izpi bat gutxienez. Eror ninteke betiko zoriona eskaintzen duten saltzaile esoteriko horietako baten eskuetan, eta edozein txorakeria salbabidetzat har nezakeen. Izpi hori, aldiz, liburuetan bilatu nuen. Bilatu bai, aurkitu ez. Munduaren iluntasuna altzairuzkoa da, gotorra, eta, saiatu nintzen arren, alferrikakoak gertatu ziren nire saiakera guztiak. Arrazoiaren argia ez zen nahikoa. Beste zerbait behar zen. Erraz esaten da, gero: beste zerbait. Hasieran, irakasleengan aurkitu nahi izan nuen faltan nuen zorioneko zer edo zer hura. Ezjakin galanta ni, haiengandik irribarre ziniko, dog-

makeria eta harrokeria franko eta afaltzeko gonbidapenen bat baino ez nuelako jaso. Kaka egitera bidaltzekotan egon nintzen, baina, artean bilatzen ari nintzen lana aitzakia, arazorik gabe egin nien iskin. Zentzudun jokatu nuen behingoz, nire doktoretzako epaimahaian nazkante horiek egongo zirelako eta, nahi izanez gero, ederki har lezakete mendekua.

Herrschaft und Knechtschaft.

Modu berean jokatu nuen, unibertsitatean jarraitzea erabaki nuenean, lizentzia eskuratu eta gero. Erabaki zaila izan zen, hausnarketa luzea behar izan zuena. Alde batetik, unibertsitateak eragiten zidan egonezina zegoen. Beste aldetik, ordurako ikusten hasita nengoen errealitate gordina. Tirabira horretan errealitate printzipioa nagusitu zitzaion nire askatasun gogoari. Unibertsitatetik irtendakoan, langabetuen ilara bukagaitzaren azkenak bihurtzen gara ni bezalako lizentziadunok. Horrenbeste banekien. Banekien moduan doktoretzako ikastaroa eta abarrekoak amak (hau da, amaren senarrak) ordainduko zizkidala. Dena zoragarria, beraz. Arazo bakarra: ito egiten nintzen amarenean, Sixtok ni alabatzat jo arren. Gozo hartzen ninduten biek (gozoegi), eta hori eramangaitza zitzaidan. Handik kanpo behar nuen lehenbailehen. Baina

garestiak dira alokairuak, egunkaria zabaldu eta laster ohartu nintzenez. Dirua behar nuen, neure dirua. Nondik atera? Egunkari beraren orrialdeetan hasi nintzen bila. Boligrafo gorriz markatu nituen interesgarriak, bospasei. Telefonoa hartu eta hots egin nien. Antzeko erantzunak jaso nituen: berandu ari nintzaien deika, iragarkian eskainitako lana jadanik hartuta zegoen. Ez dakit zenbat aldiz errepikatu behar izan nuen egun hartakoa. Goizero, gosaldu, amari egunkaria eskuetatik kendu eta iragarkiak aztertzen nituen etxe hartatik aterako ninduen lanaren irrikan. Orduak ematen nituen horretan. Telefonoz deitzen nuen, mezuak bidaltzen nituen.

Behin eta berriz.

Behin eta berriz, inoiz amore eman gabe. Hala ere, hiperraren berri beste bide batetik heldu zitzaidan. Garai batean fakultateko tabernan lan egindako neska batekin topo egin nuen kalean eta, honetaz eta hartaz hizketan ari ginela, aipatu zidan. Saiatzeko esan zidan, lehenbailehen joateko. Horixe egin nuen. Autobusa hartu eta hona azaldu nintzen. Norbaitekin hitz egin behar izatea espero nuen, baina paper batzuk eman zizkidaten. Nire datuak eta ordura arteko nire ibilbidea jakin nahi zituzten. Kontu handiz bete nituen,

galdera guztiak ondo pentsatuz, edozein erantzun nire asmoetarako oker kaltegarria izan zitekeela jakitun. Nire ustez egiaztatzeko zailak ziren datuak eman nizkien, lan txikiak eta urrunak asmatu nituen, eta erabat isildu nizkien Filosofia ikasketak, badaezpada ere. Emakume gazte, baina lanean zaildua azaltzen ahalegindu nintzen.

Eguerdi batean hots egin zidaten, biharamunean hona etortzeko esanez. Bezeroek hustutako apalategiak atzera betetzen jarri ninduten. Lana erraz bezain aspergarria zen, bakarka egin beharrekoa. Horretan aritzen ginenetariko bakoitzak hiperreko zati banaren ardura zuen. Argia zen agindua: hutsunerik ez apalategietan. Hortaz, bezeroek erabiltzen zituzten orgatxoetariko bat hartu, biltegira joan eta salgaiez bete behar genuen. Behin eta berriz.

Salgai gehienak astunak ziren (metalezko potoak, kartoizko kutxa handi sendoak...), halakoak jasotzen ohitura ez zuen ni bezalako norbaitentzat. Eguneko lehen orduetan arazorik gabe aritzen nintzen, baina handik aurrera sufrimendu hutsa zen. Beso-eskuak orbaindu eta zaurituta, lepo-bizkarra harri bihurtuta, ahalegin mingarriak egin behar izaten nituen lanean jarraitzeko.

Hasierako egunak izan ziren okerrenak. Pott eginda etxeratzen nintzen, hain birrinduta, non telebista pareko sofara jo behar bainuen berehala. Amarenean nengoen artean, eta entzutekoak ziren haren hasperenak, bere alaba maitearen egoera penagarria ikusita. Egun gutxi batzuetako kontua izango zela uste nuen orduan, baina, egunak igaro ahala, luzerako nuela ohartu nintzen. Hala, hiperretik itzuli eta estreinako egunaren zeremonia errepikatzen nuen iluntzero, amaren etsipenerako. Etxeko atea nire atzean itxi eta dutxapean jartzen nintzen, hiperretik ekarritako zikinkeria guztietatik libratzeko premian egongo banintz bezala. Ur beroak laguntzen zuen, baina ez nire azaleko zentimetro bakoitzean pilatutako nekea deusezatzeko beste. Badakizu ez duzula inongo lanik egin behar, gogorarazten zidan amak. Esaldia hor bukatzen zuen, etxe honetan zauden bitartean esanez bukatu ordez, horixe izanik benetan hark adierazi nahi zidana. Banekien, lehen soldata jaso orduko handik alde egingo nuela nekien bezain ondo. Pikutara bidal nezakeen, eta egin ez banuen ez zen gogo faltaz izan, indar ezaz baino. Lagunak-eta astebururako utzi behar izan nituen, astegun buruzurietan etxean geratzeko baino ez bainuen gogorik. Lana nekagarria zen,

baina dezente ari nintzen ikasten. Unibertsitatean baino gehiago. Ordura arte teoria hutsak zirenak errealitate fisiko bilakatu zitzaizkidan. Nire gorputz osoa laborategi bat zen, liburuetan ikasitakoak egiaztatzeko balio zidana. Alienazioa, besterentzea. Nekearen nekez, beste bat nintzen, neure izen eta itxura berberak izanagatik ere, arrotza, are gorrotagarria zitzaidan beste bat. Liburu interesgarriak ahaztuta, alferkerian eta telebistari begirik kendu gabe sofan hondoratuta zetzan alproja hark ezin nirekin zerikusirik izan. Inolaz ere. Bazuen, ordea. Nekea nitaz jabetua zen guztiz. Harena zen nire gorputzaren zelula bakoitza. Eta haren arauak estuak ziren. Lasaitasun erabatekoa derrigortzen zuten, eta edozein mugimendu, txikiena ere, eragozten. Horregatik sofa eta horregatik ere telebista eta haren mantra etengabea: dena salgai, dena salgai, dena... Umontzi epel batean egotea bezalakoa zen, likido amniotikoz inguratuta. Nekearen neskamea nintzen, eta nahi zuen guztia egin zezakeen nirekin. Beste inori onartuko ez niokeena ere bai. Pentsatzen eragoztea, adibidez. Nire gorputz osoaren jabea nire garunarena eta haren pentsamenduena ere bazen, eta hori zela medio onar niezaiokeen beste inori onartuko ez niokeena. Edozein zerrikeria. Okazta-

garria irizten nien reality-en adikto bilakatu nintzen laster. Besteen min eta saminek neureak arintzen zituzten, nolabait. Lagun hurkoaren sufrimendua mugagabea da, eta egunero izaten nuen zer aukeratu. Maitasun falta izan ohi zen gehien sufriarazten ziena telebistako emakumeei. Gizon gihartsu ergel baten arretaren truke edozer egiteko prest egoten ziren emakume haiei. Emakumea barregarri uzten zuten emakume haiei. Hi ere hala ibiltzen haiz zahar nazkante horren atzetik, esango zidan reality-zale ere den Marik. Ez zen lehenengo aldia izango. Ezetz nik beti, ur sakonetan sartzeko gogorik gabe. Ezetz, azalpen luzeetan nekatzeko kemenik gabe. Zer axola zitzaion inori nire sexu bizitza? Hobeto esanda, nori axola zitzaion sexurik gabeko nire bizimodua? Orduan, orain bezalaxe, zerbait urruna baitzen sexua niretzat, nahiz Marik kontrakoa uste.

Benetako bizitzak ozta du antzik telebistan ikusten diren zozokeriekin. Benetako bizitza benetakoa da: zuzena, gogorra eta itxurakeriarik gabea. Benetako bizitza ez dago aldez aurretik idatzita, ez du gidoirik. Benetako bizitzan ezin da atzera joan eta okerrak zuzendu. Gehienez, amak egindakoa egin daiteke: bizitakoa madarikatu eta sekula ez dela bizi izan sinetsi. Fikzio

bat sortu eta horren barruan eroso bizi. Horretarako, ordea, ahaztu beharra dago, eta denok ez gara hori egiteko gauza. Ni ez, behintzat. Sekula ezagutu ez nuen aitaz ere gogoratzen naiz. Batez ere, hartaz gogoratzen naiz. Beste fikzio bat, agian. Edonork esango zuen hori, umezurtz jaio nintzela jakinda. Badirudi fikziorik gabe ez dagoela bizitzerik. Hau da, gezurrik gabe. Beharbada gure espeziearen funtsezko premia bati dagokio. Beharbada egiaren argitan, egia osoaren argitan ez legoke bizitzerik. Latzegia litzateke gure planeta honetan bizirautea. Baliteke oso bestela gertatzea eta egiak hainbat ohitura anker eta zurikeria astun alferrikako bihurrarazi eta horietatik askatzea. Auskalo. Edozein modutan, halako kontuak erabili ohi nituen nire artean, hiperreko apalategiak bete bitartean. Kontu zaharrak, aspalditik gogoan zirika neuzkanak. Horretan ari nintzela, bezeroen berriketak entzutea gertatzen zitzaidan askotan. Berez, bost axola zitzaizkidan. Ez nituen aditu nahi ere, baina aditu egiten nituen. Argi eta garbi, fikzioak kontatzen zizkioten elkarri. Gizon izan zein emakume, denak aritzen ziren horretan. Seme-alabez, lanaz, oporrez edo beste edozertaz ari zirela, berdin gezurretan ari ziren. Hitz erdika edo ozen, komeni bezala itxuraldatzen zuten edo-

zein kontu. Fikzioak bizi zituen. Eta fikzioak bizi ninduen neu ere, besteak beste, hizketan aritutakoak bereizi eta nigandik urruntzen zirela, haien bizitzak irudikatzeari lotzen bainintzaion. Hizkerari eta janzkerari erreparatuta, erraz antzera asmatzen nien historia bana, tomate poteak edo sardina latak pilatzeari inoiz utzi gabe. Nire baitan fikzioa nagusitzen zitzaion filosofiari, eta, ordura arteko hausnarketak bat-batean bazter utzita, bezero haien balizko bizimodu eta izaera arruntak beste zerbait bilakatzen ziren fikzionatzearen fikzionatzez. Zerbait adierazgarria, zerbait interesgarria egunerokotasunean. Denbora-pasaren bat behar izaten da hemen ez erotzeko. Ekintza bera, mugimendu eta keinu berak behin eta berriz errepikatuz, edonor ero baitaiteke. Derrigorrezkoa da ihesbide bat, arnasa hartzeko zirrikitu bat, gutxienez.

Gorputzak ez du fikzionatzen, ordea. Egia baino ez daki. Bere egia, noski, plazerezko, oinazezko edo nekezko egia erabatekoa. Minduta badago, zaurituta badago, ezin du itxurarik egin. Apalategi batetik bestera mugitzen diren gorputz horiek (trakets, motel edo zalu, urduri edo premia handirik ez duenaren patxadaz) beren egia aldarrikatzen dute, hitzen beharrik gabe. Modu berean gure gorputzek, langileon gorpu-

tzek, beren egiarik barnekoenak barreiatzen dituzte. Kutxa baten atzean babestuta edo korridoreetako babesgabetasunean, gorputz horien geografia argia da, ezin zehatzagoa. Dena bistan da. Jantziak gorabehera, dena bistan. Zauriak ezin dira ezkutatu, nahiz eta hamaika alkandora, hamaika jaka edota beroki jantzi. Oihalak alferrikakoak dira orbainak ezkutatzeko. Guztiz gardenak balira bezala, agerian uzten dute dena. Ebakiondo edo ubeldu, seinaleak hor daude, ezabaezin. Gorputzaren egiak. Oinetako krokodilo larruzkoak izanagatik ere, ezin inoren herrena desagerrarazi. Eta atorra zetazkoa izanagatik ere, nekez leunduko du hamaika aldiz urratutako larmintza. Markak, behin eginez gero, betiko dira. Juduak gara denok. Zenbakiak daramatzagu eskumuturrean, nire eskuetatik igarotzen den gauza bakoitzaren antzera. Uneoro eskaneatu ahal gaituzte. Garen guztia kode horretan dago. Zero asko. Dena eta ezer ez. Gorputzaren egia. Juduak gara denok. Edo palestinarrak.

Harrigarria zein erraz bilaka daitekeen menperatua menperatzaile, zapaldua zapaltzaile. Egunero gertatzen da. Edonon. Edozer dela medio. Gainean dagoena azpian egon daiteke, konturatzerako. Ez da oso sarri gertatzen, baina gerta daiteke. Horixe gertatu

omen zitzaion Joxe Goietxeri, Iturri tabernaren jabea ere badenari. Amari entzun nion: Gixajo bat bizitza osoan eta begira orain. Miresmenez esan zuen amak hori, aberats berriei dien ezinikusi niretzat ulertezinaren arrastorik gabe; azken batean, nor ama baino aberats berriagorik? Hollywoodeko film baten heroia zirudien Goietxek, amaren hitzetan, lan gogorraren bidez erpinera iritsitako gizon adimentsu bulartsu bat. Egunkarian ikusi, hasperen egin, ezkerreko eskuaz ilea atzera eraman eta, gaztetan ezagutu zuela aipatu ondoren, harritu egiten da gixajo haren bilakaera ikusgarriaz. Nork esango zuen orduan? Galderak egiteaz gain, horien erantzunak ere ematen ditu amak: Inork ez. Egun osoa tabernetan ematen zuten haietako bat, ez besterik. Zu ere han egongo zinen, ba, bestela nola dakizu hura non egoten zen? Horixe galde niezaiokeen eta horixe gorde nuen nirekiko, alferrikako kalapita baten beldur. Banekien zer esan behar zuen, gainera. Hamaika aldiz aditua nintzen bere gazte garaiko kontuak. Kontu haietan, aldiz, gutxitan agertzen zen aita, nik nahi baino gutxiagotan behintzat. Galdetu egiten nion, noski, baina laburrak izaten ziren haren erantzunak, sekula ez nik nahi bezain luze eta argiak. Kontu mingarria zen amarentzat, aspaldikoa, eta hobe ge-

nuen, hobe dugu oraindik, isilpean. Horregatik isiltzen naiz, amari minik ez eragitearren. Horregatik eta denbora galtzea litzatekeela ondo baino hobeto dakidalako.

Denbora alferrik galtzea. Barregarria. Bizitzea bera ez ote da osoki denbora galtze izugarria? Hil behar dugula dakigun unetik ez ote da hala? Funtsezko galdera filosofikoak, dudarik gabe, gizon-emakumeok pentsatzeko gai garenetik errepikatu direnak. Behin eta berriz. Saihetsezinetan saihetsezinena. Hiper bateko kutxazain batentzat ere bai. Mota askotako paketeak, botilak eta latak nire eskuetatik igarotzen diren bitartean, pentsa dezaket horren gainean eta beste makina bat konturen gainean ere, denbora motel pasatzen baita hemen, kobratu beharreko salgaiak eskuratzen dizkidan garraio uhala bezain. Ezer ez da musu-truk ematen, ez hemen, ez beste inon, dena ordaindu beharra dago. Beharbada horixe adierazi nahi dit amak, hitz egokiak aurkitzeko lanak baditu ere. Beharbada horretan datza haren bizitzaren sekretua, jokatzen duen bezala jokatzera behartzen duen funtsezko arrazoia. Auskalo. Behin baino gehiagotan saiatu naiz hori dena argituko lukeen erantzuna aurkitzen, baina ez dut hori eragingo zukeen galdera

egokia asmatu. Ez, ez dut asmatu, ez amaren kasuan, ezta beste inorenean ere. Begirada garbiaz ahalegintzen naiz edozeri begiratzen, hura ikusiko nukeen estreinako aldia balitz bezala. Baina, bai zera, beti suertatzen zait begirada lohitzen didan zerbait. Aurreiritziak, beldurra... Denetarik. Ordaindu beharrekoa? Baliteke. Batzuetan, amak ordaindutakoa irudikatzen saiatu naiz, dakidan apurrarekin, haren gaztaroa osatzen. Ezin esan lortu dudanik. Haren gainean dakizkidanak gutxi dira eta ez bereziki sinesgarriak. Bere buruaz zer edo zer aipatzen duen bakoitzean, beste norbaitez arituko balitz bezala aritzen baita ama. Urruntasun berberaz. Salbuespenik gabe bukaera zoriontsua duen istorio baten protagonistatzat hartzen du bere burua. (Inoiz izan ez dudan) aitari buruz galdetzen diodanean ere bai. Garrantzirik gabeko pasadizoak kontatu, modu bertsuan amaitzeko beti: Eta orduan zu iritsi zinen. Horra gakoa, horra esaldi sorgina, horra guztiaren hasiera eta bukaera. Zu iritsi zinen, hau da, ni neu iritsi nintzen. Funtsezko gertakizun horrek muga bat jartzen bide dio amaren bizitzari. Beste edozein amarengan normala litzatekeen hori, normaltasunetik harago doa neure amaren kasuan nonbait. Nire munduratzeak bereizten omen ditu haren bizitzaren

alde biak: gogoratu eta ahaztu nahi dituenak. Gazte eta zoroa zenekoa, eta ama eta, beraz, emakume arduratsu eta zoriontsu bilakatu zenekoa. Edo, beste modu batez adierazita, haren bizialdian bi aro zeuden, lotsatzen zuena eta harrotzen zuena. Edo, areago, nire benetako aitari lotutakoa bata, eta haren benetako senarrari (bakarrari, nire aitarekin ez baitzen inoiz ezkondu) dagokiona bestea. Horrelaxe bana daiteke haren bizitza orain arte, baina, nahi izanez gero, badira beste modu batzuk ere. Esaterako, langile baten alaba zenekoa, eta oraingoa, konfort burgesez betetakoa. Txorakeriak, moztuko luke amak nire pentsamenduen haria. Ezagutzen dut, ordea, eta sekula ez diot halako konturik aipatu. Nerabe konformagaitza nintzenean ere ez (utzi ote diot inoiz nerabe izateari?). Ez nintzen horren inozoa. Ordurako, behin baino gehiagotan ohartarazi nahi izan ninduen benetako bizitza zeritzonaren arriskuaz, eta banekien nolako beldurra zion politikari. Ia sexuari ziona bezainbeste. Nire garunaren zein nire aluaren birjintasuna zaindu nahi zuen, kosta lain kosta. Damututa dagoelako, ziur aski. Azken batean, zer naiz ni, amak aitarekin birjintasuna galtzearen ondorio zuzena ez banaiz? Amak hala azaldu zidan, nire sortzeari buruzko xehetasunak jakin nahi

izan nituenean. Hasieratik azaldu zidan modu berean: Nire lehendabiziko mutil-laguna izan zen, harekin batera deskubritu nuen ordura arte arrotz zitzaidan mundu bat, gure etxean ez bezala, askatasuna ia erabatekoa zen mundu zoragarri bat. Sekulakoa izan zen. Sekulakoa, politikak aurrena eta drogak geroago mundu libre hura suntsitu zuten arte.

Droga: politika eta sexuarekin batera, apokalipsiaren hirugarren zalduna, amaren hitzaldi haietan. Droga: auskalo zergatik, inoiz izugarri erakarri ez nauen zerbait. Jakina, txirri batzuk erre ditut eta koka lerro batzuk ere sartu ditut tarteka, jai, parranda eta halakoetan, baina burua galdu gabe. Sudurra hautsez betetzekotan, taberna bateko komunean egingo nuke nik, inolaz ere ez hiperrekoan. Ez dun hainbesterako, esan zidan Marik behin, beste batzuek kafea edaten diten, ura izango balitz bezala. Berehala ulertu nion. Nitaz ari zen, kafearena baitut menpekotasun nabarmena. Koka eta kafea alderatzeari gehiegizkoa iritzita ere, burua makurtu eta berriketan jarrai zezala utzi nion. Ez dago besterik, Mari harrotzen denetan. Ezin jarioari trabarik jarri. Hitz egin dezala, beraz, bota ditzala barruak nahasten dizkioten goganbehar ustelak, betikoak: haurdun geratuz gero, lanik gabe geratuko

ote den; haurdun geratuz gero, gizonik gabe geratuko ote den. Beldur horrek janda bizi da. Berriz ama izan nahi luke, baina jakitun da horrek lekarkiokeenaz. Kale gorrian ikusten du bere burua, ume jaio berri bat besoetan eta beste bat, koxkorragoa baina oraindik txikiegia, ondoan, lanik eta etxerik gabe; eta ikaratu egiten da. Ez niregatik, esaten dit, Aitor eta umetxoagatik baino. Hori esaten dit, bere beldurrak azalpen bat behar balu bezala. Aitor bere lau urteko semea da, eta nahikoa, haren aitaren iritziz. Etxetik botako ninduke-nan. Argi esan zidanan. Aitorrekin bakarrik estu eta larri ibili eta hik beste bat nahi. Zoragarria! Horixe esan zidanan. Gauza gehiegi esaten du bere Adolfok. Mariri sinestera, eta nik sinetsi egiten diot, haren mehatxua ez da txantxetan hartzekoa. Serio ari zaio. Bere ama alargunaren etxera itzuliko litzateke, eta bakea. Eta hark pozik hartu ere, sekula ez naizelako haren gustukoa izan. Bere Adolforen gustukoa ote den edo inoiz benetan izan ote den galdetuko nioke Mariri, galdera hori mendekutzat hartuko lukeela ez baneki. Nire mendekutzat, berak Biteriz behin baino gehiagotan adierazitakoak direla eta. Oker da. Zirikadak, probokazioak entzun dizkiot, baina aintzat jo ez, eta harekin ika-mika batean sartu baino, nahiago izan dut

isildu, eta onartu itxura egin. Uste duela Biterik larrutan egiteko baino nahi ez nauela? Ederki. Pentsa dezala nahi duena. Pentsa dezala nik neuk ere pentsatu nahi nukeena, inolaz ere ez –eta tamalez– pentsatu ezin dudana. Pentsatu ez, desiratu bai. Behin eta berriz desiratu, haren sexu harroa irudikatu, nirekiko desio amestuaren froga. Irudikatu, ez gogoratu. Irudikatu, ezer gutxi dagoelako gogoratzeko. Eta horixe egiten dut, ezinezkoa da-eta gertatu ez dena gogoratzea. Gertatu behar zuena eta sekula gertatu ez zena. Horregatik da irudimena geratzen zaidan bakarra. Nire desiraren irudimena. Nire desira zapuztuaren kontsolamendu bakarra. Talka egiteko eta, beraz, mundu bat, historia bat sortzeko gaitasunik gabe, beste desira bat aurkitu ezean, muzinduta. Halako gogoeta hegeliarrek laguntzen didate bertan saltzen dudan denbora pasatzen. Pasatzea baita kontua, azken batean. Orduak pasatzea, egunak pasatzea, salgaiak eskanerretik pasatzea. Edozer. Makina bat kontu pasatzen da edonoren burutik, halako ordu luzeetan. Gaur nire aurretik pasatu diren bezeroak beste, gutxienez. Edozer. Gogoaren, desiraren bideak bihurriak dira, betiere harrigarriak. Esaldi xume arrunt eta, itxuraz, guztiz garrantzirik gabe bat nahikoa izan daiteke:

Eta orduan zu iritsi zinen.

Bost hitz. Nahikoa. Bost hitz eta hamaika aukera. Adibidez, esaldia ama baten ezpainetan kokatuta, damuz bete daiteke istorioa. Izan zitekeen eta inoiz izan ez zenaren damua, edo, bestela, izan bai, baina izan behar ez zuenarena. Nondik begiratzen zaion. Irudimenari ahalegin izugarririk eskatu gabe irudika dezaket esaldi bera Biteriren ahotan, niri begira esanda: Eta orduan zu iritsi zinen eta dena aldrebestu zenuen, dena nahastu, dena hondatu eta zapuztu. Horixe egin zenuen. Bai, erraz antzean entzun ahal dut Biteriren purrustada, hitzetan inoiz eman ez didana, baina urrunetik, begiradaz askotan jaurtiki didana. Zoaz, utzi bakean, ez dakit zer nahi duzun. Musikaren eta tabernako bezeroen berbaro trinkoa baino ozenago entzun ditzaket horiek guztiak, Biteriren begietatik irten orduko. Ni jo eta belarrietan lehertzen zaizkit, mingarri. Hain mingarri, non, zenbaitetan, belarrietara eraman behar izan baititut eskuak, odoletan ote dauzkadan. Horren beldur edo gehiago aditzearen beldur, agian. Nik beste zerbait aditu nahi dut, zerbait gozoa, zerbait atsegina, ez zakur amorratu baten zaunka. Amets barregarria, Biteri babesten duen oskola zein gogorra, zein hautsezina den jakinda. Oskola diot, batzuetan

Iturrin sartu eta sarreratik urrunen dagoen barraren muturrean ikusten dudanean, handik begiratzen didanean, dortoka zahar bat iruditzen zaidalako, mesfidatia, heldu berriak (neuk) zauritu nahi balu bezala. Nik, berriz, zauri bakarra eragin nahi nioke, ni odolusten ari den berbera, desioarena. Horixe opa diot, hori soilik. Ausardia galanta nirea, hala ere, ez bainago inori ezer opatzeko moduan. Neskameak bere lana (bere gorputza) baino ez dauka bere jaunari eskaintzeko, eta nik, zerbait egin badut Biteriren arreta erakartzeko, hori izan da, neure gorputza eskaini, hiperrari egunero eskaintzen diodan bezala. Hari, ordea, dohainik eskaintzen natzaio, haren eskuetan utzita ni non, noiz eta nola hartu. Besterik egin al dezaket? Baliteke, baina ez dakit zer. Biteri gizon kementsua da, nahiz eta itxuraz ahul samarra izan. Dagoeneko hainbat bider hil denez (berak aitortu zidan, gure gau sorgindu, gogoangarri, bakar hartan), ez da heriotzaren beldur, neu bezala. Horri esker da indartsua, horri esker da nire jaun eta jabea, horri esker umiltzen dut behin eta berriz neure burua, egiten ari naizenaz guztiz ohartuta. Ezinbestean, ezer gutxi egin dezake-eta neskameak bere jaun eta jabearen aurrean. Ezer ez. Zain egon

baino ez. Zain egon, haren ezpainetatik azkenik erori arte gauero amestutako esaldia:

Eta orduan zu iritsi zinen.

2

Aspertuta nagok, hor ipintzen duk, barra amaitzen den zokoan, bakarrik, zurito triste baten aurrean, egonean edo, okerrago, niri begira, hamaika gaixotasun dudan zahar alproja honi begira egon ordez, gazte mardul gihartsu eder bati begira egongo balitz bezala, kirolari famatu bati, koloso bati, nik al dakit, eta isilik baina oihuka aritzen zaidak, dauzkan begi lainotsu horiek bitarte, bere ustezko maitasuna niri muturrera botatzeko, to, zakil nazkante horrek, to inolaz ere merezi ez duana, maitasuna, horixe hitz larria, hitz kriminala, biok ondo dakigunez, maitasuna, kantu baten leloa, benetakoa sekula ezagutu ez dutenentzat, dutxatu bitartean oharkabean txistukatzen den zerbait, oi maitasuna, zer ote daki horrek maitasunaz, neuk esango diat: batere ez, horixe duk, emakumetxo gehiegi irakurri eta buruiritzi horrek maitasunaz dakiena, berak oso bestela uste badu ere, ikasiko dik, horixe ikasiko duela, buruiritzia duk, ez duk inozoa, kontrara, argia duk, filosofoa, intelektual bat, hi hintzen modukoa, eta ez ezetzik esan, horixe hintzen eta, hik beti ukatu arren, liburuak irakurtzen hituen bata bes-

tearen ondoren, batzuetan barre egiten genian, baina inbidiatan gintuan, guk ere nahiko genukeelako hi bezain zorrotza, jakintsua eta hiztun egokia izan, traketsak gintuan ordea, batik bat neu, sekula ez naizelako hitzekin moldatu, edalontziak eta kikarak baino errazago labaintzen zaizkidak atzamarretatik, zerbait esan eta ziplo erortzen zaizkidak, edozein beira edo loza bezain hauskor, mila puskatan hautsita, ezertarako balio ez dutela, hire ahotan indar osoa duten hitzak, hitz berberak, gezak, ahulak, tentelak bihurtzen dituk nirean, ezin zieat neurria hartu, gehiegi hitz egiten diat edo, bestela, gutxiegi, edozein modutan desegokiro beti, narras, zer kontatuko diat hiri, muturra berotzen zaidak eta hor hasten nauk, hitz eta pitz, harrokeriak edo izuak bultzatuta, berriketa zoro bati lotzen natzaiok, gehienetan ondorio tamalgarriak izaten dituena, hik beste inork baino hobeto dakianez, hitzak arriskutsuak dituk, kontu handiz erabili beharrekoak, drogak eta pistolak bezala, zauritu zezaketek, hil ere egin zezaketek, eta pozoitsuak izan daitezkek, horregatik horiek menderatzea ez zagok edonoren esku, nik inoiz izan ez dudan argitasuna behar duk, hitz bakoitzak eragin dezakeenaz jakitun izan, hitz bakoitzaren balioaz eta indarraz, eta hitz asko zagok, mota asko-

takoak, mailu-hitzak zaudek, labana-hitzak zorrotzak, suzko hitzak eta izotzezkoak, denetarik, eta horietako bat nahikoa duk, atzera egiterik izango ez duen hondamendiren bat eragiteko, zoritxarreko gaizki-adituren bat, oharkabean esan eta ondorio larriak izan ditzakeena, maitasuna duk horietako bat, hitz hori gauza duk edozein nahaste eragiteko, halako hitzak badituk, gaitasun hori dutenak, napalm bonbak bezalakoak, ukitzen duten guztia kiskali egiten dutenak, horiek beldurgarriak dituk edonoren ahotan, neska gazte bizkor baten ahotan nahiz neu bezalako zahar batenean, berdin ziok, ahoa zabaldu eta hor zoazak, mingarri, suntsigarri, beldurgarri, ahoskatu arte ederra izandakoa zapuztera, hala duk, okerrena, aldiz, zera duk: batzuetan ez dela ezta hitzen beharrik ere edertasun bikain hori kakazteko, mingainari eragin gabe ere lortu ahal duk, keinu itxuraz kaltegabe bat nahikoa, esku baten mugimendua, begirasun bat, ia edozer, guk, esate baterako, sekula ez genian maitasun hitza aipatu, behin ere ez, ez hik, ez nik, halakorik ez zegoan gure orduko hiztegian, areago, maitasuna kontu burges bat iruditzen zitzaiguan, zineman-eta ondo zegoena, baina benetako bizitzan, gurean, zentzurik edo tokirik ez zuena, zerbait penagarria, zerbait

barregarria, geu bezala, penagarriak eta barregarriak aldi berean, bai, gogora hadi Tolosako hartaz, edo haren tankerako beste edozeinez, berdin ziok, luzea duk gure deskalabruen zerrenda, deskalabruz deskalabru joan gintuan azken deskalabruraino, erabatekoraino, atzera egiterik ez dueneraino, harainoko bidean ondo pasatu genian ordea, ezin okerrago pasatzen hasi ginen arte, baina laga dezagun hori, hobe diagu une gozoak aipatzea eta ez mingotsak, eta, egia esan, une gozo asko diagu, bestelakoak baino gehiago, eta ez nauk gu biotaz ari, taldeaz ari nauk, hiruroz, hirukote bereizezinaz, hiru fantastikoak, hiru mosketeroak, bat denontzat eta denok batentzat, sekulakoa, zeruan geundean, guretzat baino ez zen paradisu batean, haiek urteak, ez zirela inoiz amaituko ematen zian, zorioneko laurogeiak, urte perfektuak gaztea izateko, eta ez esan gaztea izateko edozein urte perfektua denik, ez delako egia, begiratu bestela barra muturreko zoko horretan egoten denari, ez zakiat zenbat hizkuntzatan hitz egiten duen, filosofoa duk eta, hala ere, hipermerkatu batean lan egin behar dik, izorra dadila esaiok, kontatu horri gazte zoriontsuaren ipuina, ea sinesten duen, ordu luzeak eta gaizki ordainduta ala langabezia, hori ditek aukera bakarra, aukera ederra

inolaz ere: pistola edo zianuroa, geuk izan genuenaren antzekoa hire ustez, aldea zera duk, pistola eta zianuroa geuk aukeratu genituela, gure borondatez nolabait, bazeudelako beste aukera batzuk ere, nahiz guk gutxietsi eta mespretxatu, guk ezin ikusi, gu gurean tematuta, besterik egongo ez balitz bezala munduan, gainerako bizimoduei hutsal, aspergarri edo kriminal iritzita, halaxe irizten genielako gure anai-arreben eta gure gurasoen bizimoduari, eta guk aita akabatu nahi genian, zirt-zart eta akabo autoritatea, gazteak gintuan, kemenez gainezka, eta ez genian oztoporik onartzen bidean, zirt-zart, dena zuan posible, edozein munstro menderatu genezakean, borroka egin beharko genian, noski, baina gu bakarrik izan gintezkean borroka horren garaile, artean ez genian elkar ezagutzen, artean nor bere jaioterrian bizi gintuan, bere zokoan, su itzalgaitz berberaren gatibu, horrek batzen gintian, elkarren berri ez izanagatik ere, gu hirurok eta gu bezala Euskal Herriko bazter gehienetan zeuden milaka gazte gehiago ere, su hori gutako bakoitzaren baitan ari zuan, eta aurrera egitera bultzatzen gintian, beti aurrera, nahiz parean kaka uholde bat izan, bertara egin behar genian murgil, bertan ito gintezkeela pentsatu gabe, murgil egin eta kito, gero gerokoak,

hori egin edo, gure aitaren ibilbide guretzat ezin petralagoa errepikatzearekin etsi, etsi?, inolaz ere ez, etsiak hartuta baino lehenago hilda: bizi grinaz, bizi garraz, hil arte bizi, hitzetatik ekintzetara pasatzea, esapide hori gustukoa genian, hura esan eta bazirudian bidea ordura arte ilun samarra bat-batean argitzen zela, mirari bat kasik, hitzetatik ekintzetara pasatzea, horixe, harrigarria zuan lehenago gutako inori bururatu ez izana, hortaz, Leninen galdera ospetsuari aurre egin behar izan genioan: zer egin, zerrenda bat ere egin genian, luzeegia, laster ikusi genuenez: hainbat gauza zegoan suntsitzeko eta errausteko, luzera, hala ere, ez zuan zerrenda murrizteko arrazoia bakarra, ezta nagusia ere, nagusia gure ezintasuna zuan, ageri-agerikoa, eta gu bezalako ameslari sukartsuek ere ikusteko modukoa, horregatik zerrenda txiki-txiki egin eta lehenbailehen ekitea erabaki genian, ez aho batez, noski, bazirelako artean prest ez geundela uste zutenak, ezer egin baino lehen geure antolamendua sendotzearen aldekoak, gu baino gutxiago zituan eta pikutara antolamendua, beraz, pikutara denbora alferrikako berriketan ematea, bazuan zerbait egiteko garaia, ez taberna zulo batean kaka esplikatzen egunak pasatzekoa, eta helburua aukeratzerakoan bat etorri

gintuan denok: Arrese, herriko jauntxoetako bat izateaz gain, gutako batzuen nagusia ere bazuan, putakume galanta, esplotatzaile maltzurra, harritzekorik ez hura izan bazen gogora etorri zitzaigun lehena, lantegian greba bat antolatzeko indar nahikorik ez eta haren etxe sendo ederraren kontra egitea erabaki genian, joan gaituk, ba, hara, gau batez, Bilbon ikasle zebilen taldekide batek erositako pintura beltz potoarekin eta hor hasi gaituk, gure artean esandakoak haren etxeko hormetara aldatzen, Arrese esplotatzailea, Arrese lapurra, Arrese hau eta Arrese bestea, denetarik eta dena letra handi baldarretan idatzita, batzuek espantuka hartu zitean gure artelana, eta zoritxar ugari iragarri zitean, dudarik gabe Arresek mendekua bilatuko zian, horretan geundean denok, zorionez, izan zituan aldamenetik pasatu eta ezer esan ez zutenak ere, gure aldekoak zituan horiek, Arreseri egindako estreinako eraso hura etxean, isilpean, ospatu zutenak, ez gutxik gainera, zerri eginda laga ditek esaten zitean, hain jauregi ederra, hain horma zuri-zurikoa eta begiratu orain, lehen baino askoz ederragoa zegoela esateko gogoari eutsi behar nioan, nire burua agerian ez uzteko, baina horixe aldarrikatzen nian nire kolkorako, ikuskizun zoragarri haren lekuko txunditua,

artean ez nekian edertasuna begiralearen begirasunean datzala, hiri esker ikasi nuenez, sarritan esaten hidan, edertasuna begiralearen begirasunean, xelebrekeria galanta, ez nian ezer ulertzen, hik barre egiten hidan, halakoak botatzen hituenean nire kopeta nola iluntzen zen ikusita, hik txorakeria mordoa ikasi huen fraideekin, esaten nian halakoetan, guk herrian fraiderik ez, baina apaiza genian, apaiz euskaldun gaztea, aita Lete, Manolo, eta hartaz fio gintuan, hura etorri zitzaiguan igandeko arratsalde batez, kontuz ibiltzeko esanez, Arrese sutan zegoela eta bere lantegiko gazteok susmagarriak ginela, txapelokerrek ere begipean gintiztean, Gazte-Leku osoa begipean, besterik ez ziguan esan, nahikoa, handik aurrera zintzozintzo ibili gintuan bolada batean, etxetik lantegira eta lantegitik etxera, eta asteburuan Gazte-Lekura, itxuraz lasai eta baketsu genbiltzala, hurrengo ekintzak hausnartzen ari gintuan, pozik gintuan, bazterrak apur bat nahastea lortu genian behingoz, harritu egiten gintuan gure botere ezagutu berriak, zein gutxi behar zen gure herria aztoratzeko: margo beltza eta brotxa batzuk, besterik ez, beharbada horregatik gure hurrengo helburua ipini genuenean, beste kolore batzuk erabiltzea erabaki genian: berdea, gorria eta zuria,

Aberri Egunaren bezperan, Gazte-Lekua eta herriko tabernak ondo itxita zeudenean, kale nagusia beti saihestuz, frontoira joan gintuan, eta aurreko ekintzatik geratzen zitzaigun margoa erabili genian paretako zenbakien albo banatako piperpotoak beltzez estaltzeko, horien ordez ikurrinak pintatu genitian, handiak, deigarriak, urrunetik ikusteko modukoak, astelehenean ez zuan besterik lantegian, goizeko hamarretan ogitartekoa jateko geldialdian horretaz jardun zitean lankideek, sentimendu nahasi bat nagusitzen zitzaiean, pozez eta beldurrez erdi bana osatuta, ez zakiat nork egingo zian, baina egin duenak horrek bai potroak, esaten zidatean, mirespena ezkutatu ezinik, berehala, zibilen kuarteletik seguru etorriko zen mendekuarekiko beldurra agertzen zitzaiean, edozein sentipen pozgarriren zapuztailea, lantegikoa larria bazen ere, haien iritziz, ezer gutxi zuan frontoian azaldutakoaren ondoan, pasadizo bat kasik, Arresek izan ezik, noski, jende gehienak ahaztuko zuen zerbait, frontoikoa ordea, erabat politikoa zuan frontoikoa, Espainiaren kontrakoa, eta zibilek ez zitean besterik gabe pasatzen lagako, ezin izan nian ogitartekoa bukatu goiz hartan, lankideen berriketak eragin zidan beldurrak eragotzi zidaan, izugarrikeriak bururatu zitzaizkidaan,

neure ordura arteko printzipio ustez sendoak pitzatzerakoan ateratako hots mehatxagarriak aditzen nitian, bertan behera zetorkidaan dena, izerdi hotzetan, lanerako alkandora urdin iluna soinari itsatsita eta besapeak bustita, hala nengoan minak salbatu nindue-nean, ezker eskuaren erpurua eskuinean nerabilen mailuaz jo eta lantegiko harrabots metalikoaren gainean altxatu zuan nire garrasia, inguruan nitian lankideak laster, kotoia, ur oxigenatua, merkromina eta aspirina batzuk gordetzen zitian eta botikin esaten ziotenaren aldamenean nengoan, madarikatzen ahal nuen guztia ari ninduan madarikatzen, eta erpurua hazten ari zuan neurririk gabe, puzten, lehertzear egongo balitz bezala, eta kolorez aldatzen aldi berean, oinazearen Erromako zubia, baina ekaitza gertakizun zegoan, eta banekian, denok genekian, bazekitean lankideek, bazekitean lagunek eta bazekian gure amak ere, hari ezin ezer ezkutatu, ederki antzeman zidaan gertatzen zitzaidana, ez zidaan zuzen esan, baina bai zeharka, galderen bitartez: hi ez haiz horretan sartuta ibiliko, ezta?, nik istantean ezetz, eta hark hobeto zela hala, ederki damutuko zitzaidala bestela, antzezle txarra ni beti, eta orduan ere oharkabean laga neure burua agerian, ordura arte lanetik irten, lagunekin elkartu

eta berandu etxeratzen ninduan, eta halako batean, frontoikoa gertatu eta segituan, hain justu, goiz etxeratzen hasi ninduan, mirari bat, gezurrik ez niri, haserre nian ama, hire ama nauk, txikito, besteak engainatu dituk, ez ni ordea, hala zuan, beste inork baino hobeto ezagutzen nindian, eta erraz sumatu ahal zian zein zen aldi hartako nire kardaba, zerk larritzen nin-duen, ama, eman bakea, faborez, baina hura nitaz errukitu ez eta bere matrakarekin jarraitzen zian, zenbat bider ez ote dut esan politika kontu zikina dela, pobreontzat batik bat, ez al dugu inoiz ikasi behar, ez al da aitonarekin nahikoa guretzat, bere aitaz ari zitzaidaan, gaztetan gorria izatearen bekatua bizitza osoan ordaindu behar izan zuena, kontuz ibili, ez nikek nahi hari gertatutakoa hiri gertatzea, ez nikek nahi gure amak sufritu zuena nik ere sufritu, ama gajoa, jakin izan balu politika baino okerragorik egon bazegoela, ez zekian ordea, artean ez, ezta nik neuk ere, bide batez esanda, egin beharreko estreinako urratsak baino ez gintuan egiten ari oinazearen bide luzean, esan zitekean artean oinez ikasten ari ginela, umeen antzera, eta umeen antzera negar egiten genian, erortzen ginen bakoitzean, oina lurrean ipini eta, blaust, eta ez gintuan hargatik herrian hori egiten genuen ba-

karrak, tabernak zapaldu gabe ere, banekian nola zeuden taldeko besteak, beldurrez gehienak, gauez batik bat, bai, luzeak zitzaizkiguan aste haietan gauak, oso luzeak, gure etxeko atea kax-kax joko zuten beldur, goizetan lanera ailegatu eta adarra jotzen zidatean, parranda ederra bart arratsaldekoa, herriko taberna guztiak itxiko hituen, alu horrek, nik baietz, horrexegatik ari nintzela lokartzen, eta, nire logura sinesgarria egiteko, burutik pasatzen zitzaidan edozer erabiltzen nian, batzuetan parrandarena eta beste batzuetan sexuarena, hiru aldiz egin diagu, zaharrenek txalo egiten zidatean eta gazteagoek txistu, hik txortan egin, bai zera, elizatik pasatu gabe jai duzue, errepikatzen zigutean ezkonduek, noizean behin egin nahi izanez gero, bi bide dituzue bakarrik, aldarea edo putetxea, ez zagok besterik, orduan guk, gazteok: eta zuek biak aukeratu dituzue, eta orduan haiek: zoazte ba putengana, haiek jakingo dute zer egin zuekin, profesionalak dira gero, artista hutsak, eta, gainera, haiekin, emazteekin ez bezala, arazorik ez, ordaindu eta kito, hor bukatzen da dena, ez dago txorakerietan ibili beharrik, maite zaitut eta halakoak, badakizue, emakumeei hainbeste gustatzen zaizkien kontu horiek, prostituzioaren gorespen haiek ez zituan gure artean ohar-

kabean pasatu eta askotxo izan zituan kasu egin zietenak, nik ez, ezin nian, nire ideiek eragozten zidatean, sexuaz edo emakumeez ez nekian ezer, baina banekian prostituzioak emakumearen duintasunaren kontrako eraso zuzena zela, merkantzia bihurtzen zuela, emakumea eta maitasuna, biak, eta maitasuna kontu serioa zuan gero, eta ezin egon zitekean diruak zikinduta, diruak dena zikintzen zuelako, maitasunak sentipen argi eta garbia izan behar zuelako derrigorrean, benetakoa izanez gero, bai, dudarik gabe, nire orduko pentsaeran bai, kapitalismoak eragindako hondamendiaren adibidetzat hartzen zian Manolo Letek, eta gu kapitalismoaren kontrakoak gintuan, klase kontzientziaren jabeak ginen aldetik: langile batek ezin zian inolaz ere beste langile bat zapaldu, zerrikeria hutsa zuan, zenik eta nazkagarriena, langile guztiok, munduko langile guztiok, anai-arrebak gintuan, eta putak gu bezain langileak zituan, gorputza eta denbora saltzen zitiztean, geuk bezala, haiek kalean edo putetxe batean, eta guk lantegian, baina denok berdin zapalduta, odolez blaitutako kapitalismoaren botak zapalduta, esplotatuta, badakik, hori dena neure kolkorako uste nian, jakina, lankideak ezagutzen nitian, banekian zer esan ahal zitzaien eta zer ez, banekian

errazago onartuko zizkidatela nagusiaren kontrako edozein irain edo madarikazio, beren gizontasuna auzitan ipintzea baino, eta prostituzioaren kontra jarduteari hala iritziko ziotean eta maritxu deituko zidatean, atzelari ez beste, ezin haiengana halako kontuekin joan, ezingo niekean beste edozein kontu aipatu, ez ninditean aintzat hartuko, ez zituan nitaz fidatuko, alferrik hitz egingo niekean gure egoeraz, gure bizimodu eskasaz, gure burua antolatzeko premiaz, gure eskubideen alde borrokatu beharraz edo greba bat egiteaz, barre egingo zidatean, ergel hori, hamarretakoaren hondarrak botako zizkidatean, alde egin ezak hemendik, ospa tonto lapiko horrek, platano azalak botako zizkidatean, sagar zuztarrak, ogi puskak, zigarrokinak, burua ere hautsiko zidatean beren zorioneko gizontasunaz duda eginez gero, haiek potroak zitiztean, horixe zituztela, potro pare izugarri bana, eta zakila, beren gizontasunaren adierazgarri behinena, beren arma, zakil potolo luze bana, ahobero halakoak, harroputz galantak, nagusiaren eztul bakar batek kakalarria eragiten ziean, hura hurbiltzen ikusi eta segituan nabaritzen zuan kaka usaina, penagarria gizon puska haiek hala ikusi behar izatea, ume beldurtien moduan, haien beldurra arrazoirik gabea zelako, gurea ez beza-

la, guk zibilak genitian atzetik, torturatzaile eta hiltzaile hutsak, ez bizpahiru oihu botata nahikoa zuen gizon potolo samar hura, jauntxo kozkor hura, gaiztoa, ez diat ezetz esango, baina aingerutxo kaltegabe bat txapelokerren ondoan, egun haietan, beste behin, ikasi genuenez, atxilotuak kuarteletik irtendakoan, bertan pare bat gau emanda, jipoi latzak hartuta irten zitean, Manolo Leteren bila ere joan zituan, baina azkenean gotzainak libratu zian kuartelean bukatzetik, eta eskerrak, batez ere hartaz galdetu zietelako atxilotuei, herrian gertatzen ari zen guztiaren erruduntzat joz, apaiza izango duk, baina horrek ez ziok beti balioko, noizbait harrapatuko diagu eta orduan Aita Santuak berak ere ez dik salbatu ahal izango, hala ere, atxilotu ez bazuten ere, ez zuan musu-truk izan, kartzelara ez zitean eraman, baina herritik kanpo bai, eta Gazte-Lekura itzuli ahal izan ginenean, Leteren arrastorik ez, eraman ditek, putakumeak, eraman ditek, horixe eraman zutela, Madrilen zegoan, Latinoamerikara bidali zitean, estatuaren mendekua zuan, dudarik gabe, eta oharra ere bazuan: ez adarrik jo guri, ez gara zuek bezalako gaztetxo txoro batzuk, ez dugu errukirik izango, txikitu egingo zaituztegu, mezu argia inondik ere, eta aintzat hartzeko modukoa, eta hala hartu genian:

errepresioari erantzun beharra zegoan, gogor erantzun, lehenbailehen, ez zigutean beste biderik uzten, guk ere mendekua nahi genian, gure lagunei egindako torturak, Manolo Leteri egindakoa, herrian zabaldutako beldurra, ordaindu behar zitean, begia begi truk, justizia hutsa, nola ordainarazi ordea, gu, haiek ez bezala, esku hutsik geundean, gehienez spray bat izan ahal genian, brotxa bat, ezer gutxi zibilen armategiarekin alderatuta, barregarriak gintuan, halakoak entzun zituan azkenean bildu ahal izan ginenean, Gazte-Lekuko atzeko gela txikian, motxila, dantzarako makila eta uztai, eta zulatutako baloiez inguratuta, buruz behera ipinitako saski batzuen gainean eserita, eztabaida beroa izan genian, horregatik lanak izan genitian ahotsa ez altxatzeko, oharkabean oihuka ez hasteko, barregarriak gintuan, nabarmena zuan gure ezintasuna, nabarmenegia hitz ederrez ezkutatu ahal izateko, eta, hala ere, bagenekian zer edo zer egin beharra zegoela, zer edo zer, baina ez edozer, egin beharreko urrats bakoitza ondo pentsatu behar genian, zein izango zen lagunek sufritutakoaren ordaina, zer egin hurrengo, zaila zuan, benetan zaila, eta luze hausnartu behar izan genian, estreinako aldiz elkarri mokoka hasi gintuan, istiluka gure artean, batzuentzat

ezer gutxi zena gehiegizkoa zuan beste batzuentzat, nahaste-borraste galanta, atzetik zibilak izateaz gain, urduri eta kopetilun genbiltzaan, geure artean mesfidati, gero eta okerrago, hala geundean, norbaitek guztiok bat etorrarazi gintuenean: kuartela, esan zian, kuartela baino ez, nahikoa, bagenekian zertaz ari zen, zibilen kuartelaz, noski, herrian ez zegoen-eta beste kuartelik, herriaren sarreran zegoen eraikin beldurgarriaz, barre algara bat entzun zuan berehala, inork ezin zioan barre egiteari laga, eta hainbeste egin genian, ze, halako batean, biltegi moduko gela txiki haren paretak dardarka ari zirela iruditu zitzaidaan, paretak ez, guk geuk beharko genikean dardarka, izuz dardarka, barrez lehertzen ari gintuan ordea, hain zuan ideia hura, erokeria hura, barregarria, eta ez, hasieran behintzat, ez genian aintzat hartu, ostera, txantxa bat iruditu zitzaidaan, eta iritzi berekoak gintuan handik irten eta etxerako bidea hartu genuenean, eta ohean nengoela ere, irribarrea sortzen zitzaidaan hura gogoratzean, burutik egon behar halakorik pentsatzeko, ederki pitzatuta, hala uste genian, eta, hala ere, barru-barruan geratu zitzaiguan, iltzatuta bezala, eta pixkanaka azkura moduko bat eragin ziguan, bakerik ematen ez ziguna, artean ez gintuan ausartzen kas-

koa zulatzen hasia zitzaigun har asegaitza elkarri aipatzera, baina hark etengabe ziharduan zulogintzan, apal, ia gozo, jabetu gabe ziztatzen ari zitzaigun pozoiaren arriskuaz, luze gabe konturatu gintuan ordea, Gazte-Lekuko atzeko biltokian barregarria zirudiena beste itxura bat hartzen hasi zuan denboraren poderioz, lehenik ideia xelebre bihurtu zuan, ideia xelebre bezain eder ondoren, ideia beharbada ez hain xelebre eta benetan eder, bikain geroago, hala, sekula bururatutako ideia zentzuzkoena iritzi genion arte, ekintza guztiz erromantikoa zela ezin ukatu, baina hori ez zuan guretzat erakargarriena, badakik hitzekin ez naizela inoiz abila izan, ez eta teoria zera horiekin ere, nahastu egiten nauk hor, galdu, eta ez zakiat gora edo behera, atzera edo aurrera ote noan, baina ondo gogoan diat azterketa eta arrazoi politikoak nagusitu zitzaizkiola beste edozeri: horma ezin zuriago hartan idaztea, hura beltzez zikintzea, egin genezakeen eraginkorrena zuan gure ustez, politikoki eraginkorrena, zibil ahalguztidun haiek eta, batez ere, Galan teniente gorrotatua denon bistan barregarri uzteko modu sekulakoa, irabazten ahal zitzaielako froga, herriaren kontzientzia lokartua esnatzeko lagungarri, beldurrak beldur, edozer egin zitekean batuta egonez gero, baita

egin asmo genuena ere, zorakeria perfektu hura, eta berriz elkartu gintuan, berriz itzuli gintuan ideiak barregura eragin zigun biltegi moduko hartara, lanak banatu genitian, lau lagunek osatutako talde batek egingo zian, bik horman idatziko zitean eta zaindari arituko zituan beste biak, horietako bat neu izango ninduan, eguna eta ordua aukeratzea baino ez zitzaiguan falta, eta asteburuan egitea pentsatu genian hasieran, gure okerraz jabetu gintuan arte, asteburua da-eta kalean jende gehien ibiltzen den garaia, beraz, egun itsusi bat aukeratu genian, astelehena, gaueko ordu bietan, horiexek gure E eguna eta O ordua, hordagoa joko genuen momentua, bost egun zituan, baina luzeak egin zitzaizkiguan, urduri genbiltzaan, arreta beste edozertan ipintzeko gauza ez ginela, behin, lantegian, ezkerreko eskua galtzeko zorian egon ninduan, eskerrak Ezpeletak makina itzali zuen, niri eskua harrapatu baino segundo bat lehenago, deiadarka jardun zitzaidaan, arnasa hartu ahal izan zuenean, neu, gure ama eta gure familia osoa madarikatu zitian, burutik jota nengoan, Ezpeleta gaixoa, hilabete gutxi batzuk jubilatzeko eta nik ia bihotzekoa eragin, maite nian Ezpeleta eta burumakur jardun nian lanean, sirenak jo zuen arte, lotsatuta, lankideak eskubide osoa zeukaan

nahi adina irain esateko, edo, zergatik ez, pare bat belarrondoko emateko, ume mainati bati ematen zaion bezala, ze, azken finean, horixe ninduan, ume moko nazkante bat, bere burua zaintzeko gauza ez zena, lotsagarria benetan, mailukadek eta makinen zaratek babestu ninditean, ez haiz mutiko bat, Biteri, habil kontuz, Ezpeletaren hitz horiek ondo iltzatuta geratu zitzaizkidaan buruan, eta horiexek kolkoan etxeratu ninduan arratsalde hartan, basoerdi bat edatera joateko lagunen gonbitari muzin eginda, harritu zituan nire ezezkoarekin, baina joaten laga zidatean, adarrik jo gabe, txantxa gutxirako nengoela sumatuta, nik uste, eta amak ere zerbait sumatuko zidaan, zurbil nengoela esan zidalako ikusi orduko, nekatuta nago, ama, hori da gertatzen zaidana, gaur goiz ohera, eta hala egin nian, telebistako futbol partida amaitu baino lehen, alferrik oheratu ninduan hain goiz ordea, kaka gehiegi nerabilean buruan, Ezpeletak makina korrika eta presaka itzali izan ez balu, zer gerta zitekeen pentsatzeak hotzikarak eragiten zizkidaan, besamotz ikusten nian neure burua, besteen karitateari esker bizirauten, beldurgarria zuan, apur bat kontsolatzen ninduen bakarra zera zuan, ezker eskua galduta ere, ekintzan ari nintekeela konturatzea, bestela izango

zuan, noski, eskua galdu ordez, begiak galdu izan banitu, benetan izorratuta egongo nindukek orduan, amesten hasiak ginen iraultzaren ondoko mundua ikusi ezinda, eta lantegia laga beharko nikek eta kupoia saldu, edo, beharbada, musikari bihurtuko ninduan, Stevie Wonderren, Jose Felicianoren edo Kaxianoren antzera, asko dira-eta musikari itsuak bazterretan, eta niri, hik beste inork baino hobeto dakianez, halako inozokeriak bururatzen zitzaizkidaan zorionez izan ez zen istripuaz akordatzean, osorik nengoan ordea, gorputzaren atal guztiak osorik neuzkaan, begiak ere bai, eta hala ikusi ahal izan nian azkenean, H egunaren goizaldea, lantegiko atean nengoela, noiz fitxatuko zain, azkar gertatu zuan, gaueko belztasuna bat-batean erdibitu zian sortaldeko argiak, labana zorrotz batek bezala, eta poztu nindian espero genuen eguna hain ilunpe erabatekotik sortzeak, antzeko ilunpea beharko genukeelako handik ordu batzuetara, gure babesa izango zuan, hori dela-eta aukeratu genian kontu handiz, gauak ilargirik gabea behar zuelako, eguna luze joan zuan, baina noizbait lan atorra zikina erantzi, beso-eskuak, besapeak, aurpegia eta lepo buelta xaboiz igurtzi, orraztu eta kalean nengoan, inori itxaron gabe, bilera genuelako, dena prest zego-

ela, denok prest geundela ziurtatzeko bilera txikia, Izurki tabernan, eta bertan Gorrontzi esaten genion gure taldeko batek dena behar bezala zihoala jakinarazi ziguan, dena ondo, bi hitz nahikoa, etxera segitzeko eskatu ziguan, atseden hartzera eta geure burua gauerako prestatzera, hortaz, etxean lasai afaldu, telebistari pixka bat begiratu eta kalera jo nian, lagunekin kafe bat hartzera nindoala esanez, egia hutsa, horixe egin nuen-eta, tabernak itxi eta lanari ekin genion arte, aurreikusita bezala, ordu biak laurden gutxitan elkartu gintuan kuartelaren atzeko baratzeetara, ilargia izan bagenu, ederki ikusiko genikean handik kuartela, ezer ikusi ez ordea, ez ikusi, ezta aditu ere, isiltasuna, biltzen gintuen ilunpearen antzera, osoa zuan, berdin ziguan, hamaika aldiz hitz eginda geundean, baratzeak txikitatik ezagutzen genitian, urratsez urrats aztertu eta berraztertu genian plana, gutako bakoitzak bazekian zein zen bere eginkizuna, hitzen premiarik ez, beraz, abiatu gaituk, ba, eta horma margotu behar zutenak eta zaindariok hartu diagu gure tokia, denok arropa ilunez jantzita, ilunpearekin bat eginda, gaueko hots ñimiñoei ere adi, bihotzaren taupada gero eta azkarragoak entzuten, danbor bat, ozena, urrutitik ere aditu zitekeena, salatari, eta berriz

ere, aurreko egunetan baino nabarmenago, denbora geratu egin duk, guztiz, eta lagunak, gure kideak non dauden eta zertan diharduten jakin nahiko nikek, baina gaua isilik beti, altzairuzkoa itxuraz, gure galdera mutuei entzungor, eta orduan zalantzak agertu, besteen gaineko zalantzak eta norberaren gainekoak, ondo ari ote naiz, egon behar dudan lekuan al nago, denborak, pasatzeari laga dion horrek berak baino ezin erantzun ditzakeen galderak, zaunka egitera datozkigun galderak, hozka egitera, eta, belarriak zorrotz, gauari begiratzen zioagu, buruz buru, horretan lasaituko gaituzten erantzunak aurkitzeko asmoz, baina gaua uzkur zaiguk eta ez ziguk bere berririk eman nahi, hor konpon gure jakin-mina, zorionez ez duk ezer aditzen, ezta hontzaren ulua ere, begiak handi, arnasari eutsita, nire pareko iluntasunean arreta osoa ipintzen saiatzen nauk, ezer ez, hotsik ez, edo bai, bai, metal hots bat, arin, urrun, errepikatua, horman idazten ari direnek sprayak astintzean ateratako zaratatzat jo dudana, noizbehinkako tik-tik hori, itogin baten modukoa, ondo pentsatuta, animalia txiki batena ere izan daitekeena, edo haizeak inguruko zuhaitzetako hostoak mugitzean ateratakoa, ia edonondik iritsi daitekek, egia esan, baita neure burutik ere, nire

beldurraren ondorio zuzena, halako haluzinazio tankerako bat, auskalo, edozer dela ere, erne nagok, zentzuak adi ditiat, larruazaleko poro guztiak, gauaren seinaleak nahasgarriak izan arren, entenditzeko zailak, eta oso laburrak, agertu eta behingoan desagertu egiten dituk, berriz agertzeko handik gutxira, beldurraren eskutik, haren orpo-orpotik, eta burua mugitzen diat, gora eta behera, belar bustiaren gainean norbaitek egingo duen irristadaren zain, oin astun batzuek zapaldutako adar hautsiaren kraskaren zain, bestela adituko ez nukeen zurrumurru baten zain, haizeak ordea, zakur baten zaunka urrunak baino ez zekarkidak, eskerrak, kuarteleko zakurren beldur egon gaituk aurreko egunetan, eta arindu ederra hartu diat halakorik ez dagoela konturatutakoan, lagunak ondo ari dituk nonbait, luze gabe bueltan egongo dituk, luze gabe ohean egongo gaituk, lorik egingo ez badugu ere, pozik, dena aldez aurretik espero bezala joan delako, eta pozari eutsiz abiatuko gaituk lantegira, beste edozein egunetan bezala, baina lanera joateko jaiki nintzenean, ahaleginak egin behar izan nitian nire benetako sentipenak ezkutatzeko, ondo samar egin nian, nik uste, Ezpeletak ere ez zuen-eta ezer sumatu, lan egun arrunt bat zuan, beste bat gehiago, artean za-

baldu gabe egonda kuarteleko hormetan idatzitakoaren albistea, hala joan zuan arratsaldera arte eguna, baina bazkaldu eta gero asaldatuta zeudean denak, potroak, horixe zuan gehien errepikatzen zen hitza, a ze potroak, potroak behar dituk gero, horiek bai potroak eta beste makina bat halako, Ezpeletak ere gure potroak goraipatu zitian, gehiago ere esan zian, tamalez, guk behin baino gehiagotan pentsatutakoa, garesti ordainduko ditek batzuek, horixe esan zian, eta hitz horiek, haren ahotik irtenda, ezinegon sor bat eragin zidatean, izutu ere egin ninditean, hotzikara eta guzti, harrigarria zitzaidaan Ezpeletaren esaldiak nigan eragindakoa, ez nekian zer esan, eta, hortaz, hormaren margolariaren koskabiloak bedeinkatu nitian nik ere, haren hitzen oihartzuna belarrietan etenik gabe neukala: garesti ordainduko ditek, garesti ordainduko ditek, garesti ordainduko ditek, bost axola, oihu egiten nian nirekiko, egindakoa eginda zagok eta horrek ez dik atzera bueltarik, alferrik damua, hala zuan, baina beldurra odolean neramaan ordurako, zain bakoitzean nabaritzen nian, eta handik aurrerakoa ezagutzen nian, banekian zer zetorkidan, zein estu hartu behar ninduen, eutsi beharko niola nekian bezain ondo, bai, itxura egin beharko nian, Oscar bat irabazteko beste-

ko antzezpen bikaina, inoiz baino hil ala bizikoagoa, eta horixe hartu behar nian gogoan, behin ere ez zitzaidaan hurrengo bi egunetan ahaztu, eta lantegian, kalean, etxean txukun aritu ninduan, neure burua ere harrituz, halako batean dena aldatu egin zen arte, berandu zuan, ia gaueko hamaikak, eta telebistari begira nengoan erdi lotan, behetik hots egin zutenean, hiretzat duk esan zidaan aitak, jaitsi hadi, hitz egin behar dugu-eta, Patxi zuan, kuarteleko hormetan idatzi zutenetako bat, bestea, Gorrontzi, atxilotu berri zutela jakinarazi zidaan, badakik zer egin, esan zidaan despedida moduan, gauean galdu aurretik, eta motxila bete eta neure burua gordetzeko prest nengoan, desagertu baino lehen ordea, amarekin hitz egin behar nian, derrigorrean, zer gertatu da, galdetu zidaan sukaldeko mahaitik eskutan hartu berri zuen zatarra bihurrituz, Gorrontziren atxiloketaz nekiena kontatzen hasi nintzaioan, berehala eten zidaan kontakizuna, ez zian zehaztasunik nahi, egun gutxi batzuen kontua izango zela esan nionean, hala izango zelakoan esan nioan, erabat sinetsita, horregatik herritik ihes joan beharrean, herritik hurbil ezagutzen nuen txabola batean eman nian gaua, eta goizean goiz medikuarengana jo nian, gaixorik nengoela azaldu eta

baja eskatzeko, gripe berantiar bat aitzakia, erraz antzera eman zidana, espero nuen bezala, bizpahiru galdera eginda, haren agiria eraman nian lantegira ondoren, eta hurbildu aurretik, ondo aztertu nian, batez ere bulegoetarako eskailera, zibilak atezuan izango nituen beldur nintzelako, eta ezer susmagarririk inguruan antzeman ez nuenez, burdinazko eskaileran gora egin nian, minutu gutxi batzuk geroago ostera jaisteko, laster sendatzeko opa zidatenei eskerrak emanda, kalea lehen bezala zegoan, lasai itxuraz, eta, hala ere ahaleginak egin behar izan nitian ibilera moteltzeko, handik korrika ez irteteko, denbora osoz atzerantz ez begiratzeko, beldurra estu lotzeko, huraxe zelako izan nezakeen kontrariorik okerrena, eta, horrela, poliki, plaza eta kale nagusiak saihestuz eta, zorionez, inorekin topo egin gabe, txabolara ailegatu ninduan noizbait, eta bertan geratu ninduan Patxi eta bere anaia zaharrena nire bila iluntzean azaldu ziren arte, haren autoan joan gintuan Bitorixara, eta hortik aurrerakoa ez diat kontatu behar, orain ezin asmatu zer dela-eta ari naizen nire historiaurrean arakatzen, altxor baten bila jardungo banu bezala, ezer gutxi aurkitu ahal den tokian, auskalo, beharbada hiri baino gehiago, neure buruari kontatu behar, buruz, beste inork baino hobe-

to dakidana, gure arteko harremana ulertzeko premiak bultzatuta, honen estu zerk lotzen gaituen jakin nahiak, edo ezta hori ere, seguru asko, benetan hirekin jardutearren ari nauk, Gloria, esate baterako, nirekin aritzen den antzera, biok oso ezberdinak izanda, baita kontrarioak ere, pentsaeraz bai behintzat, hura eskuindarra eta espainola denez gero, baina, zer ari nauk, hik ezin izan duk ezagutu, edo, akaso bai, kalean ikusita bai, emakume ikusgarria izan da-eta beti, orain ere halakoxea duk, zaharra edo, hark dioen moduan, andre heldua bada ere, nik ez diat gogoan hona azaldu baino lehen ikusi izana, baina balitekek hik ezagutzea, jakina, hiriko emakumerik desiratuena nintzen, aitortu zidaan, normal baino pixka bat gehiago edan zuen gau batean, eta nik sinistu, emakume puska duk, eta aberatsa jaiotzez, eta horixe sinisten diodala, galdetu bestela Joxeri, txora-txora eginda dik gure aspaldiko laguna, eta, ez pentsa erresuminduta diodala hori, Joxe nagusi ere badudalako, ez, egia hutsa delako zioat hori, ez beste ezerengatik, hark ez zidak aspalditik ezer kontatzen, mozkortuta ez badago behintzat, baina berdin dik, hain ondo ezagutuko ez banu ere, berdin lukek, nabaritu egiten zaio-eta, harrotu egiten duk, burura joaten zaiok segituan eskua,

geratzen zaizkion ile bakanak menderatu nahian, eta gerria barnerantz sartzen dik, upela ezkutatzen alferrik saiatuz, eta gaztetxo baten moduan joaten zaiok ongietorria egitera, zein eder eta dotore datorren aditzera ematera, eta hala jarraitzen dik, koipea eta lausengu merkeak agortzen zaizkion arte, orduan nigana bueltatu, eta Biteri, ekarri Gloriaren botila, esaten zidak eta hor noak ni, Torres-Viña Sol botila eskuan, beste bezeroei kasu egiteari lagata, barka, gaizki esan diat, Gloria ez delako bezeroa, behin ere ez duelako Iturrin ezer ordaindu, Gloria beste zerbait duk, nagusiaren nagusia, janzten dituen takoi altuko zapata beti dotore horietatik Joxeri nola begiratzen dion ikustea nahikoa, hala dela pentsatzeko, arrosaz margotutako ezpainetan irribarre erdi batekin aditzen ditik Joxeren inozokeriak, aintzat hartu gabe, ondo jakitun dela Joxek esandakoak txotxolo baten ergelkeriak izateaz gain, egia handiak ere badirela, horretarako ez dik Joxeren beharrik, noski, hori txikitatik zakik, sehaskatik bertatik horixe errepikatu ziotelako, gurasoek lehendabizi eta mutilek ondoren, zein ederra zaren, horra haren bizitzako leloa, ispiluaren aurrean ikusi zezakeat, galdezka, ispilutxo, ispilutxo, ba al da inon neu baino ederragorik, eta ispiluak ezetz, ezetz beti,

baina, denboraren poderioz, mirespen nahiz inbidia eragindako haren ilea mehetu, begiek distira galdu, azalean orbanak agertu, zimurrak ere bai, eta horiek ezin ispiluak ezkutatu, ispilu onbera izanagatik ere, Gloriarenak bezain begi zorrotzak parean edukita, horiek ez zaizkiok emakume bizkor bati oharkabean pasatzen, eta Gloria bizkorra duk, beste ezeren gainetik bizkorra, badik bere klasearen ezaugarria den argitasun bat, geneen bitartez bereganatua, eta horri esker zutik iraun zezakek gainerakook hondoratzen garen mundu honetan, sen berezi bat, edonon ondo moldatzeko, besteon gainetik ibiltzeko, Joxeren gainetik, esaterako, inork edo ezerk menderatu ezin izan duen gizon gogor eskarmentu handikoa, munduan barrena ibilia, hizkuntzak dakizkiena, eta menderatu, azpiratu, jan eta irentsi egin dik emakume horrek, esan diat, begiratzea besterik ez zagok, nola trabatzen zaion mingaina eta eztarria lehortzen, eta garagardo bat ekartzeko eskatzen zidak orduan, eta haren besapeko izerdiaren usaina aditu ahal diat barraren beste aldetik, Gloriak ere aditu ahal izango duen bezala, eta lasaitzeko esango niokek, urduritasun hori txarra dela bihotzerako, arnasa sakon hartzeko, baina hori adierazi partez garagardoa hurbiltzen zioat irribarretsu, ha-

lako nagusi jatorra izateaz ezin kontentuago egongo banintz bezala, *voilà*, esaten zioat frantsesez, Gloriak eta Joxek frantsesez hitz egiteko ohitura dutelako, batez ere topo egitean, hizkuntza horretan agurtzen ditek elkar, txantxetan noski, *monsieur*, *madame*, Gloriak Donibane Lohizunen ikasi zian txikitan, eta gustatu egiten zaiok bere heziketa aipatzea, nik ez nuen heziketa frankista bat izan, zuek uste duzuen bezala, guztiz europarra baizik, eta Joxek baietz egiten dik buruaz, emakumeak alde egindakoan, haren frantsesa txukuna dela, baina ez zoragarria ere, esateko, eta hala izango duk, Joxek urteak daramatzalako Hendaian bizitzen, Txingudiko badia osoa miretsi daitekeen villa batean, handik zaintzen ditik negozioak edo, hark esaten duen moduan, aferak, horietako bat baino ez delako taberna hau, ez txarrenetakoa gainera, etekin ederra ateratzeaz gain, beste aferetan irabazitako dirua garbitzeko ere balio diona, bide batez esanda, kudeatzaile aparta gure Joxe, akordatuko haiz, bazuan jada gaztetan, eta harrezkero asko ikasi dik, batez ere Paris aldean eman dituen urte niretzat misteriotsuetan, Ann orduan ezagutu zian, dagoeneko maite ez duen arren, berarekin bizi den amerikanoa, eta maite ez duela ez zioat nik, Joxek berak baino, ba-

dituk urteak ez dugula larrutan egiten, eta ea zergatik ez diren bereizten galdetuta ere, sekula ez zidak modu argian erantzun, aitzakiatan ibiltzen duk, aitzakia merkeak, nik uste, sinesgaitzak, harentzat ere seguru asko, hala iruditzen hasi zaiola esango nikek, Gloriak eskatuko balio, Ann laga ez ezik, harekin ezkondu ere egingo zela aitortu dit-eta behin edo behin, baina beldurrik ez, ez duk halakorik gertatuko, Gloriak inoiz beharko balu, orduan bai, baina Joxek berak baino askoz diru gehiago izan behar dik, eta gizonak, nahi izanez gero, mordoa, zertarako gizonak, ordea, bere Coco izanda, bere bihotzeko azukre kozkorra, zakurtxo horrekin nahikoa dik, hark hala ziok, baina auskalo, behin ere ez diolako Joxeren opariei muzin egin, kontrara, poztu, harrotu egiten duk, adinean aurrera joan arren, gizonak, mota bateko gizonak, oraindik eskura dituela jabetuta, jatetxe garestienetara gonbidatzen dutenak, asteburuetan hoteletara eramaten dutenak, bidaiak egitera, Parisera, Milanera, eta jantzi dotoreak, bitxiak erosten dizkiotenak, aberatsak, benetakoak, aberats jaiotakoak, ez ditiztek eskuak diruarekin zikintzen, inondik ere, horregatik ere aberatsak dituk, diru asko izateaz gain, ahalik eta gutxietan gastatzen ditek, tabernari batek ondo zakik hori, patata tortilla

zati batengatik hil egingo liketek, sarritan suertatu zaidak halakoak ikustea, diputazioko, udaletxeko, enpresarien elkarteko handiki gorbatadunen artean erretilua eskutan pasatu, eta gainera zetozkidaan, erretiluak di-da husteko, berdin jatekoak eraman edo edatekoak, sukaldetik irteten ikusi eta oldartzen zitzaizkidaan, euliak eztiari nola, miserableak, halaxe hots egiten geniean, aditu ezin zigutenean, zekenak, zikoitzak, zimurrak, burura etorritako edozer esaten geniean, astakeriak, nola entenditu haien jokatzeko era, zerk bultzatzen zitian hain modu lotsagarrian jardutera, eta barre egiten genian, barregarri irizten genioneta haien jokamoldeari, nik Joxerenari irizten diodan antzera, Gloriaren aurrean umilduta ikusten dudanetan, baina ez pentsa barre egiten diodanik, ez, bestela neure buruaz egin beharko nikek, beste inorenaz baino lehenago, izan ere, ba al da Oihanek nirekiko duen zoritxarreko tema baino barregarriagorik, ez diat uste, azken batean Joxeren eta Gloriaren artean zortzi bat urtetako diferentzia egongo duk gutxi gorabehera, Oihaneren eta bion artean, aldiz, sekulako urte piloa zagok, hainbeste, ze, kalkulatu ere ez diat nahi, badaezpada ere, eta gaurkoan, aurreko gauetan ez bezala, lo egin nahi nikek, ordu batzuk gutxienez, eta ez

hainbeste pentsatu, hitz jario geldigaitz hau zenbait orduz eten eta atseden hartu, nirea tabernako filosofia duk, noski, ez inongo unibertsitatetakoa, baina ez ahaztu barra baten atzetik asko ikusten eta aditzen dela, ez aipatzearren kalea, hori bai unibertsitate ezin hobea, kartzela bezala, baina, esan diat, lo pixka bat egiteko premian nagok, hori gabe, alferrik botika guztiak, Enapril, Pantecta, Torasemida, Carvedilol, Alopurinol, Sovaldi, Nolotil, Espinorolactona, pilula mordo hori guztia alferrik, baina hori nauk gaur egun, botika pilo bat, hori eta memoria, akordura etortzen zaizkidanak, beste garai batekoak, nigan bizi-bizi daudenak, hi bezain bizirik behintzat, eta eskerrak, horien ezean atarramenturik gabeko gaixoa nindukek, heriotzaren zain dagoen gizajo bat, beste bat, naizena, azken batean, ze, denboran barrena atzera eta aurrera ematen diat orain denbora gehiena, joan-etorrian, denboraren berririk ez zuen garai batetik, erloju guztiak niretzat ari diren oraingo honetara, nire azken ordua jotzeko aspalditik prest aditu ahal ditiat, deika ari zaizkidak, hator, hator esaten zidatek, gabon kanta maitagarri gozo batean bezala, baina eutsi egingo zioat, botika mordoxka diat oraindik eta munizio horrekin eutsiko zioat, ezin alferrik galtzen laga, batez ere mina, gure

betiko etsaia menderatzen laguntzen badu, kolore askotako pilulei begira, bizirauteko sekretua horietan datzalakoan, urtetan imajinatu dudan heriotzaz akordatu eta barre egiteko gogoa ematen zidak, ze, azken hatsa emateko momentuan, kalean botata ikusi izan diat neure burua beti, ez ospitale bateko ohean, seguru asko hilko naizen bezala, heriotza burges bat inondik ere, guztiz arrunta, heriotza lotsagarri bat, epika apurrik gabea, tristea, naizen modukoa, erresumindua, kopetiluna, Gloriak bestela uste duen arren, filosofoarentzat ez bezala, gizon alaia nauk harentzat, umorekoa, ulerkorra eta, gainera, aditzen dakiena, hori esaten zidak askotan, zurekin hitz egin daiteke, eskertu egiten zioat, baina bazakiat ez naizela hark uste bezain jatorra, eta, aditzen badut, ez hitz egiteagatik aditzen dudala batik bat, ez kontatzen ari zaidanak interes berezirik duelako niretzat, ostera, gehienetan ez dik izaten, batere ez, eta aspertu ere egiten naik, diruaz hitz egiten didanetan, esate baterako, sarri samar alegia, horixe izanda haren gairik kutunetako bat, zenbat kostatu zaion erosi berri duen zapata parea, azken soinekoa, azken bitxia, zein jatetxe garestietan jan duen, zein hotel luxuzkoetan eta abar,

Gloria bere dirua da-eta, azken finean, ni nire pilulak naizen antzera.

3

Norbait ezagutzean, lehenik eta behin haren oinetakoei erreparatzen diet, horiexek baitira, edozein laguni buruzko albisterik zehatzena ematen dutenak. Dena da adierazgarria: larruzko, oihalezko edo plastikozkoak diren, eta, larruzkoak izanez gero, ziratu eta distiratsuak dauden, edo Italian eginak diren edo Asiako bazterren batean, ezaugarri horiei erreparatu behar baitzaie, ezagutu dudanaren izaera jakiteko; adibidez, norbaitek oinetako italiarrak janzten baditu, ideia sendoko lagun baten aurrean nagoela esan dezaket ia seguru, eta oinetako merkeak janzten baditu, itxura batean ikusgarriak izan arren, kontrakoa pentsa dezaket, txotxolo baten parean nagoela alegia, eta, hortaz, adi ibili behar dudala horrekin, ez badut barregarri geratu nahi, ez badut babotzat jo nazaten nahi, behin baino gehiagotan, zoritxarrez, jo nauten bezala; edozein modutan, hori beste kontu bat da, oinetakoekin zer ikusirik ez duena, eta ni oinetakoez ari naiz, txikitatik hainbeste maite izan ditudan eta nire etxeko jantzi-gelako armairuak, lerro-lerro eta kolorez eta sasoiz sailkatuta, betetzen dituzten objektu zoragarriez,

nire Gonzalo, goian bego, bere onetik ateratzen zuten horiexez.

Irentsi egingo gaituzte egunen batean!, haserretzen zitzaidan, eta Imelda deitzen hasten, Filipinetako presidentearen emazte ospetsua medio. Gonzalok ere atsegin zituen oinetakoak, eta, nik baino askoz gutxiago izan arren, hamaika zituen, kalitate eta marka onekoak, larruzkoak ia denak, hura zen izaera sendoko gizonari zegozkion bezala, eta Italiara negozioengatik egin behar izaten zituen bidaiak profitatzen zituen erosteko, batez ere Milanen, eta nahiz bidaia horietan sekula ni ahantzi ez, bitxiak edota jantziak ekarri ohi zizkidan, behin ere ez oinetakoak, ondo baitzekien oinetakoak nork bereak erosi behar dituela, norberaren oinari egoki zaizkionak, ez Interneten bitartez, alabak egiten duen bezala; hainbat aldiz esan diot, baina inoiz jaramonik egiten ez didanez eta guztia bere nahierara egiten duenez, alferrik esan diot, noski, eta Madrilen egiten dizkiodan bisitak baliatu behar ditut, hango dendarik onenetara eramateko: Serrano kaleko Salvatore Ferragamorenera edo Velazquez kaleko Sergio Rossirenera, non orduak eman ahal ditudan, bertako artelanak nekatu gabe miretsiz, eta, ematen ez baditut, Eugenia alabagatik izan ohi da, gaztea izaki ez

baitaki egonarria zer den, eta luze gabe nekatu eta beste denda batera joan nahi izaten du, denda hoberik ez dagoela ziurtatzen diodan arren.

Hori lehen, ama. Denda asko zabaldu dute azken aldian.

Ez diot ezetz esaten. Azken finean, hura bizi da Madrilen, ez ni. Hala ere, betiko kalitatearen bermeaz ohartarazten diot, marka ezagunek eskaintzen dutenaz, eta gogorarazi egiten diot gaur garestia dirudiena laster merkea irudituko zaiola eta, era berean, gaur merkea dirudiena garestia izango dela berak uste baino lehenago, horixe gertatzen baita kalitate eskaseko gauzekin, izan oinetakoak edo izan jantziak, erosi eta zoragarriak dirudite, baina, halako batean, soinekoaren oihala maiztuta agertuko da pare bat aldiz jantzi eta gero; garesti ordaindutakoak, aldiz, luzaz iraungo du, hain luzaz, non, inoiz zaborrera botatzen ez baduzu edo parrokiakoei ematen ez badiezu, hartaz aspertuta botako baituzu, sekula ez urratuta edo hondatuta, gauza merkeak botatzen diren bezala. Nolabait, gizonezkoekin gertatzen dena gertatzen da oinetakoekin eta jantziekin, kalitate onekoak izan behar dute, ez ikusgarrienak agian, baina bai sendoak, seguruak, hasierako beroaldia epeltzen zaienean, bazter utziko

ez zaituztenak eta, baztertzekotan, etekin bat, badaezpada ere, ekarriko dizutenak, beste kontsolamendurik ez baituzu lortuko. Eskerrak hori, amak irakatsita, argi izan dudan oso gaztetatik, hark gure aitaren maitalearen berri jaso zuenetik, gizonezkoekiko mesfidantza txertatu baitzidan, berak egindako huts berdinak egin ez nitzan eta berak jasandako oinazea saihets nezan, eta mesede ederra egin zidan hala. Baina oinetakoez ari naiz, ez nire gurasoen gorabeherez.

Jose ezagutu nuen egunean, oinetako onak zeramatzan, larruzko mokasin gorrixka distiratsuak, seguruenik Sebagokoak, eta hori gustatu zitzaidan, orduan gure artean zer edo zer sor zitekeela sumatu ere ez eginagatik. Haren alkandora ere gogoan dut: marraduna eta, itxuraz, ingelesa, baita eskumuturrean zeraman Omega, urrezkoa baina diskretua, dotorea, ez aberats berriek, zorri berpiztu horiek, eraman ohi dituzten trepeta gaitz astun handiusteko horietakoa. Gustatu egin zitzaidan haren sendotasun isila, zein adeitsu izan zen une oro nirekin, Biterik aurkeztu zidan une beretik.

Gloria, esan zidan, hauxe duzu nire nagusia, Joxe Goietxe, haren izena baserritarrek ahoskatzen duten x

txistukari ozen horrekin esanda, eta nik orduan eskua eskaini nion, baina hark ezikusiarena egin, hurreratu, masailetan musu bana eman eta bere after-shavearen usain garbia utzi zidan sudur mintzetan, istantean beste after-shave baten oroimena ekarri zidana eta, pitin bat aztoratuta, istantean ere gogotik uxatzen saiatu nintzena. Hura, nirekin atsegina izateko bere ahaleginean, ez zen nire baitako aztoramen arinaz ohartu, eta berdin jarraitu zuen, banindoala esan nuen arte.

Etxean, sukaldean, inguruan jauzi eta zaunka zebilkidan Cocori afaria prestatzen ari nintzaiola, usain hura jarraitzen nuen aditzen, baita, nire logelako atea ondo itxi eta alarma konektatu eta gero, bainugelan sartu eta makillajea kentzeari lotu nintzaionean ere, eta, azkenean oheratu eta telebista piztu nuenean, ezin pantailako ezeri arreta jarri, ezin zorioneko usain hartatik eta hark nigan berpiztutako oroimenetik askatu, ezin denboran, oso atzera ninderaman usain sorgin hartatik ihes egin, eta, oharkabean, sabeletik behera joan zitzaidan eskua.

Arturo!

Harrigarria da, hogeitaka urte igaro eta oraindik dardarka jartzen nau haren izenak, andre heldu bat

izan ordez, histeriarako joera duen gaztetxo burubero bat banintz bezala. Gizon arrakastatsua zen, ordurako diru asko zuena, baina denok genekien haren jatorria, kontrabandoan-edo bildua, horrek gehienoi bost axola zitzaigun arren; haren kafetegira joan ohi ginen, haren diskotekara asteburuko gauetan, eta ezin hobeto hartzen gintuen beti, lagun zaharrak bagina bezala, eta trago gehienak haren kontura izan ohi ziren, eta hemengo diskotekan nahiz, geroan, Ibizakoan, VIP gelara eramaten gintuen, bere gainerako gonbidatu eta lagunekin egiten zuen bezala.

Arturo!

Denek maite zuten, denok maite genuen, izan behartsua edo diruduna, izan espainola edo kanpotarra, irribarre berberaz hartzen gintuen, haren betiko irribarre aldika gozoaz aldika adar-jotzaileaz, edonor xaramelatzeko, edonor limurtzeko, edonor bereganatzeko gaitasun sinesgaitza zeukala, eta, hain zuzen ere, gaitasun horretan zetzan haren indarra, horrek erakartzen zizkion adiskideak eta emakumeak, zeren eta emakumeekin arrakasta gaitza zuela esan beharra baitago, gizon ederra ez izanagatik, Jorge, nire lehendabiziko eta orduko senarra eta Eugeniaren aita izan zen bezala. Ostera, hazpegi gogorreko gizona zen,

sudur nabarmen zorrotzekoa eta kankailua, are baldar samarra, lehen begiratuan irudi zitekeen bezala, baina estreinako irudipen hori ahantzi egiten zen harekin hizketan hasi orduko.

Arturo!

Berritsua ez zen, bai ordea hitzekin artista hutsa, gutxi behar baitzuen solasa nahi zuen aldera eramateko, adierazi nahi zuena erraz adierazteko, nahi gabe edo oharkabean bezala, inor mindu gabe, baina lortu nahi zuena salbuespenik gabe lortuz, solaskideari mesede bat egiten arituko balitzaio bezala. Abilezia hori berezkoa zuen, txikitatik kalean garatua, ez inongo unibertsitatetan, tabernetan eta frontoietan; Arturo pilotaria izan baitzen gaztetan, diotenez, onenetakoa, eta hor, batik bat apustuen bitartez irabazitako diruaz aberastu zen. Hala ere, dirua bakarrik eta lan gogor eginda lortu zuela aldarrikatzen zuen, aukera zuen bakoitzean, eta, hori egiten zuenean, nolabait gure aurka, neure aurka ari zelako irudipen nahigabetsuari ezin itzuri egin, edo, aurka ez bazen, pixka bat mespretxatzen ninduela behintzat.

Arturo!

Voyou bat zen, bilau bat, eta horrek ere egiten zuen erakargarri, batez ere ni bezalako emazte asper-

tuentzat, hots, nire inguruko emakume gehienentzat, nahiz eta beraiek ez zuketen sekula onartuko, neuk inoiz onartu ez nuen bezala, batez ere Eugeniari eta Arturoren seme-alabei ez sufriarazteko, zeren eta senarrarengatik izan balitz, ez nukeen ukatuko, ukatu nuen eran, Arturorekin adiskidetasunez haragoko beste harremanik inoiz eduki izana.

Arturo!

Baina ezin genuen besterik egin, orain beharbada bai, inolaz ere ez orduan; eskandaluzkoa zatekeen, gizarteak, gure gizartetxoak behintzat, ez zukeen onartuko, batzuetan alderantziz irudi bazezakeen arren; izan ere, badira lege idatziak eta lege idatzi gabeak, eta, hain zuzen, azken horiexek izan ohi dira indartsuenak, gutako bakoitzaren baitan ondo sustraituak baitaude, seguruenik jaiotzen garen une beretik, eta horietako batek dio itxurak gorde beharrekoak direla, kosta lain kosta eta edozein egoeratan, eta ni, legezalea naizen aldetik, betetzen saiatzen naiz, saiatzen naizen bezala etxean txikitatik ikusi eta ikasitakoa gogoan gordetzen, eta asko dut gordetzeko.

Anaia eta bion zoritxarrerako, gurasoek liskar galantak izan zituzten garai batean: aitak maitale bat zuen, eta amak haren berri jakindakoan, betiko gaizto-

tu zen gure etxeko giroa: lehenik eta behin, gela banatan hasi ziren lo egiten: badia osoa ikusgai zuen eta etxeko handiena zen hartan geratu zen ama, eta aitak atzealdeko askoz txikiago zen beste batera joan behar izan zuen. Amak ezin zuen askoz gehiago egin, Francoren garaiak ziren haiek eta, beraz, dibortziorik ez zegoen. Ama amorratu egiten zen aitak egindako laidoari behar bezalako erantzunik eman ezinik, eta bere onetik ateratzen zuen benetako justiziarik ez zegoela ohartzeak, berari egindakoa agerikoa izan baitzen, berarentzat bezainbeste bere familia osoarentzat iraingarria, lotsaizuna, argi eta garbi, eta lekubetarrak harroak dira, eta noski, horietako bat zen ama funtsean, horregatik ez zuen onik izan, harik eta aitak egin zion kaltea hari itzultzeko era aurkitu zuen arte: berak ere maitale bat hartuko zuen, denen aurrean hartu ere, betiko kontakatiluen solasgaia izateaz gain, hiri osoak jakin zezan, zalantzarako zirrikiturik utzi gabe, batzuentzat eskandalagarri, beste batzuentzat barregarri, baina denentzat entretenigarri, eta, hori zela eta, Nauticon, Aste Nagusia aitzakia, urtero antolatzen zen afaria aukeratu zuen bere maitalearen nolabaiteko aurkezpen ofiziala egiteko. Bien artean gertatutakoa gorabehera, gurasoak elkarrekin iritsi omen ziren afa-

rira eta elkarren ondoan afaldu zuten, orkestrak jotzeari ekin zion arte behintzat, zeren orduan, aitarekin dantzatu beharrean, Ritxi Letamendiarekin dantzatu baitzen, eta kanta bukatu zela, mahaian zain zuen aitarengana itzuli ordez, Letamendiaren aldamenean geratu zen, musika atzera hasi zen arte, eta orduan biak berriro ere elkarri lotu zitzaizkion, eta berdin jokatu zuten hurrengo piezan, baita dantzaldia bukatu arte etorri ziren gainerako guztietan ere.

Aitaren maitaleak ez bezala, Ritxi Letamendia ezagutzen genuen, haren familia oso ezaguna izaki, haren aitona hainbat urtez alkatea izan eta gero, eta haren aita abokatu eta enpresari handia; Ritxi, aldiz, alproja samarra zen, kirolzalea, festazalea, familiaren negozioei ez oso emana.

Gurasoen arteko tirabiren eta istiluen ondorioetako bat –anaia eta biontzat, dudarik gabe, okerrena– biok bereiztea izan zen, anaia Lekarozera bidalita eta Donibane Lohizunera, madame Licheronen barnetegira, ni neu. Negarrez joan ginen anai-arrebok, eta amaren malkoek ere busti zituzten aitaren Mercedesen larruzko eserlekuak.

Oi emakumeak, negarrez beti!

Negarra, edozein negar mota gorrotatzen zuen gure aitak, eta horixe esan zigun ama eta bioi, Ziburu zeharkatzen ari ginela.

Egun euritsu batez eraman ninduten Donibane Lohizunera, eta herri triste iluna iruditu zitzaidan, nik irudikatutako kartzela bezain iluna, eta horregatik Ongi Jin zeritzan villa haren parean aitak autoa gelditu zuenean, hotzikarak gelditu ninduen neu ere. Izuak harri bihurtuta nindukan, eta besotik hartuta eraman behar izan ninduen, bestela ez bainintzatekeen urrats bakar bat ere egiteko gai izango, eta bertan behera eroriko nintzen, ahuleziak jota. Kontsolagaitz nengoen, eta amaren laztanak nahiz aitaren purrustadak alferrikakoak ziren nirekin, aginduak eta promesak alferrikakoak ziren bezalaxe, han eta orduan nire bizitzaren aldi bat –zoriontsuena– ixten, eta beraz, beste bat, askoz tristeagoa, hasten ari zelakoan bainengoen. Horretan nengoen, nire aitaren hatz erakusleak villako sarreraren ezker aldeko txirrina sakatu zuenean. Gerora jakin nuenez, Aines zeritzan emakume musugorri eta potolo samarra, besteak beste etxe hartako atezaina ere bazena etorri zitzaigun kasu egitera, eta haren atzetik joan ginen, hartxintxarrezko bide mehar batetik, Mme. Licheronen bulegoraino.

Emakume sofistikatua iritzi nion lehen begiratutik, goitik behera beltzez jantzita zihoan, eta ilea motz zeukan, *garçon* erara, orduan esaten zen bezala; lepoa eta eskuak luzeak zeuzkan eta dotore hitz egiten zuen, nahiz eta zertaz ari zen nik ezin asmatu. Aitarekin ari zen, hark ere Frantzian ikasi baitzuen, eta, Frantzia zalea zenez, berak izandako heziketa berbera nahi zuen bere alabarentzat, Mme. Licheron bezain emakume sofistikatu bilaka nendin, nonbait. Hori izango zuen amak gogoan, ni hara eramateko baimena eman zionean aitari, eta, baldin eta hori hala izan bazen, ez zela batere okertu aitortu behar, zeren gezur, astakeria, are izugarrikeria asko esan izan bada ere nitaz, ez baitut uste nire sofistikazioa inork zalantzan jarri duenik, eta hori handik datorkit, hein handi batean, frantziar hizkuntza eta beste ikasgai batzuez gain, andereño batek nola jokatu behar duen irakatsi baitzidaten, nola jokatu edozein egoeratan, dela afari batean, adibidez, dela jai edo kirol saio batean, gizarte arauak eta protokoloaren nozio eta oinarriekin batera. Izan ere, horixe zen eskolaren helburua: jakin genezan zein zen gure egitekoa, nola jokatu behar genuen gero eta ulergaitzago eta nahasiagoa zen mundu batean, zer zen funtsezkoa eta zer bigarren

mailakoa, zer ezinbestekoa eta zer bazter uzteko modukoa, eta horretarako eskolak bazuen irakasle talde ugaria, Mme. Licheronek esku sendoz gidatutakoa. Ikasleok, aldiz, gutxi ginen, emakumezkoak denok eta hamar bat lagunek osatutako taldetan banatuta adinaren arabera, eta gehienok kanpotarrak: italiarrak, holandarrak, errusiarrak, argentinarrak eta espainol mordoxka ere bai, madrildarrak batik bat. Hain zuzen ere, haietako bat jarri zidaten gelakide, Laura Ybarra, eta hartaz izan nuen estreinako iritzia ez zen bereziki ona izan, batez ere kontuan hartuta, denboraren poderioz, Laura nire lagunik onena bilakatuko zela.

Inbidiak eragotzi zidan hasieratik hura atsegin izatea: neu baino txikiagoa izanagatik eta gerora izango zen emakume ederra artean ez izanagatik, Lauraren ile kizkur beltz sendoak eta begi berde heze distiratsuek, ni txunditzeaz aparte, agerian uzten zuten neure ustezko edertasunaren erdipurdikeria. Gure gelako ispiluari begira, hanka luzeko neska kankailu samar bat nekusan, ile luze hil distira gabea, Lauraren edertasuna hain zen nabarmena, hain zen begi-bistakoa, non, luze gabe, etsi egin behar izan nuen. Etsitzeak, berriz, mesede bikoitza egin zidan: alde batetik, lasaitu egin ninduen, aurrerantzean ez bainuen inore-

kin lehiatu beharrik izango, eta, beste aldetik, erraztu egin zidan Lauraren adiskidetasuna eta, ondorioz, eskolan nahiko azkar egokitzea, Mme. Licheronek nahi zuen bezala. Ikasle zaharrak eta berriak nahastu ohi zituen, frantsesa menderatzen zutenak eta ozta hitz batzuk genekizkienok. Haren sistema zen. Horren arabera, Laurak eta biok ezin gintezkeen gelakideak izan, baina, beste gela guztiak hartuta zeudenez, betiko arau hori hautsi eta harekin jarri behar izan ninduten, ezinbestean. Laura ni baino bi urte zaharragoa zen, eta hura zuen Mme. Licheronenean hirugarren ikasturtea, eta, hortaz, nire gainean zegoen eskolaren hierarkian. Kontu horiek bereizten bagintuzten ere, bazen batzen gintuenik: hasteko, espainolak ginen biok eta banatutako gurasoen alabak, gainera. Bazen zerbait, bazen gure artean aitorpen giroa jartzeko nahikoa, ordura arte gure kolkorako gordetakoa elkarri kontatzeko, zinak eta minak, kezkak eta beldurrak. Hala, aste batzuen buruan, gaueko hamarretan argia lotarako itzaltzen zigutela, hizketan jarraitzen genuen biok, bakoitzak bere ohetik, kontu kontari, aspaldiko lagunak bagina bezala. Gure arteko antzekotasunak gure arteko diferentziak baino handiagoak zirela ohartu ginen, gau haietan. Neronek bezala, hark ere bazuen askorik

maite ez zuen ama bat ere, baita hainbat anai-arreba ere –zortzi guztira–, Europako ikastetxe zenbaitetan barreiatuta. Haietaz hitz egiten zidan: non zeuden, nolakoak ziren, zein adin eta zaletasun zituzten, haien izaera, zein maite zuen gehien, zein gutxien. Gustura entzuten nuen, argiak itzali ondoko iluntasunean. Ybarratarrek familia benetan xelebrea osatzen zuten, eta anai-arrebak nahikoa ezberdinak baziren ere izaeraz, haiei buruzko kontu eta istorioak dibertigarriak ziren salbuespenik gabe, hain dibertigarriak, non, batzuetan, ahora eraman behar izaten baikenuen eskua, barre algarak itotzeko, gau hartako irakasle zaindariak entzungo zituen beldur. Mme. Licheronek serio nahi gintuen, gure gizarte mailako andereñoei zegokien bezala, eta barre algarak neurriz kanpokoak iruditu ohi zitzaizkion, heziketa txarrekoak, jende behartsuarengan onargarriak agian, sekula ez gure klaseko inorentzat. Mme. Licheronek edozein eratako adierazpen gehiegizkoak gorrotatzen zituen, izan barre edo izan negar algarak, kontrolean baitzetzan heziketa, are bizimodu orekatu eta zoriontsu baten sekretua. Ez bakarra, ordea: gure menpekoak kontrolatzea bezain garrantzitsua omen zen nork bere burua menperatzea. Gure heziketa osoa horretara bideratuta zegoela esan

daiteke, intelektualki nola fisikoki ere, kontrolik gabe ez baitzegoen harmoniarik, ez eta orekarik ere, eta bi ezaugarri horiek zituzten Licheronenean egiten ziren ariketa fisikoek: balletak eta soinketa erritmikoak. Bietan nintzen ona, baina ez, zoritxarrez, beste ikasgaietan kaxkarra nintzela ahantzarazteko bezain ona. Amari kexatzen zitzaion Mme. Licheron: Dantzan bezain abila beste gaietan ere balitz, hemengo ikaslerik finena genuke. Matematika, Historia eta gainerakoak ez ziren dantza egitea bezain errazak niretzat. Axolarik ez niri, egia esan, eta, hein batean behintzat, axola handirik ere ez amari, zeren eta guk –eta hori diodanean, Laura ere sartzen dut horretan– bagenekien matematikak eta horiek guztiek, dantzak ez bezala, ezer gutxirako balioko zigula handik kanpo, benetako munduan; bagenekien halakorik ez genuela emakumeok behar, gure amek behar izan ez zuten eran. Dantza, aldiz, baliagarria zen; hari esker nabarmendu ahal ginen gizarte fineko dantzaldietan eta, beraz, bertako gizonezkoen arreta gureganatu, eta antzeko zerbait esan zitekeen soinketaz ere, gorputz bikain erakargarriak lortzen lagunduko zigun, eta noizbait senar egokia ere bai, hori baitzen kontua, azken batean, Arregiren edo Susperregiren andrea izatea, gure ama zen

bezala, aitaren zein bere maitaleak gorabehera. Hori zen Lauraren helburua ere, han ginen gehientsuona zen era berean, noski; baina harena familia ia zoriontsu bat zen, ia osoa, jadanik elkar maite ez, baina behintzat elkarri begirune zioten gurasoek zuzendua, eta, normala denez, horiexek ziren nire gelakidearen eredua. Antzeko asmoak ziren nire ordukoak ere, baina, orain konturatzen naizenez, jadanik odolean neraman amak inokulatu zidan gizonekiko mesfidantza, ama ez baitzen nekatzen esateaz gizon guztiek sexua besterik ez zeukatela gogoan eta, irrika ase orduko, ahantzi egiten zitzaizkiela lehenago agindutakoak.

Ondo gogoan gorde nik esandakoa, Gloria.

Gloria alaba zintzoa izan da, eta ez du inoiz amaren aholkua ahantzi. Azkarregi ari naiz ordea, Donibane Lohizunen da Gloria oraindik, Mme. Licheronenean, Laura Ybarraren ametsak ilunpean entzuten. Hori genuen gaueroko denbora-pasa, lotan jartzen gintuen sehaska-kanta, eguneko aldirik gozoena biontzat, gozotasun handirik ez zegoen leku hartan, zeren eta gozotasuna bainoago, altzairuzko diziplina zen Mme. Licheronen ikasleok behar omen genuena, baita urrun genituen gurasoek nahi zutena ere, eta, hain zuzen

ere, horrexegatik irabazita zuen haren barnetegiak merezitako omena. Areago, alaba eskolara bidali behar izan nuen garaian Mme. Licheronena artean zabalik egon izan balitz, hara bidaliko nukeen, duda izpirik gabe, eta ez dut uste damutuko zitzaidanik. Eugenia, baina, nigandik hurbil nahi izan nuen, ikastetxe on batean, baina nigandik bereizi gabe, Amerikara unibertsitate aurreko azken ikasturtea egitera joan zen arte ez bainion etxetik urruntzeko baimenik eman.

Diziplina.

Pentsatzen jarrita, hitz horretan laburbilduko nuke munduan eman ditudan hirurogeita bost urteetan ikusi dudana, gauza batzuk egin behar izaten baitira, inoren gustukoak ez izanagatik, edo zenbaitetan mingarriak, dantzarako edo edozein kiroletan goi mailan aritzeko bere burua prestatu duen edonork ondo baino hobeto dakienez. Oinazerik ez, irabazirik ez, Jane Fondak bere bideoan errepikatzen zuen bezala, gutxi gorabehera. Bideoa Arturok ekarri zidan, eta Jane Fonda lirain, distiratsu, soinketa jantzi koloretsu batean sartuta ikusi nuenean, opari hori ez ote zen gizentzen ari nintzela adierazteko zeharkako era bat galdetu nion, nire irribarre ustez adar-jotzaileak guztiz ezkuta ez zezakeen kezkaz.

Hendaian geunden, Arturoren etxeko egongelan, su piztu berria artean zaintzen, eta kopa bana ardo geneukan eskuan, eta hark, nire galderak dibertitua nonbait, kopa eskutik kendu, hura sofa pareko mahaitxoan utzi, eta berarengana erakarri ninduen, nengoen bezala ezin hobeto nengoela, eta, aukeran, nahiago ninduela Jane Fonda bainoago. Ziplo erori nintzen haren besoetan, eusten zioten hariak moztu dizkioten txotxongilo baten eran, haren menpe, nahi bezala erabil nintzan, eman ahal nion guztia eman nahi nion, nire gorputzaren zatitxorik txikiena ere, nire zelula bakoitza, ni osoki irentsi arte. Sugarrak harro altxatzen ziren tximinian gora eta jantziak soberan genituen, larru gorritan geunden, eta hala ere izerdi patsetan.

Arturo!

Gau hartan munduko emakumerik zoriontsuena izan nintzen, Jane Fonda bera bilakatu nintzen, Arturoren mingaina gorputzaren zirrikituak bustitzen zizkidala. Elkarrekiko irrika eutsiezinari eusten aritu ginen, goraldi itxuraz geldigaitz hura luzatzeko ahaleginean, hala aritu ginen, harik eta eztanda egitera gindoazela biok batera sentitu, eta, biok batera, globo baten antzera, hustu ginen arte. Ondoren, Arturok zigarreta bat piztutakoan, isilik biok eta suari begira, bertan baino

hobeto ezin zela inon egon pentsatu nuen, hura zela nire lekua munduan, nire benetako etxea.

Geure etxea!

Arturori esatekotan egon nintzen, baina beldur nintzen ez ote zuen gaizki hartuko, artean elkar ezagutzen ari baikinen. Legalki ez izanagatik, emazteareengandik *de facto* bereizita zegoen, hark erabili ohi zuen eta seguruenik abokaturen bati entzun zion esapidea erabiltze aldera. Utzi zuen emazteaz gain, lau seme-alaba zituen, baina familia kontuak gutxitan aipatzen genituen, horiek saihesteko hitzarmenik ez genuen arren, seguruenik elkarrekin egoteko genuen denbora nahi baino laburragoa izateagatik beti. Elkarrengandik zerbait behar genuen, eta jasotzeko prest egoten ginen bildu orduko etxe hartara, eta han hitzak soberan, larruak adierazten baitzuen adierazi beharrekoa. Han larruak hitz egiten zuen, eta nahikoa zen. Luze hitz egiten zuen, nekatu gabe, urtetako isilaldi baten ondoren hitz egiten den eran; izan ere, halakoa izan zen Eugeniaz erditu eta gero, eta Arturorekin hasi arteko aldia niretzat. Ordura arte, batez ere nire haurdunaldia bitartean gizon portatutako senarra, nitaz ahantzi, eta musu arin bat ezpain gosetuetan utzita, bizkarra erakutsi, eta berehala lotan zetzan.

Hasieran, erditu ondoren nire gorputza bere onera itzultzea denbora kontua zelakoan nengoen, baina hilabeteak igaro eta senarrak batere jaramonik ez, batbatean ikusezin bilakatu izan banintz bezala. Beste gizonen begiradak sentitzen nituen, haurdunaldiaren aurretik sentitzen nituen bezalaxe, eta horrek ispilura eramaten ninduen, neure burua kontuz eta poliki aztertzera, eta, hartara, nire gorputzari erreparatzen nion atalez atal, ordura arte ziurtzat nuen edertasunak senarraren begietara non huts egiten zuen jakin nahian. Haurdunaldiak nire gorputzari eragindako kaltea gimnasioan konpondu nuenez, nekez uler nezakeen senarraren jokaera. Biluzik, jantzita, edozein eratan ondo ikusten nuen neure burua, Jorge ozta pare bat urte lehenago zoratu zuenaren guztiz antzekoa. Nahasita nengoen, gertatzen ari zena ulertu ezinik, eta, hainbesterako izan zen nire ondoeza, non, Jorge izan ezik, nire inguruko guztiak ohartu baitziren zerbait larria gertatzen ari zitzaidala, dena ez zela, hasieran uste zuten bezala, nire amatasunaren ondorio, horren atzean beste zerbait zegoela. Gure amari ez zitzaion oharkabean pasatu.

Gizonak!

Hori esan zuen, nahikoa, zehazki adierazi nahi zuena nik jakiteko. Protesta egin nion, mesfidatiegia zela iradokiz, gizon guztiak ez zirela gure aitaren erakoak, hain kaskarinak, eta gehienek bazekitela bere ardurak hartzen, Jorgek –seguru nengoen– jakingo zuen bezala.

Gajoa! Zaude horretan.

Jorge betidanik hain gizon ederra izaki, nahi adina emakume izan zezakeen, eta nirekin ezkondu baldin bazen, horrek gauza bakarra esan zezakeen, nire ustez, benetan maite ninduela.

Gajoa!

Haserretu egin nintzen amarekin: Jorgez zalantza egiteko arrazoirik ez zuela, eta nire senarraz ari zela gogorarazi nion, baita hari zor zion begirune bera zor zidala neuri ere.

Senarra? Neuk ere badut senarra, horrexegatik dakit zertaz ari naizen.

Sesioan jarraitu nuen, nire arrazoiak azaldu nizkion, lehenago hainbat aldiz azaldutako berak, bide batez esanda, eta haren erantzukiak entzun nituen, hark ezer esan aurretik, zeren gizonak –edozein gizon– ahotan hartzen zituenean, arrazoi guztiek gure aitaren

traiziora eraman ohi zuten, eta orduan nik oihu egiten nion:

Gizon guztiak ez dira berdinak!

Ama egoskorra zen eta txinpartatxo bat nahikoa zuen su hartzeko, marka zen, gero, ni bezalako alaba inozoa izatea, nola ez nuen ulertzen berarentzat agerikoa zena, itsu batek ere ikusiko zukeena:

Gizon guztiak berdinak dira!

Horixe, betikoa, egia hutsa, ikusi ditudanak ikusita, orain begi-bistakoa iruditzen zaidana, baina, jakina, arau guztiek salbuespenak izan ohi dituzte, eta nik gizonezkoekin zorte on samarra izan dudala iruditzen zait, gure amak berak hil baino lehen aitortu zidanez. Jorge eta Gonzalo, biak atsegin zituen, batez ere Jorge, hartaz inoiz gaizki pentsatu izanaz damututa agian. Horrekin erabat okertu nintzen, aitortu zidan, detektibe bat izan nuen bizpahiru hilabetez hari segika, eta ezer ez, emakume bakar bati ere ez omen zitzaion hurbildu. Neuri ere ez, botako niokeen gustura. Kontu horiek neureak ziren, pribatuak, eta norbaiti kontatzekotan, Arturori kontatuko nizkioke, sekula ez amari. Ez nizkion kontatu ordea, hark ez baitzuen familia kontuak aipatzea atsegin, ez bere familiarenak, ezta nirearenak ere; nirekin zegoenean, nirekin baino

ez zuen egon nahi, biok bakarrik, beste inor egongo ez balitz bezala munduan. Egia esatea osasuntsua da berez, baina arriskutsua ere izan daiteke eta, izan ere, hala izaten da sarri, arriskutsua eta mingarria ere bai, nahi baino hobeto dakidanez. Horregatik nire aitorpenak, nire egia handi eta txikiak inori kontatzean kontuz ibiltzen naiz, entzuleak ondo aukeratuz.

Eugenia dut entzulerik gustukoena, badaki entzuten eta behar izan dudanetan, jakin du niri bihotz ematen, urrun egonda ere. Zenbait kontu isildu behar diot, ordea, ez baita alaba batek amarengandik espero duena. Nire entzule onen zerrendan Coco dut bigarren: alabaren bertuteak ditu, badaki entzuten, eta hark bezala badaki niregana noiz hurreratu, noiz nagoen laztan baten premian: altzora egiten dit jauzi eta hor kizkurtzen zait eta auhenka hasten, hartara bere eginez nire kezka. Antzeko zerbait gertatzen zait Biterirekin; Cocoren antzera, gai da ordutan niri adi egoteko, Iturrin egun osoa lanean eman eta gero. Buruz buru biok berriketan, hurrupa txikiak kentzen dizkiegu edalontziei, eztarria freskatzeko nik, eta agian niri adi jarraitu ahal izateko hark. Edozein modutan ere, bion arteko harremana berezia da, elkarrenganako uste onean oinarritua, eta biok jatorriz eta izaeraz hain ez-

berdinak izanda, askotan galdetu diot neure buruari uste on horren zioaz, azalpen argirik behin ere aurkitu gabe. Cocok ez bezala, Biterik kontatzen ahal du nik berari kontatutakoa eta, hala ere, seguru nago sekula ez lukeela halakorik egingo, gizon isila izateaz gain, gizon zuhurra ere bai baita nire iritziz, Josek haren ustezko zuhurtzia behin edo behin auzitan jarri arren, haren iraganeko kontu ilun batzuk direla eta. Iragana denok dugu, ordea, zer damuturik dugun bezala, eta, beraz, Josek aipatutakoa ahantzita, aurreiritzirik gabe saiatzen naiz Biteriren jarduna entzuten, Josek ez baitzidan zehatz azaldu zer ziren kontu *ilun* horiek. Hitz gutxikoa eta zuhurra da Biteri, baina hitz egiteko beharra izaten du batzuetan, batez ere filosofoa Iturrira azaltzen hasi denetik, zeren gogaikarri horrek eragiten dion ondoezak gainezka egiten dionean, ezin Biterik mihiari eutsi, eta hitz eta pitz aritzen zait, zapuzten duena bere baitatik egotzi nahian. Saiatu egiten da, gogor saiatu ere, baina ez du beti lortzen, eta, halakoetan, alferrikakoak dira nire hitzak:

Nork ez du iraganik, nork ez du damutzeko zer edo zer?

Biterik ez dit erantzuten, berean jarraitzen du, ezer entzun izan ez balu bezala. Neskato gajo bat

baino ez dela eta ez arduratzeko esaten diot, eta hark orduan baietz, horixe dela eta ez liokeela jaramonik egin behar, baina ez dela dirudien bezain erraza, zeren halabeharrak ustekabeak gorde ohi baitizkigu, eta berarentzat horietako bat izan dela neska, iragan sakonetik ekarria, eta hor planto egiten du, ez du beste ezer gehitzen, ozta hurrupa egin, eta mutu, begira geratzen zait, adierazi beharreko guztia adierazi izan balu bezala, elkarrizketarekin jarraitzeko nire txanda izango balitz bezala.

Iraganera jotzen dut nik ere orduan, Biteri eta biok, zerbait izatekotan, iragana baikara, denaz gain iragana, dagoeneko bizi izan duguna askoz luzeagoa baita bizitzeko geratzen zaiguna baino, eta Arturoz hitz egiten diot, edo alargundu ninduten bi senarrez, nahiz eta hainbatetan –Arturo aipatzean batik bat– nire kontuek atsekabetu egiten dutela iruditu. Biteri diskretua da, baita edaten duenetan ere, eta horrek lagundu egiten dio gure arteko konfiantzari, nire ustez; horrek eta, beharbada, hildako batekin ari naizela jakiteak. Josek eta Biterik berak kontatu didatenaren arabera, edozein egunetan gera naiteke nire entzule bakanetako hori gabe, askotan eraman behar izan baitute larrialditara, arnasa hartu ezinik, eta aste

batzuk igaro behar izan ditu ospitalean, eta halakoetan beldur da ez ote den han bertan betiko geratuko, hainbeste gaixotasun iraganaren zauri izanik. Isiltzeko eskatu nion Joseri, kontatu zidanean. Hepatitis Ca eta halako kontuak ez dira nire kuttunak, Gonzaloren hilzoria gogoan. Nahikoa zen, nekienarekin nahikoa nuen etorkizun zena asmatzeko, baina haren hitzak Biteriren hitzekin nahastu ziren neure baitan, Iturri itxi ondorengo gure elkarrizketetan esandakoekin, sukaldean zintzilik izaten duen jakaren sakelatik medikuek erabat debekatu dioten tabakoa atera eta eguneko zigarreta bakarra omen dena piztu ondorengo hitz beteekin. Nola ez berriz entzun orduan Josek kontatutakoa, nola ez ikusi hildako bat niri hizketan, eta bitxia da, zeren ikuskizun berez aztoragarri horrek, beldurtu edo kezkatu ordez, sekulako lasaitasuna eragiten dit, hildakoekin berriketan aritutakoa bainaiz seguruenik, bi senar eta edozein senar baino neureagoa nuen maitale bat lurperatu eta gero. Ohituta nago, beraz, eta hala eta guztiz, ez dut pentsatu ere egin nahi Iturrin sartu eta Biteri agurtzera etorriko ez zaidan egunaz. Joseri esan nion behin, eta barre murritza egin zuen:

Hori baino okerragoa litzateke hura gure hileteta-ra joatea.

Pluralak harritu ninduen, baina Joserekin bat etorri behar, eta barre egin nuen nik ere, hala zela era horretan adieraziz, zalantzarik gabe hala baita, hiru aldiz alargundu den batek ondo baino hobeto dakienez, eta Arturoren hiletetan oso bestela uste banuen ere.

Bizitza da dena, besterik ez dago, eta, eragiten dizkigun zauriak gorabehera, zoragarria da, eta, begiratzen dakienarentzat, gauza ederrez beteta. Nik badakidala uste dut, beti jakin dudala, seguruenik Mme. Licheronenetik igaro baino lehenagotik ere, sehaskatik bertatik agian, zeren gure ama, eta haren aurretik gure amona, andre dotoreak baitziren, dotoreak janztean eta, batez ere, dotoreak ibiltzean, egote hutsean. Hori nabarmen geratu zen senarra aukeratzerakoan ere, nire gustu ona alegia, hemengo gizonik ederrenarekin ezkondu bainintzen, jende askok uste zuenez, nire lagunak eta Teniseko beste neskak tartean, Jorgerekin ikusten ninduten bakoitzean, nitaz bekaizti zirela ezkutatu ezin zutenak. Nireganako ezinikusia orduan hasi zela esango nuke, hori dela funtsean sekula barkatu ez didatena, hori eta beste hamaika kontu gehiago, harrezkero gaizki iritzi baitiote nik egindako edozeri. Eskerrak ez zuten Arturo eta bion artekoaz ezer jakin, aspaldi hilda nengokeen bestela, hura be-

zain hilda eta lurpean, hemen egon ordez, horietako gehienen patu tristearen lekuko konplazitua, zeren ni osasuntsu bainago eta, zimurrak zimur, oraindik itxura oneko eta gizonak erakartzeko gai naiz. Horiek, aldiz, erreuma dute, kaltzio edo burdina faltan daude, edo minbizia, eta duten diru piloa izanda ere, ez dut uste gizonik liluratu ahalko zutenik, nik Jose liluratu dudan bezala. Zoragarria, begira diezadatela egosten ari diren salda kirastu horretatik bekaizkeriaz, jasan dezatela nire zoriontasun lasaiaren kausaz, dei diezadatela nahi duten eran, puta baino okerragorik ez baitut uste esango didatenik.

Senarrak dibortzioa eskatuko ote dien beldur bizi dira, senarraren ustezko maitaleekin obsesionatuta, eta bakarrik. Arturok ondo ezagutzen zituen, eta haiek esandakoaz arduratzea denbora galtzea zela errepikatzen zidan. Etsaiak ezagutu behar dira, argudiatzen nion, eta hark, jostakin, baietz, halako gauzak emakume baten ahotan entzutea bitxi zitzaion arren.

Gauza asko zitzaion nigan bitxi, baina esango nuke nire bitxitasunak erakartzen zuela, normaltasuna nahi zuenerako emaztea baitzuen, lau seme-alaba eman zizkiona eta haietaz *ezin hobeto* arduratzen zena. Arturo, berriz, ito egiten zen familiaren normal-

tasunean, eta haiekin bizpahiru egun eman ondoren, parranda egin behar zuen, kalera irten, taberna eta klubetara joan, betiko lagunekin egon. Lagunekin egon eta nirekin ere bai, noski, eta ez sexuagatik soilik, haren maitale izateaz gain, haren lagun-min ere bilakatu bainintzen denboraren joanaz.

Zutaz fida naiteke, esaten zidan, arduratzen zuten kontuak aletzeari lotu baino lehenago bere burua zuritu beharko balu bezala, eta orduan ni hunkitu egiten nintzen, maitasun aitorpen bat iruditzen baitzitzaidan, halakorik inoiz egiten ez zuen eta zoroki maite nuen gizonarengandik etorrita. Inoiz zehaztu gabe, negozioek eragindako buruhausteaz hitz egiten zidan, bere soziedadean zituzten liskarrez, umoretsu, hala ere, baikor, arazoak nola edo hala konponduko zirelakoan beti. Jakin bazekien gauzei beren egiazko neurria hartzen, bazekien beldurrari eusten, noiz eman eta noiz kendu zekien moduan, zeren, Arturo –lagunek Tokolo deitzen zioten– gizon eskuzabala baitzen, eskuzabalegia, nire ustez, ostalaritzaren negozioan aritzeko; denek maite zuten, denak ziren haren adiskide, eta, edonora zihoala, norbaitekin topo egingo zuen, leku xelebreenetan ere. Parisera joan ginen, eta horixe gertatu zitzaigun, hark bizpahiru ezagunekin topo egin

behar, eta bosteko eta besarkadak banatzen zituen bitartean, albo batera jotzen nuen nik, eta jatetxe bateko kartari edo denda bateko erakusleihoari begira geratzen nintzaion, albait oharkabeen pasatu nahian; bada, bukagaitz irizteaz gain, itxaronaldi haiei umiliagarri ere baneritzen. Ezagun nuen: lagunengandik libratu eta atzera nirekin elkartzean, bazekien nire kopeta iluna besterik ez zuela aurkituko, eta hala ere bera umore oneko, niri bere barre axolagabetua kutsatu eta algaraka lehertzen ginen arte. Kontu gogaikarria zen, batzuetan zainetan jartzen ninduena, niretzat nahi bainuen nik, egun bakan batzuk gutxienez, niretzat bakarrik, eta ez nengoen prest beste inorekin banatzeko.

Ez da hainbesterako.

Ez zen eta bazen, baina hori sotilegia zen Arturorentzat, haren ustez ni nintzen andre apetatsu eta lainezaz betetakoaren burutazio hutsala, zeukan diru guztia gurasoengandik jaso eta lanik behin ere egin gabe eskuratu zuen batena.

Harrokeriarik gabe bizitzan egindakoaz harro zegoen: bere familiaz harro, bere diruaz eta, batez ere, egin zuen moduaz harro, baita nitaz ere harro, behin baino gehiagotan jakinarazi zidanez.

Ni ere Arturoz harro nengoen, baina ez garai batean Jorgez edo, bi horiek hildakoan, senarra izan nuen Gonzaloz harro egon nintzen eran, zeren nire bi senarrekiko sentimendua publikoa zen, agerikoa, eta Arturorekikoa, aldiz, guztiz pribatua, ezkutuan gorde beharrekoa, maitale bati dagokionez, eta bi sentimendu horien arteko aldea sekulakoa zen eta denean zuen eragina, Arturok eta biok egiten genituen bidaietan ere. Horregatik ulergarria iruditzen zait nire haserrea Parisen, Londresen, Nizan, Milanen edo hilabete haietan bisitatu genituen beste hirietan, Tokoloren adiskide ugarietako bat niri zegokidana, niri zor zitzaidana, lapurtzen saiatzen zenean.

Antzeko zerbait sentituko zuen Arturoren emazteak, senarraren ibileren berri jasotakoan; horietako batzuk gezurrezkoak izango ziren, eta beste batzuk handizkatuak eta puztuta helduko zitzaizkion, baina horretaz bezain seguru nago gehientsuak benetakoak zirela, Arturo, esan bezala, *voyou* bat baitzen, *voyou* xarmagarria, eta gainera gauez lan egiten zuen, jai giroan. Ulergarria, beraz, haren emaztearen nahigabea, haren egonezina eta, noizbait, senarra etxetik egoztea, azkenean etsi behar izan zuenean. Hori dena labur-labur azaldu zidan Arturok, bere familiaz hitz

egiteko uzkur. Gogoan dut emaztea madarikatu zuela, baina ez benetan, txantxetan bezala baizik, bere egoerari tristea edota dramatikoa iritzi beharrean, barregarria iritziko balio bezala.

Zeri ez zion hala irizten ordea? Ez zait ezer bururatzen, heriotzari berari ere hala baitzeritzon, garrantzi handirik gabeko zerbait, bizkorra izanez gero, saihets zitekeena, iskin egin ahal zitzaion zerbait edo, okerrenean, ahantzi egin beharreko zerbait. Bizi beharra zegoen.

Bizi beharra dago. Hildakoak gorabehera –maite ditugunak, baita hainbeste maite ez ditugunak ere–, bizi beharra dago, Eugeniarengatik, besterik ez bada, bizi beharra dago, Cocorengatik eta, batez ere, bizitzak oraindik, gezurra badirudi ere, ekarri ahal duenagatik. Bizitzak beti harritzen gaitu, badu beti modurik gu ezustean harrapatzeko. Adibidez, nola pentsatu ahalko nuke inoiz, adin honetan, ni baino gazteago den norbait nitaz maiteminduko zela?

Pentsaezina zatekeen, baina horixe gertatu zait Joserekin, hark behin baino gehiagotan esan didana egia izanez gero, behintzat, zeren ni baino gazteagoa izanagatik, ez da mutil gazte bero bat, laster hirurogei urte izango dituen gizon betea baizik, eta halako

baten ahotan susmagarria zait edozein maitasun aitorpen: edo niri ziria sartzen saiatzen ari da, edo ez dago burutik sano. Bigarren aukera horren alde egiten dut nik, noski, ez baitut uste Jose nire diruaren atzetik dabilenik: badaki ni ez nintzatekeela inorekin berriz ezkonduko eta erraz pentsa dezake nire ondare osoa Eugeniaren esku geratuko dela. Hori alde batetik; bestetik, nik baino diru gehiago duelakoan nago, nire bi senarrek eta Arturok berak nik baino gehiago izan zuten era berean, eta, beraz, burua pixka bat pitzatua izateari deritzot posibleena. Ez dit, egia esan, axola handirik, ustezko eromen horrek ez dit orain arte trabarik egin, ostera, harengana erakarri nau nolabait, seguruenik Arturo ekarri baitit gogora, hura bezala hamaika negozioren jabea den Jose Goietxe hau ere, bere erara, *voyou* samarra baita, ez Arturo bezain *voyou* xarmagarria, baina ni ere ez naiz orduko emakume xarmagarria, edozein gizon zoratzeko gai zena, salbu eta nire Jose adeitsu losintxaria; horrek gazteago sentiarazten nau, emakume oso oraindik, ederra oraindik, eta hori eskertzekoa da, susmoa dut noizbait nirekin ez duela zereginik jabetuko dela eta, etsituta, gazteago bat, emakume gordin bat bilatuko duela. Izango du nor aukeratu, ezen Jose, Arturo bezain gizon

itsusi erakargarria ez bada ere, itxurosoa da eta, garrantzitsuena, oso aberatsa. Erraz irudika dezaket ehunka emakumeren aurretik izututa korrika, maite dutela aldarrikatzen duten dibortziatu, neskazahar eta alargun diru-gose horiengandik ihesi. Hori bururatzen zait, Buster Keatonen film zahar batetik ateratako zuri-beltzezko irudi horiek erabiltzen dituen auto baten iragarkia telebistan ikusten dudan bakoitzean.

Ez nago inoren atzetik lasterka ibiltzeko eran, ordea, bereziki Gonzalo hil baino hilabete batzuk lehenago izan genuen istripua eta gero. Porschea txikituta geratu zen, baina bizirik irten ginen biok eta, hala ere, senarraren heriotza orduan hasi zela esango nuke, baita zenbaitetan lo egiten eragozten didan lepoko mina ere. Eskerrak pilates behintzat egin ahal dudan, batere ariketarik egin gabe ez bainuke bizitzen asmatuko, ez nuke jakingo denbora nola igaro, eta ariketari esker kanporatzen dudan zikinkeria guztia nigan geratuko zen, hainbat oroitzapen mingots geratu zaidan bezala.

Edozein modutan ere, lasai esan dezaket behin ere ez naizela inoren atzetik ibili, besteak izan direla atzetik etorri zaizkidanak, are Arturoren kasuan, bera izan baitzen nigana egiten zuena, aukerarik txikiena

ikusi orduko. Arturo gizon argia zen, esan dudan bezala, eta jakin izan zuen itxaroten ni nahiko ahul egon nintzen arte, senarra preso nuela. Beharbada horretan egin du Josek huts: ez du itxaroten jakin, Arturok jakin izan zuen bezala, ez du nire ahulgunea aurkitzen asmatu, eta berehala eskuratu nahi izan nau, garaia baino lehenago, lanik egin gabe, bakarrik bere diruari esker, bere opari ugari garestiei esker bereganatuko ninduelakoan, harribitxiak eta jatetxeak nahikoa izango zirelakoan ni txunditu eta liluratzeko, horiek denak jaio nintzen egunetik bertatik nire bizitzaren parte izan direla ahaztuta.

4

Zorionekoa naiz. Beti izan naiz. Behin baino gehiagotan erran dit Biterik. Hark errandakoak bortz axola, baina nire bizitzari behatu bat eman, eta hala dela uste dut nik ere. Herrian gelditzen ahal nintzen, Zugarramurdin, anai-arrebak bezala, Iruñera joan ordean ttipitan. Etxeko gazteena nintzen eta horregatik utzi ninduen aitak joatera. Baserriaren segida segurtaturik zegoen, eta, hortaz, ni apaiz bilakatzea egokia iduritu zitzaion. Herriko apaizak hartu zuen lan guztia. Eskola ttipia finitu nuen urte berean, udazkenaren hastapenean, hark eraman ninduen Iruñeko apaiztegira. Zortzi urte geroago handik atera nintzelarik, berriz ere zorionekoa izan nintzen: ateo ateratzeaz gain, ia komunista ere atera nintzen. Baita, handik gutira, Potasaseko greba zela-eta, polizia gibelean nuela, Iruñetik alde egin ahal izan nuelarik ere. Gasteizera igorri ninduten, eta han, orduan nintzen iraultzailearen ametsa gauzatu ahal izan nuen, gutik bezala. Eta zer erran politikarekiko xarma galdu eta, drogen munduan ibili ondotik, hemen, bizirik eta osasuntsu nagoela, nire hainbat lagun ez bezala, ikustean. Suerte ezin hobea nirea,

nehondik ere. Bizirik segitu nuen eta, gainera, libre, kartzelatik pasatu gabe. Horra hor berriz nire suerte ona, Frantzian errefuxiatu paperak, berez errefuxiatu izan gabe, eskuratu nituenean bezala. Eta antzeko zerbait erraten ahal dut negozioetan lehenbizitik izan dudan aldeko haizeaz. Arrunt harrigarria. Amodio kontuetan ere, ezin kexa, Gloria agertu arte, bederen.

Udako arratsalde batez, hondartzan bainatu eta gero etxe aldera joaki nintzelarik, ikusi nuen lehendabizikoz. Alaba besotik atxikita heldu zen: doi-doia iduri koloretsu bat hastapenean, begiak bahitu zizkidan zerbait aldakorra, hurbildu ahala. Kolpean matelak bero sumatu nituen, eta izerditan gorputz osoa. Zozoturik nintzen, emazteki izugarri hari beha, zentzumen guztiak erne. Harrigarriki erne, kontuan izanda bera baino gutienik hogeita hamar urte gazteago eta emazteki gordina zen alaba saihetsean eramaki zuela. Minigona eta sandaletekin joaki ziren biak, biak deigarri. Ondotik pasatu zitzaizkidalarik, niri behatu ere egin gabe pasatu ziren, nire gibeleko zeruaren gorritasunean behakoa, iduriz. Bien zangoak luzeak ziren. Oi, zein bikote ederra, pentsatu nuen. Ama izan zen oroimenean gelditu zitzaidana, haatik.

Maiz oroitu nintzen hurrengo egunetan ezezagun hartaz. Nor ote zen? Nor haren zorioneko senarra? Bistan zen aberatsa zela, haren beztimendak eta ibilerak hala erakusten zuten.

Klasea zeukan. Frantzian emazteki ederrak ezagutu eta haietako batzuekin ibiltzera ere ailegatua nintzen, baina hura, ezezagun gogoangarri hura, beste zerbait zen, berezia, neurriz gaindikoa. Uda osoan hura heldu zitzaidan gogora, ezagutu nuen etorbidetik pasatu nintzen bakoitzean. Behin ere ez nuen berriz ikusi. Turistak zirela pentsatu nuen, Biarritzetik egunpasa etorri turista aberats batzuk, eta pitaka-pitaka ahanzten joan zitzaidan, nire barnerako irri apal bat eginarazten zidan oroitzapen gazi-gozo bat bilakatu arte. Urte batzuk geroago, ordea, neguko gau batez Iturrin sartu eta ikusi nuelarik, istantean ezagutu nuen.

Minigona jantzi ordean, galtza eskoziarrak eramaki zituen, eta beso-eskuak alabari eskaini beharrean, ezagutu nuen arratsalde ordurako urrun hartan bezala, Cocori atxikitzeko erabilki zituen. Buruan turbante bat eramaki zuen, bilo kizkurra gordetzen ziona. Adin bertsuko bizpahiru emaztekiekin zegoen, gero jakin nuenez, arratsaldero Alde Zaharreko ostatuen buelta

elkarrekin egiten zutenak. Ttipiak ziren, eta haien artean usaian baino nabarmenagoa zen Gloriaren presentzia beti nabarmena. Sukaldeko atearen leiho biribiletik hari behaka gelditu nintzen. Bertzeen begietatik libre, hondarrean lasaiki eta luzaz miretsi ahal izan nuen handik. Zaharra zen, heldua, berak fite aski zuzenduko lukeen gisara, eta zenbait zimur normal ahantzirik, makurrik gabe iduritu zitzaidan nire gordelekutik.

Joan ziren arte esperatu nuen Biteriri dei egiteko. Hura ere harritu zen ni sukaldean ikusitakoan. Harekin solasean ikusi nuen emaztekiaz egin nion galde, ezagutzen ote zuen. Gloria? Bai, ezagutzen diat. Zer jakin nahi duk, ba? Modu horretan galdetuz gero, zer edo zer nahi duk. Ezagutzen nau eroputzak. Irri gisako zerbait egin dut, arrapostu beharrean. Deus gutxi dakiela segurtatu dit, ia gauero hamarrak aldean agertzen dela, lagunekin batzuetan, zakurttoarekin eta alabarekin tarteka, aste hondarrean beti. Fatxa samarra duk, baina, zer nahi duk? Aberatsa duk, jaiotzez. Andre dotorea duk, ordea. Banekien Biterik *jaiotzez* harekin zer erakutsi nahi zidan: nitaz ari zen.

Gu materialistak gaituk, oroitarazi nion, eta materia, ukitzen ahal dena inporta zaiguk, erabiltzen ahal

dena, segur aski Gloriari ere inporta zaion berbera. Fitsik erran gabe itzuli zen Biteri lanera, ni han utzita. Gehiago jakin nahi nuen, dena jakin nahi nuen, baina banekien egon beharko nuela, Biterik jada kontatutakoa baino gehiago nekez kontatuko zidala, eta nire baitako galderen arrapostuak nerorrek atzeman beharko nituela. Biharamunetik hasi nintzen lanean.

Iturri goizez bisitatu partez, ordura arte bezala, gauez joaten hasi nintzen, hamarrak aldean. Biteri agurtu eta porto bat galdegiten nion. Gero, ostatuko jende kopuruaren arabera, zoko bat hautatzen nuen, Gloriaren sarrera ikusi eta momentu guztiz begipean izateko egokia, eta prest.

Lagunekin edo zakurttoarekin agertzen zen, Biterik kontatu bezala, arropa eta zapata diferentez beti, dotoreak beti. Orrazkera ere maiz aldatzen zuen: harro-harro zenbaitetan; zapal egina, olioztatu eta dirdiratsu bertze zenbaitetan; ahantzi gabe burua biltzen zioten zetazko mokanes kolore bizikoak eta misterioz betetzen zuten kolore bakarreko turbanteak. Molde batez zein bertzez, erotu egiten ninduen. Gonaz edo galtzez beztiturik, takoi estuak edo bota luzeak, berdin sorgintzen ninduen gauero, nerorrek ez bertze ne-

hork giroan sumatzen ahal zuen lurrin gozo baten bitartez. Irrigarria zen. Irrigarria nintzen.

Hamabortz urte banitu bezala jokatzen ari nintzen, eta banekien. Biterik eta, segur aski, ostatuko bertze langileek ere bazekiten gisa berean. Aire! Uxa hortik horiek guztiak. Nagusia izate hutsagatik gorroto izanen zidaten bertzenaz ere. Klase borroka, klaseen artekoa, su batean dago. Eta betiko gisara, burgesak irabazten ari dira, edo ari gara, horietarik bat bilakatu bainaiz nerorri ere hondarrean. Hala da: gaztetan errabiarik handiena niona bilakatu naiz urteak pasatu ahala. Potasaseko grebaren sasoian, orain naizena izanen nintzela norbaitek iragarri izan balit, alimaleko matelezurrekoa joko niokeen. Tapla! Sudurra hautsiko niokeen.

Iraultzan sinesten nuen. Klaserik gabeko gizarte batean sinesten nuen, libertatean eta berdintasunean oinarritutako batean. Gaztea nintzen. Lurrean nahi nuen zerua.

Sotana errefusatzeko erabakia erraza izan zen. Gurasoei, bereziki amari, jakinaraztea frankoz zailagoa, ordea. Ustekabe galanta izan zen haiendako, baina espero baino hobeki hartu zuten, Jainkoaren

nahia zelakoan. Haren bideak ezin asmatuzkoak izaki, etsi behar.

Zer egin behar duk orain?

Gure aitaren galde horretan laburbiltzen zen gurasoen zinezko arrangura. Lasaiarazi nituen: Lan eginen dut eta ikasi ere bai. Ongi pentsatuta nuen apaiztegia utzi aitzin, eta etxean, Zugarramurdin aste batzuk egin eta gero, Iruñera itzuli nintzelarik, banuen ganbera bat, Arrotxapea auzoko ikasle etxebizitza batean.

Opusen hasi nintzen ikasten goizez. Lan egiten nuen arratsaldez. Estafeta karrikako ostatu batean, sukaldean laguntzaile. Patatak zuritzen nituen, tipulak eta baratxuriak xehatzen, baxerak egiten. Ongi nengoen, eta hobeki ere egoten ahal nintzen, pixka bat denbora gehiago izan banu. Denbora unibertsitateko kontuak ikasteko, eta leitu nahi nituen liburuak leitzeko. Gehienak marxismoaren gaineko liburuak ziren, nire zenbait ikaskidek utziak. Astean behin biltzen ginen gordeka, eta testuak etsaminatzen genituen. Klasikoak: *Partidu komunistaren manifestua*, Engelsen *Familiaren, jabego pribatuaren eta estatuaren jatorriaz* eta abar. Bilerak unibertsitatean bertan egiten genituen, zuzenbide erromatarraren gaineko talde lanen bat aitzakia.

Taldea irakasle-laguntzaile batek zuzentzen zuen, Luis Arraizak, oraino gaztea zena, baina gu gehienok baino zaharragoa. Franko poliki zekien, eta kontzepturik korapilatsuenak ere aise konprenitzeko gisan esplikatzen zizkigun. Solasturi gaitza. Erne aski aditzen genuen. Klase borroka edota sozialismoaren eta komunismoaren arteko ezberdintasunak zertan ziren ikasi genuen. Negu osoan aritu ginen horretan, eta, maiatzean, etsaminak baino lehenago, kafe bat hartzera gonbidatu ninduen, taldearen bilera finitu orduko. Lanera joan behar nuenez, Alde Zaharrera joatea proposatu nion. Estafeta karrikara bidean mintzatu zitzaidan. Feuerbachen gaineko Marxen tesia aipatu zidan: Orain arte, filosofoek molde diferentetan interpretatu dute mundua, aldatzea da kontua ordea. Berehala konprenitu nion adierazi nahi zidana. Eta akort nintzen harekin. Mintegiak, ikasketa taldeak ongi ziren, baina guti zen. Gehiago behar zen, narda bizia eragiten zigun mundua errotik aldatu nahi izanez gero, bederen. Hori dena, apalki mintzatuz erran genion elkarri, norbait beha ote genuen errezeloz. Ostatu batean ginen gero. Barra gainean unibertsitateko liburu eta kaierak nituen, eta horien artean –fite eta zernahi

gerta ingurura behatuz– sartu zituen Arraizak jakaren barne sakelatik atera zituen paperak.

Gaua arte egon behar izan nuen Arraizak pasatutako paperak leitu ahal izateko. Nire ganberan, ohatzean sarturik leitu nituen. *Combate* deituriko aldizkari baten bi zenbaki ziren, eta Txileren gaineko testu trinko bat. Mailua eta igitaia ageri ziren guztietan, eta lau zenbakia zuten gibelean. Aski gisa kaskarrean inprimatutako orri guti batzuk ziren, eta, goizeko hiruretan leitzen finitu nuelarik, tintaz belztuak neuzkan hatzak. Kostata lokartu nintzen, hain neukan burua ideiez, dudez eta galderez mukuru. Biharamunean Luis Arraizak berak gogotsu arrapostu zizkidanak. Gauzak iduri baino zailagoak ziren, nehondik ere. Baina Arraizak pazientzia handiz esplikatu zizkidan nik konprenitu ezin nituenak. Baita bezperan esoterikoa iduritu zitzaidan lau zenbaki haren erran-nahia ere. Horretarako, langile mugimenduaren historia laburbildu zidan, internazionalen segida. Marx, Engels, Bakunin, Proudhon, Lenin, Trotski, Stalin hartu zituen ahotan, erotzeko gisako izen andana. Horietarik batzuk orduan aditu nituen lehendabizikoz. Nire nahasmenduaz ohartu zen Arraiza: Ez kezka. Neuri ere kostatu zitzaidan ulertzea. Denbora kontua da.

Gaztea nintzen, nekagaitza, eta nire jakin-mina mugagabea zen. Orenetan egoten nintzen hatzak zikintzen zizkidaten paper haiek leitzen, ongi inprimatu eta azal gogorreko liburuei behaka egon ordean. Hori argi utzi zuten etsaminek, zorigaitzez. Hautatu beharrean nintzen: zuzenbidea ala iraultza. Luzaz pentsatu gabe egin nuen: iraultza. Pausarik gabeko iraultza.

Hastapenetik maitatu nuen, Arraizak lehendabizikoz aipatu zidanetik. Pausarik gabeko iraultza. Jakina! Bertze moldetako iraultzarik izaten ahal zen? Pausarik gabeko iraultza: beti biraka ari zen zirrika. Franco tiranoa ez ezik, kapitalismo osoa ere hauts bilakarazi arte zanpatuko zuen zirrika. Behin ere gelditu gabe, jira eta bira. Hura zen nire iraultza, egiazko bakarra. Horregatik baietz erran nion Arraizari, bere partiduaren aldeko *sinpatizante* talde batean sartzeko gonbita egin zidalarik. Liga Comunista troskizale izateagatik Lenin zale ere bazen, antolamendu aferetan bereziki: baziren sinpatizanteak eta baziren militanteak. Militante izan aitzin, sinpatizante izan behar. Langile klasearen abangoardia ginen, armada bat: diziplina iraultzailea behar zen.

Ikasturtea finitu zelarik, Zugarramurdira itzuli ordean, Iruñean segitu nuen: San Ferminak prestatu

behar genituen. Paretetan eskribitu behar genuen, pankartak dilindan paratu, karriketan hedatu behar genituen eskuorriak inprimatu. Iruñea alde anitzetatik etorritako jendaldeak beteko zuen, eta aise ailegaraziko genien gure mezua. Propaganda ekintza baten ondotik jendalde horretan oharkabean galtzen ahal ginen gisa bertsuan. Laguntza izanen genuen, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorriko baitzen hainbat burkide. Agorrila arte ez nuen Zugarramurdi zanpatu, beraz.

Aita-amei kopeta ilundu zitzaien, ikasketak utzi behar nituela jakindakoan.

Zer egin behar duk orain?

Lan eginen dut.

Ostatuan?

Ezetz erran nien, oraino bertze lanik atzeman gabe banintzen ere. Iruñea inguruko lantegiren batean nahi nuen lan egin, egiazko langileekin. Ligan akort ziren: proletalgoarengan errotu behar genuen partidua. Gainera, lantegi bat, zeinahi, ezin Estafeta karrikako ostatua bezain makurra izan.

Landabenen barna ibili nintzen, lana galdegiten. Orduan ere, zorionekoa izan nintzen: hamar egun geroago Eatonen ari nintzen. Kamioietarako ardatzak,

abiadura aldagailuak eta halakoak egiten genituen. Ia bortzehun langile.

Isilik egon nintzen hasierako sei hilabeteetan. Ingurukoei adi egon nintzen, aginduta neukan gisara. Hondarrean langile finko bilakatu nintzelarik, ordura arte ikasia baliatzeko tenorea zitzaidan ailegatu. Sindikatu ofizialekoak ezagutzen nituen. Banekien nor ari zen isilpeko langile-batzordeetan eta bertze kontu franko. Eatongo *nagusiak*, bertan antolamendu zerbait zutenak, ORTkoak ziren, ia Nafarroa osoan bezala. Maozale bilakatutako langile katolikoak ziren haietarik anitz. Mao, munduko iraultzaileen eta herri zanpatuen bidea argitzen zuena. Stalinen ondorengo bipila, langile guztien aitattoa. Halako erretolika irrigarria erabilki zuten beren argitalpenetan, ironia bihirik gabe, Txinak gazteleraz argitaratzen zituen aldizkari eta liburuetatik zuzenki hartua. Mintzaira epikoa zen haiena, handitsua, txinatar herriaren idurikoa, etorkizunaren jabea izanen zen proletalgoaren neurrikoa. Loriatsua. Perreka hutsa, finean. Zaborra. Txinako laborari ikasgabeendako pentsatua, handik ekarria. Bertzerik gabe, mekanikoki. Umeendako ipuinak. Estalinismo makurraren segida.

Nola sinesten ahal dik nehork halako pitokeria?

Arraiza alienazioaz mintzatzen zitzaidan, klaseak, gureak, alegia, burujabe bilakatzeko egin beharreko eginahal gaitzaz, klase kontzientziaren harrotzaileez. Eta nik zernahi sinetsi. Irrigarriak zitzaizkidan *txinatar* haien gisara.

Gazteak ginen. Horixe. Eta Arraiza predikulari ederra zen, bizkorra. Gainera, lankide nituenek pasatzen zidaten *En Lucha* eta gure *Combate* alderatzen nituelarik, hanpatu egiten nintzen, hain baitzen bien arteko aldea, nire idurikoz, izugarria. Bazen mintzaira: hanpatua eta aski burrunbatsua bata eta argia bezain eraginkorra bertzea. Haatik, bien arteko alderik handiena azterketa politikoen kalitatean zen. Gu ginen hoberenak, erran gabe doa. Bertzeak, ostiajale porrokatu andana. Gurutzea altxatu ordean, mailua eta igitaia altxatzen zituzten. Aspaldiko otoitzen partez, guretako horiek bezain ezdeusak ziren haien betiko errepikak: Masekin egon beharra dago, haiek baino urrats bat aitzinago, urrats bakar bat soilik.

Errepika hori gure kontrakoa zen, nolabait. Sobera fite nahi omen genuen aitzina egin, langileekin edo langilerik gabe. Gezurra. Haiek ziren behar baino mantsoago joan nahi zutenak, gure ustetan. Haiendako traidoreak ginen, troskizale guztiak bezala, langileria-

ren minbizia. Hain justuki, guk haietaz uste genuena. Zernahi gisaz, partidu eta talde anitzetan partituak izanagatik, guti ginen, eta elkarren beharra genuen. Eatonen ere bai.

Txinatarren nahiz gainerako langileen burua Fran Gartzia zen, nik baino hamar bat urte gehiago izanen zuen Tuterako gizon puska. Fenwick bat gidatzen zuen, lantegi osoan barna ibiltzea ahalbidetzen ziona. Ibilgailu ttipi haren gainetik zuzentzen zuen bere armada koskorra. Zoko guztiak ezagutzen zituen, eta lotura lanak egiten zituen. Denaren berri izaten zuen: nork banatu zituen bezperan bildutako eskuorriak eta nork ez, nor genuen alde eta nor kontra. Jatorra tratabidean eta bizkorra erabakitzeko tenorean, bazuen gure buru izateko behar zena. Hura gureganatuko bagenu, komite osoa gureganatuko genuke harekin batean. Ideia ona iduritu zitzaion Arraizari. Zelulakoei ere bai.

Eatonen lanean hasi nintzelarik, militante egin ninduten, langile bilakatzeagatik sari. Partiduak bi zelula zeuzkan Iruñean, langileena eta ikasleena, gurea baino handiagoa. Ni langileenekoa nintzen. Bortz lagunek osatzen genuen. Bortzetarik hiru nire gisakoak ziren, langile berriak, alegia. Bertzea, borzgarrena ge-

nuen betikoa: Juantxo. Goitizen bat zen, klandestinitatean aritzeko pentsatua. Nirea Aker edo Arraizarena Leo ziren bezala.

Partidu politiko bat baino gehiago, lagun kuadrilla bat ginen. Iruñea gisako hiri ttipi batean, erabateko klandestinitatea, zaila baino gehiago, ezinezkoa zen, jende gehiena elkarren ezagun izaki. Alde Zaharrean barna ibilki ginelarik, bertze kuadrillak ikusten genituen: abertzaleenak, txinatarrenak, karlistenak, komunistenak... Baita bertze troskizaleena ere.

Liga Comunista Revolucionariakoak. Haiek, gu bezala, laugarren internazionalekoak ziren, baina erakunde horren zuzendaritzaren gehiengoaren aldekoak, gu gutiengoaren aldekoak ginelarik. Edo aldrebes ote zen? Nolanahi ere, bai haiek bai gu ttipiak ginen, ia mikroskopikoak, dena betetzen zuten txinatarren aldean. Horrek berdintzen gintuen. Bixkiak ginen nolabait, baina osoki ezberdinak ginela iduritzen zitzaigun, ia kontrarioak. Iritzi ederra sektakeriaren kontrakoak omen ginendako. Langileen batasunaren aldekoak arras bereizirik, zatiturik ginen: bai haiek eta bai guk irrigarri uzten genuen geure burua. Txinatarrek nahiz bertze partidukoek hori gure kontra zuten baliatzen, jakina, ilupenak ere baliatuko zukeen gisara. Guti eta

elkarrekin kasailan beti, erraten ziguten. Kuadrilla bat baino gehiago, sekta bat osatzen omen genuen, errealitatetik kanpo bizi zena.

Lantegietan ezberdina zen. Ezkerreko talde guztien langileak guti ginen. Etsigaitzak, ekinak, baina arrunt guti. Eatonen ere hala zen. Guztien beharra zegoen, kapitalaren oldarrari kontzeko. Ama guztien seme-alabak, bereizketa nabarmenik gabe. Denak ongi helduak, txinatar zein lesakar.

Langileon bizimoldea gero eta makurragoa zen. Prezioek goiti egiten zuten etengabeki. Oren estren kopuruak goiti egiten zuen gisa berean. Esplotazioa gero eta gorriagoa zen, errukigabea. Hori dena begibistakoa zen guretako, erran nahi baita, komitekoendako. Afera bertze gisa batean ikusten zuten gainerako langileek, ordea. Gauzak gaizki ziren, nola ez, baina hala egon ohi ziren langileendako. Okerrago ere egoten ahal ziren.

Zuek gazteak zarete, ezkongabeak, nahi duzuena egiten ahal duzue, erraten zidaten.

Eta isildu behar, haiek baitziren egiazko langileak, kapitalismoak erabateko etsipenera eramanak. Fran Gartziak erran ohi zuenez, guk aditu behar genituen, haiek zerbitzatzeko baikinen finean. Horixe erraten

zuen, eliza katolikoaren doktrina soziala eta Maok erakutsiak nahastuz.

Harekin etsia nintzen. Eginahalak egin eta egin, eta alferrik. Estalinismoaren makurkeria erakusten nion, mundu osoko langileriari egindako traizioak, hilketak, krimenak, baina hari bortz. Stalinek salbatu omen zuen faxismotik mundua. Hark hartu zuen Berlin. Haraino zabaldu zuen sozialismoaren lurraldea. Zer egin zuen Trotskik? Fitsik ez. Trotskik sortu, montatu eta zuzendutako armada gorriaz mintzatzen nintzaion, hain justuki, naziei nagusitu zitzaienaz. Alferrik.

Apaizak ez bertze!

Zapalkuntzaren kontrakoen borroka, borroka bakarra zen, klaseak bezain zaharra. Hori ikusteko historiari behatu bat ematea aski. Gure borroka bertze borroka anitzen segida zen, Espartakorenganaino eta, segurki, lehenago ere hasitako mugimendu baten segida. Kasete batean grabaturik nuen eta, hainbertze aldiz aditua, buruz nekien Mikel Laboaren kantu batek xarmanki adierazten zuen zanpatu guztien funtsezko batasun eta segida horiek: Zazpi atedun Tebas hura, nork eraiki zuen? Liburuetan errege izenik baizik ez da

ageri. Erregeek garraiatu ote zituzten harritzar handiak?

Betikoek garraiatu eta eraiki zituzten garraiatu eta eraiki beharreko guztiak. Lurrean kondenatuek, gosetuen jende andanak. Betikoek. Guk. Piramideak, jauregiak, metalezko ardatzak, zernahi izanda ere langaia, gure lepotik norbait bizi beti.

Hala zen eta hala da. Hautatu beharra da: gainean edo azpian. Nik hautatu nuen: azpian, orduan azpian egotea gain-gainean egotea izanagatik. Gainean egotea, haatik, kaskoan egotea da, salbuespenik gabe. Hori ongi jakiteko, hondoraino erori behar da, menturaz. Hura jo arte, ezin gainean egoteak emandako segurtasun erosoa zinez ezagutu. Orduan ohartzen gara hautua egin behar dela. Gainean edo azpian. Hil edo bizi. Horixe dena. Langileak hautatu nituen nik, hogeitaka urte geroago ez bezala. Argi nuen barrikadaren zein aldetan nintzen. Itsusi mortal ederren aldean, pobre behartsu aberatsenean. Zintzoekin, eskuzabalekin nintzen, nire odolaren hondar tanta isuri arte borrokatzeko prest. Xuhur soszaleen, makurren, petralen kontra. Argiaren ezpata nuen eskutan, ilunpearen inperioaren kontra. Horretan barna joaki nintzen, zaldun ohoretsu, bulartsua. Nire arma, gurea, klase elkartasu-

na zen. Armarik eraginkorrena, nire ustetan, burgesen polizia eta armada, haien komunikabide ahalguztidunak baino arriskutsuagoa. Langileak, mundu osoko zanpatuak burgesak eta zanpatzaileak baino anitzez gehiago ginen, haiek baino bi mila milioi gehiago, gutienez. Juntatuz gero, ezin nehork gu geldiarazi. Nehoizko armadarik handiena ginen. Errauts bilakaraziko genuen buru eginen zigun zeinahi etsai. Segur nintzen, zenbait urte lehenago arte, maitasunaren eta Kristoren garaitezintasunaz segur nintzen gisara.

Maitasuna. Hitz hori aditu eta pistola aterako nuke orain, Joseph Goebbelsek erran omen zuen bezala. Jakina, horretarako pistola izan behar nuke, eta duela urte anitz bota nuen nehoiz izan dudan bakarra: Parabellum zahar bat, hamaika eskuk baliatua, Mikel Salazarrek hil aitzin pasatutakoa. Baina maitasunaz ari naiz, iruzur horretaz.

Gloriarekin ere horretaz aritu izan naiz aski maiz. Maite dudala aitorturik ere, irritto bat atera diot, gehienez. Konprenigarria guztiz, niretako bezala, harendako ere sinesgaitza baita kontu hori. Nobeletan, zineman-eta ongi da; horietatik aparte, irrigarria. Batek daki zenbat lagunek adierazi dioten halakorik. Maite du, hala ere, eskaintzen didan irritto horretan

sumatzen ahal diot. Nik errana dudatan paratzen duen irritto horren azpian nire aitorpenak sortzen dion harrotasuna sumatzen dut, bai eta, emazteki *heldua* izanda ere, bere betiko edertasunaren poxi bat, behintzat, oraino gorde duela jakiteak piztutako alegrantzia nabarmena ere.

Maite ote dut? Ezetz uste. Areago, inoren maitasunik merezi ez duela erratera ausartuko nintzateke. Sobera berekoia da, bihotz azkarrekoa. Ni naizen bezalaxe. Hala ere, erraten dizkiodanak egiazkoak direla iduritzen zait. Zer dela kausa? Lehendabizikoz maitemindu nintzeneko sintoma berdinak atzematen dizkiot neure buruari. Hura ikusi eta itotzeko gisako beroa sentitzen dut, izerdia esku-ahurretan, besapeetan. Bihotza bizkortu egiten zait eta zainetako odola ere bai. Puik erotu zuen gazteak meneratzen nau berriz ere.

Pui, izenak berak erakusten duenez, Lizarrakoa da. Iruñean ezagutu nuen, Potasas de Navarran, Esparza zuloan hetsirik ziren langileekiko elkartasunaren antolatzeko egin zen batzar batean. Medikuntza ikasle aitzinatua zen eta gure sinpatizantea. Neska ttipia, liraina, beltzarana. Haren begi ilunak, aldiz, gaitzak ziren, planeta osoa atxikitzeko bertze. Potasaseko langileen

borroka, Nafarroan nehoiz izan azkarrenetarik bat gertatzen ari zen, eta horren alde partiduak bere indar guztiak paratu zituen. Ahalik eta batzarrik zabalenak antolatu genituen, grebalariendako sosak bildu genituen eta eskuorriak partitu, haien greba bertze lantegietara hedatzera saiatu ginen, arrunt zaila izanagatik. Jo eta su ari ginen horretan, eta egoerak fabore aski handia egin zion Puiren eta bien arteko harremanari. Mihise zuriz egindako pankartak paratu genituen Alde Zaharrean, baita Landaben eta Sadar aldean ere. Donibane eta Arrotxapea auzoko paretak elkartasun mezuez eta greba orokorrerako deiez estali genituen. Molotov koktelak prestatu genituen. Hainbertze gauza ziren egiteko eta hain ginen guti.

Negu gorria zen, baina gure harremana berotzen hasi zen, Nafarroan protesta giroa azkartzen joan zen heinean. Lanpeturik ibilki ginen biok –Eatonen greba bultzatzen ni, eta gauza bera egiten unibertsitatean Pui–, sukarturik bezain gastaturik, eta hala ere, elkarrekin suertatzen ginen, halabeharrez, ustez. Elkarrekin ibili ginen Donibaneko dendak hesten eta elkarrekin egin genion postetxeari harrika. *Diario de Navarra*ren egoitzari ere egin genion. Egunkari horren berri ustelek eta iritzi artikulu peste gorrotagarriek arrunt

suminduta. Kristalak hautsi genizkion, eta su ematera ere ahalegindu zen baten bat, erreusitu ez bazuen ere. Infernuko sua, betiereko deus guti zen faxista haien krimenak garbitzeko. Horretan denak konforme ginen: txinatarrak, abertzaleak, troskizaleak, are karlistak. Denak akort. Jo eta su. Errukirik gabe. Zirt-zart. Kiskal zaitezte urde gezurti zikin alu horiek. Errauts bilakarazi nahi genituen. Urtetako gezur kriminalen errautsak haizetan, gure gozagarri. Hainbeste errugabe hil zutenen boz harroa, haien bilaukeria beltzen begirale leiala airean goiti leher egiten ikusi nahi genuen, sugarrek lurrundua. Urtarrileko egun haietan, Nafarroa eta bereziki Iruñea erretzen zuen su berak erretzen gintuen gu geu ere.

Zinez, sutan ginen Pui eta biok, piztuak. Gure ametsetako iraultzarekin batean, gure sentimenduen iraultza gertatzen ari zen. Aise sumatzen ahal genuen. Bien hormonek elkarrekin nahi zuten, elkarrekin behar zuten. Eta elkarrengana bultzatzen gintuzten, grabitatearen indarra baino saihetsezinago. Gogaideak ginen, burkideak, eta ohaideak ere izatea denbora kontua zen. Ohartu baino lehen bikote banaezina osatu genuen. Elkarren itzala ginen. Lehendabizikoz maiteminduak ginen biak. Gure maitasuna, gainera,

egiazkoa zen. Gibel asmorik gabea, kalkulurik gabea, botere egarririk gabea. Puik zorarazitako gazte hark, ordea, boterea gorrotatzen zuen. Zernahi botere: estatua, eliza, enpresarien elkargoa, komunikabideak...

Tokitan da orain hori guztia. Maitasunaren ideia bera ere, erran bezala, irrigarria zait, absurdoa. Edo makurrago: gaiztakeria galanta. Errautsa bezala, haizeak eramaki duen solas hutsalen andana. Bertzea makurrarazteko tresna, hura menperatzeko, hari nagusitzeko erretolika gaiztoa, hitzontzikeria. Hor baitago koska. Bertzearen, zeinahi bertzeren jabea izatea, aldi labur batez bada ere, haren gainetik sentitzea. Egiazki horrek kilikatzen gaitu, bertzea desiratzera eramaten gaitu, pizten gaitu. Baina hori ezin agertu, den bezala. Sobera nahasgarria izanen litzateke, gizalegeak galaraziko luke. Horregatik kalaka hori guztia. Horregatik gorde nahi, mintzo eder baten gibelean. Itxurakeria baizik ez.

Maite zaitut, erraten diot Gloriari, nahiz eta jakin hark ez duela sinesten eta gainera hainbat inporta zaiola nire ustezko maitasunak. Maite zaitut, erran partez:

Ken tanga hori, sartu egin nahi dinat eta!

Zakil hanpatua aluan sartu, ipurtzuloan, ahoan, haren gorputzaren zernahi zirrikitutatik sartu eta pusa. Emazteki harroak amore egin arte, etsi arte, ni aitortu arte bere jaun eta jabe bakar, aitortu arte sortzen diodan plazeraren esklaboa dela, hori gabe ez dela bizitzen ahal, ni gabe xahu dela. Justuki, Gloriak sekula eginen ez lukeena.

Menekotasun osotik heldu zaio Gloriari gozamena, horri esker ailegatzen da bere libidoa pixka bat epeltzera. Bera baino gazteagoa den gizon bat, sosduna, bera baino are sosdunagoa menturaz, eta nolanahi, bere zakurttoa bezala erabiltzen ahal duena. Zer gehiagoren galde egiten ahal du? Zernahiren galde, Gloria asegaitza baita sortzez. Ezagun du. Keinu bakoitzean, haren gorputz oraino harrigarriki guriaren harroaldi bakoitzean, are zimur bakoitzean. Ez du fitsik debalde ematen. Hori bere burua gutiestea izanen litzateke, bere burua merke-zurrean saltzea, apaltzea, graduz jaistea, galtzea, finean, baina Gloria irabazlea da, hori izan da beti.

Nerorri ere irabazlea naiz. Nire kontuetan gehiago da sartzen den sosa, ateratzen dena baino. Jadaneko bildu dudanarekin aski nuke hil arte bizi eta bertze bizpahiru bizialdi gehiago egiteko ere. Irabazle petoa.

Hala ere, molde diferentekoak gara hura eta ni. Odol kontua izanen da, heziketa kontua. Ni, konparazione baterako, lanaren egitea zer den ongi ikasia naiz gaztetatik, hura ez bezala. Hori garrantzitsua da, nire idurikoz. Biteriri erran nion, Gloriaz ari ginelarik:

Guk bazekiagu zein den sosaren balioa. Hark ez.

Beha gelditu zitzaidan, hi haiz ilupa hi, adierazi nahiko balit bezala. Ahoa ireki zuelarik, Gloria laguna diat, erran zuen. Horixe erran zuen, bai, aski nonbait, niri jakinarazi beharreko guztia jakinarazteko. Hitz soilak, baina mehatxu argia, Biteri ezaguturik, nik ezagutzen dudan gisan.

Laguna? Bai zera. Zernahi izaten ahal ginen, hori izan ezik. Adiskidetasuna bertze zerbait da. Adiskidetasunak elkarrenganako konfiantza behar du, eta Gloria eta bien artean egundaino ez da halakorik egon. Interesak lotzen gaitu gu. Bi lagunen artean egoten ahal den loturarik sendoenetarik bat. Elkarrengana erakartzen gaituen bertzerik ez dugunez, horretan oinarritu dugu gure hala-moduzko harremana. Hari komeni zaio ni bezalako norbait eskura ukaitea eta niri ere bai, iduriz.

Konfiantza aspaldiko kontua da niretako. Iruñeko egunetara eta, batez ere, Gasteizkoetara eramaki

nauena, gaztarora. Horren ondorengo aldia, oraino irauten duena, mesfidantzarena da. Gloriarekikoa nahiz bertze nornahirekikoa. Aferen aldia, bertze molde batez errana. Edo heldutasunarena, nondik behatzen zaion. Nolanahi ere, nire bizitzaren bigarren aldiari dagokiona. Nire irabazle sasoiari.

Irabazten ikasteko, berriz, galtzen ere ikasi beharra da, bereziki, betiko irabazleen etxe batean, Gloria bezala, sortu ez den nire gisako batek. Galtzen doktoratu nintzen urte haietan. Gasteizen batez ere. Gasteiza joateko, haatik, Iruñetik pasatu behar.

Greba orokorra deiturik zen. Partidu eta sindikatu gehienak konforme eta, behingoan, atrebitu egin ginen. Ikusgarria zen dei-egileen zerrenda, karriketan, lantegietan, merkatuetan, institutu eta unibertsitatean hedatzen aritu ginen paperetan. Utzi ziguten bide bakarra zen, enpresariek zangopean xehatu nahi gintuzten, irindu, deuseztatu. Dena ordura arte bezala mantendu nahi izateaz gain, egunero oroituko zitzaigun lezio bat nahi ziguten eman. Guk halaber zerbait erakutsi nahi genien, eta, tenk horretan, bakoitzak bere alde egiten zuen, eskura zeukan zernahi baliatuz. Deus guti geneukan, baina anitz ginen eta arrunt haserre. Haiek ere koleran ziren, eta guk baino

gehiago zeukaten. Bazeuzkaten sosak. Bazeuzkaten hedabideak: madarikatzen gintuzten irratiak eta egunkariak. Eta polizia zeukaten. Zakur pesteak zinez, hiltzera ere ailegatzen zirenak. Horiek hil zuten Manuel Perez Elexpe gaztea Portugaleten –berrogei urte baino gehiago joan dira–, nafar langileekiko elkartasuna galdegiten zuten eskuorriak ari zelarik partitzen. Guardia zibil batek odol hotzez hildako hura ahantzi ezinik, atxiki egin behar boterearen eraso bortitzari eta, ahal izanez gero, nagusitu. Ordurako pentsaezina zen gibelera egitea. Sobera odol karriketan. Aitzina, hortaz, kosta ahala kosta.

Garesti ordaintzea gure kalkuluetan zen. Puik eta biak maiz aipatu genuen, eta aski oharturik ginen pasatzen ahal zitzaigunaz. Bagenekien edozein gautan jotzen ahal zutela gure atea. Hori zela-eta, etxe berean gauero ez lo egitera ahalegintzen ginen. Eta edozein soinuk iratzartzen gintuen, nahiz eta nekaturik egon, larrua jo eta gero. Beldurrak iratzartzen gintuen, poliziaren eskuetatik pasatutako burkideek kontatutakoak ikaraturik.

Beldurra ahalkegarria zitzaigun. Burges ttipia zen guretako, nehola ere ez komunista baten neurrikoa. Leninen biografia leitua genuen, Trotskiren autobio-

grafia, eta nehon ez zen halakorik ageri. Komunista batek gogorra behar zuen izan, balientea, bipila. Tortura jasaten jakin behar zuen, poliziaren galdeei ez adituarena egiten, burkideak ez traditzen. Hondarrean, historiak behartzen zuen lanaren mailan izaten. Eta alimalekoa zen lana. Mendeetako mundu zahar ustela erraustu beharra zen, eta horrek utzitako orubean bertze mundu bat altxatu. Mundu justuago bat, libreago bat, zapalkuntza molderik gabea, berdintasunean oinarritua.

Paradisua nahi nuen nik ere. Oharkabean izan arren, horixe nahi nuen, orain ederki dakidanez. Artean esperantza nuen, fedea ere banuen, eta jabego pribatuaren sortzezko bekatua ikusten nuen mundu honetako makur guztien iturburu. Gu dena emateko prest ginen, sinesten genuenaren alde etsi gabe borrokatzeko tente. Gu Liga Comunistakoak ginen, troskizaleak, langileen abangoardia. Baginen norbait.

Lan gogorra zen abangoardia izatea, arriskutsua, kristaua izatea lehenbizian izan omen zen bezala. Haien gisara, gu ere preso eramaten ahal gintuzten, zigortzen, jotzen eta torturatzen. Lehoiei ematea kenduta, zernahi egin ahal ziguten. Kasu egin behar zitzaigun, terrorista gaiztoak ginen. *Diario de Navarra*k,

irratiek, denek errepika bera, orro bera: gobernuak zerbait egin behar du, sobera berant izan baino lehen. Madrilen fite aski aditu zuten: indar handia bildu zuten Iruñera.

Logroñotik hainbat polizia konpainia ekarri zituzten, Burgostik eta are urrunagotik ere bai. Etorri berriak gazteak ziren, ongi prestatuak, sadiko hutsak.

Luze gabe ikusi ahal izan genituen lanean. Nonahi eta noiznahi agertzen ziren, gutien espero genuelarik. Sirenak uluka, semaforoei eta debekatu norabideei kasurik ez, espaloira igan eta han zirenei behatu gabe ibili. Talde bat non sortu, jendea non bildu, haiek hara burrunbaka ailegatu. Furgonetatik salto eginez, jo eta su oldartzen zitzaizkigun. Ikaragarriak.

Gu ere ez izan izutiak eta ikasi genuen, egunak pasatu ahala, geure burua defenditzen: karriketako alde banatako autoak elkarren ondoan bidean paratu eta polizien furgoneten aitzinatzea trabatzera entseatzen ginen. Zaborrak, kautxuzko zirrikak, egur puskak mukurutu eta su ematen genien. Sua eztiki hedatzen ari zen. Lantegiren bat edo batzuk greban zituzten herrien zerrenda bezala: Lesaka, Leitza, Tafalla, Sakana... Herri horien karriketako sua egiazkoa zen, ez sinbolo huts. Su hark dena ahal zuen irentsi, dena ahal

zuen kiskali. Nafarroa osoko suhiltzaileak guti izanen ziren laster, gure ustetan.

Baikorrak ginen. Errepresioa egundaino baino latzagoa zen, baina borroka guretako eredugarriak hazi eder bat utziko zuen lugorri emankor hartan, fruitu jori guriak emanen zituena. Gure azterketaren arabera, bertzalde, lan harremanetan ondorio argia izateaz gain, harreman politikoetan ere izanen zuen ondorio nabarmena, eta Espainiako diktadurarekin finituko ez bazuen ere, zinez lagunduko zuen hura botatzen. Hori gertatuko zen momenturako behar genuen prest izan. Gure urri gorria hurbil zen, libertatea bera. Heldu da, heldu da aldarrikatzera joko genuen karrikara. Bagenekien, ustez guztia genekien, aitzina egin beharreko urrats bakoitza. Bi urrats aitzina eta bat gibelera, Leninek agindu bezala. Iruñeko sobietarekin amets egiten genuen. Geure burua ikusten genuen makina, banku edo auto baten gainean, erne genituen milaka grebalariri mintzo:

Botere osoa sobietendako, botere osoa zuendako!

Langileek, ordea, bertze zerbait nahi zuten: jornal hobea, sindikatu legalak gehienez. Hobeki bizi, libertate pixar batekin. Hori nahi zuten Potasas, Super Ser, Imenasa, Laminaciones eta Eatongokoek ere. Esparza

zuloan zeudenek, gelditzen ziren hondarrekoek, hoberenek, bertze zerbait nahi zuten, menturaz. ORTkoak ziren gehienak, eta putzu heze hotz, nardagarri zikin hartan egon beharraren martirioa jasaten ari ziren, jendakiengandik, lagunengandik urrun, handik ateratakoan atzemanen zutenaren beldur, eta egun argitsu batekin amets eginez, Maori, lemazain handiari zerion argiaz argitsu. Mundu harmoniatsu, alai, justu batera atera nahi zuten. Hamabortz egunen buruan handik ateratzen lagundu behar izan zituzten, ordea, eri zenbait, eta nekatuak, pott eginak denak. Poliziaren eskuetara zuzenki joateko, preso har zitzaten, fitxa zitzaten, jo eta tortura zitzaten, kartzelara igorri aitzin. Eta, noizbait, handik kanpo, denak esku hutsik, lanik gabe, karrika gorrian, beren bizitzak berregitera bortxatuak.

Hori Esparza zulokoak, zigortuenak. Bertzeok ere zigortuak izan ginen, bistan da. Nerorri, konparazione baterako, Eatonetik kanporatua izan nintzen, eta poliziarenetik pasatu ez banintzen, gorderik ibili nintzelako izan zen: greba akitu ondorengo asteetan Iruñeko hainbat etxetan izan nintzen, Puirekin eta bertze burkide pare batekin. Denbora pasatzera utzi behar omen genuen, gauzak pixka bat trankildu arte, bederen. Hala erraten zigun partiduak.

Donibaneko, Arrotxapeako, Txantreako, Etxabakoitzeko, Iturramako etxebizitza ttipietan egon izan ginen, argia piztu gabe, zaratarik atera ezinik. Preso egotearen sentimendua gero eta biziagoa gugan. Egunak finigaitzak zitzaizkigun. Karta jokoan aritzen ginen denbora-pasa, leitzera ahalegintzen ginen, baina erlojuak geldituak ziren. Etsigarria. Beharrik, Pui eta biok elkarrekin ginen. Elkarri kontatzen ahal genizkion gure arrangura eta beldurrak, eta larrua jotzen genuen. Bazen zerbait.

Bi larruazalen igurtzia osasungarria da beti. Maitasunik gabe ere hala da, Gloriak eta biok ongi dakigunez. Energia sortzen du, hustu egiten gaituen halako indar magnetiko bat, berritu eta, zergatik ez, gaztetu.

Gaztetasuna garrantzitsua da Gloriarendako. Gaztetasuna eta sosak. Horregatik, bertzeak bertze, haren mesfidantza. Gazteagoa naizenez, fite bertze emazteki batez gutiziatuko naizela uste du. Gizonezko guztiak berdinak zarete, erran dit maiz. Bihar edo etzi bertze zimur bat agertuko zait, eta akabo maitasuna. Nik ezetz, zimurrek edertu egiten dutela, erakargarriago bilakatzen dutela. Hori aditu eta irri iduri hotz bat agertzen zaio eta nirekin haserretzen da.

Ergeltzat hartzen nauzu!

Gloriari maite dudala erraten diodan bakoitzean, ardo ozpinduaren gustua paratzen zait ahosabaian, nardagarria zinez, animalia ttipi baten gorpua hortz artean izanen banu bezala. Ahalkegarri sentitzen dut neure burua, zikin. Ergel zozo pilota neure buruarendako, baita Gloriarendako ere. Eta, hauxe harrigarriena, horixe erraten diot behin eta berriz:

Maite zaitut, maite zaitut.

Konpultsio bat da, zentzurik gabe errepikatzera behartzen nauen zerbait. Usaia ere izaten ahal da, orain arte balio izan didana, orain ere Gloriarekin balio izanen didala ustekabetan sinetsia, menturaz. Nik dakita? Hala ere, mingaina moztuko nuke halakoetan. Gloriari hala mintzatzea iraingarria ere bada, emazteki aparta baita, eta bertzeekin arrakastatsuak suertatu zitzaizkidan engainamenduek huts eginen didate harekin, segurki logikoa den gisara. Hori errana, ez dut adierazi nahi Gloria iraintzea gaizki iduritzen zaidanik. Kontrakoa, plazer handiz irainduko nuke: Puta, atso ipurtarro alaena, itoko ahal haiz hire sosetan!

Hura eta bere zakurtto alu zikina ere bai, orain ferekak egiten dizkiodan nardagarri hori bera, Coco, bere jabearen gisa bertsukoa den ile pelota berekoia, Gloriak berarendako bakarrik nahi duen muturrik ga-

beko izaki ttipi urde hori. Biak irainduko nituzke, biak joko nituzke gogotik, zakurra kasatu arte eta emaztekiari kordea galarazi arte.

5

Dirua simaurra da. Dirua zikinkeriaren metafora da. Ez diot nik, Sigmund Freudek baizik (*Charakter und Analerotik*). Nik ere esan nezake. Edo Marik. Edo hiperreko beste edozein langilek. Dirua gure eskuetatik behin eta berriz igarotzen da, eta arrastoa uzten du, arrasto lohi bat. Gure esku zigortuetan. Txanpon zorrotzek zauritutako gure eskuetan. Metalezko latek, kartoi gogorreko paketeek, plastikozko ontziek, denek uzten digute zer edo zer: ubelduak, zauri txikiak, ebakiak... Gure eskuak lakarrak dira, idorrak, traketsak, simaurra hartzearen hartzeaz. Eta hainbeste aldiz erabili dugu eskuetan, non horretarako baino ez dutela balio pentsatzera heldu baikara. Hau da, ez direla inor edo ezer laztantzeko gai. Mari, esate baterako, beldur da amets duen bigarren semetxo edo alabatxoa, inoiz izanez gero, nekez laztandu ahalko lukeela:

Esku tzar hauekin laztandu ordez zauritu egingo nuke, gajoa.

Marik ez bezala, nik ez daramat amatasunaren birusa barruan. Ezin dut inolako seme-alabarekin ametsik egin. Biteri daukat: adinez aita izan nezakeen

gizon bat. Begiratu ere egingo ez zidan aita bat. Aita gogor, zigor zale bat. Atzera egiten dut denboran, gure artekoa noiz eta non okertu zen asmatzen saiatzen naiz: alferrik. Haren nirekiko erabateko aldaketa ezin ulertu, nola igaro den irribarreetatik muzinetara, jatortasunetik uzkurtasunera, zerk eraginda. Elkarrekin egon ginen aldia gogoratu eta saiatzen naiz aurkitzen minduko zuen nik esandako edo egindako zer edo zer. Alferrik. Gogoan geratu zaidan hitz bakoitza, keinu bakoitza berritzen dut nire artean. Alferrik. Hitz eta keinu xaloak iduritzen zaizkit, salbuespenik gabe, tolesgabeak. Irribarrez hartu nituen haren irribarreak beti, eta aldarte onez haren hitzak. Oharkabean ere, zerbait benetan larria egin behar izan nion, hain erabateko aldaketa eragiteko. Zer, ordea?

Kirioak bihurritzen dizkit galdera horrek. Horixe dabilkit buruan, jogurtak eta txokolate tabletak eskanerretik pasatzen ditudala. Behin eta berriz. Eta behin eta berriz, horma gotor ilun baten aurka jotzen dut. Amorragarria da. Galderak horman punpa egin, baina, erantzunen bat itzuli beharrean, isiltasuna baino ez dit itzultzen. Behin eta berriz. Eta inora ez naramaten hausnarketetan murgilduta, amorratu egiten naiz hain artagabea izateagatik, orain ulertu nahi nukeena uler-

tzeko ezinbestekoak liratekeen xehetasun eta zehaztasun argigarriak oharkabean pasatzen uzteagatik. Bai, itsukeria madarikatzen dut, axolagabekeria, inozokeria. Harik eta halako batean, non nagoen jabetuta, irribarre egiten dudan arte: egun on, arratsalde on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...

Profesional bat naiz. Bezeroak atsegin ez baditut ere, irribarrerik onena eskaintzen diet, Biterik eskaini behar lidakeen modu berean. Profesionaltasunagatik besterik ez balitz ere. Gure Aspe bezalako baten premian dago, bezeroei zer esan, nola hitz egin irakatsiko liokeena. Baina haren nagusia gutxitan egoten da tabernan, eta Biteri izaten da Iturriko jaun eta jabea eguneko ordu gehienetan. Horregatik egin dezake nahi duen guztia. Horregatik egin dezake ez ikusiarena, tabernako atetik sartzen ikusten nauen bakoitzean. Ni iraintzeko duen modua da. Biteriren begiradak izoztu egiten nau. Hark ni begiz jo eta hotzikara batek dardara eragiten dit berehala. Zainetako odola antzigar bilakatzen zait, eta, berriz mugitzen naizenean, nekez lortzen dut bizpahiru urrats egitea, nire zokoraino heltzeko falta zaizkidanak. Nire zokoa diot, hainbeste aldiz hor babestu ondoren, neurea sentitzen dudalako. Talaia ederra da. Biteri ez ezik, taberna osoa

begietsi dezaket handik. Sartzen eta irteten direnak, edaten eta hizketan ari direnak. Iturriko bezeria neure burua bezain gutxi gustatzen zait: burges ttipi, bozka PPNVri (edo EH Bilduri) ematen dioten ardo zuri *chardonnay*-aren edale mokofin aspergarri horiek guztiak. Esfingearen gogaide eta, seguru asko, lagunak ere badirenak. Jendaila. Simaur hutsa, dirua bezala. Eta ezin dudanez beste ezer egin, denbora-pasa bat behar dudanez, haien bizimodu kriminalaren lekuko bihurtzen naiz, hiperrean egunero gizartearen bizimodu suizidaren lekukoa izaten naizen bezala. Betiko kontua da. Batzuek lagun hurkoa zapaldu, zigortu eta, azkenean, hil egiten dute. Beste batzuek, aldiz, beren burua. Betiko kontua: *Herrschaft und Knechtschaft*.

Behekoak eta goikoak. Dirudunak edo boteretsuak eta dirugabeak edo botere gabeak. Betiko kaka zaharra. Bikoteetan bezala: maitalea eta maitatua. Oinazea jasotzen duena eta plazera jasotzen duena. Menderatzailea eta menderatua. *Herrschaft und Knechtschaft,* azken batean. Horixe zen niretzat ere, Hegelen babesean Sartrek idatzitako zerbait, teoria bat, ez besterik. Biteri ezagutu arte.

Gure harremana (halakorik ez dugula uste arren Biterik, badugu, estu-estua) ez da Sartrek aipatutako

bikotearena bezalakoa. Gurean badugu jasaten duena (ni neu); ez, ordea, gozatzen duenik. Ziur naizelako Biterik ez diola nire minari etekinik ateratzen. Aterako balio, edozein motatakoa izanik ere, nabaritu egingo litzaioke. Baina begitarte bera izaten du beti: izotzezkoa, gogorra eta aldatzeko gaitza, zulatu, gainditu ezin dudan harresia. Gainerako bezeroei (izan turista edo bertako, gazte edo betiko txikitero), berriz, beste bat erakusten die: nirekin ez den profesionalarena. Edo Esfingeari erakusten diona, esate baterako, horrekin dena delako irribarrea eta mimoa, hurbiltasuna eta jatortasuna. Hain zuzen ere, niri erakusten didanaren kontrakoa. Beharbada, niri mina egiteko ez, ni uxatzeko erabiltzen du Biterik andre patetiko hori. Nirekin baino lehenago, zapo koloretsu horrekin egingo lukeela aditzera emateko. Salda egiteko ere balio ez duen oilo zahar horrekin.

Negargarria, Biterirekiko dudan menpekotasuna bezala. Nola esan bestela, neure burua gorrotatzera naraman premia itsu honi? Negargarria bezain umiliagarria, nahitaez Iturrira itzuli behar absurdo masokista. Kalte egiten dit, noski. Ez zait batere komeni, eta hala ere han egongo naiz berriz ere laster, iritsiko ez zaidan hitz gozoren edo irribarreren baten zain. Ez zait

komeni, ez, kafea komeni ez zaidan modu berean. Biak utzi beharko nituzke. Mariri kasu egin eta gogotik uxatu beharko nituzke biak.

Biteri ere kafe beltz bat da niretzat, barrena berotu ez ezik, zikindu ere egiten didana. Eta gaiztotu. Hau da, gaiztakeriak bururatzen zaizkit, baita piztu ere horiek gauzatzeko nahi bizia . Hura hartu eta nonbaitetik zintzilikatzeko nahia. Torturatzeko nahia. Halako basakeriak bururatzen zaizkit batzuetan.

Normala dun, ni lasaitzen saiatzen da Mari. Niri ere bururatzen zaizkidan halakoak, Adolforekin haserretzen naizen aldiro.

Hala da, ziur aski, sarritan haserretzen baita senarrarekin. Lanean hasi aurretik, aldagelan bertan nabaritzen diot. Mari emakume alaia da, eta halako egunetan burumakur agertzen da. Gaur ere bai?, galdetuko nioke, baina isildu egiten naiz, ikasi dudalako hala hobeto dela, behartu gabe. Bere kasa utzi behar zaio. Lehenago edo geroago, kolkoan daramana astunegi izango zaio, eta pena atera nahiko du handik.

Atsedenaldia bitartean, hiperreko atzealdean, bere bihotz minaren berri emango dit, zatika eta poliki, zerbaitek eztarria trabatuko balio bezala. Atzealde hori gure aitorlekua da. Hiperra tenperatura egokian

mantentzen duten haizagailu erraldoien ondoan eta iluntzean behartsuek arakatuko duten zaborrontziei begira, gure kezkak aletzen ditugu. Gure kezka beti antzekoak. Egutera horretan eta ordu laurdentxo batez. Asperen eta beste lankide eta bezeroen begiradetatik bazter, eroso egoten gara han, ezerk eragozten ez duen halako intimitate batean. Hor edozer egin dezakegu. Oihu egin dezakegu. Negar edo algara. Barrura itzultzeko garaia iritsi arte, behintzat.

Kafea azken hondarreraino edaten dugu, eta Marik ezpainak erretzeraino tira egiten dio bere zigarretari. Horregatik ez gara segundo bakar batez ere isiltzen. Presatuta gaude. Gauza asko kontatu behar diogu elkarri. Norbaitek entzungo baligu, egunero antzeko kontuekin ari garela pentsatuko luke.

Hiperraz hitz egiten dugu, baita gizonezkoekin ditugun harremanez ere. Madarikatu egiten ditugu, gure oinazearen erruduntzat jo. Sekulakoak eta bi botatzen ditugu haietaz (Aspez, Mariren senarraz, Biteriz), agian ez dugulako ñabarduretarako betarik. Hamabost minutu gutxi dira. Hitz egiteaz gain, zer edo zer jan eta edan behar dugu, komunera joan, erre. Gehiegi. Ordulariari begira egoten gara, lanera berandu itzuli-

ko garen beldur. Gure kutxen ondoan zain izango dugun Asperen beldur.

Emakumeak, kexatu ohi da, komunera joan behar dugula jakinarazten diogunetan. Zer duzu orain? Haurdun al zaude, hilekoarekin?

Hori entzun eta barre moduko zerbait egiten dugu, pikutara bidaliko bagenu ere pozarren. Modu berean jokatuko genuke bezeroekin ere, baina, hori egin ordez, irribarrea eskaintzen diegu, mesederen bat egin izan baligute bezala: Egun on, arratsaldeon, aspaldiko, nahi al duzu...

Behin eta berriz.

Hutsik egin gabe, enpresak nahi duen moduan. Profesionaltasunez. Aspek ez liguke besterik onartuko. Kale gorrian ipiniko gintuzke, berak nahi bezala egingo ez bagenu. Hori dela eta, inguruan sumatzen dugunean, ozenago agurtzen ditugu bezeroak.

Bakerik emango al digu noizbait?

Mariren galdera erretorikoa da, denok dakigulako bakea emateko ez, gerra egiteko dagoela hemen, hori duela eginkizun nagusia. Artaldea zaindu behar du. Horretarako ordaintzen diote.

Estu hartzen gaitu. Gero eta hobeto egin behar omen dugu, gero eta gehiago saldu. Talde lana omen

da gurea, eta denok ahalegindu behar dugu. Azal gogorra behar da, gero. Azal gogorra eta entzule sinesberak. Horietako asko dugu hemen. Gehienak, esango nuke. Ulertzen ditut, zaila baita norberaren bizitza kaka zaharra dela onartzea. Hobeto zentzu eta helburu bat duela ustea: talde helburu bat. Gure minak, gure sakrifizio hauek zentzu apur bat dutela sinestea, dena ez dela alferrik. Pentsamendu lasaigarriak dira, ulergarriak, baina gezurrezkoak. Gutako inork (ezta Aspek ere) ez du garrantzirik Parisen edo Madrilen erabakiak hartzen dituztenentzat. Horientzat zenbakiak gara, kopuru hutsak, eragiketa matematiko batzuen osagaiak, sartu bezain erraz atera daitezkeenak beren balantza orrialdeetatik.

Ezkorregia naiz, Mariren iritziz, bizitzari alderdi pozgarriak aitortzeko ezgauza. Zein alderdi? Aitor semea aipatuko lidake, eragiten dion poza. Hala izango da, baina nik ez ditut amatasunaren onurak ezagutzen. Alaba izatea, berriz, ondo dakit zer den. Aitarik gabeko alaba.

Umezurtza naiz. Umezurtza izan nahi dut. Edo ez dut eskaintzen zaidan aita (sasi aita) horren alaba izan nahi. Ezin uka nirekin eskuzabal jokatu duela beti. Hala ere, nik umezurtz nahiago. Hau da, nire beneta-

ko aitarekin nahiago, aspaldi hila omen baina nigan bizi-bizirik den aita gozo eta ausartarekin.

Txorakeriak ez esateko eskatzen dit amak, egiazko munduan bizitzeko. Zer ote daki amak, zer ote daki arkitekto ezagun baten emazte aspertuak egiazko munduaz? Ezertxo ere ez. Batez ere, ezertxo ere ez baitu jakin nahi. Zertarako? Hobeto biziko al litzateke mundu horren berri izanda? Argi du ezetz. Nahikoa du ni ikustearekin. Eskandalagarria zaio unibertsitatetik pasatutako inor hiper bateko langile xumea izatea. Batez ere, horren beharrik ez duen bere alaba bada. Bere alaba harroa. Bere alaba ezjakina: berak titulurik edo masterrik ez izanagatik, nik ez dakidana ondo omen baitaki. Mundua den bezalakoa dela eta alferrikakoa dela aldatzeko edozein saiakera. Nork bere bizitza alda dezake, baina. Hori bai, hori egin daiteke. Amak egin zuen. Zorionez, garaiz ikasi zuen hori. Nahiz eta hori ikasteko maite zuen gizona (benetan maite izan omen duen bakarra) modu ikaragarrian galdu behar izan. Maitasuna gaztaroari dagokion zerbait da, haren ustez. Gaixotasuna: elgorriaren edo baztanga eroaren antzekoa. Hori jakiteko ez dago unibertsitate batera joan beharrik!

Jean Paul Sartre aipatuko nioke, hark maitasunaz uste zuena, pentsalari feministen ekarpena. Kaka zaharra besterik ez, amak esandakoa ukatzeko ere balio ez duena. Izan ere, amak esan bezala da: hori edozein tokitan, edozein garaitan ikas daiteke. Berdin mundua errotik alda zitekeela zirudienean, edo orain zalantzarik gabe hondamendira doan honetan.

Bi aukera baino ez daude, antza: mundua, funtsean aldaezina dela jakinda ere, aldatzen, hobetzen, konpontzen saiatzea ala nork bere bizimodua. Bestela adierazita: irteera kolektiboa edo bakarkakoa. Aitaren bidea edo amarena. Bide biek toki berera (heriotzara) daramatela agerikoa izan arren. Nik inoiz izan ez dudanarena, aitarena, aukeratuko nuke. Gogorrena, argi eta garbi, baita ederrena ere.

Estilo kontua da, azken batean. Estilo kontu hutsa. Planeta honetatik nola igaro, hori eta ez beste ezer baita kontua. Askatasuna edo erosotasuna, horra aukera. Bietako edozeinen alde eginda ere, ordaindu egin behar. Garesti, gainera. Batez ere, askatasunaren alde eginez gero. Hori heriotzaz ere ordain daiteke, (inoiz izan ez dudan) aitak ordaindu zuen bezala. Gorpu bat, baina gorpu eder bat, behintzat. Ez amarena bezalakoa. Inolaz ere ez.

Zahar hilko da ama. Bere Sixto (arazoak ditu bihotzean) edo ni neu baino geroago. Baina egin dituen eta oraindik egingo dituen ebakuntza estetikoak gorabehera, itsusi eta zimurtsu hilko da, txikiago eta agian uzkurrago. Esfingeari gertatuko zaion bezala.

Haren gorpuak, ordea, amarenak baino itxura hobea izango du, hark ez baitu kirurgia estetikorik erabili. Edo, baldin eta erabili badu, haren kirurgialaria amarena baino askoz hobea delako. Ez dauzka masailak clown batenak bezain puztuta. Eta arrosa minez margotzen dituen ezpainak neurrikoak dira, betazalak bezala. Kopetako eta lepo aldeko larru-azala pixka bat zimurtuta dauka, gainera, ez sokatira saio bateko soka bezain tenk. Amarengan begiek baino ez dute garai bateko bizitasun izpiren bat gorde. Aita liluratu omen zuten begi gaztainkarak, urte batzuk geroago Sixto txoratuko zuten berberak.

Nire begiak nabarrak dira. Inor liluratzeko arruntak. Ikusteko ere ez dute batzuetan balio. Denen begibistan dagoena ikusteko ere ez, emakume gazte bat izan ordez, atso zahar bat banintz bezala. Edozertarako laguntza eskatu behar duten horietako bat: apalategietatik hartu ezin duten zerbait eskuratzeko edo irakurri ezin duten zerbaiten berri izateko. Horiek be-

zala, ni ere galduta nago. Lagunduko didan norbaiten premian nago. Nire garuneko pasabideak estu, luze eta nahasgarriak dira, hiperrekoak bezain. Labirinto bat osatzen dute. Tranpa moduko horretatik irteteko, norbaitek heldu behar dit eskutik. Nire begi arruntak gandututa daude, kataratak jotako zaharrenak bezala. Beharbada, ni ere nazkagarria naiz, horiek diren moduan, eta horrexegatik ez zait Biteri hurbiltzen. Edo, beharbada, ni ez ezik, ez du gustuko ezein emakume.

Hori pentsatzera iritsi naiz. Biteri homosexuala dela. Hala balitz, orduan denak izango luke zentzu pixka bat. Baina gau hura dago. Burutik inolaz ere uxatu ezin dudan ekaineko gau epel sorgindu hura. Horrek zaildu, nahastu, lausotu egiten du dena. Horrek barregarri uzten du orain arte ikasi dudana.

Zertarako Hegel, Sartre, Freud, Lacan eta enparauak irakurri eta aztertu? Zertarako hainbeste lan eta buruhauste, baldin eta ez banaiz Biteriren izaera, nirekiko haren jokaera pixka bat behintzat argitzeko gai? Ilunpetan nago. Alferrik hiperreko ordu luzeetan hausnartutakoa eta alferrik Iturrin, begiak Biterirengan iltzatuta, nabaritu dudana. Asteak, hilabeteak igaro eta berdin jarraitzen dut, ezjakintasun osoan.

Seguru Esfingeak nik baino askoz gehiago dakiela Biteriz. Edonork jakin dezake nik baino gehiago, egia esan. Iturriko ia edozein bezerok. Hori dela eta, Esfingeari galdetzea pasatu zait behin edo behin gogotik. Ez diot ezertxo galdetu, noski. Ez naiz ausartu. Harroegia naiz horretarako. Galdetu izan banio, goitik behera begiratu eta popatik hartzera bidaliko nindukeen. Nola galdetuko nioke? Aizu, barkatu, Biteri *gay* den jakin nahiko nuke. Pentsatze hutsarekin lotsagorritu egiten naiz. Popatik hartzera, horixe. Ondo merezita.

Eta ezetz erantzungo balit, askoz okerragoa litzateke. Ezetz, harekin oheratzen dela, astean behin. Horrek kaka eginda utziko ninduke. Jelosiaz beteta. Hain zuzen ere, bereziki okaztagarri irizten diodan sentimendu batez. Gogorra litzateke besteengan behin ere onartu ez dudana nigan aurkitzea. Tumore bat aurkitzea bezain gogorra: kolpe latza nire nartzisismorako. Bat-batean, besteen modukoa nintzateke. Hainbatetan nire artean gutxietsi ditudan lankide eta ezagunen modukoa, Mariren modukoa.

Alfer eta gezurti galanta izatea barkatu ahal diot, esan dit behin baino gehiagotan. Ez, ordea, beste emakume batekin ibiltzea. Hori ez, hori ezingo nioke inolaz ere barkatu.

Nik, aldiz, ia edozer barkatuko nioke Biteriri. Hobeto esanda, dena barkatzen diot, orain eta hemen barkatu ere. Dena. Haren hitz bakar bat nahikoa nuke. Baina hark ez du nire barkamenik nahi. Ez du nigandik ezertxo ere nahi, Iturrira azaltzen naizen bakoitzean argi uzten didanez.

Zakila halakoa! Artaburua ez bestea!

Ez. Ni naiz ergela, makina bat mespretxu harengandik jaso eta gero ere, gehiagoren bila itzultzen dena. Erabateko masokista.

Masokista, bai, ez zait beste hitzik bururatzen nire patologia izendatzeko. Eta pentsatzen jarrita, emakumeok ez ote garen masokistak. Mariz gogoratu eta baietz uste dut, bagarela, hura ere, neu bezala, behin eta berriz itzultzen baita behin eta berriz menosten duen senarrarengana. Menostu eta jo ere egiten du bere Adolfok, nik uste. Halakorik ez dit Marik sekula esan. Areago, horretaz galdetu nion aldi bakarrean, haserretu eta ezetz esan zidan, baina ez nion sinetsi. Zergatik? Ubeldu handi samarrak nabaritu baitizkiot aldagelan. Horiei begira harrapatuta, nik eskatu gabeko azalpenetan hasi izan zait agudo. Azalpen topikoetan: Zabalik zegoen atea jo dut. Irrist egin eta ohearen kontra jo dut...

Zein bortizkeria mota ote da okerragoa: Mariren gizonaren jipoiena edo Biteriren mespretxuarena. Hori pentsatu dut, baina oso laburki, berehala ohartu bainaiz Marik, bortizkeria fisikoaz gain, psikologikoa ere jasaten duela. Eta lotsatu egin naiz, hain nirekoia, hain nartzisista nazkagarria izateagatik. Amaren antza hartu diot neure buruari. Hura bezala, neure buruaz arduratzeko baino ez naiz gauza. Enpatia hitza hari bezain arrotza zait neuri ere.

Gogoan dut nola harekin bizi nintzenean hainbat aldiz saiatu nintzaion arduratzen ninduten gauzak kontatzen, gaztetxo baten kezkak: eskolako kontuak, mutilak, lagunak eta sasi lagunak... Gogoan dut nola kopeta pixka bat zimurtzen zitzaion eta nola geratzen zen une batez isilik, niri begira, aipatu berri niona ulertzeko lanak balitu bezala. Ez arduratu, laztana, esaten zidan azkenean, dena konponduko da laster. Eta hori esan orduko, hitz beste egin edo premiazko zerbaitez gogoratuko zen bat-batean, eta han utziko ninduen, nire erantzun gabeko galderak airean.

Baina ezer ez konpontzen. Denborak bere horretan uzten zuen nire nahigabea. Zapuztuta uzten ninduen, nahasita, haren jokaera ulertu ezinik. Batez ere, beste nesken amekin alderatzen nuenean. Alabak la-

guntzen zituzten amak ziren besteenak, ikasketetan zein mutil kontuetan laguntzen zituztenak, etxeratzen zirenean masailetan muin egiten zietenak. Edo, haserretuz gero, oihu amorratua egingo zietenak, behintzat. Amak sekula egin ez zizkidanak.

Ahotsa igo gabe ere, badaki niri nola nagusitu. Artista da horretan. Senarra modu berean erabiltzen du. Nahieran. Itxura batean zentzuzkoak diren hitzen bitartez, gozo antzera ere noiz edo noiz, baina, salbuespenik gabe, berak nahi duena eginez eta eginaraziz.

Amak arbuio dio edozein liskarri, edozein tirabirari edo borrokari. Bakea nahi omen du. Beti. Dioenez, nahikoa borrokatu zen gaztetan, eta orain bakea behar du, beste edozer baino gehiago. Horren alde borrokatzeko prest egoten da, beraz. Berea, hainbeste kostatu omen zaiona, defenditzeko prest. Bere alabaren aurka bada ere, bakea. Merezi omen du. Gaztetan jasan zuenaren truke.

Bitxia da gero, amaren adinekoek horrekin duten tema. Haiek sinestera, denak borrokatu ziren Francoren aurka. Denek pairatu omen zuten haren errepresioa. Orain demokrazian bizi baldin bagara, haiei esker izan omen zen, haien sakrifizioei esker. Demokrazia. Ondare ederra utzi digutena: lau urtero nork

esplotatuko gaituen aukeratzeko eskubidea. Aukeratzeko, estatuak berak aukeratutakoen artean. *Herrschaft und Knechtschaft*, berriz ere. Betikoa.

Betikoa eta edonongoa. Hiperrean, unibertsitatean, kalean, etxean. Edo taberna batean. Guztietan norbait beste norbaiten gainean. Guztietan norbait beste norbaiten azpian. Agintzen duena eta obeditzen duena. Jotzen duena eta jipoiak hartzen dituena. Behin eta berriz. Inoiz gelditzen ez den gurpila. Gaur behean dagoena goian dagoke bihar. Eta alderantziz. Etengabeko bilakaera da. Espazioan eta denboran. Barruan eta kanpoan. Amaren senarra, esaterako, hark azpiratuta bizi da, baina, aldi berean, bere langileak azpiratzen ditu. Ia ezinbestean. Nagusia da eta nagusi baten moduan jokatu behar du. Ez dago besterik. Eta antzeko zerbait gertatzen da langileekin: lantokian burumakur ibili behar, baina etxeratutakoan haiek nagusi. Adolfo bezala.

Ozta ikusten duen aitona batek egunero erosten dituen lauzpabost gauzak ordaintzeko txanponak biltzen ari den bitartean, Mariri begiratu diot. Auskalo zer dela medio, errietan ari zaion bezero batekin dago. Mutu dago, pixka bat okertuta kutxa aldera. Bezeroa popatik hartzera ez bidaltzeko ahalegintzen ari dela-

koan nago. Denoi gertatzen zaigu. Halako nazkante petralen bat sarritan egokitzen zaigu. Horregatik dakit nola dagoen. Aitor seme txikia izango du gogoan. Adolfo alferra ere bai, agian. Hori dela eta, bezero malapartatuari amorrua itzuli ordez, Aspek irakatsitakoa, hark nekatu gabe errepikatutakoa gogoan (egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...), birikak ondo bete eta barkatzeko eskatuko dio.

Aldika Mariri eta aldika bere txanponekin borrokan ari den gizon zaharrari begiratzen diedala, zapaldu bakoitzak zapaltzaile bat baino gehiago eduki ditzakeela oroitu naiz. Eta Thomas Hobbes filosofo ingelesaz ere oroitu naiz, hamazazpigarren mendean hark idatzi zuenaz. Haren gaurkotasuna inoiz baino handiagoa iruditu zait, jendez betetako hiper honetan. Ez, hark esan bezala, gizon-emakumeok ez gara izaki sozialak. Alderantziz. Gutako bakoitzari berea baino ez zaio funtsean axola, bere buruari baino ez dio begiratzen. Bakarka, erpeak eta betortzak zorrotz, lagun hurkoari edozein momentutan oldartzeko prest, erne mugitzen gara, hiperreko oihanean barna. Apalategiek zedarritutako pasabideetan gora eta behera goazela, mesfidati goaz, gerra noiz hasiko. Elkarren aurkako gerra. Erabateko gerra. Behin betikoa. Eta bai, otsoak gara.

Otso gosetu errukigabeak. Ehizaki zaurituaren ahultasunak indartzen gaitu. Haren odol arrastoari jarraitzen diogu, ehiztariak baikara, beste ezer baino lehenago. Gainerako animaliek ez bezala, ordea, ez dugu jateko ehizatzen. Hiltzeagatik ehizatzen dugu, horrek eragiten digun plazer azalgaitzagatik. Besteei bizia kentzean, gurea luzatu nahi dugu, agian. Baina bizia ez da dirua, ez da pila daitekeen zerbait. Bizia iraupen laburreko gai bat da, luze gabe iraungitzen dena. Esnekiak saileko salgaien antzera, hura ere denboraren esku latzetan dago. Denik eta hiltzailerik petralenaren eskuetan. Geldiezina da, eta alferrikakoak dira haren aurrako neurri guztiak. Horretan ere, antz handia du esnekiekin. Izozkailuek, babesten duten plastikoek ezer gutxirako balio dute. Usteltze eta deuseztatze prozesuak berdin jarraitzen du plastikoaren azpian ere. Mikroorganismoek etengabe dihardute lanean, bizia eta heriotza elkarrekin joaten baitira. Bereizezinak dira. Horretaz jabetzeko, gutxi hiperra bezain toki egokiak. Harategia, arrandegia: animaliei buruak moztu egiten zaizkien tokiak dira.

Animalia baten heriotzak beste animalia baten bizitza bermatzen du. Naturaren legea. Darwin hutsa. Hiperra ere natura da, basoa da. Hemen ere, bizia eta

heriotza uztartuta doaz. Hemen ere animalia harrapariak ditugu, ugari, eta erne ibili beharra dago. Batez ere, zaharrekin.

Urteek, eskarmentuak edo heriotzarekiko hurbiltasunak edozer egiteko zilegitasuna ematen dietela uste dute, nonbait. Gutako inork eman ez dien konfiantzaren jabe, hurbildu eta lerdez zikintzen digute uniformea, gure izena daraman plastikozko txartela. Ukitu egiten gaituzte. Esku dardartiez izanagatik, atximurka egitera ere ausartzen dira. Belarrira hitz egiten digute. Zikinkeriak esaten dizkigute, lizunkeriak, lohikeriak, txerrikeriak. Denetarik esaten digute, eta oso aldi bakanetan zerbait atsegina. Zimurrek, zahartzaroaren ajeek horretarako eskubidea ematen die. Edozertarako eskubidea.

Horretan umeen antzekoak dira. Haiek bezala, edozer egin dezakete. Edozer dela bide protesta egin dezakete. Mesfidatiak dira, ziria sartu nahi diegula uste dute. Umeek bezala, zilegi dute dena: gauzak har eta erabil ditzakete, ondoren edozein tokitan uzteko, abandonatzeko. Salgaiak haztatu, ahotan erabili eta botatzea baizik ez zaie falta, umeen berdinak izateko. Zaharrak, aldiz, aspaldiko umezurtzak dira. Bakarrik daude. Bakarrik ibiltzen dira, hiperreko barne-bidee-

tan zehar. Denbora-pasa da haientzat. Hiperreko mutur batetik bestera ibiliz entretenitzen dira. Berdin begiratzen diete barazkiei zein oinetakoei, jantziei, latei edo liburuei, arreta berberaz. Badute horretarako astirik. Denboraren jabeak dira, heriotzaren lagunak.

Gu, ordea, denboraren faltan gabiltza. Minutu bakoitza garrantzitsua da guretzat nahiz enpresarentzat. Langileok kate bat osatzen dugu, hiperrak etengabeko mugimendua eragiten diona. Gutako inork bere lekua utzi behar duenean, kate osoak nabaritzen du. Haren kate mailak gara, ezinbestean. Horregatik, pixagale garenean, esaterako, komunera joan ez eta pixari eusten diogu. Hara joateko baimena eskatutakoan, Aspek zuzenduko digun begiratu mesfidati mehatxagarria dugu gogoan. Gure tokira azkar itzultzeko baino ez digu esango, baina nahikoa izango da, gehienak lotsarazteko eta beldurtzeko. Guk, emakume apetatsu, emakume pixontziok arriskutan jartzen baitugu enpresaren ibilera egokia. Hala, komunera behar dugun bakoitzean, ordezko bat bilatzera derrigortzen dugu Aspe. Lagundu ordez, arazoa sortzen diogu. Eta hori amorragarri zaio, susmagarria izateaz gain. Susmagarria, komunerako premia (errepikatua) haurdu-

naldi baten sintoma baita. Hau da, enpresarako eragozpena litzatekeen zerbaiten sintoma.

Hori dena badakigu, eta, hala eta guztiz ere, gorputza, puxika tematu egiten da. Une batetik aurrera presio gehiago ezin jasan eta libratu nahi izaten du, kosta lain kosta. Gorputza halakoa da. Arrazoiak ulertzen ez dituen arrazoiak ditu. Benetakoak diren arrazoiak, gorputza egiatia eta zintzoa baita, hitzik gabe hitz egiten baitu, mugimendu hutsez. Gorputza ez da polisemikoa. Hark adierazitakoa gardena da, nahastezina. Gorputza zaurgarria da. Egiten zaion zauri bakoitzari dariona egiazkoa baino ezin izan. Nire hilerokoaren odola bezain egiazkoa. (Inoiz izan ez dudan) aitaren gorputz larri zaurituari zeriona bezain gorria. Nire pareko eskanerraren argia bezain gorria.

Ti egiten du, aurretik barra kode bat pasatzen diodanean. Ti-ti-ti... Hori dugu musika, doinu beti berdin horren arabera mugitzen zaigu gorputza. Horrek zehazten du gure bizimoduaren erritmoa, gure urrats bakoitzaren konpasa.

Behin eta berriz.

Gure bizimoduari izenlagun egokia aurkitzea zaila da. Aukera ugari dago. Petrala izan liteke bat. Edo, baikor samarra izanez gero: kaskarra. Nondik begira-

tzen zaion. Jakina, zoragarria ere esan ahal zaio, ilunabarrean janari bila hiperreko atzealdera agertzen direnenarekin alderatuta, batik bat. Marik hala deritzo. Gaixoak, esaten du, haietaz errukituta.

Niri ere erruki dit. Bere Adolfok egiten diona ahaztuta, amorragarria zaio Biterirekin jokatzeko dudan modua. Ispilu nauka agian. Begiratu eta nire gorputzean bilatzen ditu bere gorputzeko marken antzekoak, eta, aurkitu ezin dituenez, larruazalaren azpian: bihotzean, ariman. Baina nik ez dut arimarik. Nire bihotza odola gorputzean banatzen duen makina bat da. Marik aurkitu ezin dizkidan ubelduak beregan daude. Nire larrua orbangabea da. Jo, zigortu, ukitu, laztandu gabea. Eta horixe okerrena, agian. Ez ote nituzke jipoiak nahiago zalantza egiten dut batzuetan. Biterik ez nau ukitzen. Ez nau ukitu nahi, nahiz lankideak bestela uste.

Gau sorgindu hura eta gero, sekula ez ginela bereiziko sinetsita nengoen, aurrera elkarrekin egingo genuela. Justu kontrakoa gertatu zen, ordea. Jakin gabe zergatik edo nola, horixe gertatu zen: elkar ukitu orduko bereizi ginen, bildu gintuen indar ezezagun bezain irmoa gugan eragindakoak bat-batean beldurtu-

ta, egindakoa damutu izan balitzaio bezala. Nire ustea ustel gertatu zen. Gertatzen ari da, oraindik ere.

Behin eta berriz.

Behin eta berriz etortzen baitzait gau hura burura. Behin eta berriz saiatuagatik, ezin baitut inolaz ere uxatu. Eskanerraren hots errepikatuaren antzekoa da: ti-ti-ti... Behin eta berriz. Nire bizimoduaren erritmoa: damuaren gainean damua. Egin ahal izanda ere egin izan ez dudanaren damua. Garuna ez ezik, gorputzaren atal bakoitza zulatzen didan hots zoli jasangaitza. Belarri zulotik sartu eta, nire barneko labirintoan barrena, bide egiten du burmuineraino, bertan lehertzeko. Behin eta berriz lehertzeko, atsedenaldia edo komunerako baimena iritsi arte. Pixkanaka, zigarretaz zigarreta, hiltzen gaituen keak birikak guztiz bete arte. Zerk ez gaitu hemen hiltzen, ordea? Poliki baina etengabe hiltzen. Egia esan, ezer ez zait bururatzen. Eskanerrak hiltzen gaitu. Eguneko hainbat ordutan kutxen ondoan sortzen diren ilarek hiltzen gaituzte. Aspek hiltzen gaitu. Bezeroek (etxekoandreek, zahar bakartiek, umeek) hiltzen gaituzte. Heriotzaren tenplua da hiperra. Bazter guztietan dago, ez soilik harategian, urdaitegian eta arrandegian. Gainerako sailak ere gorpuz beteta daude. Gorpuak (sardinenak, antxoenak, hega-

luzeenak, olagarroenak...) latetan sartuta daude, plastikozko zorroetan, beirazko pote eta botiletan. Gorpuak osorik edo zatikaturik, tamainaren arabera. Gorpuak hutsean ontziratuta daude, oliotan bilduta, olio-ozpinetan edo uretan. Gorpuen edukiontziak mota askotakoak izan daitezke; gorpuak, ordea, gorpu beti. Hau da, materia hila. Horregatik, heriotza etengabe aritzen zaigu aldarrika. Sail eta pasabide bakoitzetik ari zaigu, bakoitzaren albo banatako apalategietatik. Hiper barruan ibiltzen da paseoan. Maite gaituela esaten digu, desiratzen gaituela, berdin diola gure adinak edo gure azalaren koloreak, pobreak edo aberatsak garen, ederrak edo itsusiak.

Haren maitasuna unibertsala da, mugarik gabea. Aseezina eta berekoia. Dena nahi du. Denik eta mendreena ere. Eta, ahalguztiduna denez, dena eskuratu, dena deuseztatzen du, goiz edo berandu, denbora bitarte. Horixe baita haren armarik eraginkorrena, itxuraz ezarian eta arrastorik utzi gabe joan badoan horixe bera. Ezin hura ikusi, ezin entzun, baina hor ari da, nekagaitz.

Maite zaituztet!

Horixe errepikatzen digu, sinetsiko ez bagenio bezala, ezin diogula entzun ohartu gabe, agian. Baina,

hura entzuteko, bertako zalapartak isildu beharko luke. Isildu beharko lukete eskanerrek eta enpresak egun osoz gu torturatzeko erabiltzen duen musika gogaikarriak ere. Eta, ezinbestekoena, hiperra betetzen duen jendetza petralak, bezeria itsuak mututu beharko luke. Eliza batean sartu izan balira bezala.

Baina kontrakoa egiten dute: barre egiten badute, algaraka, eta, hitz eginez gero, ozen, haien etxeko egongelan edo sukaldean baleude bezala. Heriotzaren tenpluan egon beharrean, bizitzarenean daudela uste dute, kontsumoaren katedralean, non, ordaindu ondoan, dena zilegi den.

Eskaintza berezia irakurri eta zoratu egiten dira. Mintzekotan dauden jogurtei, adibidez, etiketa hori jarri eta berehala desagertuko dira. Inoiz jaten ez dituztenek ere erosiko dituzte.

Eskaintza berezia. Nik ere kartel hori jarriko nuke nire gainean edo kopetan itsatsiko, baldin eta baneki hala Biterik jaramon egingo lidakeela. Ez dakit, ordea. Biteriren burua erabateko misterioa da niretzat. Ez dakit nola dabilen. Ez dakit zein pentsamenduk, zein ametsek betetzen duten. Ezer ez dakit, jakiten saiatu naizen arren. Ez dut ulertzen. Baina, nola ulertu horma

bat? Eta Biteri hori da niretzat, horma sendo, gotor, pitzatzen zaila.

Inguruan galdetu dut alferrik. Inork ez dit hura ulertzen lagunduko lidakeen ezer kontatu. Jatorra omen da, eskuzabala. Zein euskaldun ez da jatorra? Jatortasunaren erresuma da gurea. Biteri jatortzat hartzen ez duen bakarra, nik dakidala, ama da. Aitaren ezaguna omen zen, eta amak ez du batere gustuko. Hartaz galdetu nionean, hitz beste egiten ahalegindu zen, eta, ezingo zuela konturatu zenean, drogadikto bat zela baino ez zidan esan. Nahikoa, hala ere, horixe izaki hark norbaitez esan dezakeen okerrena. Zer esango ote luke, asteburuetako nire zaletasunen berri balu?

(Inoiz izan ez dudan) aita aipatzea saihesten du amak. Eta berdintsu jokatzen du, harekin lotutako inor edo ezer aipatuz gero. Kontu zahar, aspaldikoak dira, haren ustez. Ahaztu nahi eta, gehienetan, ahaztuta izaten duen iragan urrun bati dagozkionak.

Carpe diem. Eguna bizi nahi omen du, gaurko egunean, ez iraganean. Ez batere atsegina izan ez omen zuen gaztetako iraganean. Ulergarria da. Horixe nahi dugu, gutxi gorabehera, denok. Ulergarria bezain zaila. Iraganeko mamuak asko baitira, asegaitzak, eta

ez dute etsitzen. Batzuek, amak bezala, isiltasunaren bidez uxatu nahi dituzte. Beste batzuek, aldiz, hitzen bitartez. Ez dakit bi bide horietatik zein den egokiena. Dakidana zera da: isiltasun batzuk oso ozenak direla. Urrundik entzuten dira. Amarena, esaterako.

Edo neurea. Nik ere neure kolkorako gordetzen baititut aitarekikoak. Hari buruz hitz egiteari uko egin gabe ere, horixe egiten dut. Badakit oso bestela jokatu behar nukeela (Freud irakurri dut. Jung, Reich eta Lacan ere bai). Baina psikoanalista batengana jotzea pentsatu izan dudanetan, indarra falta izan zait. Nire sentipenak hitzetan jartzeko ezintasun izugarri bat jabetu da istantean nitaz, inora joatea, inorengana jotzea eragotzi didana.

Nola jarri hitzetan oinazea?

Ezintasun latz bat baino ez da geratzen, beraz. Nik edo, beste modu batez, amak ere jasaten duena. Baldin eta hura zerbait sentitzeko gai bada.

Duda egiten dut. Sarri, hari ere harri edo horma deritzot. Beldurrak sortutako harri edo horma bat. Horixe iradoki nion behin. Haserretu egin zitzaidan: Zer beldur eta zer beldur ondo?

Beldurretan funtsezkoenaz ari nintzaion: heriotzari diogun beldurraz. Sortzez daukagun horretaz. Hori

nirekiko gorde nuen, noski. Ez nuen ama areago haserretu nahi. Ez haren haserrealdien beldur, haren mugagabeko zurikeriaren beldur baizik. Horregatik, eta Sixtorengatik ere bai, nahiz inozo samarra izan, gizon ona baita eta ez du inolaz ere merezi, amarengandik, hura pipertuta dagoenean, jaso ohi duen isiltasun amorratua.

Hala ikustean, galdera bat etorri ohi zait gogora: (inoiz izan ez dudan) aitarekin berdin jokatzen ote zuen? Galderak ez du erantzun argirik niretzat. Areago, galdera gehiago sortzen dit. Batez ere, honako hau: alaba desiratua izan nintzen edo *istripu* soila? Nahi gabean jaio ote nintzen? Badakit abortua legez debekatuta eta gogor zigortuta zegoela orduan. Amak ez zuen beste irtenbiderik izan agian. Baliteke ama haurdun gelditu eta haren guraso fededun amorratuek ni izatera behartu izana ere. Batek daki.

Betiko erantzunik gabe geratuko diren galderak ditut horiexek, seguru asko amari sekula egingo ez dizkiodanak. Zertarako egin, amak egia beretzat gorde eta behin ere ez didala behar bezalako erantzun bat emango jakinda? Edo, okerrago: nire galderari gustu txarreko iritziko diola, gordinkeria nabarmena. Duen alaba ezgisakoaren, lakarraren beste bat gehia-

go. Horixe bainaiz harentzat: ezpainak margotu gabe ibiltzen den emakume zakar bat. Berak atsegin handiz erosiko lizkidakeen soineko ederrak jantzi ordez, zuloz betetako jeansak janzten dituen xelebre bat. Orpo luzeko zapata dotoreak erabili beharrean, kirol oinetakoetan sartuta ibiltzen den hezigabe bat. Gorrotatzen duen guztiaren bilduma.

Lesbiana naizen susmoa du, nik uste. Mari-mutila. Egia esan, igurtzi-mari horietako bat (amak esango lukeen moduan) banintz, hobe. Ez nintzateke, orain bezala, Biterirekin obsesionatuta ibiliko. Ez nioke jaramonik egingo, eta lasai biziko nintzateke. Gizonik gabe. Biteri gabe eta Biteri aurretik nire bizitzatik igaro diren gainerako guztiak gabe. Ia etorri orduko joan zaizkidan horiek gabe. Zorte txarra dut gizonezkoekin. Ez dut bakar batekin ere asmatu.

Amak uste duena banintz, ordea, Mariren maitale bilaka ninteke. Lanetik kanpo ere elkarrekin jarraituko genuke, eta, pozarren, elkar ezagutu genuen eguna bedeinkatuko genuke, nekatu gabe. Libreak izango ginateke: bere Adolforengandik Mari eta Biterirengandik neu. Amets ederra. Ametsa baino ez, hala ere. Mundu errealean gaude, hemen eta orain, ez beste inon. Hiperrean, ez Lesbos uhartean. Argi elektrikoaren azpian

beti, ez Mediterraneoko zeru oskarbi gozoaren pean. Hemen eta orain, heterosexualak gara biok. Hemen eta orain, astazakil banaren mende gaude. Gutako bakoitza bere moduan.

Ahoa irekitzekotan, Esfingearekin txutxu-mutxuka jarduteko irekiko du. Biteri eta Esfingea, horixe munstro parea. Horixe estralurtar bikotea. Bi misterio. Bi enigma. Bost axola biak. Baina ez, axola zaizkit, uste eta nahi baino gehiago. Bestela ez nituzke aipatuko. Bestela Biterik bezala egingo nuke. Isilik, mutu geratuko nintzateke. Ezpainak estutu eta hitz bakar bat ere ez nuke nire ahotik irteten utziko. Mingaina moztuko nuke. Hala, biok mutu, zeinuka hasiko ginateke. Eskuak mugituko genituzke, hitzetan elkarri adierazi ezin dioguna adierazteko. Gure atzamarrek letrak osatuko lituzkete. Hitz osoak ondoren. Elkarri sekula esan ez dizkiogunak esateko. Azkenean esateko. Oihu egiteko. Elkarren ondo-ondoan garrasi egiteko: A, a, a!!!

6

Amorragarria, gero eta memoria kaxkarragoa zaukaat, gertakizunak oso urrunak zaizkidak, horien protagonista, neu izan beharrean, beste norbait izango balitz bezala, baina kontrakoa ere gertatzen zaidak beste batzuetan, eta aspaldiko kontuak bizi-bizi agertzen zaizkidak gogora, ezagutu hindudan egunekoak, esate baterako, Bitorixara ailegatu berria ninduan, eta Manolo Leteren etxean nengoan, Adurtza auzoan, eta hara agertu hintzen harekin biltzeko, apaizgoa lagata zian Letek ordurako, eta Gamarra aldeko Cablenor enpresan ziharduan langile, eta biharamunean han zabaldu beharreko paperekin agertu hintzen hi, Adidas poltsa urdin bat eskuan, sukaldeko mahaian laga huena, berehala ireki zian Letek, hiri aurrea hartuta, eta orri haietako bati begira, ederra esan zian, seme jaio berria besoetan duen aita bezain harro, horixe izango zelako Cablenorreko komitearen estreinako agerpena, hilabete askotako lan zailaren emaitza, papera, plegu laurdeneko paper zuri arrunta zuan, alde bakarrean idatzita eta garai hartako *vietnamita* batean inprimatuta, bertan enpresa komitearen eskaki-

zunak ageri zituan, eta Letek, miresteko eskaini zidala, atzamarrak tintaz zikinduta laga zizkidaan, kafe bat nahi izango duk, ezta, galdetu zian Letek esker onez, hik ekarritakoak eragin zion liluramendutik apur bat irten zuenean, eta hire poltsa mahai gainetik kendu eta gero hiru Duralex baso ipini zitian bertan, sukalde txiki iluna zuan, etxebizitza osoa bezala, baina kafearen usainak atsegin bihurtu ziguan, eta hara eseri gintuan pozarren, eta luze jardun genian honetaz eta hartaz, edo, hobeto esanda, jardun zenuten, ni entzule izan ninduzuelako denbora gehiena, baina entzule txunditua beti, gustua ematen zuen-eta zuei aditzeak, hain zineten hiztun jakintsuak, eta, hasieran, Bitorixako langileen egoeraz aritu bazineten ere, luze gabe beste kontu batzuk, unibertsalagoak-edo, aipatu zenituzten, niretzat izen hutsak baino ez zirenak: Rosa Luxemburg, pentsalari anarkistak eta abar erabili zenituzten, berriketan ari zinetela, eskuak begiratu nizkizuela gogoratzen diat, langilea izango hintzen, hik esan bezala, baina langile berezia, Lete bera bezala, eta hi ere apaiza izandakoa hintzela pentsatu nian, asko ikasi behar nuela ere pentsatu nian, sekulako ezjakina nintzela, inolaz ere langile mugimenduak behar zuen ekintzailea, eta aurrerantzean gogor ahalegindu-

ko nintzela zin egin nioan neure buruari, Letek gomendatutako liburuei helduko niela, gogoz gainera, ez ordura arte bezala, laster nekatu eta esku artean neukana baztertzen nuela, teoria haien guztien inguru-minguruetan zorabiatuta, baina zuek beste jakitera inoiz ez nintzela ailegatuko banekien arren, gure klasea, gure aberria askatzeko premiazkoak iruditzen zitzaizkidan kontu haien gutxieneko jakintzaren jabea izan nahi nian, bestela ezingo nukeelakoan behar beste lagundu ahalko, eta nik hori nahi nian, eramanezina zitzaidalako gure egoera: gero eta esplotatuagoak, gero eta zapalduagoak gintuan, nekez ailegatu ahal gintuan astearen bukaerara, dena garestitu, eta prezioek gora eta gora egiten zitean, eta soldatak, aldiz, mugitu ez, batere ez, hori hemen, etxean, baina hemendik kanpo ere, zakurrak oinutsik, han ere langileak eta herriak zigortuta, txikituta, akabatuta, Pinochet diktadorearen Txilen, esate baterako, Allende presidentearen ezker erreformistak egindako akats kriminalen ondorioz, burgesiak eta bere armadak odoletan ito zitean, Txileko langileriak egindako ahalegin gaitza, errotik moztu zitean Allenderen sozialismorako bide demokratikoa, errotik moztu porrotik latzenera baino ezin eraman zezakeen gezur eder hura, demokrazia, bada-

kik, demokrazia, hitz ederra, burgesen gustukoa ere bai, noski, negozioak, aferak ondo doazkienean, orduan bai, orduan gutizia iruditzen zaiek, gizateriaren jenioaren asmakizunik ederrenetako bat, noizean behin, ordea, mikaztu egiten zaiek zorioneko demokrazia, eta dena gehiegizkoa zaiek, demaseko askatasuna, demaseko hauteskundeak, eta orduan galderak zetozkiek: zergatik egon behar dugu jendaila ezjakin eta zital horren pean, nola da posible horietako baten bozak guretako batenak beste balio izatea, horrek hondamena zekarrek ezinbestean, lapurretak eta krimenak, kaosa, horixe esaten ditek beren jabegoa, beren ondarea arriskutan ikusi orduko, eta norbaitek herria aipatzen badie, kaka zaharra esango ditek behingoan, hitz horrek nazka eragiten dielako, haiek herria ez, haiek aberria maite ditek, aberria entzun eta bihotza pil-pilean jartzen zaiek, eta dena emango liketek horren alde, aberria, paradisuaren beste izena, dena duk zilegi horren alde, basakeriarik bihozgabeena ere, aberria arrisku gorritan zagok gero, nork salbatuko du, beraiek noski, komunistak bazatozak, anarkistak, deabru etsaiak, beldurgarria duk, ikaragarria, baina, egon, egon pixka batean, tankeak ere bazatozak, helikopteroak bazatozak, mota guztietako poli-

ziak, horiei esker, zorionez, demokrazia izan ahal duk berriz ere demokrazia, ero eta bazter-nahaslerik gabe, legearen inperioa berriz ere, haien legearena, noski, jabe denaren lege santuarena, apaiz eta apezpikuena, legegizon eta epaileena, jeneralena, demokrazia itzuli da-eta, aleluia, hala ziotek egunkarietako lehen orrialdeek eta telebistetako albistegiek ere, aleluia, burgesak eta enparauak halakoak dituk, errukigabeak beraiena norbaitek zalantzan ipiniz gero, hori Bitorixan ikasi nian, zuei entzunda, baina, batez ere hango kaleetan ikasi nian, bertako langileek isuritako odolari esker, noan poliki ordea, aurreratu gabe, zenbait hilabete geroagoko gertakizunez ari naizelako, eta Adurtzako etxebizitza ilun bateko sukalde ilunean gaudek oraindik, mila bederatziehun eta hirurogeita hamabostean, eta Franco, aspalditxotik hilzorian izanagatik ere, ez duk oraindik hil, gu ordea ez gaituk diktadore odolzale horretaz ari, horrek bezala bibotea daukan beste militar batez ari gaituk, Augusto Jose Ramon Pinochet Ugarte komandante nagusiaz, noski, baita hura izendatu zuen Salvador Allende presidenteaz ere, eta zuek, Manolo Letek eta hik heuk, traidoreak madarikatzen dituzue, Txileko langile borrokalari nekagaitzak saldu zituztenak, haiek oharkabean hiltegi-

ra eraman zituztenak, eta zuen berriketa adituta ilundu egiten nauk, eta Txileko langileei ez ezik, guri ere halako zerbait ez ote zaigun gertatuko bururatzen zaidak, nahiz nire zalantzak adierazten ausartu ez, eta isilik eta adi jarraitzen diat, gero eta ilunago, eta orduan hi konturatu nonbait, eta langile eta herri zapalduen azken garaipenak aipatzeari ekin diok: aurreko urteko meatzarien greba Ingalaterran, Portugalgo iraultza, Ginearen independentzia eta beste hainbat borroka eredugarri eta heroiko, porrotak porrot, azken garaipena langileena izango delako, mundu osoko langileena, kapitalismoarenak, lehenago edo geroago, egingo duelako, ez zagok beste irtenbiderik, sozialismoa ala basakeria, sozialismoa ala ezer ez, horregatik ezin etsi, aurrera jarraitu beharra zagok, kosta lain kosta, aurrera beti, edo, gehienez, bi urrats atzera egin, ondoren beste bat aurrera egiteko, ez zaidak ahaztu, makina bat urte pasatu arren, hor zagok, buruko zokoren batean, Lenin uste diat, hiri edo beharbada Leteri entzun nioan, baina ez orduan, eta, pentsatzen jarrita, arraro zaidak esaldi, tesi, teoria edo dena delako hori zuei entzun izana, zuek ez zineten- eta Lenin zaleak, iraultzaile handia izan zuan, hori ezin ukatu, baina hark sortutako partiduak egindakoak izu-

garriak izan zituan, ez ahanzteko modukoak, eta, zuen ustez, tamalgarriak mundu osoko langileen interesetarako, halako gauzak niri begira esaten zenituzten, eta nik baietz beti, zuek esanda bezala zela, hala izango zela, zuek zineten-eta jakintsuak, nik ahaleginduta ere, nekez entenditu ahal nian irakurtzen nuenaren erdia, zuek gomendatutakoa, alegia, ahalik eta gutxien irteten nintzelako etxetik, hasierako aste haietan, kalean norbaitek ezagutuko ninduen beldur, horregatik bakarrik ia egun osoan, ordu luzeak izaten nitian betetzeko, neure burua prestatzen saiatzen ninduan, liburua eskuetan hartu eta sekulako ahalegina egin behar nuelako orrialde haietan esaten zenari lotuta jarraitzeko, joan egiten zitzaidaan burua, herrira askotan, han lagatako lagunengana, etxekoengana, batez ere izugarri sufritzen ari zen amarengana, gajoa, hots egiten nioan noizbehinka, eta bere samina ezkutatzen saiatu arren, erraz antzematen nioan, haren hitz bakoitzaren atzean gordeta, bai, gaizki ari zuan pasatzen, baina amaren samina, neurea bezalaxe, merezi zuen samina zuan, sakrifizio bat, kausa justu eta ohoretsu baten alde egindakoa, eta, gainera, luze iraungo ez zuena, eta sinesmen horri esker, eraman ahal nitian bakartasun ia osoan kalera irten gabe-

ko egun haiek, bueno, batzuetan irteten ninduan, baina oso noizbehinka, eta halakoetan azkar ibiltzen ninduan, badaezpada ere, kale jendetsuenak saihestuz, orduko Bitorixan inork ez zuela Gipuzkoako herri bateko inor ezagutuko uste banuen ere, ezetz esan zidaan Letek, Arakan eta Bitorixako kuarteletan gure herriko gazteak ere bazebiltzala soldadu, bera ezagutu eta agurtu egiten zutenak, Adurtza, gainera, kuartel gehienetatik hurbil zegoan, hortaz, etxeko lau pareten artean preso joaten zitzaizkidaan egunak aspertuta, etxeko garbiketa eta bazkaria egindakoan ez nuelako beste zereginik leitzea ez bazen, liburuak, ordea, ez dituk niretzat, hik ondo dakianez, eta gehienetan lotan geratzen ninduan orrialde gutxi batzuk irakurrita, iganderoko mendi bueltarekin egiten nian amets, Izarraitz aldean ibiltzearekin, eta ito egiten ninduan giro hartan, eta ezin kexatu, ez nian eskergabea izan nahi, eta hobeto han, benetako kartzela batean baino, noski, Lete, hi eta gainerakoak lanean ari zineten, ni egongelako sofa gorrian alferkerian nentzan bitartean, eskerrak Letek, nik ezer esan gabe ere, nire egonezinaz konturatuta, auzo inguruetan ibiltzea banuela jakinarazi zidaan, joan Olarizura, esan zidaan, han lasai ibiliko haiz, jubilatuak ibiltzen dituk, beste

inor ez, eta horixe egin nian harrezkero, gosaldu eta Olarizu aldera jotzen nian, edo, bestela Esmaltaciones San Ignacio eskuinean laga eta Otazu aldera segitzen nian, txango haiek oxigenoa zituan niretzat, goizeko freskurak burua garbitu eta pentsatzen uzten zidaan, naturaren taupada sentitzea zoragarria zuan, urtaroek eragindako aldaketak, koloreen bilakaera, usainena, zoratzeko modukoa dena, ni bezalako preso batentzat, baina, jakina, munduan ez zuan dena natural, harmoniatsu eta argia, ostera, nahasia eta iluna zuan, zerbait izatekotan, sarritan beldurgarria, ze, nik maldak igotzen eta zelaiak zeharkatzen nituela, handik hurbil samar langileak lanean ari zituan, gehienek egun argia ikusi gabe, izerditan baina gozatu gabe, makinen edo mailuen zalaparta mingarriek erasanda, jota, metalezko hautsa arnastuz, egunero kutsatzen eta gaixotzen, birikak kaka pozoitsuz betetzen, egunero hiltzen, azken batean, eta, naturaren altzo gozoan nengoela, txorien kantuak baino ez zuela goizeko isiltasuna hausten, bakarrik, horiek denak nerabilzkian buruan, entenditu gabe zer zela-eta gizon-emakumeok hautsi, zikindu behar genuen naturaren berezko ordena: bakoitzak zegokiona egin, eta kito, ez zuan gehiago behar, nahikoa, bakea, hiltzeko ere bake san-

tuan, hildakoak eta haien hiltzaileak elkarrenganako gorrotorik gabe, batere ez, aspaldiko lege bati segika, bakoitzak bazekian zer, noiz eta nola egin egin beharrekoa, katea ez zuan eteten, gurpila ez zuan gelditzen, dena erraz zebilean, leun, ondo olioztatuta, karrankarik gabe, eta nik, miretsita, aho zabalik naturaren parean, arrazoi bakarra topatzen nioan gure espeziearen zoritxarrari: goranahia, handinahia, gehiegikeria, baina barne bultzada kriminal hori bera duk beti, zigortzera, torturatzera, hiltzera, behar baino gehiago biltzera eta pilatzera eta pilatutakoa defenditzera ezinbestean eramaten gaituen horri egozten nioan, eta, bide batez esanda, oraindik egozten zioat kaka zahar, itxuragabe hori, murriztu beharrean, gero eta gaitzagoa delako dena mendean hartzen duen zikinkeria, inor ez da salbatuko, inortxo ere ez, halakoak entzunda, barre egiten zidak Gloriak, daukan diru parrastak babestuko duela sinetsita dagoen emakume bestela argi eta bizkor horrek, edozer egingo likek, beste edozein aberatsek bezala, berea dena defenditzeko, hiltzera ere helduko lukek, segur nauk, ez likek bere eskuz egingo, jakina, profesional bati ordainduko zioan, dirua sartuko liokek banku-kontuan, Suitzan, Panaman edo Seychelles uharteetan, infernuan ber-

tan, Gloria ez duk ankerra, ez duk zitala, baina azalean, odolean zeramak bere klasearen estigma, marka ikusezin bezain indartsua, haren kontzientziaren aurreko kontzientzia, barne-barneko sena, nik nire klasearena daramadan modu berean, lanik egin gabe eman ditudan boladetan ere, langile izan naizelako ezinbestean, nire klasearen bilakaera nigan gorpuztu dela iruditzen zaidak batzuetan, lantegi handi samar batean hasi ninduan, metalean, ehunka langilerekin, eta tabernari, zerbitzari bukatu diat, behin-behineko kontratu batekin erretirotik gertu, gure klasearen gainbehera geldigaitzaren adibide, proletalgoaren balentria loriatsuak tokitan geratu dituk, matxinadak eta iraultzak, Leningrad San Petersburg bilakatu duk atzera, mundua aldatu behar zuen klasea apurretan zagok gaur egun, desagertzeko zorian, desagertzeko, ez hik esaten huen moduan, klaserik gabeko gizarte batean, ez horixe, burgesia den klase kanibal horrek irentsita baino, ze, kanibalak dituk, ahutz, hortz-hagin zorrotzak eta sekula betetzen ez diren urdailen jabeak dituk, nabarmena duk, ni bezalako ezjakin batek ere erraz ikusi zezakek, horretarako ez duk libururik behar, horretarako intelektualen beharrik ez, zuek ere arrisku gorritan dagoen espezie bat zarete eta, hipo-

potamo, lehoi eta beste hamaika bezalaxe, zuek ere jan egin zaituztete, ez zaituztete behar, alferrikakoak zarete, langileok bezain alferrikakoak, horregatik, hik esaten huen antzera, historiaren zaborrontzian zaudete, eta hor geratuko zarete betiko, inork ez zaituztelako behar, zuek baino lehen apaizak geratu ziren bezala, harrigarria, nork pentsatuko halakorik, Adurtzako etxe hartako garaian, iraultza posible eta nahiko hurbila ere iruditzen zitzaigun garaian, hi bezalako lagun burutsuak behar genituen garaian, *koadroak* esaten zitzaiean orduan, *koadroen* premia larrian geundean langileok, inoiz izan ez genuen heziketa emango zigutenak, ikasi beharra genuelako, sekulakoa, hil ala bizikoa zuan guretzat, kultura, gurea, iraultzarako tresnarik eraginkorrena zuan, kulturak gizon berri bilakaraziko gintuan, garrantzi handikoa eta txikikoa bereizten lagunduko ziguan, baina kultura hori ere aspaldiko kontua duk, zoritxarrez, antigoalekoa, garai urrun batekoa, eta jada hori ere, kontsolamendu apal hori ere ez zaiguk geratzen, jainkorik, esperantzarik eta kulturarik gabe gaudek, larru gorritan, ederki izorratuta, beti bezala, esango lidakek Joxek, ez duk egia, ordea, ez erabat, behintzat, diruz ez bazen ere, aberatsak gintuan, aberatsak ilusioz, ametsez, aberatsak keme-

nez eta sasoiz, edozer eramateko gauza gintuan, pobrezia, sasiko bizimodua, tortura eta kartzela bera ere, edozer askatasunaren alde, gure klasearen, gure herriaren askatasunaren alde, norberaren askatasunaren alde ere bai, noski, eta orain faltan duguna bagenian orduan: sua, grina, denbora osoan kontu bakar batean gogoa jarrita izateko gaitasuna, beste ezertaz ez pentsatzeko gaitasuna, nire baitako bazter batean baina itzali gabe, apal baino erne beti, adi beti, prest beti, zer gerta ere, eta jarrera horri esker aurkitu nian, esate baterako, Bitorixako kanposantuaren ondoko zuloa, nire ibilaldi haietako batean, errepide estua laga eta kanposantuko hormaren albotik nindoala, plaza txiki bat zirudien zulo zabal sakon hura, nire kalkuluen arabera, ehun lagunetik gora bildu ahal zituan bertan, kanpotik inork ikusi gabe, udazkeneko goiz hotz batean aurkitu nian, eta Leteri edo hiri ezer aipatu baino lehen, dena ondo pentsatuta eduki behar nuela erabaki nian, biharamunean hara itzuliko ninduan papera eta arkatzarekin, hango mapa baten zirriborroa egiteko, ahalik eta zehatzena, zuloa zaintzeko bazterrik aproposenak zehaztuz, polizia agertuz gero, inork saldu edota salatuz gero, handik korrika ihes egiteko bidea markatuz, dena estudiatu beharra

zegoan, dena kontuan hartu beharra, bestela zuloa ezkutaleku bikaina izatetik tranpa izugarria izatera pasatuko zuan, ezin zuan erokeriarik egin, biharamunean, aldiz, etxean geratu ninduan, azaroaren hogeigarren egun hartan hil zen-eta Franco, azkenean, Txikiren, Otaegiren eta FRAPeko hiruren heriotzak hurbil genitian, eta bagenekian, diktadorearen erregimena hiltzen hilko zela, ez zuela erraz amorerik emango, bazitean armada, bazitiztean egunkariak, eta guk, berriz, borrokarako grina besterik ez, hortik gure beldurra, erregimenaren amorrazioari genion izua, eta hortaz, etxetik irten ezinik, hankak luzatu ezinik, irratia entzuten ematen nian eguna, irrati zahar handi horietako bat zuan, eta gauez, Letek eta biok berandu afaldu eta gero, Paris irratiari adi egoten gintuan, baxu aditu behar genian, ez genian nahi zertan ari ginen inork jakin zezala, oharkabean pasatu nahi genian auzo hartan, eta modu horretan entzuten genian Paris irratia ez ezik, gainerakoak ere: BBC, Radio Pirenaica komunistena, jeltzaleena, guztiak arreta berberaz entzuten genitian, hala ere Pariskoa berezia zuan guretzat, zeremonia moduko bat, afaldu, harrikoa egin, zigarreta bana erre, eta, pattarrik edukitzekotan, kopatxo bana ere edaten genian, albisteak entzun bitartean, burua

pixka bat astinduz edo arnasa sakon hartuz txarrak zirenetan, gehienetan alegia, edo beso biak zabalduz eta ukabilak batuz zerbait pozgarria heltzen zitzaigunean Frantziako hiriburu amestutik, pilota partida bat edo apusturen bat irabazi izan bagenu bezala, eta, saioa amaitutakoan berriz hitz egiten genuela, harritzen gintuen gure, edo hobeto esanda, zuen azterketen zuzentasunak, ze, gutxi gorabehera, diktadorea hil aurretik zuek iragarritakoa betetzen ari zuan modu aztoragarrian, errepresioa gero eta zorrotzagoa zuan, alde batetik, eta oposizioa ere mugitzen ari zuan, bestetik, hura osatzen zutenek ere hurbil sentitzen zuten aldaketarako egokitzen ari zituan, orduan ezagutzen ez nuen Dylanek kantatu bezala, garaiak aldatzen ari zituan, nabarmena zuan nire zulo hartatik ere, zuhur jokatu behar genian, horixe errepikatzen zenuten Letek eta hi heuk ere, zuhur jokatu behar diagu, eta konforme denak, zuhurtziaren mugak, aldiz, lausoak zituan egoera aldakor hartan, eta gure helburua, betiko partidu eta sindikatuena ez bezala, ez zuan boterea, edo, egokiago adierazteko, gurea ere horixe zuan, baina boterea gure klaserako nahi genian, ez guretzat, botereari mesfidantzaz begiratzen genioan, arriskutsua iruditzen zitzaiguan, gertutik zaindu beharrekoa,

bagenekian boterea hamaika garroko piztia dela, eta garro horietako bat moztuta ere, laster beste bat sortuko zitzaiola, Sobiet Batasunean gertatutakoa ere hor zegoan, eta minbizi aseezin horren adibide ugari edonon, dena kutsatzen, dena usteltzen, dena irensten zuen minbizi errukigabea, horregatik adi ibili beharra zegoan, erne, bizkor, poliziarekin bezalaxe, zorrotz jokatu behar genian, zorrotz eta ausart aldi berean, ezin gintuan beldurrak gelditu, ostera, inoiz baino gogorrago lotu behar gintzaizkioan borrokari, pitzatuta zegoan erregimenaren egoera aprobetxatu behar genian, ahaztu gabe langileen egoera tamalgarria, petrolioaren krisia, bi urte lehenago hasitakoa, eta, gauza gehienen prezioen igoera medio, langileak eta haien familiak gorriak ikusten ari zituan, lantegi batzuetan antolatzen ari zituan, baina zailtasun nabarmenak zitiztean, premia handiak, ezin diagu honela segitu, amorratzen gintuan, zer edo zer egin beharra zagok, zer egin ordea, erantzuna hik eman higun, Adurtzako etxean lotan geratu hintzen batean: multikopista bat behar diagu eta bazakiat non eskuratu, hik plana azaldu eta ados biok, aurrera, ahalik eta lasterren, ekiteko irrikatan nengoan, mugitzeko, handik irteteko, nire ordura arteko egote hutsa zurituko zuen zerbait egiteko,

ze leitzea eta ikastea ondo zegoan, baina ez zuan nahikoa, ez niretzat, behintzat, horregatik Letek ekintza biharamunean egingo genuela jakinarazi zidanetik, tximeletak zebilzkidaan urdailean, eta egun osoan gogoa beste zerbaitetan ipintzen saiatu arren, ezin, eta azkenean Lete eta biok hirekin elkartzekotan ginen eskolarantz abiatu ginela, herriko zibilen kuarteleko horman idaztera joan nintzen gau jada urrun hartan bezala nindoan, astegun buruzuri bateko gaua zuan, eta artean gauerdia ez zela, lagun bakanak zebiltzaan kalean, isilik gindoazaan, esan beharreko guztia esanda zegoan, bere egitekoa zein zen ondo zekian gutako bakoitzak, horregatik eskolara heldu eta hala joan gintuan hire atzetik, eta, nire harridurarako, ezer apurtu gabe sartu gintuan eskolan, zabalik zegoen albo ate batetik, eta hik linterna bat piztu eta, etxean egongo bahintz bezala, ateak irekitzen segitu huen, multikopista zegoen gela txikitxora ailegatu ginen arte, hura Letek eta biok jaso eta berriz hire atzetik joan gintuan, hire linternak eskolako korridoreen belztasunean irekitako bideari lotuta, azken atearen pareraino, kopiagailua Renault 4L urdinaren atzealdean zegoan laster, eta, hirurok pozik, Bitorixako gau hotzean Adurtza aldera gindoazela, ekintzaren alderik erraze-

na egin genuela eta zailena geratzen zitzaigula pentsatu nian, etxeraino igo behar genian makina astuna hurrengo, Adurtzako kaleak ere hutsik zeudean, zorionez, eta inork ikusi gabe igo ahal izan genian, manta marroi batean bilduta, orduan bai, lo egiten nuen gelan makina sartu ondoren, sukaldean ospatu genian ekintzaren arrakasta, ordu erdi batean egin genian dena, etxean bueltan, patxaran botila atera eta gure borrokaren alde egin genian topa, ez zuan sekulako ospakizuna izan, baina, urteak pasatuta, nekez gogoratu zezakeat ospakizun ederragorik, kopatxo bana eta nahikoa, biharamunean bai Letek eta bai hik ere lanera goizean goiz joan behar zenutelako, gainera, neuk ere zereginik izango nian multikopista martxan jartzen, baina oker nengoan, oso lan erraza suertatu zuan, papera ipini eta ia segituan hasi zuan lanean, espero baino askoz azkarrago, espero ez nuena, aldiz, makinak ateratzen zuen zarata izan zuan, zelako burrundara, zelako zalaparta, ez sinestekoa zuan, etxe osoa dardarka ari zela ematen zian, eta berehala itzali behar izan nian, auzokoak zaratagatik marmarka hasi baino lehen, eta Letek, lanetik bueltatu zenean, ezin sinetsi, bezperakoa alferrik, arriskua alferrik, dena alferrik, amorragarria, isilik biok, zapuztuta, mul-

tikopista alua, jo eta txikitu egingo genikek gustura, haren premian geundean, ordea, lantegietako taldeek behar zitean, ze lantegi batzuetan batzarrak egiten hasiak zituan, nagusiei egin beharreko eskakizunak zehazteko, eta auzoetako jendeak ere behar zian, beraz, makina gordetzeko eta erabiltzeko leku egoki baten bila hastea erabaki huen, bilatu eta aurkitu, bost egun geroago agertu hintzen gurera, hura lekuz aldatzeko prest, eta, afaldu ondoren sartu genian autoan, eta ordurako lotan zetzan Bitorixa zeharkatuz, niretzat ezezaguna zen Aliraino joan gintuan, eta garaje izandako batean sartu genian zorioneko multikopista, lekua bi zatitan banatuta zegoan, eta txikienean, itxuraz bulegoa izandako gelatxo batean laga genian, Adurtzan lo egin huen gau hartan ere, eta goizean Alira bueltatu gintuan biok, etxeko irratia eraman genian ere, beste hainbat gauzarekin batera, eta alde egin huenean, bertako giltzak eman hizkidan, orain hemengo nagusia hi haiz esanez, hori zuan plana, Lete, hi eta hirurok gintuan leku haren berri genuenok, beste inork ez, eta, beti bezala, kontuz ibili behar genian, makina hura zelako genuen gauzarik preziatuena, eta ondo zaindu behar genian, horregatik laster ikusi huen Letek eta biok ezin genuela elkarre-

kin bizitzen jarraitu, arriskutsuegia zuan eta, hortaz, Alikoa nire lantokia izateaz gain nire bizileku ere bilakatu zuan, ohe tankerako bat antolatu nian makinaren gelatxo berean, eta sukalde moduko bat beste aldean, eta harrezkero bertan ematen nitian egunak eta gauak, ilunabarrean pixka bat ibiltzeko ez bazen, mugitu gabe handik, lanean jarduten nian jo eta ke, irratia pizten nian, ozen, okaztagarri zitzaidan musika hark makinaren zarata ezkutatzeko, Radio Alava, falangisten irratia zena jartzen nian, Raphael, Manolo Escobar eta erregimenaren gainerako kantariak ordutan ematen zituena, hartara, zabor harekin inork ez zian pentsatuko han inprenta subertsibo bat zegokeenik, baina egon bazegoan, gero eta lanpetuagoa, gainera, Bitorixako langileen arteko giroa etengabe ari zen-eta berotzen, hik paper eta tinta gehiago ekarri behar izaten hidan, jateko betarik ba al duk, galdetzen hidan txantxetan, eta nik galdera eskertzen nian, adarra jo ahal hidan, nahi bestetan, txantxak pozik hartzen nitian, hi hintzen kanpoko munduarekin nuen lotura bakarra azken batean, hi hintzen nire adiskidea, hizketa lagun posible bakarra, behar nituenak hik ekartzen hizkidan, hik kontatzen hizkidan jakin beharreko guztiak, irratian aditzen ez zirenak, eta Gabone-

tan hi etorri hintzaidan bisitan, oilasko errea, mazapan, turroi eta patxaran botila batekin, gabon afari hoberik nekez, horixe, zurezko kutxa banatan eserita afaldu genian, janariarekin batera ekarri huen magnetofoi txiki batean Victor Jara eta Mikel Laboa entzunez, lagunduta egoteak gustua ematen zian, eta bisita estimatu nian, hunkitu egin ninduan, elkartasuna, kidetasuna, anaitasuna hitz hutsak ez zirela, inprimatzen nituen orrialde eta txosten haietatik kanpo ere bazirela konturatuta, hitz huts ez, keinu, joera eta ekintza konkretuak zituan, benetakoak, beharbada gabon gau hartan zagok beti izan dugun harreman bereziaren hazia, ez lukek harrigarria izango, gu biok gauez ibiltzen ginelako batez ere, gauaren babesean nolabait, bai herriaren askatasuna bilatzen genuen garaian, baita geroago ere, gutako bakoitza bere askatasunarekin konforme zegoenean ere, gaueko piztiak izan gintuan, bagaituk oraindik, banpiroen antzekoak, baina gure kasuan odola geurea izan duk, ez beste inorena, gaua argitzen zuen odola, espaloietako odola, xiringen odola, odol ezinago gorria, erreka bat odol, itotzeko odola, baina hori dena gertakizun zegoan artean, gau hartako odol bakarra, afarirako ipinitako mahai gaineko egunkarien papera gorritu zuena,

edan genuen ardoarena izan zuan, patxaranena, gau hartan zer ospatu genuelako, diktadorearen heriotza ospatu genezakean, eta topa egin genezakean, Euskadi askatu baten alde, sozialismoaren alde, eta, gabon gaua izan ordez, gau hura Urtezaharrekoa balitz bezala jokatu genezakean, hastekotan zen mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseigarren urteak ekarriko zigunaren alde, asko eta, batez ere, ona izango zela sinetsita, herrira, etxera bueltatu ahalko nintzena, borroka egin beharko zuan, jakina, beti behar izaten zuan, baina azkenean irabazi egingo genian, ez zegoan dudarik, denbora alde genian, historia alde, eta, halako batean, denborak egin ziguan mesede, ze, luze gabe, urte berriarekin batera kasik, martxo odoltsu hartara eraman gintuen zurrunbiloa hasi zuan, Forjas Alavesaseko langileek greba egitea erabaki zutenean, haiek lanari laga eta nik inoiz baino gogorrago heldu behar lanari, egun batzuetan ez nian egun argirik ere ikusten, lana heldu ahala ekin behar zitzaioan, eta, hortaz, jo eta su jardun, ordutan, Forjaseko langileekiko elkartasuna arin ari zuan beste lantegi batzuetara ere zabaltzen, eta elkartasunarekin batera, egiten hasiak ziren batzarretan lantegi bakoitzeko eskakizunak zehaztu zituan, urtarrila amaitu baino lehen bazituan

sei mila langile greban, Bitorixan sekula ikusi gabea, hogeita hamar enpresa batera, hogeita hamarrak gauza beraren eske: hilero sei mila pezeta gehiago irabaztea guztiek, hirurogei urterekin erretiroa, sindikatu ofizialik ez, berrogeitaka urte pasatuta ere orain-dik gogoan ditiat, ez duk harritzekoa, inon ez zegoan nahiko paperik inprimatu behar genuen guztia inprimatzeko, eskerrak hik umorez hartzen huen, eta beti inguratzen huen nonbaiten, eskerrak etortzen hintzen, erotuko nintzelako bestela, makinaren zarata, irratiko kantu gogaikarriak, esan bezala, erotzeko modukoa, hire berriketak, hire laguntzak zalaparta hartatik ateratzen nindian, grebaren berri ematen hidan, atxilotuak, nagusiek itxitako lantegiak, kale gorrian lagatakoak aipatzen hizkidan, pare bat ordu ematen huen nirekin eta benetan estimatzen nian, hi ere nekatuta egoten hintzelako, zortzi orduz lan egin eta hainbat bilera gehienetan luze izan eta gero, etxera joateko gogoz egongo hintzen, noski, baina ahalik eta luzeen saiatzen hintzen nirekin egoten, hainbeste orduz zulo hartan sartuta egotea zer zen antzemanda seguru asko, egiten nuen lana eskertzeko hire modua zuan, eta horregatik, egun osoan pilatutako galderak bertatik bertara hiri bota beharrean, eutsi egiten niean, eta

hizketan uzten hindudan, hire kasa jarduteko, nahi bezala, nire jakin-mina hiretzat traba ez izateko, hala bueltatzen nian esker ona, eta hi etorri onekoa izan haizenez beti, bukatzen ari zen egunean gertatutakoaz gain horren gaineko gogoeta mamitsuak egiteko gauza hintzen, plazera zuan niretzat hi aditzea, Manolo Lete ere abila zuan hitzekin, baina hirea bestelakoa zuan, espeziala, eta nik ikasi nahi nian, eta Bitorixan bazegoan zer ikasi ugari egun haietan: lantegietako, auzoetako batzarrak kontatzen hizkidan, demokrazia zuzenaz ere ari hintzaidan, eta esnatzen, benetan zenaz jabetzen hasia zen herri bat ikusi nezakean hire hitzetan, eta ikuskari hori argiz beteta zegoan, alaitasunez beteta, eta antzeko zerbait gertatzen zitzaidaan auzoetako emakumeen batzarrak aipatzen hizkidala, aldizkarietan, agirietan erabat ulertzera ailegatzen ez nintzena gauzatu, gorpuztu egiten zuan, hire hitzaldietan agertzen ziren sobietak, langile bazkunak, herri batzordeak, horiexek agertzen zituan hik kontatutakoan, baina Errusian edo Alemanian edo beste edozein toki exotikotan gertatu beharrean, bertan gertatzen ari zuan, geunden tokitik ozta pare bat kilometrora, eta Lenin edo Rosa Luxemburg buruzagi izan ordez, hi hindugun, Lete genian, Naves eta beste hainbat geni-

tian, historia egiten ari gintuan, historia gintuan, bai, neu ere bai, modu xumean bazen ere, isilpeko inprenta baten erosotasunetik, baina historia, azken batean, zuen inbidiatan nengoan, ez diat ukatuko, batzarretan egon nahi nian nik ere, kalean, nire inguruan pilatutako paperak zabaldu nahi nitian, manifetara joan, poliziari harrika egin, Molotov bat izan nahi nian, txakurrak kiskali nahi nitian, jipoitzen, torturatzen, apurtzen, hiltzen gintuzten erregimenaren txakur amorratuak sugarretan, ederra, amets zoragarria, amestu beharra zegoan, horixe, etenik gabe amestu, nola jarraitu aurrera bestela, nola eutsi borrokari ametsak emandako kemenik gabe, mundu berri baten ametsak, biok gauden honaino ekarri gaituen amets berak, jakin izan bagenu lehenago, utikan, berdin egongo gintuzkek, seguru, bizi gabe gainera, eta gu, hi, Joxe eta hirurok bizi izan gaituk, azkar eta bete-betean bizi, hil arte bizi, hik esaten huen moduan, horra legea, gurea behintzat, hil arteko legea, bestea, txakurrena alegia, hil artekoa zuan ere, aste batzuk geroago ikasiko genuenez, artean odola ez zegoan kalean, egotekotan Gobierno Civil azpiko leotz beldurgarrietan zegoan, handik pasatutakoei amets gaiztoak eragiten zizkieten haiexetan, eta antzeko amets gaiztoak era-

giten zizkigutean guri ere, kartzelatik, familiakoen edo abokatuen bitartez, ailegatutako eskutitzak irakurrita, neure buruari galdetzen nioan zer egingo nukeen nik, haiek bezala egonez gero, gauza izango ote nintzen haiek sufritutakoa sufritzeko, minaz ahaztu eta mingainari eusteko, halako martirio latzak eramateko, eta pentsatze hutsak izu ikaretan jartzen nindian, bakarrik, loaren zain nengoela, halako pentsamendu goibelak etortzen zitzaizkidaan, gau hartantxe txakurrak nire bila azaldu eta metalezko atea botako zutela, eta, zaratak esnatuta, fusilez inguratuta aurkituko nian neure burua, haiekin joko ninditean, iletik eta bizarretik tira egin eta zaunka egingo zidatean, belarriak zartatu arte, eta izuak paralizatuta, noski, itomenari, elektrizitateari, edozein tortura motari nion eta orain-dik diodan izua, heriotzari behin ere izan ez diodana, bide batez esanda, erdi hilda nagoelako beharbada, edo, aspaldi samarretik, hildakoez inguratuta bizi izan naizelako, auskalo, edozein modutan, nagusiak edo, orduan esaten zen bezala, kapitala gogor ari zuan, ahal zuen guztia zerabilean langileen kontra, kale gorrian uzten zitian, iraintzen eta barregarri uzten irrati eta egunkarietan, zer edo zer egin behar zuan, horretan bat gentozaan ezkerreko partidu eta sindikatu

guztiak: greba orokorra, ez zegoan beste aukerarik, otsailaren seirako deitua zuan lehena, hogeita hirurako bigarrena, eta ordura arteko eskakizunei beste bat gehitu zitzaiean: atxilotuak askatu, gure lagunak, gure kideak, to papera, to tinta, entzun dadila gure ahotsa, makurtzen ez garenona, hiriko bazterrik bazterreraino ailegatu dadila, horretan ahalegindu gintuan, ahalegindu propagandarekin eta, batez ere, ahalegindu zituan lantegietako lagunak, denok eman genian eman ahal izan genuena, eta, hala ere, porrot egin genian, aitzakiarik gabe, erabateko porrota, hain nabarmena, ze, hi ere nahasita ibili hintzen bizpahiru egunetan, zer gertatu zuan, zerk egin zian huts asmatu nahian, langileak nekatuta zeudean, logikoa zuan, gu geu ere hala geundean, kaka eginda, zorionez gure aldartea dezente hobetu zuan atxilotuak libre zeudela jakindakoan, sinesteko zaila, baina hala zuan, lanik gabe baina kalean zeudean, zorionez, eta horixe bi greben eskakizunik inportanteena izanda, nekez hitz egin zitekean porrotaz, hori esan hidan, eta ni hirekin ados, nola ez, lantegi askok borrokan jarraitzen zitean, gainera, eta ez zegoan, beraz, etsitzeko arrazoirik, aurrera jarraitu beharra zegoan, inoiz makurtu gabe, gainerako eskakizunak lortu arte, borroka eraginkorra zela-

ko, eta, hortaz, ordura arteko bide beretik jarraitu beharra zegoan, halakoak entzuten omen zituan batzarretan, eta halakoak ageri zituan nik inprimatutako paperetan ere, esan daitekek Euskal Herri osoko langileak guri begira zeudela, haien elkartasuna gero eta handiagoa zela, dirua bidaltzen zigutean, janariak ere bai, eta azken asteetan soldatarik gabe bizi ziren familien artean banatzen zituan, beren esker ona nola erakutsi asmatu ezin zuten familien artean, Bitorixako sobietak bizirik segitu behar zian, ezinbestekoa zuan bertako nahiz kanpoko langileentzat, hil ala bizikoa kasik, eta horregatik nekea ahaztu eta beste greba orokor baterako deia egingo zuan, eta horretan ez genian porrotik egingo, zehaztasun guztiak zainduko zituan, eta dena ondo lotu arte ez zuan mugimendurik egingo, batzarrak ugaritu zituan, beraz, lantegietan, auzoetan, baita lehendabizikoz, lanbide eskola eta institutuetan ere, hori zela eta, guretzat ere lana ugaritu, baina gu gustura, batez ere antolaketan egiten ari ziren aurrerapenen berri jasotzean: gero eta gehiago gintuan, gero eta hobeto prestatuta, eta gero eta urrunago ari zuan gure borrokaren oihartzuna ailegatzen, Paris irratian entzun genezakeenez, nagusiek eta gobernuak ere bazekitean, eta, errepresioaz gain, gezu-

rra ere zerabiltean, gero eta lotsagabeago, negoziatu nahi zitean, baina ez bazter-nahasleekin, langileen ordezkari legalekin baizik, ez zituan ergelak, gero, gu ere ez, ordea, eta kontu hori negoziaezina zuan, hitz egin nahi baldin bazuten, bazitean batzarretan aukeratutakoekin hitz egiterik, nahi zuten lekuan eta orduan, baina haiek amore ematerik ez, *El Correo Español*, *Norte Exprés*, *La Gaceta del Norte* eta enparauek argitaratuak irakurri eta beren onetik irtenda zeudela iruditzen zitzaiguan, eta barre ere egingo genian, barrez lehertzeko modukoak zirelako, haien erokeria guretzat beldurgarria zela jakin izan ez bagenu, ze, artikulu eta editorial haiek helburu argia zitean, ondo zehaztutako estrategia baten atalak zituan, kakaren estrategia: kakaztu nahi gintiztean, kakaztu eta hautsi ere, ahal izanez gero, haiek hautsi eta guk eutsi, horretan ari gintuan alde biok, eta tirabira horretan ailegatu gintuan hilaren bukaerara, hurrengo greba orokorraren bezperetara, pesimismoz ikusten nian aurreko porrot parearen ondoren Aliko nire zoko hartatik, hi, berriz, grebaren arrakastaz seguru hintzen, giroan zegoan, lantegietan eta kaleetan nabaritu zitekean, eta, beti bezala, hi zuzen eta ni oker: martxoak hiruko greba inoizko handiena izan zuan, baita odoltsuena

ere, ondo jakina denez, egun hartako gauean, Alin lo egin huen, ordu gutxi batzuk baino ez, Zaramagako asasinoei erantzun behar zitzaiean, berehala, baina ez hintzen horregatik geratu, beldur hintzen txakurrak ez ote zitzaizkian bila joango, arrazoiz hintzen beldur, ordurako beste batzuen bila joanak ziren eta, neu ere beldur ninduan, eta poza hartu nian, nirekin geratuko hintzela aditutakoan, bestela ere poztuko nindukek noski, baina gau hura berezia zuan, eta estimatu nian, beharbada nirekoi jokatu eta lagun nahi hindudan, polizia azaltzekotan, elkarrekin eramango gintiztean, hori, pentsatu baino gehiago, sentitu egin nian, edo hala iruditzen zaidak orain, behintzat, hire beharra nian eta hik nirea, hik zoritxarreko egun hartako izugarrikeria adituko zuen lagun bat behar huen, kea, jipoiak, tiro hotsa eta jendea hire inguruan ezker eskuin erortzen, oihuak, madarikazioak, negarra, hori dena kanporatzeko premian hengoen, itoko ez bahintzen, odola ikusten huen iluntasunean, odolaz blai hire eskuak, amesgaizto batean bezala, lorik gabeko amets gaizto batean, hik izendatu huen moduan gosaltzen ari ginela, entenditu egin nian, lokartu nintzenean, hire negar-zotina adituz lokartu ninduan eta, bai, hi negarrez, guztiz harrigarria, baina gau hartan hori en-

tzun uste izan nian, eta horrek eman zidaan, nolabait, hire ondoezaren neurria, imajinatu nezakeena baino askoz okerragoa izan zuan dena nonbait, edozein amesgaizto baino ikaragarriagoa, eta ahaleginduta ere ez ninduan gauza odol hura guztia ikusteko, hik ikusten huen moduan, dena estaltzen, dena bustitzen zuen uholde hura, artean ez nekielako hildakoen eta zaurituen kopurua: hildakoak bost zituan, eta ehundik gora zauritutakoak, orduan nik ez nekian jainko txikiaren berri, ez nian ezagutzen heriotzaren izotzezko begirasun urdina, urte batzuk pasatu behar zitean artean hark eta biok estreinaz topo egiteko, eta kuriosoa duk, ze topaketa hura eta ondorengoak ere ez zituan gertatu ez espero nuen garaian ez espero nuen moduan, nik zerbait heroikoa espero nuelako noski, gure herriaren aldeko, mundu osoko langileen aldeko heriotza gogoangarri bat edo, topaketa horietako batzuetara, gainera, hik lagunduta joan ninduan, edozein modutan ere, minari ez bezala, sekula ez zioat heriotzari beldurrik izan, beharbada horregatik ez naik berarekin zeharo eraman orain arte, hor nagok, hilda baina ez erabat, edo, nahiago baduk, bizirik baina ez erabat, suspense gogaikarri batean, hark eusten dion soka batetik zintzilik, azpian amildegi sakon iluna dudala,

edozein momentutan sokatik tiratzeari lagako ziok eta hor behera joango nauk, haren jostailua nauk, nirekin dibertitzen duk, batzuetan soka tenkatu egiten dik eta, beste batzuetan, laxatu, harentzat nahierara zapaldu dezakeen txindurria baino gutxiago nauk, haren esku leun hotzetan nagok, beste edozein bezala, noski, baina txera berezia didala iruditzen zaidak, hilda, benetan hilda egon beharko nukeelako bestela, bestela ez zuan nirekin honenbeste luzatuko, ez zian honenbesteko lanik hartuko, hirekin ere ondo konpondu zuan, ni zuen artean sartu nintzen arte behintzat, sartu ninduan ordea, jakin gabe zertan ari nintzen, egia, baina sartu eta ezin irten, zuloz zulo ibili nauk harrezkero, baina ez diat jarraituko lantu joka, ni, hi bezala, ez nauk negartia, nire oraingo negar tankerako hau bakana duk, bizialdi batean behin egiten den horietakoa, martxo hasierako gau latz hartakoa hirea izan zen modukoa, ze hik, nik bezala, barrea nahiago huen negarra baino, hi, neu, bizizaleak izan gaituk, zer edo zer izan bagara, horixe izan gaituk, hil arte bizi, hire deiadarra, hire kontsigna, nire egiten nuena noski, gure egiten genuena, Joxe ere iritzi berekoa zelako, filosofia horrek batzen gintian hirurok, gainerako ideia eta sinesmenak errealitateak barregarri laga eta

historiaren kaka-zulotik behera joan zirenetik, hil arte bizi, erraza aditzeko eta dirudien baino zailagoa mamitzeko, horren arabera jokatzeko, gu saiatu gintuan behintzat, hori ezin ziguk inork ukatu, saiatu eta saiatu etsi gabe, modu batean edo bestean horretan ibili gaituk beti, askatasuna baino ez diagu nahi izan, gehiegi nahi izan ote dugu, balitekek, preso egon denak, ordea, bazakik gehiegi ez, askatasuna dela dena, hori gabe, edo horren ametsik gabe behintzat, ez dagoela ezer, heriotza ez bada, eta heriotza ere, sarritan, askatasuna duk, askatasuna ematen ziguk, gorputzetik libratzen gaitik, traba, oztopo dudan gorputz aspalditik trakets honetatik, esate baterako, Pantectatik libratuko naik, Torasemidatik, Carvelidoletik, Sovalditik, mundu honetan diren droga guztietatik azkenean libre, hori ez bada askatasuna, zer ote da, hori ez bada bizitza, zer ote da, bizitza heriotzari esker, heriotza bizitzaren segida, hortaz, bizitza bera, Gloriari aipatu zioat behin edo behin, baina haren kopeta goibelak hizketagaiz aldatzera behartu naik halakoetan, bizizalea zara zu, Biteri, egundoko bizipoza duzu halako kontu ilunekin etortzeko, hain justu bizizalea naizelako ari natzaiola horretaz esango niokek gustura, bizitzaren eta heriotzaren artean bereizterik ez dagoela,

nolabait gauza bera direla, baina hori dena nire kolkorako gorde izan diat, arazoak isiltzean arazoak desagertzen direla uste dik nonbait, uste dik edo hori uste nahiago dik, Gloria ez delako batere ergela, eta, gainera, hiru gizonen alarguna izaki, askotxo zakik heriotzaz, ia hik beste, eta jakinaren gainean hitz egin lezakek, hitz egin zapatez eta jantziez, protokoloez eta jatetxeez hitz egiten duen bezain eroso, New Yorkeko ospitale garestienetako batean hil zitzaion bere alaba bakarraren aita ekarri zezakean gure berriketara, gizon ezinago ederra omen zenaren agonia ankerra, alargun gazte baten mindura, nahiz eta ordurako beste batez maiteminduta egon, beste aberats batez, noski, klase sena ez baita inoiz galtzen, ardiak ardiekin beti eta otsoak otsoekin, ezin dituk nahastu, eta nahastu, elkartuz gero, ardiak kalte, hala duk, hala izan duk eta hala izango duk, eta larri ibili, bi harribitxi itsugarri diren bere begiei begira liluratuta gauzkala, hozka egingo ziguk, senak bat-batean derrigortuta, oharkabean kasik, ankerkeriarik gabe, baina haren matrailezurrek ehizakiaren, biktimaren soina sakatuko liketek berdin-berdin, eta haren letaginek larru-azala urratuko lioketek, beraiena omen dena ari dituk defenditzen, arbasoei zor zietek, haiek lagatakoari eutsi

behar ziotek nola edo hala, katea ez duk eten behar eta abar, kaka zahar hori guztia, badakik, batzuetan Gloriarekin hizketan ari naizela, nire gaztaroko joan-etorriak, garai hartako nire deskalabruak kontatuko banizkio, zer esango ote lukeen galdetzen zioat neure buruari, gustura ari gaituk, baina bat-batean horixe bururatzen zaidak, pozik ikusiko niokek aurpegia, nola iluntzen edo zurbiltzen zaion, kontatzen ari natzaiona sinesteko lanak dituela, aspaldiko kontuak dira, Gloria laztana, gaztetako txorakeriak, esango niokek, erakarri nahian, haiek aintzat ez jotzeko eskatuko niokek mesedez, gure adiskidetasuna horren gainetik dagoela, eta egia baino ez niokek esango, nire egia, noski, azken finean ni naizelako lagun beharrean dagoena, entzungo dion norbaiten premia duena, erosi ezazu zakurtxo bat gomendatuko lidakek seguru asko, bere Coco bezalako bat, eta nik irribarre baino ezingo nikek egin, nire nahasmena eta nahigabea ezkutatzeko irribarre inozo, tokiz kanpoko bat, eta, lagun onak dira, gaineratuko likek orduan, edozein *adiskide* baino hobeak, egidazu kasu, ez zaizu damutuko, aukeran zu nahiago zaitut erantzungo niokek nik, eta Gloriak atzera egingo zian irribarre, konplimendua eskertzen didala aditzera emateko, eta, irribarrea zabalduz, filo-

sofoa aipatuko lidakek, lagunak baditudala erakusteko, gezurretan ari naizela, txora-txora eginda duzu egingo likek hasperen, zure esku dago, oi Gloria, jakingo bazenu, esango niokek gustura, baina hizketan lagatzen diat, esan dezala nahi duena, aipatu ditzala bere senarrak, eta horietako bakoitzarekin ikasitakoa, asko, baina seguru ez nik adina, harrokeria irudituko zaik akaso, eta balitekek neurri batean hala izatea, neurri batean, ze nik ikasitakoa minari esker ikasitakoa duk, minak erakutsitakoa eta negar malkotan neurtua, eta, aberatsek ere negar egiten dutela eta hori dena jakin arren, haien mina, haien malkoak arinagoak dituk, telenobela batekoen tankerakoak, eramanerrazagoak, adarrak jartzen zizkiotek elkarri, askotan, elkarri zapokeriak egiten zizkiotek negozioetan, baina denak antzezpen zera bat zaukak, halako aire bat, izugarria zirudik eta, azken finean, ezer gutxi duk, sekulako espantuak, antzerkia, itxura hutsa, elkarri egindako zauriak arin sendatzen dituk, odolustuko direla ematen badu ere, zauri azalekoak dituk, eta gainerakoenak, berriz, oso bestelakoak, haiek ez garenok hiltzera ere ailegatu ahal gaituk zauri gaizto baten ondorioz, eta zer esan gure traizioez, gaiztoak dituk horiek ere, eta hilgarriak, biok inork baino hobeto daki-

gunez, guk, norbait traizionatzen dugunean, benetan traizionatzen diagu, errukirik gabe, horregatik gure zauriak hotzak dituk, horregatik hil ahal gaitiztek eta hiltzen gaitiztek, gure odola gatzatu egiten duk, aberatsena ez bezala, horiena odola baino gehiago merkromina delako, gorri biziko isuri artifizial bat, baina ez odola, horiena beste zerbait duk, drama baterako egokia baina gezurrezkoa, Bitorixan isuritakoa ez bezala, ehundik gorako zaurituen odola kalean, bost hildakoena, Gobierno Civilean torturatuena ahaztu gabe, hiri oso bat, herri oso bat itotzeko beste, hildakoak eta zauritutako guztiak ez zirelako Bitorixakoak, elkartasunak odolezko ordaina zian handik kanpo ere, Fraga Iribarne, Martin Villa eta Guardia Civilaren orduko nagusia, argazkilarien eta kameren aurrean zeuden bitartean, zauritutako baten ondoan, Basaurin, Tarragonan eta Italian ere beste gazte batzuk hil zitiztean hango kaleetan, Bitorixako anaiak, ez zaituztegu ahaztuko, akordatzen al haiz, horixe esaten genian guk ere haiekin batera, eta hori esatean hunkitu egiten gintuan, esker onez, eta gure borrokaren alde borrokan ari ziren milaka lagun ezezagun haiek guztiak besarkatuko genitian ahal izanez gero, elkar kontsolatu, estu, anaiak, arrebak, mundua aldatzera zihoan,

Internazionalak zioen moduan, halako jendearekin bai, argi zegoan, aurrera beti, denok batera, eup, mundua irauli beharra zegoan, behetik, sustraietatik heldu eta buruz behera ipini, lehenbailehen, kapitalistek eta haien morroiek dena txikitu, dena zapuztu, dena suntsitu baino lehen, gazteok egingo genian, beste inork ez bazuen egin nahi, iraultza ala hil, aberria ala hil, behar zena, edozer, ondo pentsatu beharra zagok esaten huen hik, eta besteok ezetz, pentsatzeak ez ziola inori kalte egiten, baina, gauzak hain argi egonda, zertarako hainbeste gogoeta, ekin behar zitzaioan eta kito, gainerakoa, hitzontzikeria, hiltzen ari zitzaigun poliziaren baletatik babesten ez gintuena, geure burua defendatu behar genian, langileok, guk geuk, ez inongo erakunde edo talderik, inoren baimenik gabe, gure kasa, Zaramagako sarraskia ez zuan berriz gertatuko, eragotzi behar zitzaiean, txakurrek ere beldurraren berri ikasi behar zitean, bai, bai, hori oso ondo zagok, baina nola egingo dugu, abila hintzen, bahekien guri non zirikatu, nola, elkarri begiratu genioan, inork ez zekian nola, pentsatu, luze hausnartu beharra zegoan, hik esan bezala, beti bezala, horretan hasi hintzen, beraz, langileen autodefentsaren adibideak historian arakatzen, Parisko Komuna, sobie-

tak noski, Boliviako meatzarien antolaketa, Argentinan eta Mexikon argitaratutako liburuak irakurri hituen, auskalo noren bitartez inguratutako liburu italiar batzuk, eta mirespen berrituaz begiratzen nian, esku onetan geundean, argi zegoan, lasai egon ahal gintuan, beraz, asmatuko genian hartu beharreko bidea hartzen, bide estu eta malkarra izango zuan, baina halakoak izan zituan ordura artekoak ere, eta beldurrik ez, Bitorixako langileek erakutsitako kemenarekin dena zuan posible, batez ere diktadorea hil ondoren, erregimenak ere hilzorian zirudian egun haietan, inozoak ez besteak, pare bat urte nahikoa, gure optimismoaren ustela agerian uzteko, nola pentsatu, ordea, erregimenaren aldekoak eta kontrakoak noizbait elkartuko zirela, otsoak eta ardiak, eta akabo, hor konpon langileen beharrak, hor konpon iraultza eta ametsak, sindikatuetako burokrata bilakatu zituan gutako batzuk, norbaitek merezi bazuen, haiek merezi zitean, nork bestela, atxilotzeek, torturek ordain bana derrigortzen zitean, justizia zuan, eta ezin ezetzik esan, horretarako eskubidea zitean eta, ezin pikutara bidali edo madarikatu, gainerakook, ordea, beste bide bat aukeratu genian, asko, gehienak, ikusten ari zirenaz

nazkatuta, etxera joan zituan besterik gabe, gu, berriz, kalean geratu gintuan, tabernetan.

7

Dena gal daiteke, duintasuna eta estiloa izan ezik, horiei eutsiz gero, ez dago dena galduta, bada orain-dik itxaropena, eta nola egun ilun bati beste egun argi eguzkitsu batek darraion, hala bolada ustel bati beste bolada eder oparo batek jarrai diezaioke, dena baita posible mundu honetan, eta ez naiz ari hitz egin alde-ra hizketan, ondo dakit diodana, ziztu ezin biziagoan joan zaidan bizitza luze honetan nahiko gorabehera petral izan baitut, zertaz ari naizen jakiteko, horrega-tik diot duintasunarena eta estiloarena, horiei esker, estiloari esker bereziki, irten ahal izan bainaiz onik bi-zitzak jarritako segadetatik. Asko ikasi dut horiek bi-tarte, baina horien aurretik ere banekien zer edo zer estiloaz, ordurako amaren eta Mme. Licheronen es-kuetatik pasatuta nengoen, ordurako hitz-aspertuak eginda geunden horren gainean Laura Ybarra eta biok, eta estiloa bezainbeste estilo eza ere azkar ikusteko, urrundik antzemateko gai ginen, izan ere, edertasu-nak garrantzia zuen, diruak ere bai, esan gabe doa, baina estiloari irizten genion garai hartan garrantzi-tsuena, eta guk, zalantzarik gabe, bagenuen; gure

burua ispiluan ikustea, ez genuen besterik behar, elkarri esaten genion, atzera eta aurrera egiten genuen, begi ertzetik ispiluari kirik eginez, eta gonari astindu txikia ematen, egongelako telebistan ikusitako Parisko modeloek egin ohi zuten antzera. Prest ginen, mundura irten gintezkeen, ondo moldatuko ginela seguru, ez zegoen saihestuko ez genuen arriskurik edo gainditu-ko ez genuen oztoporik; emakume bereziak ginen, guztiz apartekoak eta, nolabait, boteretsuak, estilodunak, eta estiloak ate guztiak irekitzen zituen, jauregietakoak nahiz txaboletakoak.

Jorge Ostiz Aiok ere bazuen, estiloa ez ezik, gizon bati eskatu ahal zaion gainerako guztia ere, edo hala iruditu zitzaidan, behintzat, Laura Ybarrak Tenisen aurkeztu zidanean, uztaileko eguerdi berunkara batean. Carlos Zaragueta Lauraren senargaiarekin zetorren, izerditan biak, Carlosek irabazitako partidaren kontura elkarri zirika eta barrez, eta Carlosek noiz aurkeztuko zain nengoela, konortea galdu eta hantxe eroriko nintzela sentitu nuen, ezingo nuela haren edertasun itsugarriaren zama eraman, eta eskerrak orduan estiloaren ziztadak nire onera itzularazi ninduen eta, nola edo hala, lortu nuen duin agertzea; izan ere, Jorge ederra zen, perfektua, atalez atal akasgabea:

ilea horixka zeukan, ugari eta sendoa, bekainak, artista batek marraztuak bezala, eta begiak, argiak, erakargarriak, bere ezpain handiak nola, sudurra zuzena, neurrikoa, eta gainerako hazpegiak ere halaxe, esku zoragarriak edo soin zabal gotorra ez aipatzearren, horregatik niretzat nahi izan nuen, ikusi orduko, niretzat bakarrik, horixe esan nuen nirekiko, neuretzat bakarrik, lepotik behera zetorkion izerdi tanta baten ibilbideari jarraitzen nion bitartean, begiez jarraitu ordez, eskuaz, edo hobeto, ezpainez jarraitu nahiago banuen ere. Minutu bateko kontua izan zen, baina nahikoa ni guztiz aztoratzeko, bere senargaia eta haren laguna aldageletara urrundu eta berehala Laura ohartu zenez:

Banekien. Gauza bera gertatzen da beti.

Lagunaren hitzek mindu egin ninduten, baina estiloa bazuela onartu nion.

Estiloa? Hori baino izango ez balu, hasperen egin zuen Laurak.

Zuri ere gustatzen al zaizu, galdetu nion, ahal izan nuen erarik leunenaz.

Noski. Baina nik Carlos daukat, eta pozik.

Hala zen. Carlos Zaragueta bere laguna bezain ederra ez bazen ere, gizon erakargarria, bai: kirolzale,

umoretsu, lagunkoi eta laster diplomatiko gainera, horretarako ikasketak eginak zituen Madrilen eta udazkenean enbaxada batera bidaliko zuten, eta urte zenbaiten ondoren, enbaxadore bilakatuko zen, eta Laura enbaxadorearen emaztea, beraz, eta garrantzia txikiko enbaxada batzuetatik igarota, Pariskora, Washingtongora edo Londreskora iritsiko zen noizbait, eta beharbada ministro izatera, Kanpo Arazoetako ministroa edo. Gutxi gorabehera, Laurak hala irudikatzen zuen bere etorkizuna, maitasun eta menturez betea, herrialdez eta are kontinentez sarritan aldatuz, Espainiaren ordezkari goren herrialde epel eta exotikoetan, eta beren seme-alabek –lau gutxienez– korrika eta jolas libre eta bakean egingo zuten, berak, mahai batera eserita eta freskagarri bat eskuan, haien joan-etorriak zaintzen zituela, ilunabarra nagusitzen zen bitartean, eta bularraldea puztu egiten zitzaion maitasun eta harrotasunez, zeruko gorri ardotsuak zizelkatutako lau irudi haien bistan, eta algarek eta giroan zegoen usain gozoen nahasketak halako betetasun lasaigarri bat sentiarazten zioten, zoriontasun xalo bat, denbora geldi zedila desirarazten ziona, une sorgindu, distiratsu, akasgabe hori betiko gorde nahian. Hunkitu egi-

ten zen Laura, bere ametsak kontatzean, eta negar ere egingo zukeen, hori estilorik gabea izan ez balitz.

Ederki ulertzen nuen, antzeko ametsak nituen neuk ere azken finean, eta hark bere Carlos aurkitu zuen bezala, Jorge aurkitu berria nuen nik, eta neure-ganatu behar nuen nola edo hala, prest bainengoen egin beharreko guztia egiteko, eta hala jakinarazi nien, Laurari lehendabizi eta amari gero, afaldutakoan anaiak alde eginda, biok bakarrik geratu ginenean; ama, nahi nuen gizona aurkitu dut, esan nion, eta, nire harridurarako, poztu beharrean, ilundu egin zen eta arduratuta begiratu zidan, krimen baten aitorpena egin izan banio bezala, baina, nik kikildu ez eta berriz esan nuen, nahi nuen gizona aurkitu dut. Ahoa ireki baino lehen, amak bere ondoko kopa hustu zuen, eta, hori ikusita, banekien esan behar zidana ez zela bate-re atsegina izango; arnasa hartu zuen, eta apal, ia leun hasi zitzaidan: Ziur al zaude? Horixe jakin nahi izan zuen, nik aukeratutakoa nor ote zen baino lehen ere, eta nik, noski, baietz erantzun nion berehala, baietz, erabat ziur nintzela, Jorge, Jorge Ostiz Aio zela zoratuta nindukana, senartzat nahi nuena.

Gizonak!

Betiko leloari lotu zitzaion ama, zer adierazi berri nion ohartu izan ez balitz bezala, hark niretzat zuen garrantziaz jabetu izan ez balitz bezala, eta orduan nik, gizonak zoragarriak zirela aldarrikatzeko gogoa izan nuen, zoragarriak baino zoragarriagoak, galdetzeko bestela Laura Ybarrari, hark azalduko ziola nire ahotik entzunda sinetsi nahi ez zuena, eta gehiago ere esateko gogoa izan nuen, aitak eragindako suminak itsututa zegoela eta gizon guztiek ez zutela era berean jokatzen, berak uste zuenaren kontra, eta bazirela gizon zintzoak ere, beren familia maite zutenak, eta Jorge, nik aukeratutakoa, horietakoa zela, eta zintzotasuna begietan antzematen zitzaiola, haren begi argi abegitsuetan, non sentimendu garden horretarako baino ez zitekeen tokirik egon, baina isildu egin nintzen, ez bainuen aitaz gaizki esaka aritu nahi, maite nuen, haren kontra ni jartzeko amaren ahaleginei muzin eginda, eta seguru nintzen amari erantzuteak, burutik pasatzen zitzaizkidanak adierazteak, aitaz hitz eginaraziko zigula ezinbestean, eta hori izan zen une hartan inolaz ere hizpidera ekarri nahi ez nuena, zeren eta aita aipatzeak sutan jartzen zuen ama, eta madarikazioetan galduta uzten, eta halakoetan okerrena opa ohi zion aitari, oinazerik latzenak, heriotza ere bai,

hain zen izugarria zion gorrotoa, denborak eta Ritxi Letamendiaren laztanek arintzen ez ziotena:

Gizonak, denak berdinak!

Egun hartan, aldiz, ez zuen eztanda egin, espero nuen bezala, ez zitzaion aparra ahotik irten eta, besterik gabe, beste galdera bat egin zidan:

Jorge Ostiz esan al duzu?

Izenak ez zion ezer esaten, bere lagunen eta ezagunen artean ez zen inor hala zeritzanik, ez bertakoenen artean, ezta Madrildik uda igarotzera etorri ohi zirenen artean ere, horregatik hasi nintzaion Jorgez nekiena kontatzen, Carlos Zaragueta, Laura Ybarraren senargai diplomatikoaren laguna, nafarra, Carlos bera bezala, eta, ostiztarrak betiko aberatsak zirela, lur eta negozio askoren jabeak, hori dena Laurak kontatuta nekien, hamaika galdera egin bainion, gehienak erantzuten asmatu ez zituenak, baina nahikoa izan zirenak ama pixka bat lasaitzeko, tenis jokalari bikaina zela kontatu nion, Ekonomia ikasten ari zela bere familiaren negozioak –gasolindegiak, besteak beste– zuzentzeko egunen batean, eta, kontatu ahala, lasaitzen zihoala nabaritu nion, eta Jorgeren edertasun paregabea ez aipatzeko nahikoa erne ibili nintzen, horrek ez baitzion ardura berezirik amari, hark senarra eta guk

aita genuen gizon bikainak eragindako zaputza eta gero, harentzat edertasuna ez zegoen, ez zetzan aurpegian edo gorpuzkeran soilik, jendearen kontu korronteetan ere bazetzan, horietan batik bat, horien edertasunak, fisikoak ez bezala, ez zuen zimurren berri, irabazkinak handitzen zituen kontuetan, etekinak handitzen, eta hori uki zitekeen, zenbatu, erabili, diruak ate guztiak irekitzen zituen, ate sendoak izanagatik ere, eta edozein borondate erosten, behar beste ordainduz gero, salgai zegoen dena, salgai geunden denok, gizonik osoenak, prestuenak ere, diru kopuruarekin asmatuz gero, horra guztia, zehaztasunak alda zitezkeen, ñabardurak, baina funtsa ez, hori inoiz ez, horregatik ideiak saltzen ziren, printzipioak diruaren truke ahazten, gizon-emakumeak, gazte zein zaharrak saltzen ziren era berean, edo gizon-emakume horien gorputz atalak: odola saltzen zen, ilea saltzen zen, giltzurrunen bat ere sal zitekeen, edo ume oso bat, nahi izanez gero, eta sosek lagunak erakartzen zituzten, dirua, horixe, argi distirant bat munduko gau betierekoaren erdian; gaztea nintzen, birjina, eta etorkizuna udako egun batzuetako goiztiriaren antzekoa zen, nire gelatik mirets nezakeen argi zirrintak margotutako paisaia idilikoa, urdinak, moreak, gorrixkak pareko

uhartea inguratzen, badia osoa kolore leunez laztantzen, eta horren lekukoa, horren ispilua, itsasoa, barebare, horra etorkizuna niretzat, zerbait atsegin, epel eta etxekoia.

Ondo gogoan gorde nik esandakoa, Gloria.

Ama nekagaitza zen, ehun aldiz errepika zezakeen gauza bera, eta ni, berriz, artean sentibera samarra, zaurgarri, eta nekez uler nezakeen amaren tema, nola kondenatzen ninduen bere porrota berritzera, beste biderik, beste aukerarik ez balego bezala, nola hegalak mozten zizkidan hegan egin ez nezan, bere aldamenean gera nendin agian, ez, horretarako ez, bilobak espero baitzituen, sarritan adierazi zidanez, baina txorakeriarik gabe nahi ninduen aldarera eraman, han behar bezalako gizon baten eskuetan uzteko, errespetatu, zaindu eta babestuko ninduen gizon baten eskuetan, noski, eta horixe, Jorge zela berak nahi zuena ere ulertarazi nahi izan nion, arrakastarik gabe, hori azaltzen ari nintzaiola, hitz bakar bat irten baitzen haren ahotik:

Ikusiko.

Eta hitz bakar horrekin bukatutzat jo zuen elkarrizketa. Espero ez nuena, baina espero zitekeena egin zuen: ostiztarrak nor eta zer ziren jakin zuen Iruñean

zituen lagunen bitartez, eta, jaso zituen albisteak atsegin izan zituenez, harago joan zen, niri ezer kontatu gabe, detektibe bat kontratatu zuen Madrilen, Jorge nire senargaiari jarrai ziezaion eta haren gaineko informazioa bil zezan, eta txostenean irakurritakoarekin pozik geratu zen arte ez zion gure ezkongai-harremanari oniritzia eman. Hainbat hilabete ibili zen detektibea Jorgeren atzetik, Madrilen, Iruñean eta Donostian, eta, haurdun nengoela jakinarazi nion egunean kontatu zidanez, ni izan omen nintzen hilabete horietan Jorgek kasu egin zion neska bakarra, fakultatea baino gehiago tenis zelaiak eta parrandak zituen gustuko, gure amarentzat normala eta barkagarria, gonazale izatea ez bezala, zeren eta, halakoa izan balitz, amak edozer egingo zukeen nigandik uxatzeko betiko, eta kontrakoa egin zuen, ondo hartu, irribarretsu, eta nahi zuenetan izaten zekien bezain atsegin eta abegikor, estiloz, hitz batean. Jorgeri jarritako zaintza zorrotzaz susmorik gabe, harriduraz beste, esker onez hartu nuen amaren jokaera, eta hala adierazi nion, nahiz eta nire eskerrak eskuaren mugimendu arin batez isilarazi, ez zela beharrezkoa, Jorgek hori eta gehiago ere merezi zuela, hain zen jatorra eta maitagarria. Jakina, bat nentorren amarekin, nik baino

hobeto inork ez baitzekien zein begirune handiz hartzen ninduen, niri laguntzeko prest beti, edonora eramateko gertu, nire edozein apetara makurtzeko, gozotasuna sekula galdu gabe, eta horrek ardo eder baten eran horditzen ninduen, eta harro joaten nintzen haren besotik, kalean zeudenen arreta gureganatuz, bikote zoragarria osatzen baikenuen, bekaizkeriaz edo desiraz so egiten zigutenen begietan ikus genezakeen gure edertasuna, beste inon baino argiago, ispilu genituen, nolabait, gure isla haien gorroto leunduaren gainean ikusgarri, eta, luze gabe, denak ari ziren gutaz, egunkarietan agertuz gero batik bat, nire ezkontzeko mandatua ospatzeko gurean egindako jaia zela eta. Eskaera ostiztarrek egin zieten nire gurasoei, Iruñetik etorrita, euria goian behean ari zuen igande goiz batean, eta zirrara eragin zien gure etxeko egongelako leiho zabaletik ikusten zenak: laino potolo goibelak itsasotik hurbiltzen, uhartearen gainetik igarota, gure etxearen kontra talka egingo zutela zirudien, eta ostiztarrek oihu txikiak egiten zituzten eta guk, Jorgek eta biok, barre egin genuen, eta naturaren amorrualdi beldurgarri hura zantzu txartzat hartu beharrean, ontzat hartu genuen, gure maitasunaren indar berdin bortitzaren adierazgarritzat, eta aitak Veuve Clicquot

botiletako bat eskuan, denon kopak ostera betetzen hasi zela, xanpaina baino botika hoberik ez zegoela esan zuen, beldurra uxatzeko egokiena zela, amari begiratu nion orduan, kopeta ilunduko ote zuen kezkatuta, baina ez, ondo zegoen, laster amaginarreba izango nuenarekin berriketan, aitarenak entzun izan ez balitu bezala. Entzun zituen ordea, eta, haren aurpegia aldatu ez zen arren, ez dut uste atsegin izango zituenik. Ama diziplina handiko emakumea genuen, bere baitako herra menperatzen zekiena, egun itxuraz ilun baina niretzat zoragarri hartan jakin izan zuen bezala. Izan ere, diziplinarik gabe ez da estilorik, eta, era berean, dena hutsala da estilorik gabe, itsusia ere bai, estilorik gabe berdin da zer egiten den, eta egiten den horrek ezer gutxirako balio du, batez ere hasierako poz txepelaren ondoren zer egiten den bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa baita nola egiten den, zerbait ondo egiteak eragiten duen satisfakzioa paregabea da, eta egin duenak arin sentituko du bere burua, lurra zapalduko ez balu bezala, dotore, hitz batean; hala egiten zituen gauzak, egin behar ziren eran beti, eta aitaren desleialtasunaz jakin arte emazte eta ama eredugarria izan zen: gu neskameen besoetan utzi beharrean, ahalik eta denbora gehien gurekin iga-

rotzen saiatzen zen, gurekin jolasten, eta, aitarekin nonbaitera joateko ez bazen, etxean nahiago zuen, sutondoan neguan eta atzealdeko lorategian udako ilunabarretan, eta hala jarraituko zukeen pozik, aitak egindako traizioagatik izan ez balitz, baina orduan ere, estiloz jokatu zuen, eta lantuka aritu ordez guztien barregarri, aita barregarri utzi zuen, lagun eta ezagunen aurrean, *haute société* osoaren bistan, burua tente eta irribarrea ezpain gorrietan, ezer egingo ez balu bezala: senarrak egindakoa berak ere egiteko eskubidea aldarrikatzen ari zen, hitzik gabe, eta, feministak estimutan ez izanagatik ere, feminista *avant la lettre* bat izan zelakoan nago, feministen aurreko feminista, aitzindaria. Ez zen lesbiana itxurako feminista horietakoa, ilea motz-motza eta gona luze eta praka nasai ezin zatarrago horiekin, denak berdin orraztuta eta jantzita, denak uniformatuta, ez zituen gizonak –guztiak behintzat– zikiratu nahi, aita zikiratzea nahikoa zitzaion, zorrak kitatu nahi zituen, besterik ez, hark eragin zion oinazea itzuli, aitortu zidanez:

Gauza hauek zuri bakarrik kontatzen dizkizut, Gloria, ez beste inori. Ez ahaztu.

Zaila da amaren bat-bateko aldaketa haiek ahaztea, nola hasten zen aitaren aurka, behazuna etortzen

zitzaion ahora, eta madarikazio guztiak gutxi ziren hari zion gorrotoa behar bezala adierazteko, ezintasun horrek bere onetik ateratzen zuen, eta halakoetan, Donostiara ezkondu baina Hernaniko baserri batean jaiotako bere amona bilakatzen zen, eta haren hizkeraz, sekulakoak eta bi botatzen zituen aita zela kausa, asto temati petral bati arituko balitzaio bezala:

Gure amona halakoa zen eta, batzuetan, halakoa naiz ni ere. Inor ez da perfektua.

Amak arrazoia, inor ez da perfektua, nahiz eta hasieran, oraindik maiteminduta gaudenean, maite dugun horri, gure kuttunari halakoa iritzi, Biterik eta biok behin baino gehiagotan hitz egin dugun bezala, baina garai batean perfekzio hori posible zela uste nuen, Eugenia jaio arte bai, ordura arte hala uste nuen, horixe baino ezin bainuen pentsatu. Santa Marian ezkondu ginen eguerdi eguzkitsu batean, eta eztei bidaian New York eta Estatu Batuetako ekialdeko kostaldeko beste hainbat tokitara joan ginen, eta zoriontsuak izan ginela esango nuke, ezkonberriak ginen, gazteak eta aberatsak ginen, elkar maite genuen, zer gehiago eska nezakeen? Jorge xarmagarria zen, elkarrekin gozatzen genuen, eskutik lotuta ibiltzea, elkarren ondoan egotea nahikoa zen biontzat,

eta, batzuetan, Jorgeri begiratu eta Jainkoari eskerrak ematen nizkion, nirekin hain eskuzabala izateagatik, egunero berritzen zidan opariagatik, batez ere haurdun nengoela jakin nuenetik. Hura zoriona ginekologoak nire ametsa betea zela baieztatu zidanean. Ama eta aita bat etorri ziren, zoragarria zen aitona eta amona bilakatzea, ustekaberik ederrena, eta antzeko hitzak egin zituzten ostiztarrek ere, albistea telefonoz eman zietenean.

Zorionak!

Bai, zorionekoak ginen denok, Donostian eta Iruñean, mundu osoa zorionekoa zen gurekin batera, Eugenia jaio berriari begiratu, eta seguru nintzen izan daitekeen guztiaren jabea nintzela: sehaskatik begirada altxatu eta, burua ezkerrerantz mugituz gero, itsasoa nuen, bare edo haserre, baina ederra beti, nire senar maitea bezala, hari zegokion, hain zuzen ere, nire orduko alaitasun lasaia pixka bat pitzatzen zuen kontu bakarra: Eugenia neskato bat zen, guztiz ederra, baina neskato bat, azken batean, eta, nahiz Jorgek sekula adierazi ez, benetan seme bat nahi zuelakoan nengoen. Sentimendu hori, hala ere, puntu ñimiño bat zen egun haietako euforiaren izartegian, aztoratu eta berehala damutzen zitzaidana, inguratzen ninduen bi-

ribiltasun itxuraz akasgabearen bistan; tentelkeria galanta nirea, emakume ezkondu bati, ama bati baino gehiago, lainezaz betetako ume bati zegokiona, nire orduko ustetan, artean ez bainekien dena alda daitekeela ohartu aurretik, betiko dirudiena halako batean desager daitekeela arrastorik utzi gabe. Halakorik ez zitzaidan burutik pasatu ere egiten orduan, Eugeniarekin batera hasten ari zena maitasunean ondo oinarrituta zegoen, luze irautekoa zen, Jorgek eta biok ez genuen nire gurasoena errepikatuko, gure aitari ez bezala, hari ez zion kordea kentzen paretik igarotzen zitzaion emakume bakoitzak, Eugenia eta biok baikinen axola zitzaizkion emakume bakarrak, detektibe bat atzetik jarri gabe ere banekien horrenbeste. Hori ez zen nahikoa, ordea, zoritxarrez baziren beste arrisku batzuk, susmatu ere egin ezin nituenak, erditu eta aste batzuetara ohartzen hasi nintzenez. Lana zen horietako bat, Jorgek gero eta gehiago ematen baitzuen horretan, Iruñean askotan, lotarako ere han geratzen zen batzuetan, edo bestela Madrilera joan behar izaten zuen, ministerioetara, kontratuak eta negozioak egiten ziren tokira, eta handik itzulitakoan, berriz, alabatxoari eskaintzen zion arreta osoa, nitaz ahaztuta, baina nik han jarraitzen nuen, senarraren zain, haren

laztanen eta hitz gozoen irrikatan, gero eta epelago iristen zitzaizkidan horien irrikan, eta maitasuna egiten genuen aldi bakanetan ere mekanikoki egiten zuen, ez urtebete lehenagoko grinaz, bere lan ugarietako beste bat balitz bezala. Hasieran ez nion garrantzirik eman, laster etorri bezala joango zen, arrasto nabarmenik utzi gabe gure bizitzan, baina hilabeteak igaro, eta denak berdin jarraitzen zuen gure artean, edo okerrago agian, zeren eta Jorge hurbiltzen zitzaidanetan, arazoak zituen zakilarekin, eta halakoetan, nigandik pixka bat urrundu eta eskuz astintzen zuen, gogortu nahian, eta nik lagundu nahi izaten nion, baina ez zidan uzten, eta, ondo zegoela esaten zidan arren, ez zegoen, eta nire errua zela pentsatzen hasi nintzen, eta bainugelan dutxatik irten eta neure buruari begira geratzen nintzen, ispilu luzean nekusanari miaka, Jorgeren desira izozten zuen akats izugarria nire gorputzean bila, goitik behera eta behetik gora aztertzen nuen, atzea eta aurrea, ezer berezirik aurkitu gabe, eta horrek are urduriago jartzen ninduen: zer gertatzen ari ote zen, zer ari ote nintzen gaizki egiten, eta, bakarrik, Eugeniari ezkutatzen nizkion malkoei irteten uzten nien eta hainbeste negar egin nuen, non

ama konturatu, eta larritzen ninduenaren berri eman behar izan nion.

Gizonak!

Barre egin zuen amak, eta gertatzen ari zitzaidana normala zela esan zidan, gizonak halakoak zirela eta noizbait dena bere onera itzuliko zela eta lasai egon behar nuela, egunen batean hartaz gogoratu eta barre egingo nuela. Oker zegoen, gauzak sekula ez baitziren bere onera itzuli, areago handitu zen Jorgeren eta bion arteko aldea, eta gero eta denbora gehiago igarotzen zuen nigandik urrun.

Ulerkorra izan behar duzu senarrarekin, esan zidan amak, zuentzat ari da-eta nekaezin lanean.

Amak aholkatutakoa egiten nuen, Jorge nekatuta etxeratzen zela, harekin atsegin, alai eta maitekorra azaltzen ahalegintzen nintzen, film amerikarretako etxekoandreek egiten zuten bezala, eta whiski bat eskaintzea baino ez zitzaidan falta, haietako bat izateko guztiz, amaren ustez andre ezkondu batek jokatu behar zuen eran, bitartean senarra beste emakumeekin edo mozkorkerian ibiltzen ez bazen behintzat, eta Jorge serioa zen, langile eta kirolaria, lagundu egin behar nion, beraz. Eugeniaren aita zen, Eugenia Ostizen aita, inolaz ere ahaztu behar ez nuena, eta inoiz

ahaztu ez nuena, zeren eta kartzelan egon zenean ere, horixe izan nuen gogoan, egunkariek argitaratutakoei eta bazterretan bolo-bolo ibiltzen ziren zurrumurru gaiztoei jaramonik egin gabe, itsu eta gor aldi berean, nirea zena –nire alaba, nire senarra– defenditzeari utzi gabe, gure amari ikasi nion eran. Jorgeren eta bion artean egon zitezkeen arazoak gure artean konpondu behar ziren, etxean ez beste inon, batez ere gauzak goizetik gauera alda zitezkeen garai nahasi hartan: Franco hilabete batzuk lehenago hil zen, eta demokrazia hastapenetan zegoen, artean ikuskizun, eta jende gehiena zetorrenerako prestatzen ari zen, bere iragana ezkutatzen edo edertzen. Giro horretan gertatu zen Jorgerena, zor zaharrak lehenbailehen eta badaezpada kitatu nahi ziren garai hartan, eta, hain zuzen ere, zor horietako bati egozten zioten ostiztarrek beren semearen hondamendia, aspaldiko etsai batzuen salaketa eta azpikeriei, noizbait lagun-min eta gerora aurkari gogor bilakatutako handiki batzuei, haien inbidia gorriari, beren gasolindegietan egiten zena Espainiako gasolindegi guztietan egiten baitzen azken finean, eta ez zuten inor atxilotu, ez zuten inor auzipetu, harik eta beren semea atxilotu eta auzipetu zuten arte, hornigailuetan tranpa, iruzur egitea lepo-

ratuta. Ostiztarrak sutan zeuden, batez ere Jorgeren aita, semeari gertatutakoa sinetsi ezinik, gorriak izan beharrean, berak bezala Falangearen alkandora urdina gaztetan jantzi zuen kamarada bat izanik salataria, horrek bere onetik ateratzen zuen, eta gerratik ekarritako pistola ateratzen zuen bere bulegoko mahaiaren tiraderatik, mendekua aldarrikatzeko, heriotza agintzeko bere izen-abizenak zikindu nahi zituen sasiko hari eta haren familia osoari, betiereko sua, traidore batek merezi zuena, demokrata zaharraren mozorroa jantzi berri zuen zital hark merezi zuena. Hiru hilabete egon zen Jorge kartzelan, aitak behar izan zituenak semea handik ateratzeko: abokaturik onenak jarri zizkion, eta Madrilera joan zen behin baino gehiagotan, lagundu ahal ziotenekin elkartzeko, mesedeak eskatzeko, nor eta bera, mesedeak egin bai baina sekula eskatzen ez zituena, umiliagarria izan zen harentzat, umiliagarria izan zen bezala bere abizena egunkarietan ikusi behar izatea.

Gaizki pasatu nuen nik ere, ordurako maite ez arren, Jorge senarra eta Eugeniaren aita nuen, eta haren alde egin behar nuen nahitaez. Batzuk primeran pasatzen ari ziren gure kontura, Nauticon eta Tenisean nabaritzen nuen nola, ni hurreratu arte, barrez algara-

ka aritzen ziren, eta, urrundu orduko, nire atzean entzuten nituen berriz ere haien algarak, baina aurrera jarraitzen nuen, burua zut, ezer susmatuko ez banu bezala, horretarako diziplina behar da gero, altzairuzkoa, eta, beraz, estiloa. Estiloa, igandero, alaba besoetan, taxi bat hartu eta Martutenera joateko, eta han, ijitoez inguratuta, etarren senideez inguratuta, bisitarako ilaran jartzeko, eta barruan, Jorgeren parean, negarrez ez lehertzeko, nire sufrimendua hari ez aurpegiratzeko, ez adierazteko zein latza zen berak eragindakoa, zein beldurgarria.

Kartzelak ez zuen gure harremana batere aldatu, Jorge beti bezala atsegina zen nirekin, jatorra, eta, beti bezala ere maite ninduela adierazi arren, ez zen hori nik nabaritzen nuena: musu ematen zidanean, adibidez, azken hilabeteetako hoztasun berberaz egiten zuen, haren ezpainek nireak ozta ukitzen zituzten, garai bateko berotasun eta desiraren arrastorik gabe, Eugenia besarkatzen eta bere gorputz txikia musuz betetzen zuen bitartean:

Laztana, bihotza, eder hori.

Aspalditik entzuten ez nizkion eta hainbeste falta nituen hitz gozoak, hain zuzen ere, artean Arturo esatera ausartzen ez, eta nik ere, alabari izan ezik, beste

inori esaten ez nizkionak. Telefonoz hitz egiten zidan hark, gero eta sarriago, eta niri bihotz ematen ahalegintzen zen, ez nuela etxean gorde behar esaten zidan, kalera irten eta arnasa hartu behar nuela, gazteegia nintzela alargun baten bizimodu tristea eramateko, kaltegarria zela niretzat, eta afaltzera gonbidatzen ninduen, paseatzera, baina nik ezetz, beste noizbait beharbada, ez senarra Martutenen nuela, eta eskerrak ematen nizkion, eskerrak gonbidatzeagatik eta eskerrak kasu egiteagatik, ezagun eta ustezko lagun askok, nik igarotzean, ez ikusiarena egiten zuten aldi doilor hartan.

Irtengo zaizu senarra kartzelatik noizbait, ea orduan zer esaten didazun.

Hala esan zidan Arturok, eta benetan ausarta zela pentsatu nuen, ausarta zela edo izugarrizko azal gogorra zuela, zalantzarik gabe benetako *voyou* bat zela, maiteminduta ninduen Jean-Paul Belmondo baten erakoa, nolabait. Itxarotea erabaki nuen, Jorge Martutenetik irten arte itxarotea, banuen esperantza handik sartu baino hobeto irtengo zela, jakintsuago, bizitzak irakatsi ziona baliatuko zuela, ohartuko zela azkenean ni, bere emaztea, han ninduela, Eugenia jaio ondoko hilabeteak ahazteko prest, dena ahazteko

prest nengoela gure familiari euste aldera, atzera hutsetik haste aldera, ahazteko eta barkatzeko prest.

Eta irten zen noizbait Martutenetik, baina denak jarraitu zuen betiko eran gure artean, edo okerrago, seguruenik, zeren eta etxeratu zenean inoiz baino uzkurrago zebilen, kartzelan mihia moztu izan baliote bezala, isilzaleago eta bere baitara bilduago, eta bulegoan sartzen zen eta orduak ematen zituen, etsaiez beteta irudikatzen zuen kalera irten gabe, ezta hain atsegin zuen tenisean jokatzeko ere. Bakarrik nahi zuen, eta Eugenia soilik zen gai uzkurtasunetik ateratzeko, berpiztu egiten baitzen alabatxoa lagun, eta harekin jolastu eta barre egiten zuen, bere kartzelaldia lokamuts bat izan balitz bezala, ozta parentesi bat bere bizitzan. Hori baino askoz gehiago izan zen, ordea, kartzelak gogor jo zuen, han edaten hasi zen, alkoholari muzin egin ohi zion kirolari amorratua botilarekin zaletu zen, whiskiarekin, gau batean ohean niri bizkarra erakutsi baino lehen eman ohi zidan musua eman zidanean ohartu nintzenez. Hatsean aditu nion alkohola, eta handik aurrera zelatan egon nintzaion, bulegoan itxita egoten zenetan, zurrutean aritzen zela seguru izan nintzen arte, esperantza hor galdu nuen, hor jabetu nintzen Jorgerekin ez nuela zereginik, guz-

tiz eta betiko galduta nuela, tristea zela, baina goiz edo berandu hori, nire porrota alegia, onartu beharko nuela, ez zegoela besterik.

Gizonak!

Amaz gogoratu nintzen, eta bion egoera antzekoa zela iruditu zitzaidan, nik ere traizio baten biktimatzat hartzen bainuen neure burua: senarrak ez ninduen utzi beste emakume bat besarkatzeko, botila bat besarkatzeko baizik, aitarena baino mingarriagoa zena, absurdoagoa, ulergaitzagoa. Amak aitarekiko jokatu zuen eran jokatzea erabaki nuen; beraz, Arturok berriz gonbidatuz gero baietz erantzungo nion, berarekin atseginez joango nintzela, ni konkistatzeko baimena zuela, ordura arte gogoz kontra ezetz esateko izan nuen diziplina aspaldiko kontua zela. Ez nuen luze itxaron behar izan, bisitari nuen Laura Ybarra eta biok haren kafetegira azaldu baikinen, Casa Nicolasan bazkaldu eta gero; ikusi orduko etorri zitzaigun, eta, Laura komunera joan zela profitatuz, afaltzeko gonbita berritu zidan; nik afaldu ez, baina, nahi bazuen, bazkaltzera joango nintzela berarekin. Bihar bertan, eskaini zidan, baina berriz ere ezetz nik, baietz esateko gogoz egon arren, goizegi zela, hurrengo astean hobeto, eta dena zehazteko hots egingo niola agindu nion.

Miarritzera eraman ninduen, Hôtel du Palaisko jatetxera, eta bazkaria bukatu baino lehen ere banekien zer gertatuko zen ondoren. Jangela eder hartan, Arturok bere amarruak erakutsi zizkidan: itxuraz ondo ezagutzen zuen *maître*-ak ongietorria eman zigun eta mahairik onenera eraman gintuen, eta itsasoaren parean eserita, zer edan nahi nuen galdetu zidan, eta nik xanpaina nahi nuela, eta ahoskera xelebre samarra baina bestela txukuna zen frantses batean eskatu zituen: Ez du batere meriturik, Hendaian bizi naiz eta. Ardo zoragarri haien eraginez ahaztu egin zitzaidan nor nintzen eta non nengoen eta, bere hitz-jarioak eramanda, neure buruari joaten utzi nion, bere sarera erortzen, eta bazkari osoan bertan geratu nintzen, armiarma sare batean harrapatutako euli bat bezain babesgabe, eta, kafeak edandakoan, handik altxatu ginela, berdin nengoen, berdin ninduen liluratuta, bere esku, Arturo kontalari aparta baitzen, eta bazekien solaskidea hitz bitartez biltzen, horregatik kalera, bere Mercedesa zegoen tokira, joan ordez hoteleko igogailuan sartu ginenean, eramaten utzi nion.

Ezin esan Arturorekin ohean bukatzeak harritu ninduenik, ez horixe, harritu ninduen bakarra lekua izan zen, bere etxera eraman beharrean, espero nuen be-

zala, bertako *suite* batera eraman baininduen, hainbat printze eta errege bat ere egon omen ziren *suite* batera, hain zuzen ere, horixe izaki Arturoren iritziz niri zegokidana, bere erregina bainintzen, eta bera nire menpeko zorionekoa. *Suite*-a eskerga zen, etxebizitza asko baino handiagoa, eta itsasoa genuen ikuskizun, ikuskizun zen bezala ohe bukaezina, zabala, sendoa, zur argiz egina, ezin irudikatu leku egokiagorik maitale batzuen lehendabiziko topaketarako, itsasoa parean eta loreak inguruan, ugari, mota askotakoak, loreontzietan eta saskietan jarrita. Maitasunaren baratzean geunden, eta hari lotu gintzaizkion, gure estreinako aldia izan ordez, azken-azkena balitz bezala, premia berberaz, etsipen berberaz: eskuak, ezpainak, hortzak, mingaina, oinak ere erabili genituen elkar hartzeko, estutzeko, musukatzeko, jateko eta, hala ere, horiek guztiak nahikoa ez izan, zeren barne-barnetik zetorkigun bulkadari eusteko, geneuzkan baino gorputz-atal gehiago, askoz gehiago behar ziren, eta izerdiak eta listuak ezer gutxi egin zezaketen osorik erretzen gintuen sua itzaltzeko, ekin eta ekin ari ginen, xuxurlaka batzuetan eta oihuka beste batzuetan, erotzeko modukoa, eta hori zer ote zen galdetzen nion neure buruari, eta damutu egiten zitzaidan Arturoren gonbi-

ta errepikatua lehenago onartu ez izana, galdutako denbora, eta, neure buruarekin berriketa mutuan jarraituz, agindu egiten nion aurrerantzean oso bestela izango zela, gizon harekin egoteko, harekin maitasuna egiteko aukerarik txikienari ere helduko niola, hura baitzen nire benetako gizona, merezi nuena ematen zidana, ni maitatzen zekiena. Senarrak ez bezala, nire azpian mugitzen, bihurritzen eta beso sendoz beregana erakartzen saiatzen ari zenak, azkazalak larruazalean sartzen zizkidanak, bihotza urratzen zidan itsusi xarmagarria, zoragarriak bazekien gizon jokatzen, bazekien ni bezalako emakume bat nola gozatu, nola bete, nola maitatu, ia konortea galarazteraino, eta, azkenean, barren hustu zitzaidanean ere, bere laztanek jarraitu zuten, eta hitz gozoak bere mingainera itzuli ziren, hasperen eta oihu txikien ondotik. Nekatuta biok, begira geratu ginen gure leherketaren lekuko zuhurra izandako itsasoari, haren azala edertzen zuen argi urrekarari. Zoriontsua nintzen, eta haren ondoan esker ona sentitzen nuen, beste guztiaren gainetik, esker ona berriz desiratuta sentiarazteagatik, sentipen zahar eta ahaztu hura nigan berritzeagatik, eta neure buruari galdetzen nion zertan ibilia nintzen, non galduta, gozamen delizios, erogarri hura sumatu ere

egin gabe, ni, emakume ezkondu bat, eta denbora alferrik galduaren damua poz neurrigabe harekin nahasten zitzaidan, eta nire maitale zoragarriarengana bultzatzen ninduen, eta haren kontra estutzen nintzen eta hamaika musu ematen nion, eta hark ere muin egiten zidan, bekokian, masailetan, belarri ertzetan, lepo aldean, barre egiteari utzi gabe, eta hark kutsatuta, nonbait, berdin egiten nuen nik ere, harik eta bikain egiten zekien hura guztia irakatsi zioten emakumeekiko jelosiak barrea izoztu egiten ninduen arte, eta bat-batean, haren emakume bakarra izateko irrika, premia nitaz jabetuta, gainerako emakume guztiak aurkaritzat hartzen hasi nintzen, eta, ondorioz, haiei okerrena –heriotza– opatzera eta, Arturok inoiz utziko banindu, nik ere hil nahiko nukeela pentsatzera ere, baina orduan Eugenia zetorkidan akordura, eta lotsatu egiten nintzen hura –gehien behar ninduena– ahazteagatik, hain neurekoia izateagatik, eta zalantza egiten nuen alaba eta nire benetako gizon bakarra zen hori, biak maitatzeko nahikoa maitasuna izango ote nuen. Zorionez, Arturo ondoan nuen, eta haren presentzia hutsak adoretu egiten ninduen, nire pentsamendu ilunak uxatzen zituen, eta, bere laguntzaz edozer egiteko gai nintzelakoan, minutu batzuk lehenago-

ko konfiantza itzultzen zidan, egoera niretzat berri hartan ezinbestekoa zena, *suite* haren babesetik kanpo, Donostian, etxean zain nuena kontuan hartuta. Izan ere, gizon erakargarri haren maitalea izateaz gain, Ostizen emaztea eta Eugenia Ostizen ama ere izaten jarraitzen nuen, eta Arturorekiko grinak ez zidan hori inolaz ere ahantzarazi behar, Arturori nire maitalea izateak bere familia ahantzarazten ez zion era berean, berak hasieratik jakinarazi zidanez. Biok gure familiak zaindu nahi genituen, arrazoi berberarengatik, gainera, eta berdintasun hori lasaigarria zen biontzat, dena nahi genuen bezala joango zelako bermea, seme-alaben argazkiak erakusten genizkion elkarri, eta, maitasuna egin ondoren, haien gorabehera eta kontuak aipatzen, eta guk haien adinean egin eta sentitu genuenarekin alderatzen genituen, harrezkeroztik gauza asko aldatu arren, beste batzuk ez zirela sekula aldatzen ondorioztatzeko laster, maitasuna horietako bat, edo gure maitaldien lekuko izaten jarraitzen zuen itsasoa, aurreneko aldi hartatik, Hendaiakoak ordezkatu bazuen ere Miarritzekoa.

Arturoren etxea ederra zen, lorategi handi samar batek inguratua eta kuxkuxeroen begiradetatik babestua, negozio diskretuak egiteko egokia, Arturok berak

umoreko aitortu zidanez; nik ezer galdetu gabe esan zidan hori, zeren eta, Jorge kartzelatu eta gero, nahiago nuen halako kontuez ezer ez jakin, eta axola zidan negozio bakarra bion artekoa zen, laztanak eta musuak trukatzean biok aberasten gintuena, beste edozeinek baino etekin oparoagoa uzten zidana eta Hendaian egiten zena, Txingudiko badia osoa ikuskizun zuen zuriz eta berdez margotutako etxe hartan, Arturo hil zutenetik ahanzten saiatu eta ahanzten lortu ez dudan hartan. Josek hori baleki, ulertuko luke zer dela medio uko egiten diodan hara joateari, eta ez litzateke tematuko bere etxearen bikaintasuna goraipatzen: Sekulako ikusmira du, badia osoa ikusten da handik... Nahiago dut, ordea, betiko gorde dudana, gurea, Arturorena eta biona, Joserena ez ote den Arturoren bera izango, horrek beldurtzen nau, haren familiak saldu zuela baitakit, eta, hala balitz, ezingo nuke jasan, ezingo nintzateke gurea izan zen hartan beste inorekin egon, horregatik Hendaiari hastio diodala esaten diot Joseri, herri itsusia dela, estilorik gabea, irundar kaikuz betea, eta, hori esaten diodala, begira geratzen zait, beraz ari naizela sumatuta, eta nik ezetz, noski, ez naizela beraz ari, bera ezagutu baino lehen ere ez nuela batere gustuko, eta, hori entzundakoan, pixka

bat lasaitu eta nire xelebrekeria ugarietako beste bat delakoan, berdin diola esaten dit, inporta zaiona nirekin egotea dela, ez gauden tokia, infernuan ere pozik egongo litzatekeela nirekin. Halakoak esaten dizkit, eta pena ematen dit, pena beragatik eta pena neuregatik ere, emandako maitasun hori itzultzeko gai ez izateagatik, nire maitasun osoa Arturori eman bainion. Harrezkero hutsik nago guztiz, eta, gehienez, samurtasun pixka bat eman diezaioket, musu eta laztan arin zenbait, ez gehiago, eta, noizbehinka, nire barruan onar dezaket, baina hori gertatzen den gutxietan, diodan esker onagatik gertatzen da, bere jatortasuna, bere eskuzabaltasuna nolabait saritze aldera, ez bestelako sentipen batek eraginda, maitasuna, egiazkoa, gazteentzat da, esperantza oraindik galdu ez dutenentzat, oraindik denbora dutenentzat, ez ni bezalako emakume batentzat, ezta Jose bezalako gizonentzat ere, ni baino gazteagoa den arren, Jose ez baita mutil bipil horietako bat, ilea aspaldi samarretik urdinduta duen gizon heldua baizik, zaharregia, edozein modutan, nerabe bero batek bezala jokatzeko.

8

Ezezkoa hartu dut Gloria etxera gonbidatu dudan aldiro. Ann kanpoan, Amerikan zegoelarik gonbidatu izan dut. Ezezkoaren arrazoiaz galdetutakoan, Hendaiari dion ezinikusia aipatu dit. Aitzakia hutsa, zinezko arrazoia bertze bat baita, nire idurikoz: tarte bat utzi nahi du bion artean, segurtasunerako tartea. Bere gisa ibiltzea maite du, nik maite dudan bezala. Horretan berdinak gara. Gloria ni baino mesfidatiagoa da, ordea. Badu nik ments dudan barne diziplina bat, eta horri esker kapable da pentsatuta duen bidetik milimetro batto ere ez urruntzeko, zuzenki segitzeko. Iduriz hotz, erabakigarri, zirt-zart laxatzen ditu traba egiten dizkioten korapiloak. Horretarako duen abilezia miresgarria da. Hark bezain aise jokatu nahi nuke, bidera agertzen zaizkidan trabei ihes egiteko tenorean. Lenin atzerakoi bat da, nolabait; bere xedea guztiz argi duen norbait.

Horregatik liluratu ote nau hainbertze?

Menturaz, gaztaro iraultzaile batek edota haurtzaro kristau batek nigan utzitako marka da. Ezinezkota-

ko dudan perfekzio baten nahiak sortutako fantasia irrigarria beharbada.

Hala ere, argi dut niretzat Gloria eredua dela. Harengandik ikasteko anitz dut, gaztetan, konparazione baterako, Luis Arraizarengandik Iruñean izan nuen gisa berean. Jeneralean, emaztekiengandik beti izaten da zer ikasi: Puigandik ikasi nuen, Annegandik ere bai, eta, nola ez, Gloriagandik ari naiz ikasten. Diziplina falta izan dudan arren, jakin-min gaitza izan dut beti. Seminarioan banuen, eta halaber Iruñeko karriketan lehendabizi eta Gasteizkoetan gero. Dena jakin nahi nuen. Nola bilakatu santu hasieran, nola bilakatu iraultzaile ondotik, eta, hondarrean, afera-gizon. Horra nire bilakaera, mutur batetik bertzera. Saindutasunetik bekaturik makurrenetara. Kapitalismoa gorrotatzetik kapitalista osoa izatera. Porrotez porrot, irabazle bilakatu arte. Iruñea, Gasteiz, Donostia, Paris, eta berriz Donostia, horra nire ibilaldia.

Gasteiza ailegatu nintzelarik, partiduak zelula bakarra zuen, lau lagunek osatua: hiru ikasle eta langile bakar bat. Laurak saiatuak ziren, baina haien maila politikoa aski apala zen. Hura altxatzera lagundu behar nuen, partidua haztera laguntzeaz gain, horixe nire betebeharrik lehenbizikoena. Zaila zen. Eskuorri-

ren bat argitaratu nahi izanez gero, Bilbora edo Iruñera igorri behar genuen, hangoek inprima zezaten. Bertzerik ezean, bilkurak ni bizi nintzen etxean egin behar genituen, arriskutsua zela denok bagenekien ere. Genuen pixarrarekin moldatu behar eta bazen lan franko. Fronte guztiak zaintzekoak ziren, langile eta ikasleenak bereziki. Bakoitzari zegokion politika konkretua eman behar zitzaion, eta horrek hurbileko azterketak derrigortzen zituen, solasaldi luzeak. Ikasleekin aski erraza zen, zailagoa langileekin. Teoriak baino gehiago, ekintzarako bideak bilatzen zituzten. Gasteizen sasoi hartan bazen non hauta, Iruñean bezainbertze, gutienik. Baziren molde guztietako txinatar, abertzale, komunista ortodoxo eta antikapitalista, baita gure internazional bereko bertze partidukoak ere, gu baino gehiago, gainera. Beti bezala, partidu anitz eta, hala ere, ekintzaile urri.

Gure langileak, Landa goitizenez, orduko Gasteizko lantegi nagusienetarik batean lan egiten zuen, Mevosan, eta gainerako partiduetako militanteekin lehiatu behar zuen. Hurbiletik zaintzen nuen, hango langile mugimenduarekin genuen ia lotura bakarra izaki. Ni baino zaharragoa zen Landa, eta ezkondurik zegoen. Abertzaleekin ibili zen, soldaduskako lagun baten bi-

tartez, Trotski eta troskismoarekin topo egin zuen arte. Horregatik eta Mevosan urteetan egindako lanarengatik, gure militante ezagunena zen, baliosena. Poliziarendako ere bai. Hori zela-eta, kasu emanez ibiltzen ginen harekin biltzeko, segurtasun neurri zorrotzak hartuz. Hark ere horixe egiten zuen: hamaika itzuli-mitzuli akordatutako lekura agertu aitzin. Solas gutikoa zen, baina nekagaitza lanean. Egiazko boltxebike bat. Zaramaga edo Adurtza aldeko ostaturen batean, telebistaren soinuak eta bezeroen asots eta keak babesturik, egin beharrekoaz solasean ari ginelarik, hari behatu eta aise idurikatzen ahal nuen sobietar koadro batean, Lenin langilez inguraturik agertzen den horietarik batean.

Mevosako langileen galdeak zehazteko tenorea zen, eta maiz biltzen ginen, orduko bazter-auzoetara beti. Tirabira gogorrak gertatzen ari ziren enpresako isilpeko komitearen barnean, eta iraultzaileok jarrera argia izan behar genuen han, langileen berehalako beharrak ahantzi gabe, haien interes estrategikoak ere kontuan hartuko lituzkeena. Biak molde dialektikoan uztartu behar ziren. Lan nekeza zen: komiteko kide gehienek bazter egiten zioten halakoak aditzeari. Alferrikakoak omen ziren, errealitatetik kanpokoak, mutu-

rreko ezkertiar zenbaiten kalaka hutsa. Bazterretako ostatu haietatik ere aditzen ahal nituen: troskokeriak, badakizue. Haiek, ordea, herriarekin ziren, egiazkoarekin, errealitatean ongi erroturik. Prediku hori ezagutzen nuen, Iruñetik, hango txinatarrei aditua. Gu bertze planeta batekoak ginen, iduriz, ikasleak edo. Haiek, ordea, herria bera ziren. Irrigarria.

Hala zen ordurako Areition lan egiten zuen Puirendako ere. Sektarioak, horixe baizik ez dira, haserretzen zen, antzeko kontuak aditu behar izan baitzituen berak ere Areitioko komite sortu berrian. Ariznabarran bizi ginen, eta afaldu bitartean kontatzen zizkidan halakoak, dutxatu ondotik, patata tortilla jan bitartean. Mevosan baino gibeleratuagoak ibilki ziren komitea sortzen, baina Pui kontent zen, jeneralean, egindako lanarekin. Bizpahiru *sinpatizante* zituen eta noizbait lantegiko zelula izatearekin egiten zuen amets, baita greba bat antolatzearekin ere.

Sasoi hartan baldintza objektiboak gure kontra zeuden. Akort. Baina aitzina egiteko pentsatu beharra zen. Hala ere, mugimendua trabatzen edo zailtzen duen pentsamendua, benetako pentsamendua ote da? Ezezkoan ginen, batez ere Pui. Pentsamendu molde hori zen nagusi, zorigaitzez, bere lantegiko ko-

mitean. Antikapitalista guti batzuk izan ezik, uste horretakoak ziren gainerakoak. Gogorra zen gehiengotik urrun egotea, bozketetan galtzaile gertatzea, baina onuragarria ere bazen, errebisionismotik eta bertze hainbat gaitzen arriskutik urrun mantentzen gintuen heinean. Gure garbitasun iraultzailearen bermea zen heinean. Gutiago izateak gure bidearen zuzentasuna segurtatzen zuen. Mendearen hastapenean, boltxebikeek gutiengoa osatzen zuten Errusiako partidu sozialdemokratan, eta mentxebikeek, aldiz, gehiengoa. Guti haien zuzentasuna begi-bistan zegoen, hortaz. Edo orain erraten den gisara: gutiago gehiago zen. Sinesmen hori arrunt lagungarri zitzaigun. Argitasunaren esperantza ematen zigun, noizbait behin betiko garaileak izanen ginelako segurantza, segur baikinen guk uste bezala pasatuko zela, sozialismoa nahitaezkoa zela, saihetsezina. Historiaren legea zen, gisa batez zein bertzez, tragedia edo komedia moldean, salbuespenik gabe betetzen zena, grabitatearen legea bezain zorrozki.

Hori sinesten genuen, eta beharrik, hori sinetsi gabe jasanezin zitzaigukeen orduko bizimoldea: aldiroko beldurra eta horren ondorio zuzena genuen segurantzarekiko obsesioa, jai-egunik gabeko lan-asteak,

familiaren eta lagunen falta... Gogorra zen. Baina maitasunak laguntzen gintuen. Iraultzari eta elkarri genion maitasunak. Bakar bat osatzen zuten bi maitasun ziren. Bi bizitza. Bi isuri, erreka bakarrean bat eginik. Osotasun biribil bat. Elkarrekin bizi eta elkarrekin borrokatzen ginen. Ederra, alafede. Ederra bezain nekagarria. Batez ere, Puirendako.

Areition ematen zituen zortzi orenez gain, handik irten eta bilkura luzeak izaten zituen, eta, nahi baino gehiagotan, arrunt aspergarriak. Hori zela eta, etxeratu eta hortzak garbitzeko doi-doia zeukan indarra, ohatzera aitzin. Errabiagarria zen. Egun osoz intimitate aldi horren esperoan eman eta gero, zakila tente Puiren bizkarraren kontra eta haren hats pausatua belarrietan nuelarik, zaila zitzaidan amore eman eta bertzerik gabe bakean lo egiten uztea

Nik ere bilkurak izaten nituen. Baita Gasteiztik kanpo ere. Zelulakideekin, sinpatizanteekin, gure partiduaren zuzendaritzakoekin nahiz Gasteizko ezkerreko bertze partidu eta sindikatuekin. Beti egoten zen zer kontatu, zer eztabaidatu, zer ebatzi. Gure arteko diferentzia txar-txarrek ere eztabaida sutsuak ekartzen zituzten. Ñabardurak garrantzitsuak ziren. Dena argitu behar zen. Iduriz ttipikeria zena ere erabakiga-

rria izaten ahal zen. Marxek, Leninek edo Trotskik erranikoa munta handikoa zen, eta serioski hartu behar zen. Egia erran, dena hartzen genuen serioski, gauza irrigarriak ere. Hala, larrua jotzen genuelarik, gisa horretan jotzen genuen, hura ere ekintza politiko betebetea zelakoan. Wilhelm Reich ere gure irakurgaien artean zen, eta, bigarren mailako pentsalaritako izanagatik, gugan bazuen arrastoa. Larru kontuak seriosak ziren, gero. Horregatik igandeetan, goizean egiten ziren bilkuretatik ateratakoan, etxera elkartzen ginen bazkaltzeko, eta bazkalondoan ohatzera joaten ginen eta biharamuna arte hantxe, txortan eta lo, aldika. Prest ginen bertze aste gogor baterako.

Eta asteak hala heldu zitzaizkigun, gero eta gogorragoak, 1975 urtea hasi zenetik. Pare bat urte lehenago sortutako krisi ekonomikoak lazki jo zuen langileria. Nagusiek jornalak hormatu zituzten. Bitartean, jatekoen zein beharrezko beste hainbat gauzaren salneurriak etengabe hazi ziren. Familia anitzen egoera larria zen. Lantegietan, auzoetan, horretaz mintzatzen zen. Etsipen hori errabia bilakarazi nahi genuen, mende hastapeneko Errusian bezala; baldintza objektiboak gure alde paratzen ari ziren. Profitatu beharra zen.

Lantegi batzuetan galde zerrendak osatzen ari ziren. Zorigaitzez, gu Mevosakoan baizik ez genuen zerbait egiterik, Areition ez baitzegoen artean halakorik. Horretan entseatu ginen. Zelulan luzaz aztertu genuen enpresaren egoera, langileena, baita hango partidu eta sindikatuena ere. Bakoitzaren estrategia asmatu nahi izan genuen, gurea eraginkorragoa egiteko. Zerrendan sartu nahi genituen galdeak zehaztu genituen. Erregimenaren sindikatua baztertzea eta langileek hautatu komite bat bultzatu behar zen, baita langile guztiendako jornal igoera berdina eta ez proportzionala ere. Bi helburu horiek nahitaezko iduritzen zitzaizkigun, galda zitekeen gutienekoa. Eskakizun justuak izateaz gain, langileen kontzientzia altxatzeko pentsaturikoak ziren. Auto-antolaketaren eta berdintasunaren bultzatzeko. Mevosako komiteak arazorik gabe onartu zuen gure proposamena.

Kontrario arrunt zailak genituen, ia meneragaitzak, nehoiz amore ematekotan, nekez emanen luketenak. Asegaitzak ziren, eta erregimenaren baldintzarik gabeko laguntza zuten, beti izan zuten bezala. Langileek, haatik, deus guti, behar gorria eta beldurra doi. Eta geu ere, ustezko haien abangoardia, esku-hutsik ginen, gure azterketen zuzentasuna arma bakar. Arma

hori, zorigaitzez, alferrikakoa zen polizien borrak, pilotak eta balak geldiarazteko, Iruñean Puik eta biok ongi ikasia genuenez.

Nolanahi ere, bagenuen lan premiazkoagorik. Lehenik eta behin, komitearen galdeak onartu behar zituzten langileek, eta, horretarako, bildu behar zuten. Non? Mevosan ez ba, nehon biltzekotan, kanpoan, elizaren batean edo.

Eta ez langile guztiak, ezta gehienak ere, borrokalarienok elkartuko bagina, primeran, ohartarazi zigun Landak, gure baikortasunaz mesfidati.

Iritzi berekoak ziren bere komite-kideak. Hala hasi ziren Gasteiz inguruko mendietara biltzen, igande goizeko mendi buelta aitzakia. Mevosakoez gain, baziren bertze zenbait enpresetako langileak mugitzen hasiak, osatu berria zen Gasteizko langile koordinakundearen bilkuretan ikusi zenez. Forjas Alavesas, konparazione baterako, Mevosa baino aitzinatuagoa zegoen. Sindikatu ofizialaren ordezkari gehienek dimisioa emana zuten ordukoz, langileek onarturikoa defenditzeari uko egin eta gero. Emeki bazen ere, gauzak aldatzen ari ziren. Sobera emeki, gure ustetan, Forjasen, hilaren bederatzigarren egunean, greba hasi arte bederen.

Kontua abenduaren hondarretik heldu zen, langileak lan-hitzarmenaz mintzatzera betiko salara hurbildu eta sarrera galarazi zitzaienetik. Nagusiak laugarren lan-aldia inposatu nahi zien, eta langileek ezetz. Sindikatu ofizialekoak konforme ziren nagusiaren hautuarekin, bistan da, eta horregatik langileek baztertu eta haien partez komitekoak paratu zituzten. Greba hala hasi zen. Hastapeneko bi egunetan, lantegi barruan egon ziren grebalariak, baina hirugarrenean, hango ateak hetsiak ziren. Hortik aitzina, mantso joaki zenak alimaleko abaila hartu zuen. Hainbertze, non, batzuetan, sobera zalu ez ote gindoazen pentsatzera ere ailegatu bainintzen. Forjaseko langileei gureak, Mevosakoak gehitu zitzaizkien, eta haiei Aranzabalekoak, Gabilondokoak... Enpresa guztietan berdintsu jokatzen zuten nagusiek: grebaren hirugarren egunean, lantegia hetsita. Eta haiek egiten ez bazuten, Gobierno Civilaren manuz hesten ziren. Horrek langileei arazo bat ekarki zien, komitekoek ordurako ongi ezagutzen zutena: nora bildu? Elizetara, horra arrapostua. Enpresa bakoitzak berea zuen. Hara egunero elkartu eta ordezkariek eman informazioaz aritzen ziren. Egoten zen beti zer solastatu, zela enpresa bakoitzaren lan-hitzarmenaz, zela bertze enpresetan egi-

ten ari zenaz. Grebari lotzen zitzaion bertze enpresa baten izena iragartzen zelarik, langileen esku-zartek gangaraino betetzen zuten eliza, eta haien oihartzuna urrunera ailegatuko zela iduri zuen, hiriko bertze lantegietara, eta haratago ere. Areitioraino ailegatu zen, bederen.

Pui nehoiz baino nekatuago eta nehoiz baino kontentago etxeratzen zen egun haietan. Hainbertze egiteko zen. Komitearen bilkurak egunerokoak ziren, kalapitatsuak zenbaitetan. Denak grebaren aldekoak izanda ere, nola eta noiz zehaztean hasten ziren kasailak. Gehienok andreak gara, zioten, eta badakigu zer gertatzen den etxean, senarrarekin.

Emaztekiak eta gizonak beharko ziren, greba egiteko lehendabizi, eta grebatik garaile ateratzeko gero. Puik ere bazekien horrenbertze. Batez ere, Forjaseko hogei langile karrikan betiko utzi ondotik. Salbuespenik gabe, komitekoak eta komitekoen ingurukoak ziren karrikaratuak. Horietarik batzuk agertu ziren Mevosakoen bilkuran, gertatu zitzaienaren berri ematera. Bertze zenbait enpresaren ordezkariak ere agertu ziren: Aranzabalekoak, Gabilondokoak. Giro horretan egin zen Areitioko langileen bilkura, eta, beti bezala, grebaren alde sutsuki solastatu zen Puiren pozerako, ani-

tzez gehiago izan ziren grebaren alde altxatutako besoak kontra altxaturikoak baino. Greba bat baino gehiago da, harrotzen zen Pui, emaztekien greba bat da, egiten ari diren lehen-lehena.

Greba zerbait berria zen, Areitiokoendako ez ezik, haien gibeletik etorri Cablenor, Orbegozo eta UGOkoendako ere. San Francisco elizan hasi ziren grebalari guztien bilkurak egiten. Igande goizetan baino beteagoa egoten zen astegun buruzuri haietan. Pui, Landa bezala, maiz mintzo zen. Haren solasek bildurikoen txaloak hartzen zituzten, eta ezagun bilakatu zen agudo. Hain egoki hitz egiten zuen Areitioko ttipi hori zen Zaramagako eliza hartan elkartzen zirenendako, Etxabe, Naves edo gure Landa eta gainerako ordezkarien arteko emazteki ia bakarra. Partiduan kontent ginen eta harro, oso guti izanik, klase borrokan hain eragin polita izaten ahal genuela ikusirik. Gasteizko sobietaren boltxebikeak ginen.

Pozarekin kezka nahasten zen gure baitan. Pui ezagun bilakatu zen, bai, baita poliziendako ere. Landa zela-eta, gure zelula biltzeko arazoak bazituen, handitu egin ziren Puiren kolpeko famaren ondorioz. Nehoiz baino beharrezkoago zitzaigun tenorean. Landa eta bertze anitz bezala, polizia segika zuela

ohartu, eta horrek neurri mingarri zenbait hartzera eraman gintuen. Hasteko, etxez aldatu behar izan zuen. Gurean gordetzen ziren partiduaren materialak, eta, gainera, nirekin bizitzen segitzea sobera arriskutsua zen guztiendako. Lankideen etxeetan lo egiten zuen, eta hara eta hona, zenbait itzuli-mitzuli egin behar izaten genuen elkar ikusteko. Gibelera eta aitzinera egiten genuen karriketan barna ilunabarrean, espaloiz ginen aldatzen kolpean, eta bi sarrera zituzten ostatuak bilatzen genituen, batetik sartu eta bertzetik irteteko, edo, zapatako lokarria lotzeko iduriz gelditu, makurtu eta gibelera kirik egiteko profitatzen genuen, edo dendetako kristaletan behatzen, norbait segika ote genuen. Eta hondarrean elkartzen ginelarik, zalu ibiltzen ginen, erran beharrekoa lehenbailehen erratera entseatuz, bereizteko laster. Gainerako solasak soberan. Gure kontu ttipiek bertze noizbait beharko zuten. Tinko kontzeko tenorea genuen.

Gasteizko langileen oldarra harrigarria bezain beldurgarria zitzaien enpresariei. Poliziaz gain, komunikabideak grebalarien kontra ari ziren behin eta berriz. Greba politikoa omen zen, komunistak eta *separatistak* zituen gibelean, deabrua bera. Hori dena guti iduritu nagusiei, nonbait, eta gure armez ere egin zigun

eraso: eskuorriak agertu ziren karriketan, milaka, grebalarien ordezkari nabarmenen gaineko gezurrez beterik.

Paper urde haietan aipatuetarik bat Pui zen. Bertze ordezkariei iraultzaile profesional eta nazioarteko komunismoaren soldatapeko izatea leporatzen bazieten, arrunt bertze gisakoak ziren emazteki bakarrari leporaturikoak. Haren kontrakoak sexuari lotutako gezur eta irainak ziren, lizunkeria hutsa.

Aldi berean poliziak langileak kanporatu zituen Industrias Galycasetik, eta, lantegiaren ateetan kamioien bidea trabatzera ahalegintzen ari ziren grebalarien kontra egin zuen Orbegozon. Horren ondorioz, greban ziren enpresetan pikete bana paratzea deliberatu zen, baita erresistentzia-kutxa bat sortzea ere. San Franciscon egindako bigarren bilkura orokor jendetsuan, gainera, greba Gasteiz osora hedatzeko deia egin zen. Hasia zen langileriaren kontraerasoa. Aitzina!

Manifestazioak jendetsuak ziren, ugariak. Horietarik bat Sindicato Verticalaren egoitzara joan zen. Poliziak han zituzten esperoan, eta manifestariak agertu bezain fite oldartu zitzaizkien. Pilotakadaka hartu zituzten, eta jende andanak gibelerantz egiten zuela

ikusitakoan, larruzko borrak ezker-eskuin dantzatu, eta aski aise zulatu zuten esku-hutsik ailegatutako manifestarien pareta. Errukirik gabe aritu ziren.

Batzuetan molde teorikoan aipatutako auto-defentsaren afera premiatsu bilakatu zitzaigun goizetik gauera. Gure burua behar genuen defendatu.

Hain argi ikusten genuen hori dudazkoa zen bertze batzuendako. Komiteetan kasaila gaiztoak izan genituen. Batez ere Espainiako komunistekin, Carrillozaleekin, haiek molde baketsuan egin nahi baitzuten dena, edo orduan ezagutu nuen Mikel Salazarren hitzetan emateko: apaizen moduan. Apaiz aluen moduan.

Antikapitalista zen Mikel, eta akort izaten ginen bilkura haietan. Sasi komunisten eta gure ustez haiekin maizegi akort ziren txinatarren kontra. Autodefentsaz gain baziren bertze kontu batzuk banatzen gintuztenak. Egun batzuk lehenago, otsailaren hiruan, porrot egindako greba orokorraz azterketa ezberdina egiten genuen. Funtsean, sobera zalu ibilki ginen batzuendako eta sobera mantso bertze batzuendako. Betikoa.

Gure kasailak eta dudak luze gabe arribatu ziren nagusienganaino. Espero zitekeen. Gu azkarki jotzeko

tenorea izan eta horixe egin zuten: hetsirik zeuden lantegiak batera ireki zituzten, grebalariak zatikatzeko gogo argiaz. Horrekin batean, langileen bortz ordezkari sartu zituzten preso. Horien libratzeko galdea ozenki aditzen hasi zen Gasteizko karriketan. Eguneko bilkura orokorraren ondotik multzo osoa Gobierno Civilera abiatu zen manifestazioan, konparazione baterako. Milaka lagun joaki ziren, langileak, haien jendakiak, ikasleak, denetarik. Haraino ailegatu arte lasaiki joan ziren, baina han poliziez osatutako zerrakura tinko pasaezin batek geldiarazi zituen. Gobernadorearekin mintzatu nahi zutela adierazi zieten manifaren aitzinaldean joaki ziren ordezkariek. Poliziaburuak egoteko erran zien, eta gibelera egin zuen. Isiltasun pisu batek bete zuen kolpean karrika.

Poliziaburua itzuli eta ordezkariei pasatzeko baimena emandakoan, hasperen gisako surmur bat altxatu zen esperoan ziren langileengandik. Zerbait erreusituko dute, menturaz. Norbaitek adituko ditu. Debaldeko esperantza langileena, laster ikusi zenez. Ordezkariak Gobiernotik atera aitzin ere hasi zen tiro soinua aditzen eta kea hedatzen karrikan espero zutenen artean. Eztulka, begiak ia hetsirik eta negarrez, nora joan asmatu ezinik, milaka lagun ari zen ihes

egin nahian. Haien beldurra areagotzeko, polizien oldar itsua gertatu zen orduan. Minutu guti batzuen buruan Olagibel karrika hutsik zen berriz, eta hala atzeman zuten langileen ordezkariek, Gobiernotik ateratakoan. Hango nagusia gezurretan aritu zitzaien, bistan zen.

Eta bertze behin, kasailak errepikatu ziren koordinakundearen bilkuretan, hara biltzen ginenok buruz genekizkienak, betikoak. Gaiztotu egin zirenak greba orokorrerako egindako bigarren entseguak ere porrot egindakoan. Hasieratik greba deitzearen kontrakoek beraiek iragarritakoa oroitarazi ziguten. Gure autokritika nahi zuten, gure damua.

Apaizen moduan, apaiz aluen moduan!

Isilik zen Mikel Salazarren pentsamenduak asmatzen ahal nituen. Sasi komunista haiek gu mendekatzeko tartea atzemanik, atxiki eginen zuten, guri lepoa bihurritu arte. Horretan ari ziren, eta guk kontu bakarra aipatzen ahal genuen gure alde: ordezkari presoak karrikan ziren berriz ere, grebari esker.

Koordinakundean bezain nabarmena zen bereizketa lantegietan ere. Sei asteko greba baten ondotik, langileak nekaturik ziren. Dirurik gabe eta etorkizuna ilun, guztiz etsitzekotan ziren. Giro horretan lotu zi-

tzaizkion Aranzabaleko ordezkariak gose-oporrari. Gelditzen zitzaien hondar arma.

Pui zen kontent iduri zuen gure arteko bakarra. Emaztekiak ezin hobeki ari ziren, dudarik gabe, beren senarrak eta semeak baino hobekiago: hondar aldian milatik goiti atera ziren Gasteizko karriketara, zorro bana hutsik eta grebalarien aldeko sosez eta puskez betetzeko intentzioz. Elkartasuna haien eskuetan izaten zen maizenik. Auzoetan antolatuak, indar eraginkorra biltzen zuten.

Judizmendin hitzordua izan genuen ilunabar batez. Denok ginen Gasteizko emaztekiez harro, eta Puiz bereziki. Partidu osoa, Gasteizen eta Gasteiztik kanpo ere bai. Guk idatzitako txosten eta artikuluak *Combaten* agertu ziren. Guti ginen, baina finak, boltxebike peto-petoak. Greba ahalik eta gehien luzatzea hartu genuen xede, eztabaida anitzen ondotik. Deus guti gehiago egiten ahal genuen. Greba hedatu eta, ahal izanez gero, Euskal Herriko bertze herrietara ere eraman. Batasuna eta elkartasuna beharrezkoak genituen. Xahu ginen bertzela.

Otsailak hogeita zortzi, manifa gaitza izan zen. Aitzina egin beharra zen eta jendeek bazekiten. Guk ere bai. Manifa pasatu orduko, karrika hegiko autoak er-

dian paratu eta gure gibelaldea babesten genuen hala. Gure Kepa eta bere ikaskide zenbait arduratzen ziren horretaz, antikapitalista batzuekin batean. Ondoko karriketan ere berdintsu egiten zen, posible zelarik.

Hor konpon komunisten predikuak, egin beharrekoa egin beharra zen. Molotovak gordeak genituen, baina prest. Horietarik bat bota ahal izaten genuenerako, ordea, poliziak dozenaka pilota eta ke-potoak zituen jadanik guri botariak. Istilu gogorrak izan ziren. Langileek buru egin zioten poliziari eta ordutan aditu zen tiro-zarta. Gogoan dut nola poliziatik ihesi, Penalty izeneko ostatu batean sartu nintzen, eta nola, handik atera nintzelarik, isiltasunak harritu ninduen. Bederatziak ziren doi, baina karrikak hutsik ziren, anitzez berantago balitz bezala. Zalu joaki nintzen, polizia-auto bat pasatu eta geldiaraziko ninduten beldur. Hori gertatuz gero zer egin beharko nukeen pentsatzen nindoan, eta deus guti bururatzen zitzaidan. Beldurgarriena horixe zen. Salbatuko ninduen ideiaren harrapatu ezinik, bazterrik ilunenak bilatzen nituen oharkabean. Etxeratu nintzelarik, nehoiz baino gaitzago iduritu zitzaidan Puik utzitako hutsunea. Bata bertzearen ondotik erre nituen zigarreten keak betetzen ahal ez zuena.

Gau hartan gaizki egin nuen lo. Ondorengo bi egunak ahantziak ditut. Grebarako karraskan lanean aritu ginela da gogoratzen ahal dudan guztia. Hilabete hasi berriaren hirugarren eguna osorik eta ezin argiago gelditu zait oroimenean, ordea. Argia hastetik. Geroztik berrogeitaka urte pasatu beharrean, egun gutxi batzuk baizik pasatu ez balira bezala.

Piketeak goizeko seietatik ibilki ziren, Betoñu, Gamarra, Ali eta gainerako industrialdeetan barna. Auzoetan ere piketeak ibilki ziren, emaztekiez osatuak haietarik anitz, dendaz denda eta ostatuz ostatu, eta pixkanaka hesten hasi ziren.

Dendak hetsita, piketeak elkartu, eta pittaka manifa bat sortu zen, bertze auzoetan, aldi berean, sortzen ari zirenen igualtsua. Hark hiriko erdigune aldera egin eta auzoko karrikak gibelean utzi zituelarik, Adurtza aldera joateko profitatu nuen nik, idatzi behar nuen egunaren kronika gogoan.

Zezen plazaren ondoko zubitik ikusi nuen, arras txunditurik, Nieves Cano eta Heraclio Fournier karriketatik heldu ziren manifa bien bat egitea. Milaka lagun ziren: langileak, ikasleak... Dena menean hartzen zuen uholde geldiezin bat, erdiguneko karriketara joaki zena. Horixe ikusi nuen nire talaiatik, eta irabazi-

ko genuela pentsatu. Gasteizko sobieta abian zen egiazki. Gobierno Civila izaten ahal zen gure Neguko Jauregia. Han preso zeudenak libratuko genituen, eta, gero, hango bulegoetatik zuzenduko genuen Gasteizko langileen matxinada. Baina gure Neguko Jauregia ongi defendaturik zen.

San Antonio karrikan ziren poliziak, gure esperoan. Gu baino gutxiago ziren, baina armez lepo. Haiei esker gibelarazi gintuzten. Kolpean kea zen nonahi, begiak itsutu eta birikak pozoitzen zizkigun ke zurixka trinkoa. Hazgaleak negar eginarazten eta hatsa trabatzen zigun. Gibelera egin behar genuen, berriz biltzeko eta berriz aitzina egiteko. Belen elizan egindako bilkura eta gero, Reyes Catolicos karrika zabalean barna bertze manifa handia ailegatu zen, eta, harekin elkartu behar genuelakoan, Avenida del Generalisimo aldera egin genuen, ahal bezala.

Eguerdia zen. Han harrapatu genuenak ttipi uzten zuen San Antonion utzi berri genuena. Ke-potoak eta gomazko balak jendearen harriekin gurutzatzen ziren airean. Gerla gori-gori zen, bere makurrenean. Orduan aditu nituen lehendabizikoz, ordura arte filmetan adituak nituen metraileta baten tiro parrastak. Barrikadak sortu ziren Avenidan bertan eta ondoko karrike-

tan, maiz sutan ziren barrikadak. Suhiltzaileak agertu ziren, baina haiek ere ezin deus egin, sugarretarainoko bideak hetsiak zituztelarik. Tiro asotsa, anbulantzien eta suhiltzaileen sirenak, oihuak, burrunba sorgorgarria zen. Eta hondarrean, orenetan borrokatu eta gero, denok nekatu edota goseturik ginelarik, gerla pausatu zelarik, ikuskizuna izugarria izan zen: autoak mukuruturik eta batzuei ke beltza zeriela, kale-argiak eta semaforoak lurrean, enborrak, bidoiak, zirrikak, metalezko hagak... Nahas-mahasa.

Arratsaldean, bortzetan, bilkura egin behar zen San Francisco elizan. Oren erdi bat lehenago ailegatu ginen. Eliza ia beterik atzeman genuen. Harainoko bidean, poliziaren furgoneta franko. Gure ondotik pasatzen ziren, baina aitzina egiten zuten gelditu gabe. Are nabarmenagoa zen poliziaren presentzia Zaramagan. Hala ere, traba berezirik gabe elizaratu ginen. Jende talde handi bat sartu zen gure gibeletik. Hondarrekoak izan ziren.

Bortzak bortz gutxi ziren eta polizia elizaren ateetan zegoen, sarreraren galarazteko. Barnean ginenok ezinegonez mugitu ginen. Norbaitek lasaitasuna galdatu zuen aldareko mikrofonotik. Burrunba aztoragarria aditu zen orduan. Kanpotik heldu zen. Berriz aditu

zen lehenagoko boza: Polizia da. Harrika ari dira, gu probokatzeko. Lasai egon behar dugu. Ezin digute ezer egin. Ez eliza barnean. Francok eta Erromako aita santuak sinatu *concordato*-aren arabera.

Marmar urduri bat hedatu zen fite. Lehengo boz berak lasaitasunerako deia egin zigun eta ordezkarien komisioak noiz ailegatuko zain zirela bilkuraren hasteko. Eguerdian Avenidako gasolindegiaren parean kolpatuetarik zenbait benetako balaz kolpatuak izan zirela erran zuen gure ondoan norbaitek. Bertze norbaitek, berriz, Logroñotik, Burgostik eta Bilbotik polizia andana heldu zela iragarri zuen. Beldurra giroan zen, milaka lagun haien hatsean. Horrexegatik, menturaz, batera egin genuen oihu: Kanpora!, elizako ateetarik batetik polizia sartzean. Esku banatan zapi zuri bat eta papera berdin zuri bat zeramatzan teniente bat eta hura babesten zuten bortz metrailetadun poliziak ziren.

Kanpora!

Guk adierazi bezala egin zuten. Etorri bezala alde egin zuten, inorekin solastatu gabe. Bizpahiru minutu geroago apurtu zituzten elizako leihoen kristalak eta beirateak eta handik bota gas-potoak, barnean ginenok aterarazteko. Hori egitera entseatu ginen, ito

baino lehen, karrikara hats hartu ahal izateko. Bakoitzak ahal gisan egin zuen. Batzuek ateetara hartu zuten trumilka, baina izan ziren lurrean etzanik gelditu zirenak ere, ahalik eta luzeen irauteko deliberatuak. Guk leihoa hautatu genuen. Berokiak eta anorakak kristal hautsien gainean paratuta, handik beheiti irristatu ginen, bertze hainbat lagunekin batean. Inguruko harrabotsa eta zalaparta ikaragarriak ziren, baina, lurra berriz zanpatu genuelarik, uniforme gris bat ikusi genuen, batek daki nondik agertua. Tiro zarta bakar bat ondotik. Orduan Kepa gelditu, makurtu eta nire besoetan erortzen ikusi nuen. Atorra odoletan zeukan zorro aldean. Gertatzen ari zenaz jabetu nintzelarik, begiak altxatu eta kamaradari tiro egin berri zion poliziaren bila hasi nintzen, niri ere eginen zidan beldur. Alde egina zen, iduriz. Bakarrik nengoen, baina odolusten ari zitzaidan lagun bat nuen besoetan.

Herrestan eraman nuen handik. Nire gibelean gerla bere gorenean zen: gero eta oihu, zartako eta tiro soinu gehiago aditzen zen. Ni aitzina joaki nintzen, babes bila, Kepa ospitalera eramanen zuen auto baten bila. Aitzina beti.

Besapeetarik atxikia eramaki nuela, Reyes Catolicos karrikara arribatu ginen. Auto guti ibilki zen eta

kostata erreusitu nuen bat geldiaraztea. Santiago ospitalera eraman genuen ziztuan. 2CV batean joaki ginen, gidariak klaxona joz eta nik mokanes zuri bat harrotuz. Niri tokatu behar beti, bada marka gero, erran zidan Kepak, Diputazioaren gibel aldean poliziak zanpatu zuenekoa gogoan. Ospitaleko atean, gidaria gu laguntzeko norbaiten bila joan zela profitatuz eta nire trikota Keparen buru azpian paraturik, handik alde egin behar izan nuen, segurua baitzen poliziak ongi begiraturik izanen zituela ospitaleak. Kepak irri ttipia egin zidan autotik urruntzean, bazekien partitu beharra nuela.

Zernahi gerta ere, segurtasunerako hitzorduak paratuak genituen, beti bezala, egun hartan ere bai. Haietan bildu ahal izan nituen berriak latzak ziren: Kepaz gain, bagenuen bertze sinpatizante bat ospitalean, Areition Puirekin lan egiten zutenetarik bat; Landa preso harturik zuten, eta Puiren gibeletik joaki ziren. Berri petralak, nehondik ere. Aitzina segitu behar genuen. Egun zorigaitzezko hartan hil, kolpatu eta atxilotuei zor genien. Kepari, ezagutzen ez nuen Areitioko emazteki gazteari, Landari eta Puiri ere zor genien eta biharamunetik bertatik nahi genuen zor hori kitatu. Kosta ahala kosta.

Hilak izan zirelako ustea genuen, pila bat kolpatu, baina artean kopuru zehatza eta hilen izenak ezezagunak zitzaizkigun. Ezezagun zitzaigun Romualdo Barroso, Kepak eta biok elizatik ihes egin genuen leiho beretik jauzi egin eta hilik erori arte metrailatu zutena, baita Francisco Aznar gaztetxoa ere, burutik odola ausarki zeriola lasterka segitu zuena, lurrean gorpu zetzan Pedro Mari Martinez Ociorengandik hurbil lur jo arte.

Zaramagako hilkintzaren biharamuna latza izan zen. Hiriak hutsik iduri zuen, goizetik gauera jendez gabetua. Bakarrik oren batzuk lehenagoko gerlaren hondarrak agerian. Aski nahasiak ziren berriak. Bezperan balaz kolpatuetarik bi hil omen ziren gauean. Hildakoen elizkizunak noiz eta nola eginen ziren deliberatu gabe zegoen. Aldi berean, elkartasun ekintzak nonahi egiten ari ziren.

Goiz hartan etxean gelditu nintzen, idazten. Gertaturikoa bildu eta hedatu egin beharra zegoen ahal bezain fite, munduak jakin zezala kapitalisten eta haien txakur errabiatuak nolako izugarrikeriak egiteko kapable ziren, zein bihozgabeki. Jo eta ke aritu nintzen hitzekin borrokan, gertatutakoen neurrigabetasuna paper baten mugetara errenditu nahian. Idazten

nuena nahasgarria eta ahula iduritzen zitzaidan, idatzi ahala. Kontakizun kamuts bat zen, zenbait gertakariren nolabaiteko kronologia doi-doia egiten zuena. Hala ere, bere hartan igorri behar izan nuen, denbora falta zela eta. Idazteaz gain bertze gauza gehiago ere egin behar nuen. Ordezkariak biltzera ahalegintzen ari ziren, baina arrunt zaila zuten, elizak, elkarteak eta beren etxeak ere poliziak behaturik baitziren. Puik, konparazione baterako, lankide baten etxean gorderik segitzen zuen, bilkurara joateko unea ailegatu arte bederen.

Beharrik antikapitalistek atzeman zuten leku egokia. El Salvador, Gasteizko hilerri berriaren ondoan. Zulo zabal sakona zen, eta hara bildu ginen ahal izan genuen guztiok. Ikusezinak ginen, kanpoan utzi genituen begiraleen arabera. Betiko kasaila politiko luzeak saihestu eta harira jo genuen hastapenetik. Estrategia orokor bat zehaztutakoan, gutarik bakoitzari zegokiona argitu genuen. Gero, bilkura finitu, eta talde ttipietan hedatu ginen.

Pui eta biok elkarrekin joan ginen Adurtzaraino, elkarri atxikirik, greba eta zalaparta egun haiek mendi buelta baten egiteko profitatzen ari zen bikote osasuntsu bat. Esmaltaciones San Ignacio gibelean utzi eta

auzoko lehen etxeetan koleraturik bereizi ginen, biok behar baikenuen luzeago solastatu, hondar aldian metatutako zirrara eta pentsamenduak haizatu, haietatik nolabait libratu. Musu bat eta bakoitzak bere bidea hartu zuen. Hainbertze egiteko zegoen eta hain esku guti.

Milaka lagunek bete zituzten Gasteizko katedrala eta haren inguruko karrikak, bi egun lehenago Zaragagan hil lagunen hileta-elizkizunerako. Mundu osoko kazetariak baziren.

Justizia!

Hitz eder horren obratzeko, mamitzeko, mailu itxura hartuko zuen herriaren errabia zilegi libratzaileak. Geldigaitza zen. Odolak karrikak bustiz gero, bai. Hala zioten Gasteizko katedral berriaren inguruan bildutako milaka langileen ukabilek.

Justizia!

Hori nahi zuten gutienik. Eta gu iraultzaileok ere kontent izanen ginatekeen horrekin. Gehiago ere, anitzez gehiago ere nahi genuen, baina ezinezko zitzaigun ahanztea Navesek, aldare nagusiko katabut zurezkoei beha, erranikoa: Lagun hauek gu borrokatu garen eta borrokatzen ari garenagatik hil dira, bortz mila pezetagatik.

Gaurko hogeita hamar euro doi-doia. Gloriarekin vermoutha hartzen dudan zeinahi eguerditan, Dickensen ordaintzen dudana baino gutxiago. Irrigarria. Odolaz ari naiz, ordea, ez Bloody Mary batez. Ospitaleko ohatze batean zetzan Kepak galduriko odolaz, alegia.

Gasteiztik urrun ere, urtetan nirekin eraman ditudan hitz horiek izan ziren, segur aski, Navesek errandako hondarrekoak, Madrilgo Carabanchel presondegian sartu baino lehen. Harekin batean, Imanol Olaberria, Juanjo San Sebastian eta Emilio Alonso eraman zituzten, mugimenduaren buruak izatea leporaturik poliziak.

Laurak ezagutzen nituen. Elkarren ondoan suertatuak ginen maiz, koordinakundearen bilkuretan, eta haiek utzitako hutsunea sumatu genuen guztiok, troskizaleok hain maite genituen *balantzea eta perspektibak* zehazteko elkartu ginen hurrengo aldian. Hilak, kolpatuak, presoak balantzearen alde ilunean ziren. Bertzean, alde argian-edo, langileon galdeen erdiestea genuen, hondarrean nagusiek amore eman behar izan baitzuten, dena galtzea baino hobe zela pixka bat galtzea, norbaitek konpreniarazi eta gero. Emaitza gazi-gozoa nolanahi ere guretako.

Iraultzaileak baikorra behar zuen, hala ere. Argitaratutako txostenetan baikorki jokatzeko eginahalak egin genituen, hortaz. Gasteizko langile mugimenduaren aitzinamendu gaitza azpimarratu genuen, borrokari esker bereganatutako kontzientzia, etorkizunerako irekitako bidea. Erreformismoa salatu genuen, bidenabar, Nicolas Sartorius, komunisten buruetarik batek idatzirikoa kausa.

Sasoi hartan Espainiako demokraten astekaria zen *Triunfo*n argitaratu artikulu batean, heldugabetako eman zituen Gasteizko borroka eta bertako langileak, baita haien buruak ere, abenturazale izatea leporaturik. Tristea zen, baina, aldi berean, pozgarria ere bazen, gure kontrako atakaldi hark garbiki adierazten zuen zein koleraturik eta kezkaturik ziren, beraiek kontrolatu ezin izan zuten borroka eredugarri hura zela eta. Nahi zutena deitzen ahal ziguten, ohiturik ginen, haien gezur eta burlak eguneroko ogi genituen aspalditik. Stalinen oinordekoak ziren, hondarrean, Leon Trotski gibeletik itsuski hil zuenaren partidu berekoak.

Bitxia da, orduko partidurik indartsuena, militante eta sinpatizante gehien zituena, Espainiako oposizio osoaren burua zena zer bilakatu den ikustea. Estalinisten sasoi hartako harrokeria lekutan da egun. Erreusi-

tu nahi zutena erreusitu zuten eta eskuratu nahi zutena eskuratu, Francoren ondorengoak lagun. Eskuraturikoa, hain zen eskas.

Justizia poetikoa, Annek erran ohi duenez. Horixe izan zen, nolabait. Denborak tarteka egiten digun opari horietarik bat.

Annek maiz aipatutako hori, haatik, politikatik eta letra larriko historiatik kanpo gertatzen da, norberaren bizitza ttipian. Nerorrenean, bertzeak bertze. Molde horretako justiziaren ondorioa da Gloriarekin dudan harremana. Berez harreman kaxkarra da, eskergabea, baina emazteki horrekin nolanahiko harremanik izatea bera aski da, ailegatu nahi nuen tokira ailegatu naizelako seinale ukaezina. Deus guti, kontsolamendu irrigarria, espainiar komunistena bezain, bederen. Baina zer egiten ahal dut bertzenaz? Zer egiten ahal dut aspaldiko faboreen ordainaren galde agertu arte denbora? Nire mendekua da, menturaz. Iruñekoa, Gasteizkoa mendekatu nahi dut. Hainbertze maite dituen hotel garesti horietarik bateko ganbera handiko ohatzean Gloriarekin, hondarrean txortan ari garelarik, bera ez ezik, bere klase –gure klase– osoa ere ari naiz izorratzen. Azpian dut eta, ipurdia pixka bat goitituta-koan, aldaka ukaldi azkar batez jotzen dudanean, eta

Viagraz lagundutako nire zakila haren alu olioztatu berrian barneratzen delarik, merezi izan duela iduritzen zait, haraino ailegatzeko egin behar izan dudan guztiak merezi izan duela, neke bakoitzak. Merezi izan du haren kalaka jasatea, haren hutsalkeria. Merezi izan dute nire desiretara lerratzeko egin ditudan guztiek, zozokeriek, ordaindu behar izan dudanak. Borroka zahar batetik nolabait garaile ateratzeko parada dut orain. Bertze bat. Eta horri atxikitzen diot, igaten ari den paretari barraskiloak nola. Himalaiari atxikitzen natzaio, horrenbertze baita Gloria emaztekietan niretako. Mendigoizale sentiarazten nau. Makina bat izerdi, neke, oinaze eta gero, kaskora ailegatu den mendigoizalea. Goi hartatik behatu eta dena zaio eder, dena gozo eta hordigarri, eta, hain justuki, den lekuan izan nahiko lukeela sentitzen du, Gloria azpian dudanetan nik sentitzen dudan gisa berean. Haren bular ttipiak, aldaka zabal bikainak, zango luze okerrik gabeak, nerorriri ere dena zait Gloriarengan harrigarria. Oraindik gordetzen duen edertasunaz gain, haren genetikak uzten nau ahozabalik. Gizaldiz gizaldi, belaunaldiz belaunaldi eta milioiez milioi findutako genetika harrigarriak.

Baita krimenez krimen ere, gaineratuko luke Puik, nire solasa adituz gero. Gimnasio, sauna, masaje eta kremen ordaintzeko sosak behar dira, eta, batez ere, astia.

Gaixoa Pui. Zenbat alditan mintzatzen natzaion baleki. Gasteizen segituko du, jakina, borrokan etsi gabe, betiko gisan. Telebistan ikusi izan dut zenbaitetan. Ikusi nuen lehendabiziko aldian, aise ezagutu nuen, nahiz eta nik oroitutako ile beltz sendoa, ordurako elur bilakatu izan. Begiak, aldiz, Potasaseko grebaren garaiko berak zeuzkan –ilunak, gaitzak, saihetsezinak– eta indar bera zerien. Horiei esker ezagutu nuen. Virgen Blanca plazan zegoen, pankarta bat eskuetan, emazteki baten hilketa zela eta. Hilabete batzuk geroago berriz ikusi nuen albistegian, familia bat karrika gorrian utzi nahi zuen banku baten kontrako protestan. Nekagaitz.

Zer erranen lidake, hogeita hamarka urte iragan ondotik, berriz ikusiko banindu? Zer jakin nahiko luke nitaz, zer kontatuko nioke nik? Anitzetan pentsatu dut, eta ez nukeela harekin topo egin nahi uste dut. Zer gerta ere. Joanak joan. Eta hala eta guztiz, haren berri jakin nahi nuke: seme-alabarik ote duen, ezkondurik edo bereizirik den, lanean jarraitzen ote duen, non eta

zertan. Jakin-min hutsa. Zerbait morbosoa. Zernahi delarik ere, Puirekin edo, hobeki errana, haren oroimenari lotzen nauena, egun batzuetako nire barne-giro malenkoniatsuaren ondorioa da, ez bertzerik. Egiazko munduan bizi naiz, mundu errealean-edo, eta horretan bi emaztekirendako lekua da soilik. Areago, bakar batendako, alegia, Gloriarendako.

Ann bertzerik da. Zinezko emazteki bat izan beharrean, betiereko esker ona zor diodan norbait da, ia ideia bat, gozotasun eroso epel bat, kide eta lagun paregabe bat, ohitura leun bat. Eta maite nau. Konprenigaitza bada ere, maite nau, Gloriak ez bezala. Eta, hala ere, nehoiz hautatu beharko banu, Gloria hautatuko nuke, duda pixarrik gabe.

9

Beldurra eta esperantza: gure funtsezko emozioak, Spinozaren arabera. Amsterdameko filosofoak idatzitakoaz gogoratzen naiz sarritan, bi sentipen bortitz horien eragina gero eta nabarmenagoa izanik nire inguruan. Gainerako sentipenak ez bezala, bikote banaezina osatzen dute, nahiz eta zeingehiagoka jardun etengabe. Bat igotzeko, besteak jaitsi egin behar du, eta alderantziz. Borroka, ahalegin etsitu horretan aritzen dira nekatu gabe, zein zeini nagusituko. Horretaz ohartzeko hiperra baino leku egokiagorik, gutxi. Zer erosten duen ikusita, asko jakin daiteke bezeroaz. Esate baterako, beldurrak edo esperantzak jota dagoen. Beldurrak jotakoak marka zuriko produktuak erosiko ditu, gutxi, premiazkoenak, ahalik eta merkeenak. Esperantzak laztandutakoak, berriz, denetarik erosiko du, ugari eta salneurriei erreparatu gabe.

Sozialki bigarren taldekoekin egon beharko banu ere agian, etsituekin nago, (inoiz izan ez dudan) aita egon zen antzera. Esperantza mikorik gabe, beti esperoan egoten direnekin. Gaur bizirik daudenekin, baina, beren bizi-baldintzak medio, bihar bertan hilda egon

daitezkeenekin. Gaur seme-alabei jateko zerbait eman ahal dietenekin, baina beharbada ez bihar. Munduaren pairatzaileak dira. Ezer ez dago beren esku, eta badakite. Esperantzaz hordituta daudenek mundua nahi bezala zuzendu eta bere egiteko eskubidea dutela dakiten modu berean.

Nik ere ezer gutxi egin dezaket garrantzitsuak diren kontuetan. Biteri, adibidez. Berdin dio zein den nire desira: hark baino ez du gure harremanaren giltza, eta bion arteko ate guztiak itxita dauzka. Jai dut harekin.

Esperantza sentipen itsaskorra da, beldurra bezala. Uxatu nahi, uxatzen saiatu eta alferrik. Hor geratzen zaigu, oinetako baten zolatik erauzi ezin den txiklea nola. Biterirekin ezer egiterik ez dudala jakinda ere, harekin nahi. Absurdoa da, hankarik eta bururik gabea, eta hala ere ezin haren itzaletik urrundu.

Hire moduko bat behar dun, esan ohi dit Marik, hire adin bertsukoa. Bat baino gehiago izango dun atzetik, seguru.

Hala da, bat gutxienez badut. Unibertsitatean hasi nintzenetik: Urtzi Esteban. Mutil ona, zintzoa, nitaz maitemindua, atzetik ibiltzen zait, neu Biteriri atzetik ibiltzen natzaion bezain alferrik. Erruki diot.

Ondo ulertzen dudala esango nioke, badakidala zer sentitzen duen, badudala bere oinazearen berri, baina isildu egiten naiz, nire hitzek haren esperantza sustatuko luketelakoan. Marik niri esan ohi didana errepikatuko nioke, nitaz pentsatzeari utzi behar diola, nirekiko duen obsesioa lehenbailehen ahaztu behar duela, kalte besterik ez niokeela egingo. Urtzi bizkorra da, arazorik gabe ulertuko luke, baina seguru naiz berdin jarraituko lukeela, ulertu nahi ez balu bezala. Neure eskarmentutik ari naiz, horixe baita nik egiten dudana, tematu, ondo baino hobeto jakinda, haren mespretxua ez bada, sekula ez dudala Biterirengandik beste ezer jasoko. Horregatik dakit Urtzik ez duela amore emango eta bere irribarre melengarekin topo egin beharko dudala aurrerantzean ere. Nahi al duzu hau, nahi duzu bestea: ilargia eskainiko dit, nik Biteriri eskaini diodan bezala, eta hiperrak edonori, erosi ahal duen edonori, eskaintzen dion moduan.

Egun on (edo arratsalde on), zer moduz, nahi al duzu...

Ahal izan dudan guztia eskaini diot Biteriri. Lehenik eta behin, nire gorputza. Nire laztanak, nire musuak. Baina, zorioneko gau hartan izan ezik, muzin egin dio beti nire eskaintzari. Horri eta egin dizkiodan

gainerakoei. Gramo bat koka pasatzen saiatu eta, eskertu beharrean, muturtu egin zitzaidan, irain egin izan banio bezala. Inguruko kokarik onena. Bakea emateko eskatu zidan. Koka tartean egonda, ondo hartuko ninduela uste nuen, lagunak izango ginela.

Bere gustukoa ez banintzen, areago, begitan baninduen, zer zela-eta eraman ote ninduen bere etxera? Ito egiten nau galderak. Horren hausnarrean eman ditut harrezkero egunak. Bururatzen zaizkidan erantzun bakanak ahulegi, kamutsegiak dira benetakoak izateko. Atzera eta aurrera egiten dut denboran, Biteriren begietara higuingarri bilakarazi ninduenaren bila. Batere arrakastarik gabe, esan gabe doa.

Hori medio, erantzunik gabeko galderak ere badirela saiatu naiz sinesten. Aitari dagozkionen antzekoak. Hau da, etsitzeko modu bat bilatu dut, bizi nauen obsesiotik askatzeko nolabaiteko bide bat, nolabaiteko bakea. Baina horretan ere kale egin dut. Kale egin, izan ez diren eta egon ez dauden gauza horiexek, bizienak, presenteenak, ahanzteko zailenak direla jakin arren. Hori jakiteko ez baita Lacan irakurri beharrik. Bizitzea nahikoa da. Benetan bizi ote naiz, ordea, benetan bizi ote gara? Horra erantzunik gabeko beste galdera bat.

Hiperrean, nire kutxatik igarotzen direnei, neure buruari ere begira sarritan, bizimodu zonbi hau dagoen bakarra delako susmoak ikaratzen nau. Beldurra nagusitzen zaio esperantzari neure baitan. Eta beldurrak galdera gehiago ekarri. Erantzuteko zailak. Noiz arte?

Dena ahaztu nahi nuke, nor naizen eta non nagoen ahaztu, galdera guztiak ahaztu, amak (inoiz izan ez dudan) aita ahaztu nahi duen bezala. Alzheimer tankerako bat nahierara. Hiperraz ahaztu, unibertsitateaz ahaztu, amaz ahaztu. Biteriz ahaztu? Bai, Biteriz ere bai. Biteriz, batik bat.

Nekagarriak dira galderak, baina galderarik gabe, filosofiarik ezin. Jakin-minik gabe ez. Zorionez edo zoritxarrez, nirea handia da, behin ere gelditzen ez den galdera-makina bat. Dena jakin nahi izaten dut. Nola edo hala, dena zait interesgarria: eulien edo inurrien bizimodua, nola moldatzen diren bizirauteko, nola dauden antolatuta. Edo landareena. Oro har, naturak eta haren funtsezko izaerak erakartzen nau. Milaka itxura, milaka alderdi dituen funtsezko izaera horrek. Kakalardo batekin, mikrobio batekin batzen nauena interesatzen zait. Izaki guztiongan taupada bera antzematen dut. Heriotzara garamatzan bizi-taupada

bera. Naturak, aldiz, ez du justiziaren berri. Apetatsua da, ustekabe zalea. Horregatik da laburragoa edo luzeagoa batzuen bizi-taupada, beste batzuena baino. Espezie berekoak izan arren, kide bakoitzak bere ibilbidea du, bere patua. Ez aldez aurretik idatzia (edo bai?), baina patua, azken finean, nire gurasoena, adibidez. Toki eta garai bertsuan jaio, hazi eta heziak biak, ezin bukaera ezberdinagoa izan.

Aizu, ni oso bizirik naiz, protesta egingo lidake amak, arrazoiz. Protestak protesta, bukaeran da, izan ere. Urte luzetako bukaera izango da harena, ziur aski patxadatsua, baina ez dut uste inoiz egingo duenik orain arte egin ez duenik. Ez dut uste haren bizimoduan egongo denik gorabehera nabarmenik. Egin beharrekoa egina du, errepikapenaren errepika izango du hemendik aurrerakoa. Etxez aldatuko da agian (aspaldi samarretik ari zaio Sixtori Hondarribian etxe bat erosteko xaxatzen) edo bidaia luze exotiko bat egingo du senarrarekin batera, hark lan egiteari utzitakoan. Berdin dio. Ezerk ez du (inoiz izan ez dudan) aita hildakoan aukeratu zuen bide erosotik ateraraziko. Hau da, haren ustez ondo merezitako bidetik. Nik muzin egiten diodan bide horretatik. Bizitza ez da zuk uste duzuna, esan zidan lanean hasi behar nuela jakinara-

zi nionean. Ea hiperrean lan egiteak horretaz konturatzeko balio dizun. Beharbada errealitatea nire susmorik txarrenak baino okerragoa dela ikasteko balio izan dit, zerbaitetarako balio izatekotan.

Langile izatea zer zen banekiela uste nuen. Horri buruzko liburu mordoxka irakurria nuen, batez ere amari (inoiz izan ez dudan) aitaz entzun niona eta gero. Hura nekez aipatuko du amak, baina, sarritan bezala, elkarri mokoka ari ginen batean, haren gorabehera batzuk ekarri zituen hizpidera, nire kontra egin nahian. Hala jakin nuen Salazarrek (hala deitzen zion amak) Gasteizko lantegi batean jardun zuela berarekin ibiltzen hasi aurretik, eta han, 1976ko neguan izandako borroka bortitzetan aritua zela. Azkenean amak bakea eman eta ordenagailua piztu ahal izan nuenean, hark aipatutako istiluak bilatu nituen Interneten.

Milaka erreferentzia zegoen: txosten, film, audio, argazki, elkarrizketak... Zerbait handia izan zela bistan zegoen. Epikoa eta tragikoa aldi berean. Lana utzita kaleak hartu zituzten langile haiek irudikatu nituen, auzoetako biltzarrak, lan-eskola eta institutuetako ikasleen manifak, hiri oso baten elkartasuna jasotzen zuten grebalarien emaztekiak, beren zorro hutsak es-

kuetan. Eta miretsita irakurri nituen eskuorri eta manifestuak: bazekiten zer nahi zuten eta horren alde borrokatzeko prest agertu ziren, nahiz eta parean diktadura baten polizia eta komunikabideak izan. Eta sutu egin nintzen Gasteizko eliza hura inguratu zuten polizien elkarrizketak entzutean: *Buen servicio! Hemos contribuido a la paliza más grande de la historia. Aquí ha habido una masacre. Cambio. De acuerdo, de acuerdo. Pero de verdad una masacre...*

Amak Salazar deitzen zuena ere ahalegindu nintzen borroka hartan irudikatzen. Gaztea zen orduan, ni baino gazteagoa, hogeita gutxi urtekoa, edo barrikada baten atzean edo poliziari harrika ikus nezakeen, film batean bezala. Entzun nezakeen inguruko lagunei adore ematen oihuka, eta elizaren inguruan bi mila balatik gora tiratu izanaz harrotzen ziren poliziei eusteko eskatzen. Heroikoa.

Bai, harro naiz borrokalari bulartsu haietako baten alaba izateaz. Ama histeriko baten alaba izateaz baino harroago, behintzat. Eta bekaizti, batez ere inguruan begiratzean: nire lankideek, bezeroek ez dute zerikusirik garai mitologiko hartako jendearekin. Langile haiek langile izatearen harrotasuna zuten artean, batuz gero mundua alda zezaketelako ziurtasuna. Jen-

deak bazekien elkartasuna (klase elkartasuna) zer zen. Tokitan dago hori dena.

Baina, noski, neu ere ez naiz Mari edo bertako beste gehienak baino hobea. Horiek bezala, beldurretik baino askoz gehiago daukat esperantzatik kolkoan. Hala zaila da ezer aldatzea. Planeta salbatuko duen iraultzaz amets egin daiteke, gehienez.

Iraultza: aipatze hutsa barregarria da, inoiz baino premiazkoagoa denean. Nork egin behar du, ordea? Guk ez, hori seguru. Aspe azaldu eta burumakur itzuliko ginateke, bakoitza bere lanera. Behazuna irentsiko genuke, eta berehala betikora itzuliko:

Egun on (edo arratsalde on), zer moduz, nahi al duzu...

Koldarrak gara, gurekoiak gara, eta dugun apurrari eusten diogu, adar bati eutsiko geniokeen modu berean, gure azpian amildegi bat izanez gero.

Horregatik amets baino ezin dugu egin. Sabotajea egiteaz, esaterako. Sagardo botilak hustu, eta kamerek hartu ezin duten txokoan txizaz bete. Ederra litzateke, baina ia gauzatu ezinezkoa. Halakoak bururatzen zaizkit, horretarako nahiko barrenik ez dudala ederki dakidan arren. A ze gauzak bururatzen zaizkinan, harritzen zait Mari. Barre egiten du, baina ba-

rreak nekez ezkuta dezake haren kezka: Erotzen ari ote da? Hiperrari edota kapitalismoari egotzi beharrean nire balizko eromenaren errua, Biteriri egozten dio.

Hiri ez zain halakorik inoiz bururatu? Ez, Oihane, niri ez. Ama naun, horra Mariren argudioa, erabatekoa, behin betikoa. Arao moduko bat harentzat. Edozein korapilo askatzen duen araoa. Amatasuna botika indartsua da. Amatasunak ia dena bihurtzen du zilegi. Bere Adolforen zitalkeriak ere. Hura antzarak ferratzera bidaltzeko esaten badiot, Aitortxo hartuko du segituan, modu itsusian erabiltzen duen senarrarekin jarraitzeko arrazoitzat. Semearen hobe beharrez egiten omen du, hura ez traumatizatzeko. Aitzakia galanta, nik ez dudana, Biteri uzteko hark eskatzen didanetan. Ama ez, alaba naiz ni, ordea. Amatasunaren kontu hori Marik baino hobeto erabiltzen dakien ama baten alaba.

Mari bezala, ama ere nire hobe beharrez ari omen da. Horixe aldarrikatu du beti. Lagunei, Sixtori errepikatu die, eskergabea naizela argi utzi nahian. Bera saiatzen da niri laguntzen, baina nik, egoskor halakoak, uko egiten omen diot eskaintzen didan laguntzari.

Zure aitaren berdina zara, Salazar peto-petoa, aurpegiratu dit, nirekin haserre. Hura bezain burugogorra. Aukeran, zure antzekoa baino nahiago haren antzekoa izan, adieraziko niokeen.

Gizon alai eta berritsua omen zen, lagunkoia, hanhemen jakin izan dudanez. Ni ez naizena eta, dirudienez, egundo izango ez naizena. Amari gogorarazi nion, (inoiz ezagutu ez dudan) aitaren eta bion arteko ustezko berdintasuna ez zela hainbesterainokoa ikus zezan. Hura konformagaitza zen eta zu ere bai. Ez zekien zoriontasunaz gozatzen. Gehiago nahi zuen beti.

Berriz ere eutsi behar izan nion, mihi puntan nuenari: zuk bezala, hortaz. Salazartarrok konformagaitzak izango ginen, baina ama aseezina. Zerbait nahi izanez gero, senarra nazkatuko du lortu arte, eta gutxira beste zerbait nahi izango du, zerbait modernoagoa. Jantziak, etxeko tresnak edo beste edozein gauza zaharkitu eta erabat modatik kanpo geratuko zaizkio luze gabe, eta horiek ordezkatzeko premia eutsiezinezko bat sentituko du. Eskerrak senarra aberatsa duen eta oraindik maiteminduta, ulertzen zaila bazait ere.

Eta guztiz absurdoa. Zer dela-eta maitemintzen gara? Zer dela-eta uzten dugu beste baten eskuetan

gure zoriona, gu-geu arduratu ordez? Kimika kontu bat da, zientifikoek diotenez, feromonak eta abar. Beste zerbait behar du izan, nire iritziz, kontu objektiboekin hain harreman estua ez duena. Zerbait filosofikoagoa edo. *Herrschaft und Knechtschaft*, esaterako.

Nire jardun teorikoaren ajea izango da agian, baina hori sumatzen dut maitemintze bakoitzaren atzean: menperatzeko edo menperatua izateko grina itsua. Oharkabeko grina, barrenean ezkutuan daramaguna eta oraindik argitara irten ez den minbizi bat. Maiteminak jo, eta zauritutakoa jopu edo nagusi bilakatuko da ezarian. Ez dago besterik.

Hiperreko atzealdean, atsedenaldiaren garaian zigarreta bat erretzen duen bitartean, Marik bere kontu triste eta beti berdinak aletzen dizkidala, minbizi hori sumatzen dut giroan, nireak aipatzen dizkiodanean bezalaxe. Horri buruz ari gara, aldez edo moldez, horri buruz ari ez garenean ere. Dena biltzen du. Laino moduko bat da. Heltzen den tokian dena irensten du.

Gehiegi pentsatzen dun, neska, gehiegi nekatzen haiz kontu horiekin, esaten didate lagunek. Aspertuta dauzkat. Filosofiak burua nahasi didala uste dute. Spinozaz hitz egingo nieke, esperantzaz eta beldurraz, biak ala biak paralizagarriak direla azalduko nieke,

libre izateko gauzak beldurrik eta esperantzarik gabe ulertu behar direla, eta horretarako pentsatu beharra dagoela, luze hausnartu. Baina ez dut inorekin eztabaidatzeko kemenik. Negar egin nahi dut, ez besterik, etenik gabe nahigabetzen nauena kolkotik atera, atseden pitin bat lortu. Mina hitzetan jarri nahi dut, hura arintze aldera.

Ez, ez da filosofia burua nahastu didana. Zerbaitek edo norbaitek nahastekotan, drogek edo ama histeriko batek nahastu didate. Seguru asko amak, drogena asteburuetako kontua izan delako niretzat, ama orain-tsu arte ez bezala. Kontuz drogekin, zen garai batean amaren leloa. Nire belaunaldia suntsitu zuten. Ez dadila zurearekin gauza bera gerta.

Ama, mesedez, eteten nion sermoia lehenbailehen. Ordurako hainbat droga hartua (eta utzia) nintzen. Utzia nion, esate baterako, txirriak erretzeari, eta, hein handi batean, mozkortzeari ere bai. Ordurako banekien marihuana eta alkohola baino droga niretzat hobeak bazirela. Beldurrak eta esperantzak bezala, haiek ere paralizatu egiten ninduten, eta haiek nire egun azkarrak ziren, izan ere.

Dena azkar nahi nuen. Azkar ikasi, azkar maitatu, azkar dantza egin. Eta horretarako hauts zuriak ego-

kiagoak izan, inondik ere. Tabernetan, bi neska komunera joaten ginenean, inork ez zuen uste pixa egitera edo apaintzera gindoazenik. Speed, koka, dena gustatzen zitzaigun.

Orain tabernaren bateko komuneko ispiluan neure burua halabeharrez ikusiz gero, ikaratu eta amaren hitzak etortzen zaizkit oroimenera, gaztetan nire onetik ateratzen ninduen berriketa gogaikarri hura. Uxatzen saiatzen naiz, baina gogoari atxikitzen zait, eta ezin erauzi. Ordu txikitako nire aurpegi desitxuratuak izututa, nekez eusten ahal diot komunetik laguntza eske zarataka irteteko premiari. Mozorro hits bat, maskara penagarri bat itzultzen didan ispilu zikina hautsiko nuke ukabilka, eskuak odoletan izan arte.

Bai, horixe naiz. Zonbi bat, beste hainbat zonbiz inguratuta. Lerdea ezpain-kokotsetik behera darien zonbiak, aurpegiko giharrak menderatzeko, hitz egiteko, mugitzeko zailtasunak. Belaunaldi zonbi bat, amarenaren antzekoa, haren garaia eta gure oraingo hau oso ezberdinak izanagatik. Beste belaunaldi galdu bat, gurearen aurretik egon diren gainerakoak bezala.

Atzokoak eta gaurkoak funtsean berdinak dira, baina azala kolorez aldatuta. Koloreak engainagarriak dira. Erakarri eta bere egiten gaituzte. Oztopoak ere

badira, mamira heltzeko bidea ixten dutenak. Haien dirdirak itsututa, ezin ikusi hor, ilunpe sakon horretan, ezer ez dagoela, neurrigabeko huts bat ez bada. Bete behar dugun huts bana, orain, lehen eta beti. Gure gurasoek modu batean bete dute eta gu beste batean betetzen ari gara, baina oinarrizko gezurra beti bera.

Ozpindu egiten zaizkit lagunak halako kontuak entzuten dizkidatenetan (gutxitan, larunbat gau batzuetan baino ez), eta hainbeste speed ez sartzeko gomendatzen didate. Drogatuta edo drogarik gabe, uste dudana uste dut, eta kito.

Beren lagunekin berriketan ari direla, amari eta Sixtori entzuten dizkiedanak eta nire lagunei entzundakoak antzekoak dira, eta seguru gauza bera pentsatuko nukeela, neronek esandakoari erreparatuz gero. Batzuen eta besteon hizketa moldeak (koloreak) ezberdinak izango dira noski; ez, ordea, adierazitakoa. Elkarrekin afaltzen dugula edo elkarrekin zuritzen ditugula sudur-zuloak, giro berdin jator horretan egiten dugu. Jatortasunak bizi gaitu, eta hori gabe ezin gu bizi. Hiperrean izan ezik.

Disimulurik ez hiperrean. Jatorra izateko astirik ez, modu amerikarrean ez bada:

Egun on (edo arratsalde on), zer moduz, nahi al duzu...

Ia masailak urratzeraino irribarre egin eta, ziplo, hori bota: gure ereserkia, hemengo langileona, gure Internazionala. Behar adina aldiz errepikatzeko gertu gauzkate, edozertarako prest. Beldurra, guk ez bezala, alde dute. Dena alde dute. Gu ere bai, zoritxarrez.

Bestela izan ote liteke? Halako galderak bururatzen zaizkit, Gasteizko langileen grebaz irakurtzean. Polita litzateke, polita bezain ezinezkoa. Horregatik egiten diot errieta neure buruari, nostalgiaren pozoi arriskutsuaren eskuetan hain erraz erortzeagatik. Non dago filosofiak eman behar zidan aparatu kritikoa? Zertan geratu da, sentimendu merke horren hats melenga aditzeko gai ez banaiz? Martxoak hiru eta haren ingurukoak historia dira, pantaila batean ageri diren hitz eta zuri beltzezko irudiak. Han gertatutakoak ez dira atzera gertatuko, ezerk ez du atzera egingo, aurrera baizik. Aurrera lasterka, aurrera eta aurrera, kosmosaren hutsune ilunean noizbait galdu arte, (inoiz izan ez dudan) aita galdu zen antzera.

Xelebrea da, edozein ika-mika, edozein buruz buruko borrokari uko eta saihets egiten dion amak zein gogotsu, zein kementsu egiten dion denborari buru.

Inongo beldurrik gabe eta esperantzaz lepo joaten da ebakuntza gelara, abuztuko egun batean hondartzara joango balitz bezala. Kirurgia plastikoaren erregina da. Ama gajoa.

Alaba gajoa esango du hark, niri begira. Zer izan zintezkeen eta nor zaren, bera bezalako norbait izan nintekeela adierazi nahian. Hau da, errealitatean ondo sustraitutako norbait. Bere errealitatean, noski, benetako errealitatetik urrun dagoen bere beste horretan. Bere neurrira sortutako fikzio batean. Tamala ni izatea fikzio horretan egokitzen ez den bakarra. Bere mundu bikain horren pitzadura bakarra. Neskato mainati, apetatsu bat izango banintz bezala begiratzen dit. Edo okerrago, bere kontrarioa banintz bezala. Egiten dudan guztia bere aurka egiten dudala sinetsita dago. Hiperrean lan egitea, esaterako. Alferrik azalduko diot ezetz, libre izateko, bizitzeko aritzen naizela lanean, inoren menpe ez egoteko. Baina nire azalpenak are gehiago zapuzten du:

Dena eman nahi dizut, eta zuk ezetz beti, ez duzula nigandik ezer nahi.

Harengandik ezer nahi ez dudala esatea ere okerra da, asko izaki harengandik nahi nukeena. Begirune

pixka bat nahi izatea zer da, asko edo gutxi, naizen modukoa naizela onartzea.

Genetikoa behar du, jarraitzen du, Salazar guztien ezaugarria.

Zer ote zen (inoiz izan ez dudan) aitak hartu nahi ez ziona, galdetuko nioke.

Joanak joan, esango luke, oraina da axola didan bakarra. *Carpe diem*. Salazar, aita, aldiz, hemen dugu, gure aldamenean, amak ikusi nahi ez badu ere. Biok elkartzen garen bakoitzean azaltzen da, hiruki bat osatzeko gurekin. Familia bat? Familia bat ez. Amak badu aspalditxotik berea.

Sixtorekin ezkonduta nago, ez beste inorekin, argudiatuko luke. Legezko senarrarekin, aldiz, ezin hiruki bat osatu. Bikote bat osatuko luke gehienez, ni ez nintzaielako batuko. Sixto gizon ona da berez, lehenago ere esana dut, baina ez da (inoiz izan ez dudan) aita. Nahi bai. Amari esan dio behin baino gehiagotan. Aita ona izango litzateke, baina ez nirea. Aita izan nahi zukeen. Amak uko egin zion ama berriz izateari. Bazuen nahikoa lan nirekin. Bizi nahi zuen. *Carpe diem*. Munduak eskaintzen eta urteetan uko egin omen zionaz gozatu nahi zuen. Atzokorik eta biharkorik gabe. Beste ezer gabe. Gozatu.

Edonork ez du edozein apeta ordainduko dion senar bat. Marik eta hiperreko beste langile ezkonduek ez, behintzat. Horren beharrik ez dute. Bakea emango liekeen senar batekin, pozik. Seme-alaba gazteez edo guraso zaharrez baino ez arduratu behar izatearekin zoriontsu. Gimnasio eta saunarik gabe, ile-apaindegira astero joan gabe eta kirurgia plastikorik gabe ere bozkarioz.

Halako jendea badago munduan, erakutsiko nioke amari, zuretzat sinesten zaila bada ere. Ironiaz jabetu eta berehala bihurrituko litzaidake: Aspaldi konturatu nintzen, zu jaio baino lehenago ere, zuretzat sinesteko zaila izanagatik. Gure aita langilea zen, Orbegozokoa.

Aitona Inazio maitagarria. Harritu egiten nau hura eta ama odol berekoak izateak, hain ezberdinak bien izaerak. Hainbeste maite ez nuen amona Margaritari egotzi ahalko nioke amaren gaiztakeria, baina hura emakume xaloa zen, tolesik gabea, ama ez bezala. Eta orduan beharbada amaren benetako gurasoak ez zirela izan bururatzen zait, umezurtz hartu zutela.

Xelebrekeria galanta: ama umezurtz eta alaba erdi umezurtz. Xelebrekeria baina posible, beste gauza asko bezala, hiperrean egunero ikusten ditugunak le-

kuko. Ia edozer da posible. Bada posible, esate baterako, norbait oiloz mozorrotuta arrautza bila agertzea edo beste batek bazter batean pixa egitea. Bada posible Aspek gutako edozein barregarri uztea jende guztiaren parean, nahiz eta guk behar bezala berak agindutakoaren arabera jokatu. Bezeroa zuzen beti, ordea. Bezeroa zuzen eta langilea oker. Printzipioz. Hiperreko legea da, idatzi gabea bezain burdinazkoa, gure Aspek gutxik bezala ezagutzen duena.

Harrigarria da oraindik niretzat. Hegelen teoria gorabehera, lanak ditut haren jokamoldea guztiz ulertzeko. Zer dela eta gu ezin zorrotzago, ezin okerrago hartzeko grina hori? Zerk eragiten dio? Gorroto omen digu emakumeoi, eta, Mariri sinestera, homosexuala da, gay, marikoia. Gorroto digula argi dago, nire ustez; ez hainbeste, ordea, gorroto hori emakume guztiei dagokien edo bere menpekoei baino ez. Zaila da jakiten, kutxazain guztiak emakumeak baikara. Gizonezkoak bestelako lanetan aritzen dira. Asperen ardura ez diren bestelako lanetan. Bere menpekoak gizonezkoak izatera ezberdin jokatuko ote lukeen, ezin esan.

Mari ez dator bat nirekin. Bistan zagon, neska, horretarako ez dun teoriarik behar. Ergel kuadrilla bat

gaitun harentzat. Bere esku egongo balitz, kale gorrian aspaldi.

Baliteke. Gizonezkoek ez omen zizkioten onartuko guk onartzen dizkiogunak. Horregatik nahiago gaitu. Errazagoa zaio guri nagusitzea. Gure beldurra aditzeko gaitasun berezia dauka, eta badaki horri etekina ateratzen. Badaki gutako bakoitzaren berri, galdetu gabe ere.

Kontuz ibiltzeko eskatzen dit Marik, Aspe ez dela nitaz fio. Hala da, ez da nitaz fio, ezta gutako beste inortxoz ere. Bai, baina hi ezberdina haiz, eta hark bazakin. Nola daki ba, nik. Eta Marik: Janzkeran antzematen zain, hizkeran. Ez haiz ama (hara amatasuna berriz ere!), ez dun inoren ardura, eta antzeman egiten zain. Ez haiz gu baino gutxiago edo gehiago, ezberdina, espeziala haiz.

Hala ote? Auskalo. Segurua da hiperreko langile bat naizela. Asperen emakumeetako bat. Atsedenaldian kafe makinaren inguruan biltzen direnetakoa. Eskerrak kafe izena merezi ez duen ur beltz bero hori dugun. Horregatik ez balitz, kutxan bertan lokartuko nintzateke, niretzat narkotikoa baita eskanerraren ti-ti-ti hori, narkotikoa milaka aldiz errepikatzea keinu bera, esaldi bera:

Egun on (edo arratsalde on), zer moduz, nahi al duzu...

Errepikapenaren sinfonia da hiperrean une oro entzuten dena. Goizetik gauera entzuten den musika itxuraz beti berari erraz nagusitzen zaion eguneroko jardunaren zalaparta: orgatxoen hotsa, zabaltzen eta ixten diren ate eta kutxena, korrika eta jolasean ari diren umeena... Zarata etengabea da, nire aurretik igaro beharreko bezeroen ilara bezain etengabea. Zarata sekulakoa da, Iturri tabernakoa bezain sekulakoa. Horretaz kexatzen zen Biteri, elkarrekin hitz egiten genuen garaian. Erotu egingo naiz, ezin dut luzeago eraman. Ohean ere horixe aditzen jarraitzen dut, oraindik tabernan egongo banintz bezala. Buruan iltzatuta daukat. Tortura puta bat.

Ulertzen dut orain, ni ere nekez lokartzen bainaiz gauetan, egun osoko zarata dela eta. Hotsak eta hitzak metatzen zaizkit garunean, noizbait izandako elkarrizketen zatiak. Isiluneak ere pilatzen zaizkit, astunagoak zenbaitetan. Biteriren isiltasun iraunkor gaitzaz gain, amarenak, Marirenak, geratzen zaizkidan lagun gutxirenak. Urtzi Estebanenak. Horrenak ere bai.

Itsusi egiten nauen ispilu bat da. Urtzirekin nagusia naiz, betiko neskamea izan ordez. Biteriren neskamea, Marik esan ohi didanez. Aukeran hori nahiago, nagusitasun zantarra baino. Neskamea, menpekoa izan, kulturaren sortzailea, ez nagusi alferra. Urtzirekin horixe egokitu zait, ordea, zantarkeria hori. Biterik niri egindakoak errepikatzera kondenatuta nago. Beste modu batean, leunago agian, baina horiexek berritzera derrigortuta. Hurbiltzen zaidanean kasu egiten diot. Honetaz eta hartaz hitz egiten dugu, eta batzuetan elkarrekin gustura egotera iritsi gaitezke, harik eta betiko kontua hizpidera ekartzen duen arte. Amorragarria. Zenbat aldiz esan behar ote dizut ezetz, emateko bakea oihu egingo nioke. Hau da, bere isiltasun trinkoaren bitartez Biterik behin eta berriz niri adierazi didana. Amorruak Biteriren tokian jartzera eramaten nau, nirekiko duen jarrera ulertzera. Ulertu nahi ez dudana ulertzera, argi esateko. Ulertzeak harengandik urruntzen nau eta. Iturrira joateari utzi egin behar nioke. Duinena litzateke, arrazoizkoena ere bai. Ahal banu.

Baina ezin, Urtzik bere temari utzi ezin dion bezala, nahiz eta guztiz alferrik ari dela jakin. Min hori behar du, zauri hori. Eta nik ere bai. Bestela hiperretik

irten eta zuzen etxeratuko nintzateke, nahi ez nauten taberna batera joan gabe. Kafea prestatuko nuke, eta lasai, sofan luze etzanda, lagunek pasatutako telesailak ikusiko nituzke, Biteri muturbeltz hori eta haren lagun Esfingea ikusi ordez. Doazela pikutara biak, doazela urrun, beste kontinente batera. Eta eraman dezatela zakurtxo zuri zikin hori beraiekin. Coco nazkante hori.

Ametsak. Ezinezkoak. Zauriari odola dario. Beti. Nireari, Urtzirenari. Beldurrak eta esperantzak eragindako jario gorria. Zauririk gabe geratzeko beldurrak, alferrik desiratzen ditugunek jaramon egingo diguten esperantzak. Arrazoiaren bitartez menderatu beharreko sentimendu gehiegizkoak. Horretan ari naiz, Spinozaren jarraitzaile. Arrazoiak hitza du lanabes eta tresna, ordea. Lanabes trakets kamutsa, inondik ere. Hortxe koxka. Hegaldatu orduko ziplo erortzen diren hegazti aldrebesak, hitzak. Badirudi gora eta gora egingo dutela guztiaren esanahiaren jabea den zeru argi batean desagertu arte, eta, bat-batean, mokoz behera etorri, lurra jo eta istantean hondar bilakatzen dira. Hitzak: kanpoeder, barren-huts hitzak, lagungarriak zenbaitetan, baina gehienetan traba. Zoritxarrez ez

dago besterik, eta dagoen horrexekin moldatu behar. Hartara nire hitz-aspertua, hartara denona.

Katea osatzen ari naiz. Mailaz maila. Ez kronologikoki, nahi nukeen bezala, ahal dudan bezala baizik. Nire benetako ikerketa da, ez Hegelen teoriari buruz egiten ari naizena. Hura unibertsitaterako da, hiperretik noizbait alde egin ahal izateko. Katea osatzea, aldiz, hil edo bizikoa da niretzat. Hiperbole bat irudi dezake, pentsatu gabe esaten den zerbait, baina hala delakoan nago, beste irtenbiderik ez dudalakoan. Horregatik ez naiz galdetzen eta ikertzen nekatzen, horregatik aipatzen dizkiot amari, hark isildu ez ezik, erabat ahaztu ere nahiko lituzkeen kontuak. Amak ez du ulertzen. Zertarako hauts zaharrak harrotu? Oi ama nirea, oi andre txit eskuzabal hori, bazeneki zer garrantzitsua den zure alaba bakarrarentzat. Baina hor ere hitzak motz. Azaltzekotan izan naiz hainbat alditan. Hitzak bilatu eta ordenatu ditut nire baitan. Konturatu naizen arte nire ahaleginak porrot erabatekoa baino ez zuela sari izango, ezin zezakeela besterik izan. Nire hitzei beste hitz batzuk gaineratuko lizkieke amak, arrapaladan jaurtiak, eta nireak itoko lituzke. Zaratak arrazoia itoko luke. Hala izan ohi da, eta ez bakarrik nirekin. Sixtorekin ere berdin jokatzen du.

Hura arrazoiak ematen saiatzen da, baina amak oihuak itzultzen dizkio, negar-zotinak, mehatxuak. Kikildu egiten da gizona, eta berandu baino lehen amore ematen du. Nahikoa da, dio, esan gabe. Nahikoa da, mesedez eta faborez. Etsigarria, lanean marrazo politiko eta finantzarioekin eguneroko borrokan ohitutako gizon handia nola uzkurtzen den ikustea. Zer egin behar du gizajoak, hitzezko zirimola horrek harrapatuta?

Harengandik ikasi, aholkatzen dit Marik. Hik ederki hitz egiten dun, baina gutxitan. Gutxiegitan, aukeran. Txarra dun hori. Minak eta saminak kanporatu behar ditun minbizi bihurtu baino lehen.

Inork ez du nitaz juzguak egiteko eskubiderik, ordea. Ez du, batzuetan ero arriskutsu bat banintz bezala begiratzen didan amak. Ez du, begiratu ere egiten ez didan Biterik, eta are gutxiago, erratza baten kirtena baino zuzenago ibiltzen den haren lagun aberats harroak. Ezta Marik berak ere, hobekien ezagutzen nauena izan arren.

Bitxia da Sixto izatea nitaz juzgurik egiten ez duen bakarra. Entzuten du, irribarre egiten du, eta dena onartzen du xalo-xalo. Spinoza bat, amaren senarra, Lao Tse bat. Baretasun inbidiagarri baten jabea, zaila

da etxe giroko jarduna ez den beste edozertan irudikatzea. Badihardu, ari da, ordea, amaren sasibeharrak betetzeko, haren apeta garestiak asetzeko. Goizero irteten da mundura diru bila, baina gu ez bezala (Mari eta bioz ari naiz) hark bere buruarentzat egiten du lan, ez beste batentzat. Horrek emango dio patxada, agian. Horrek lodituko zion azala. Edo bihotzean duen arazoak, bestela. Edozein istilu, edozein tirabira mota saihesteko premia hil edo bizikoak. Ederki gaztigatu zuen kardiologoak.

Maite nau gizonak. Ezagun du. Hitzik gabe ere. Nik ere maite dut nolabait. Amarekin ez bezala, eroso egoten naiz harekin. Gela berean egon gaitezke biok elkarri traba egin gabe. Bada zerbait etxe hartan. Barkatu egin behar diozu amari, esan ohi dit, zure hobe beharrez egiten du guztia. Nire hobe beharrez, bada marka. Hobe nitaz ahaztuko balitz bolada batean, behintzat. Eta orduan Sixtok: Pertsona ona da. Sutsua, baina ona. Eta nik: Inoiz erretzekotan, beste edozein su nahiago. Isildu egiten da Sixto. Badaki ez duela harago segitu behar. Nire aukera baino ez da, ni baino ez naiz gai zer nahi dudan erabakitzeko. Isilunearen ondoren irribarrea etortzen da, izan dadila zuk nahi bezala adierazten didana.

Irribarre guztiak ez dira halakoak, zoritxarrez. Badira, eta ez gutxi, maltzurrak, mina eragiteko xedea dutenak. Asperen gehientsuak, esaterako. Ergel deitzeko modu mutu bat. Bezeroak ohartu gabe, Aspek gu iraintzeko duen beste bat. Edo Esfingearena, barra bukatzen den zokoan egoten den eta ni naizen gazte alprojari han sobera dagoela, traba baino ez duela egiten gogorarazten diona. Baita nire lagunena ere, iseka egiten didatenena, burges txiki mokofinen Iturrira hurbiltzeagatik.

Aspe, Esfingea, nire *adixkideak*: egos dadila bakoitza bere saltsan. Benetan axola didan bakarra Biteriren irribarrea da, baina hark ez dit inoiz egiten. Ez maltzurrik, ez bestelakorik ere. Tabernan sartzen direnak agurtzen ditu:

Egun on (edo arratsalde on), zer moduz, nahi al duzu...

Edonor agurtzen du, ni izan ezik. Niretzat lanpetuta ibiltzen da beti. Barraren mutur batetik bestera joango da, sukaldean sartuko da, edalontziak garbitzeko makurtuko du burua, edozer egingo du ni aintzat ez hartzeko. Ikaratu egiten dudala dirudi, ihes egiten didala argi baitago. Zer dela medio? Arrastorik ez. Katea

osatzen ahalegintzen naiz, arrakastarik gabe. Eta, hala ere, berdin jarraitzen dut, ez naiz nekatzen.

Arrazoia ote dute nire lepotik barre egiten dutenek? Baietz esango nuke, dena arrazoitzeko nahiak eromenera naramala. Nola azaldu bestela nire zoritxarreko tema?

Auskalo. Biterik barra atzean egiten duen bezala, nik ere burua makurtzen dut kutxaren atzean hiperrean. Ez dut inor agurtu nahi. Ez dut inorekin hitz egin nahi. Eskanerraren ti-ti-ti horretan galdu nahi dut, eta kito. Bakea behar dut.

10

Bake garaian bizi gaituk nonbait, elkar ulertzeko, elkarrekin bizitzeko, lehengo kontu zatarrak ahazteko garaian, tolerantziarenean, doinu polita duk, bai, bakea nahi diagu guztiok, nola ez, guztiok nahi diagu ondo bizi, ederra lukek, posible balitz, ez duk ordea, batzuk ondo bizitzeko beste batzuek gaizki bizi behar ditek, Gloriak ere onartu zidak behin edo behin, baina berak edozer egingo likek berdin jarraitzeko, orain arte bezala, berea dena berea da eta, gurasoek, aitona-amonek, arbasoek utzitakoa, familiarena, belaunaldi askoren emaitza, eta, galdetuz gero, antzeko zerbait esango liketek edonongo jabe eta nagusiek, horregatik su eta gar defendatuko liketek, Bitorixan duela berrogei urte egin zuten bezala, egin zezaketen guztia egin zitean, eskura zeukatena erabili, gezurrak, borrak, ke-potoak, balak, guk, aldiz, eskuak baino ezin, harriak eta molotov koktel kaskar batzuk, gure esku zarpail zikinak, ezer gutxi estatuaren armategiaren aldean, bost hildako eta ehunka jipoitu eta zaurituren ondoren, borroka luze gogor baten ondoren, esku-hutsik geundean, ez bakarrik Bitorixan, Euskal

Herriko beste zokoetan ere berdintsu, gainera, genuen apurtxoa orduan sortzen ari ziren sindikatuek kendu nahi zigutean, borrokaren etekinak nahi zitiztean, bakoitzak bere antolamendua finkatu nahi zian, ahalik eta bulego gehien zabaldu, ahalik eta langile gehien bildu, haien lepotik burokrata pilo bat bizitzeko, bakoitzak bere zatitxoa nahi zian, ustez zegokiona, eta, lortuz gero, saritu zituen estatuaren defendatzailerik sutsuenak bihurtzen zituan, miragarria zuan, goizetik gauera aldatzen zuan jendea, memoria erauzi izan baliete bezala, entenditzeko modukoa, beraz, langile mugimenduaren lorpenik handiena, batasuna, azkar haustea, langileen batzar orokorrak antigoaleko kontuak zituan, langileak defenditzeko sindikatuak zeudean, Europan bezala, edozein herri demokratikotan bezala, langileak trankil egon zitezkean, aberastasuna banatzeko aberastasuna sortu beharra zegoan, eta horixe baino ez zitean egiten ugazabek, borrokatu ordez, zaindu beharra zegoan, gure hobe beharrez, nazkagarria, botaka hasteko modukoa, estatuak, nagusiek ia ez zitean poliziaren beharrik, elkarren polizia bihurtzen ari ginen-eta, mugimendua kinka larrian zegoan eta, beti bezala, hi izan hortaz jabetu zen lehena, pentsatu beharra zegoan, horretan ematen hituen

egunak, hilabete batzuk lehenagotik zetorren autodefentsaren gaineko eztabaida bizitu egin zuan, Bitorixan eta beste hainbat tokitan ere bai, mugimenduak bere burua defendatu behar zian, eta, horretarako, antolamendu armatu baten premia zegoan, hi iritzi horretakoa hintzen, neu ere bai, horretan bat gentozaan denok, antolamendu moduan ez ordea, beste ETA bat behar al dugu, galdetzen zitean batzuek, ez, guk beste mota bateko ekintzak egin behar genitizkek, beste modu batean antolatu, erantzuten zitzaiean, ez haiek bezala goitik behera, modu autonomoan baizik, talde ezberdinen koordinakundea izango lukek, halako zerbait, talde sare osoak isilpekoa behar zian, preso hartuko, torturatuko edo hilko gintizketean, partidu gehienen eta haien peko sindikatuen oniritziarekin, gainera, eskuinekoak eta ezkerrekoak elkartu eta gure atzetik hasiko zituan, terroristen atzetik, horixe baino ez ginelako haientzat izango, terrorista zikin batzuk baino ez, probokatzaile batzuk, ia faxistak, ETAri esaten zizkiotenak errepikatuko zizkigutean, hori dena bagenekian, asmatu ezin genuena, aldiz, zera zuan, halakoak botako zizkigutenetako batzuk lagunak izango zirela, Manolo Lete horietako bat, neuri eta hiri minik handiena egin ziguna, apaiz gazte

erreboltaria lehendabizi, eta Cablenorreko langileen ordezkari zintzoa gero, gugandik urrundu eta Euskal Iraultzarako Alderdia omen zenaren kide bihurtu zuan, legala izan ahal izateko, Euskadiko independentziari eta iraultza sozialistari uko egin berri zion haren kide, ezin apaizez fio, esan huen, baita EIA hura partidu estalinista zela ere, hire azalpenek ez zidatean lagundu, hik baino askoz lehenagotik, herriko Gazte-Lekuaren garaitik ezagutzen nuelako akaso, sekulako mina hartu nian laga gintuenean, egia esan, ez zuan hura izan autodefentsaren gaineko eztabaidaren garaian abandonatu gintuen bakarra, aurrera egin behar zuan ordea, irabazi arte, bidean kideak galtzen bagenituen ere, galduko genituela segurua zelako, batzuk baztertu eta etxera joango zituan besterik gabe, baina egongo zituan oso bestela jokatuko zutenak ere, isildu ordez, inoiz gutarra izana aitortuko zutenak, aitortu beren damua berehala aldarrikatzeko, horiek gazte kontuak zirela, hori baino ez, ulergarria, beraz, ezaguna duk-eta gazteek, edozein gaztek, txorakeriak egiteko berezko joera dutela, denboraren poderioz sendatu daitekeen gaixotasuna bestalde, ez oso larria, eta barkagarria erabat, Manolo Lete halakoa zuan, damutua, baina ez musu-truk, damutu bere txokotxoa bilatzeko

frankismoaren jarraipen hutsa zen sasi demokrazia hartan, ederki asmatu huen berriz ere, euskal iraultza zuzendu behar omen zuen partidua, komunistekin, Espainiakoekin elkartu zen-eta, luze gabe, estalinistak bai, biak, biak txoko epel baten bila, etekinak ateratzeko garaia zuan eta kito, ereindakoa jasotzeko sasoia, horretan ari zituan, norgehiagoka, horretarako banderez eta ideiez aldatu beharra bazegoen ere, berdin zian, demokraziak eskuzabaltasuna derrigortzen zian, adostasuna, tolerantzia, bat etortzea, klase ezberdinen arteko akordioa, hain justu, betikoa, burgesiarekin egin zitekeen bakarra, zuek azpian eta gu gainean, zuek morroi eta gu nagusi, gurekin jai zitean ordea, trikimailu txepel horiek primeran ezagutzen genitian, ziri hori ez zigutean sartuko, guri ez, erregimenak bahitutako hitzak askatzeko momentua zuan, askatasuna askatu beharra zegoan, demokrazia demokratizatu beharra, horretan ari gintuan, denbora pasatu ahala ordea, gure egitekoa uste baino zailagoa zela konturatu gintuan, itxuraz gurekin bat zetozen gehientsuek, hainbat aitzakia ipinita, ezetz erantzun ziotean gure eskaintzari, azkenean hiru geratu gintuan, Trosko gaztetxoa, hi eta hirurok, hala osatu zuan gure taldetxoa, hala sartu gintuan galdu baino ezin

genuen gerran, armak, ahalik eta onenak, nola edo hala inguratzea zuan guretzat premiazkoena, udaltzain edo militarren bati lapurtu ahal genizkioan, merkatu beltzean erosi ahal genizkian, besterik ez zitzaiguan bururatzen, aukera biak arriskutsuak, ezer ez egitea bezain arriskutsua, horretan ados gintuan hirurok, Trosko eta biontzat, aldiz, zirt edo zart egin beharra zegoan, hiretzat ez bezala, gauzak ondo egin behar ditiagu, esaten huen, gureak egin dik bestela, eta hire alde egin genian, batez ere, pistolarik ezean, guk egindako lehergailuak erabiliko genituela aditu eta gero, guk ez zakiagu hori egiten, ikasiko diagu erantzun higun, eta harro erakutsi higun, bonbak egiteko gidaliburu bat, marrazkiz betea eta gaizki inprimatua, frantsesez idatzia, anarkista batzuek-edo, bertan ageri ziren sinpleenak aukeratu eta horiexek egiten saiatu gintuan, gehienen osagaiak oso arruntak zituan, eskuratzeko errazak, hala, hik edo Troskok itzulitako azalpenei jarraituz, molotov handiak izatera ozta heltzen ziren lehergailuetatik askoz bihurriagoak zirenetara pasatu gintuan, metxa motz eta luzeetatik ordulari baten bitartez eztanda egiten zutenetara, harkaitz baten edo zuhaitz batzuen atzean babestuta, tramankulu erraz horiek, beren txikian, zein eraginko-

rrak ziren ikusten genian miretsita, hain kaxkar, eta, aldi berean, hain suntsigarriak, prest geundean, non ipini erabakitzeko astia izan genian, lehenak izanda kontuz ibili behar genian, eta jendea zauritzeko arriskurik ez egotea, geure buruari jarri genizkion baldintzetako bat izan zuan, horrek gauez lehertu eragitera behartzen gintuan, irizpide politikoen arabera aukeratu genitian jomugak, hala ere, hiru sindikaturi egingo geniean eraso, komunisten CCOOri, sozialisten UGTri, eta txinoen SUri, hirurei gau berean, gure mezua mundu guztiak ulertzeko, zalantzarik ez egoteko, berdin zitzaigun-eta noren sindikatua zen, denen kontra geundean, langileok banatzeko tresnak zituan, batasunak aitzakiarik ez zuen garaian, sartu zuen demokrazia ipurtzulotik gora esatekoa, guk badiagu gurea, demokrazia zuzena, batzarra, inork ez gaitik ordezkatzen ahal, guk hitz egiten diagu, guk aukeratzen diagu, gure esku zagok dena, Trosko eta hi makal samarrak zinetelako edozein eskulanetarako, nik lapurtu behar izan nian lehergailuak ipintzeko erabili genuen autoa, Ford Fiesta berdexka bat, Frantzia kalean aurkitu genuena, metalezko ziri baten bitartez atea zabaldu, bolante azpian motorra martxan ipiniko zituzten kableak lotu, txinparta ikusi, motorrak orro egin, Tros-

ko eta hi korrika autora igo eta lehergailuak gordeta genituen lekura abiatu gintuan, kartoizko kutxa banatan sartu genitian han, eta haietako bakoitzean, alde guztietan, barruan zer zegoen eta zein arriskutsua zen letra potoloetan idatzi genian, badaezpada ere, ez genuen-eta inor zauritu edo hil nahi, gurea sinbolikoa zuan, salaketa bat, aldarri bat, lehergailuak guk biok ipini genitian, hirurak, Trosko autoan gure zain utzita, San Franciscon poliziaren balek eragindako zaurien ondorioz herren nabarmen samarra zeukan-eta, ordu erdi bat genian hirurak jartzeko gure kalkuluaren arabera, hortik gure presa, di-da egin beharra zegoan, astirik galdu gabe, eta halaxe egin genian, bukatutakoan, Ulibarritik gertu erre genian Fiesta berdexka hura, lotara joan gintuan gero, esnatutakoan izango genian hik idatzitako agiria egunkarietara bidaltzeko astirik, eta bidali izan ez bagenu ere, antzera, guk ezer bidali baino lehenago bazekitelako zeinek ipini zituen bonbak, ETAk, noski, zeinek bestela, eta idatzita zitiztean haren kontrako editorial eta zutabeak, nahiz eta pentsaeraz oso ezberdinak izan, ETAkoak miresten genitian, ekintzaile ausartak iruditzen zitzaizkiguan, eredugarriak, bizitza bera ere emateko gauza, baina nekatzen hasita geundean, edozein ekintza haiei lepora-

tzen zietean besterik gabe, bost axola beste batek egin eta aldarrikatu bazuen ere, aldez aurretik erabakita zegoan, terroristak, benetakoak, haiek zituan, gainerakook terrorista izatera ere ez gintuan ailegatzen, beste zer edo zer gintuan, ero batzuk, amorragarria, ez Troskorentzat ordea, askoz hobeto guretzat, esaten zian, aintzat hartzen ez bagaituzte, bakea emango zigutek, guk gureari eta hor konpon gainerakoa, gure borroka hasi-hasieran zegoan, eta ikusi behar zer idatziko zuten handik hilabete batzuetara, bonbaren bat haien ipurdi epelen azpian kokatuz gero, eta hori generabilean buruan, zaplazteko galanta jo behar geniean, seko beldurtuko zituena, zerbait berezia, baina bururatzen zitzaiguna bertan behera laga behar genian, guretzat zailegia zelakoan, korapilatsuegia, ezinezkoa hitz batean, hiru lagun baino ez gintuan, hiru lagun egoskor hala ere, amore emateari behin eta berriz uko egiten genionak, eutsi egin behar historiaren haizea aldatu arte, aldekoa izan arte, erresistentzia gintuan, iraultzaren garra gorde eta babestu behar genuenok, hortaz, gure ametsetako ekintzak egin ahal izan baino lehenago, beste apalago batzuk egingo genitian, eta horixe erabaki ondoren berandu samar etxeratu nintzen batean, *El Correo Español*-en bi ka-

mioi txiki ikusi nitian elkarren ondoan, gau osoa zabalik egoten zen taberna baten aldamenean, hutsik zeudean, nik uste bezala, tabernako kristal zikinak ikusmena eragotzi arren, lau lagun ikusi nitian barruan, haien artean elkarrekin berriketan ari ziren jaka urdin ilunez jantzitako bi gizon, kamioien gidariak, erlojuari begiratu nioan, hirurak, hamar minutu geroago tabernatik irten, kamioietan sartu eta handik urruntzen ikusi nitian, erraza zuan, ekintzaren sekuentzia osoa ikusi nian, eta biharamun arte itxaron nian, hi goizeko seietan sartzen hintzelako lanera, ni, berriz, lagun batek Kutxillerian zuen taberna batean aritzen ninduan lanean orduan, susmatu ere egin gabe hura izango nuela lanbide handik aurrera, eta hara azaldu hintzen hi, askotan bezala, bazkalondoan, orduan kontatu nian, eta hik baietz, ostiral gau batean Abetxukon auto bat lapurtu eta hara agertu gintuan, zorro bat bete molotov aldean generamala, minutu baten kontua izan zuan, azkarra eta garbia, kamioiak bertan zeudean, haien gidariak kafea edaten ari zituan tabernan, gauero bezala, Trosko lapurtu berri genuen autoan geratu zuan, molotovak guk bota genitian, kamioiak egunkariez beteta zeudean, eta gidariak konturatu zirenerako ez zegoan zereginik, suak dena kis-

kali zian, eta gu urtegirantz gindoazaan, pare bat ordu lehenago lapurtutako autoari su ematera, han lagatako hire Renault zaharrean bueltatu gintuan Bitorixara, parrandaren batetik etorriko bagina bezala, pozez egunkari faxista haren aleen erreketarekin, igandean lehen orrialdeko argazki nagusian ageri zituan erretako kamioien hondarrak, historiaurreko hegazti bi ematen zitean, bi eskeleto beltz gora begira, hik Bakunin aipatu huen, suntsitzea sortzeko modu bat dela edo halako zerbait zioen esaldi famatua, eta gu, Trosko eta biok, harekin bat etorri gintuan, arterik gorena irizten genion-eta, egunkari faxista bati kalte egiteaz gain, hain eskultura arin hegalaria sortzeko gauza zen ekintza bati, nahi zuen guztia esan zezala ipurdia garbitzeko ere balio ez zuen Neguriko burgesiaren paper zikinak, terrorismoa deitu nahi ziola, ederki, ohorea zuan guretzat, haiengandik etorrita bai, terrorista haiengandik etorrita bai, horixe baino ez zirelako guretzat, Francoren terrorismoa bizitza osoan goraipatu eta gero, horretan jarraitzen zutenak, haren ondorengo zuzenena aupatuz, burgesia hiltzailearen interesen defendatzaile sutsuak editorial nazkagarrietan, gezurrezko albisteetan, xelebrea zuan, patrika betetzearren edozein krimen egiteko gauza zirenen bozeramai-

le fidelek guri esatea terrorista, xelebrea eta harrotzeko modukoa ere bai, aintzat hartzen gintiztean, nahiz gu ezer gutxi izan, hiru lagun ia esku-hutsik, putzaren hurrena, ordura arte bai, ondoren beste zerbait bihurtu gintuan, bai, bi kamioi haiek erretakoan, ez zitzaiean gustatu, hitz askatasunari egindako erasoa izan zuan gurea, demokraziaren zutabe nagusienetako bati, onartezina, beraz, zuzenbide estatuari egindako bidegabekeria, ahaztu gabe bi langile eta beren familiak miseria gorrian geratuko zirela, hain justu langileen eskubideen defentsan ari omen ziren haien erruz, erasoa berenganatzeko bidali zuten agiria Zaramagan hildako langile baten izenaz sinatu zuen komandoa, autonomoak, kapitalismoaren kontrakoak, Pedro Martinez Ocio komandoa, sindikatuen kontrako ekintzak gureganatzeko agirian Maiatzak 1 komandoa izan ginen moduan, hik asmatutako amarrua zuan izen aldatzearena, azaldu higunean besteok bikaintzat hartu genuena, etsaia nahastu nahi huen hala, ginenak baino gehiago ginela sinestarazi, gure arrasto aurkitzea zaildu, txibiaren taktika, tinta bota eta belztura ospa egiteko aprobetxatu, hala azaldu higun, hain hintzen burutsua, seguru sentitu gintuan, idatzi zezatela nahi zuten guztia, egin zezatela nahi beste mehatxu,

guri bost, borrokari segituko genioan berdin-berdin, adi, erne ibiliko gintuan etsaiaren ahuleziak aurkitzeko, gure neurriko helburuak erraz jo, eta jo ostean erraz alde egitekoak, horretan geundean, lanean, kalean, edonon agertu ahal zuan *El Correo Español*-en kamioiren bat, edo banku baten bulegoa, gure asmoetarako egokia, hik hain gustukoak hituen itsas metafora horietako bat erabiliz, boterea hamaika garrotako olagarroa izaki, hortaz, kontua zera duk, erraz jo, erraz moztu daitekeen horietako bat aurkitzea, bitartean sindikatuak genitian, gero eta gehiago zirenak, bide batez esanda, hala aste gutxi batzuetan, ELAren bulegoari egin genioan eraso, baita USOrenari ere, eta Arabako nagusien SEAri ere egingo genioan, beste norbait aurreratu izan ez balitzaigu, zer pentsatu eman ziguan horrek, halakorik ezin zuan errepikatu, arriskutsua zuan guztiontzat, talde autonomoak gintuan, baina ondo koordinatuta behar genian, premiazkoa zuan, edozein egunetan nahigabe tamalgarriren bat gertatuko zuan bestela, denak ados, horixe esan higun, koordinakundearen bileratik bueltatu hintzenean, denok ikusten zitean guk ikusten genuen arriskua, SEArena ezin zuan, ez zuan errepikatuko, errepikatu zuan ordea, handik gutxira gainera, koordinakun-

dearen bileran, bada, hasi berri zegoen Bai Euskarari kanpainari laguntzea erabaki zuan, talde bakoitzak ahal moduan, baina denak batera gure hizkuntzaren zapalketaren kontra, hori zela-eta, gu ere zer egin genezakeen hasi gintuan hausnartzen, zapalkuntza sinbolizatuko zuen zerbait topatzen, ikastolen aldeko zer edo zer egitea pentsatu genian hasieran, baina batez ere dirua behar zutela entenditu genian laster, dirua, ordea, bankuetan zegoan eta haren bila joateko armak behar zituan, beste ideia bat behar genian, dirurik eta pistolarik gabekoa, Troskori inoiz bururatu zitzaiona: Delegazioa, Ministerio de Educación y Ciencia, bonbatxo bat, primerakoa, handik pasatu gintuan hirurok, banan-banan, ekintza nola egin zitekeen ikustera, begirasun batean lan erraza iruditu zitzaiguan, eta garbia, heldu, paketea laga eta alde egin, halako zerbait pentsaezina lukek gaur egun, baina garai hartan egin zitekean, ez zegoen-eta kamerarik inon, igande bat aukeratu genian ekintzarako, maiatzaren bukaeran, Santiago kalean bertan, gustukoen nituen Ford Fiesta urdin ilun haietako bat hik ikusi, niri erakutsi, eta behingoan geundean auto barruan, goazemak paketearen bila, ordu laurden bat geroago, autoaren atzealdean genian paketea, orain bai, Adela Ibabe ko-

mandoa bere helbururantz zihoan, hala bataiatu genuelako gau epel hartako ekintzarako, Troskok eta biok ez genian ezagutzen, baina haren tragedia kontatu higun, eta hala ailegatu gaituk delegazioaren inguruetara, berandu zuan, Bitorixako kaleak hutsik zeudean, itxura batean, denak aurreikusi bezala joan behar zian, hortaz, hik eta biok atzealdeko paketea jaso, kontu handiz ipini behar genuen tokiraino eraman eta, hura lagatzekotan gaudela, han, laga behar genuen tokian bertan, beste pakete bat dagoela konturatu gaituk, gure paketearen antzekoa den beste bat, gureak gainean idatzita duen oharraren antzekoa ere baduena, kartoizko kutxa horren barruan dagoenaren arriskuaz ohartu eragiten diguna, elkarri begiratu biok eta bagenekian zer egin, handik berriz eramatearen arriskua nabarmena zuan, oso, gurea bertan lagatzeak, bestearen aldamenean, zentzuzkoena zirudien, horixe erabaki genian, bi lehergailuk bakar batek baino kalte gogorragoa eragingo ditek, Troskok ezin zian guk kontatutakoa sinistu, haren begiek erotzat hartzen gintian, hasieran gu biok eta, hasierako amorrua hiri pixka bat pasatutakoan, hirurok, zertarako balio du ezer koordinatzen ez duen koordinakundeak, galdezka ari gintuan, akats hark kolokan lagatzen zian

gure ordura arteko antolamendu osoa, barregarriak gintuan, ordu batzuk lehenago lapurtutako Ford Fiesta nola hasten zen erretzen begira geundela, dudak generabiltzaan egiten ari ginenaz, beharbada gure burua zuritzeko baino balio ez zuen zerbaitean ari gintuan, beharbada itxura hutsa zuan dena, gure buruari kontatzen genion ipuintxo miragarri bat besterik ez, susmo haiek, denboraren poderioz desagertu ordez, handitu egin zitzaizkiguan ondorengo egunetan, koordinakundeak bere akatsa onartu eta ez zela errepikatuko ziurtatu zigun arren, ez zegoan atzera egiterik, igande hartako zaputzak mugarri bat ipini zian gure taldearen ibilbidean, handik aurrera ezberdina izango zuan dena, ezberdina izan behar zian, komando bat baginen, komando oso bat izan behar genian, behar bezalakoa, behar bezalako helburu eta bitartekoekin, behar bezalako armekin, hobe genian lagatzea bestela, gertakizun xelebre hark ispilu baten aurrean ipini gintian, eta itsusia zuan ikusi genuena, komikoak gintuan, edonor errukituko zuan gutaz, baina errukia ez zuan guk bilatzen genuena, guk etsai burgesa izutu nahi genian, nola izutu inor esku-hutsik, ordea, berriz ere armen kontura itzuli gintuan ezinbestean, armarik gabe pailazokeriatan ari gintuan, ados hirurok, alfer-

alferrik, koordinakundetik pistola batzuk helduko zirela laster esan zigutean, ETA laga eta elkartu berri zitzaizkigun *bereziek* ekarriak, ez zuan lehen aldia, lehenago ere esana zigutean, hortik gure mesfidantza, pazientziarik ez genian, ezta pistolaren bat non lortu ahal genuen ideiarik ere, pistola bat, bakarra, hura eskuan erraz samar lortuko genitian beste batzuk, armak inguratu, baita armak erosteko dirua ere, estutzen gintuen korapilo horretatik nola askatu hausnarrean geundela, bere auzoko polizia aipatu zian Troskok, gurasoen etxean bizi zena, beren azpiko etxebizitzan bakarrik bizi zuan Nafarroako Murchanten jaiotako polizia bat, tratabide oneko gizona, alaia, jubilatzeko hilabete gutxi batzuk faltan zituena, eta, inportanteena, asteburu asko bere jaioterrian ematen zuena, hik argi ikusi huen orduan, herrira joaten denetan, etxean utziko dik pistola, esan huen, Troskok baietz, seguru asko hala izango zela, hor abiatu zuan gure hurrengo ekintza, Troskoren amak poliziaren etxeko giltzak zitian, poliziak berak, badaezpada eta konfiantza osoz lagata, haren etxean sartu ginen larunbat sargorian hiria hutsik ageri zuan, oporretan ez zeuden bitorixatarrak, nonbait, Gamarrara edo urtegietara ihes eginak zituan, esandako orduan Troskok zabaldu zi-

guan beheko atea eta poliziaren etxeko giltzak eman, hi eta biok sartu gintuan, bera kanpoan, eskaileretan zaindari utzita, inor ez zen-eta harrituko han ikusiz gero, bere etxean zegoan azken batean, harritu gintian poliziaren txukuntasunak, bakarrik bizi zen gizonezko bat izan arren, dena ordenatuta eta garbi-garbia zegoan, harraskan plater edo baso zikinik ez, ohea ondo eginda eta komuna distiratsu, seguru asko txukuntasun eta ordena bikain harengatik aurkitu genian laster bilatzen genuena, logelako armairuko kaxoi batean, balez betetako kutxa marroixka baten aldamenean, biak hartu genitian, beste kaxoi batean aurkitu genituen bost mila pezeta ere eraman genitian, baita beste hainbat gauza ere, ez behar edo nahi genituelako, ez, gure ekintzari lapurreta arrunt baten itxura ematearren egin genian, eta arrazoi berberagatik txikitu genian sarraila alde egitean, pistola nik hartu nian, uste baino astunagoa iruditu zitzaidaan, balarik gabe zegoan, eta gerrian sartu nian, telebistan ikusita nuen bezala, atsegina zuan burdinaren hotza nire larru izerdituaren kontra, aipatu nian eta hik barre egin huen, hura ere laster bero-bero egongo zela esanez, biharamunean bertan hasi gintuan berotzen, mendian, Oto Goien aldean, pistola bat eskuetan ge-

nuen lehen aldia zuan, inongo tirorik egin baino lehen, hura nola erabili ikasi behar genian, atzera eta aurrera aritu gintuan, atal bakoitzaren zeregina asmatu nahian, mugitu ahal zena mugitu genian, garbitu ahal zena garbitu, Troskoren auzoaren etxean hartutako gauzak lagun, eta hik zuzenduta, hi hintzen-eta soldaduska egina zuen bakarra, hankak zabaldu behar dituk eta arnasa egin atzamarra mugitu aurretik, kontuz atzerakoarekin esaka aritu hintzaigun tiro egiteko momentua iritsi zen arte, bala gutxi genian, behar baino gutxiago, tiro bana egingo genian, gehiago ezin, ekarritako ardo botilaren hondarra hiruron artean banatu, edan, eta jomuga ipini genian, harri zapal baten gainean, hasi gaituk, ba, tiraka, eta hik egin duk aurrena, hankak zabaldu dituk, oinak lurrean ondo finkatu, arnasa hartu duk, jarri dituk begi biak botilan, eta, huts egin duk, huts egin dik gure irakasleak, barre egin diagu, ez dik axola, ez diagu inori tiro egiteko asmorik, pistola mehatxu egiteko erabiliko diagu, jendeak pixka bat beldurtzeko, guk nahi duguna lortzeko, hortaz, txanda ailegatu zitzaidanean, nik ere hankak zabaldu, oinak lurrean ondo finkatu, eta sakon hartu diat arnasa, tiro egin baino lehen, balak bete-betean jo dik botila eta makina bat puskatan txikitu, txalo

egin didazue, asmatu izana txundigarria iruditzen zaidala, txundigarria eta sinesten zaila, baina orduan gertatu duk harrigarriena, Troskok pistola hartu, hik irakatsitakoa errepikatu, tiro egin eta lurrera bota dik botilaren partez ipinitako kazola metalezkoa, kazola hartu dugunean, bi zulo dituela ikusi diagu, balak zeharkatu dik, berriz ere txaloak, berriz ere txantxak, berriz ere poza, hirutan bik asmatu, handia duk gero, ospatzeko modukoa, orain bai, orain benetako komando bat gaituk, langile mugimenduaren tresna eraginkorra, orain edozerekin egin zezakeagu amets, gure artean hainbat aldiz zehaztu dugun helburu posibleen zerrendari ekin ahal zioagu, eta pistola, hoztu ondoren, garbitu genian, gure autoa zegoen lekurantz mendian behera gindoazela, hasi gintuan benetan jabetzen zer zen handik aurrera espero ziguna, ordura arteko ekintzek nekez izango zitean zerikusirik aurrerantzean egingo genituenekin, beste aldi batean sartzen ari gintuan, gure hordagoa jota zegoan, ez zegoan atzera egiterik, ez zegoan damutzerik, Bitorixako Aurrezki Kutxak Siervas de Jesus kalean zuen bulego bat genian gure zerrendan aurrena, ekintza erraza, hiru lagunek egiten zitean lan han, eta kutxa gotorra zuzendariaren bulegoan zegoan, zurezko ate batek

babestua, bulegoa goizeko zortzi eta erdietan zabaltzen zitean eta, hainbat egun zaindu eta gero, hura zela sartzeko momenturik aproposena ikusi genian, nor sartu ordea, pistola bakarra genuenez eta Troskoren herrena nabarmena zenez, gu biok sartu eta hura, beti bezala, autoan geratuko zela erabaki genian azkenean, jostailu-denda batean itxura oneko pistola gezurrezko bat erostea eta hik hura eramatea ere adostu genian, nik modu nabarmenean erakutsiko niean nirea, benetakoa, eta hi, berriz, atzerago geratuko hintzen, ni babesten bezala, minutu gutxi batzuen kontua izango zuan, ez zegoan arrisku handirik, eta aurreikusita genuen bezala joan zuan dena hasieratik, uda bukaerako egun hartan, ile-orde bana buruan eta antiojo beltzak jantzita sartu gaituk, oihuka, eskuak igotzeko eta lurrean etzateko aginduz, eta hala jokatu ditek, horixe egin ditek segituan, guri begiratzera ere ausartzen ez direla, beldurtuena bulegoko zuzendaria bera, kutxa gotorra zabaldu ziguk eta horretatik guk ekarritako zorrora aldatu diagu dirua, karnetak eskatu zizkieagu gero, guk agindutakoa bete ezean, haien bila joango garela esatearekin batera, guk alde egin eta ordu laurden bat itxaron beharko dutela ere esan zieagu, ezin jakin emandako hitza bete ote zuten, handik

irten, zain genuen autoan sartu eta alde egin genuelako, baina baietz esango nikek, kaka praketan eginda zeudean, gu, aldiz, praketan ezin kabituta, bost minutuko kontua izan zuan, erraza, garbia, bagenian harrotzeko motiborik, batez ere berrehun mila pezetaren jabeak ginela ikusitakoan, berrehun mila pezeta, dirutza garai hartan, bi zati egitea pentsatu genian, bata presoak eta haien familiak laguntzeko erabiliko genian eta bestea greban zeuden hainbat langileri laguntzeko, mahai gainean barreiatutako diruari isilik begira hirurok, lana txukun egin izanak eragindako poza zuan gurea, Ezpeleta zaharraz akordatu ninduan, urte batzuk lehenago, herrian, lankide izan nuen gizon maitagarri jakintsuaz, eta entenditu egin nian behin baino gehiagotan azaltzen saiatu zitzaidana, lana txukun egin izanaren harrotasuna, orduan txantxa hutsa iruditu zitzaidana, erabat zentzuzkoa zuan bat-batean niretzat, baita zuek bientzat ere, neu bezalaxe zeundeten-eta, diru pila hari irribarretsu begira, sekulakoak gaituk, onenak, gora gu ta gutarrak, gora Errusia, ospatu beharra zegoan, higan zuhurtzia euforiari nagusitu arte, ezetz, betiko bizimodua egiten jarraitu behar genuela, ezer gertatu izan ez balitz bezala, dirua lehenbailehen banatu eta kito, beste zer edo zertan ja-

rriko genikek gogoa, beste ekintza batean, eta horixe egin genian Troskok eta biok, lanera joan, iluntze batzuetan lagunekin Kutxin elkartu, betikoa, kaletik gindoazela, ordea, pausajea moteltzen genian banku edo aurrezki-kutxa baten paretik pasatzean, arretaz begiratzen geniean, kokapenari, ihes egiteko aukerei eta beste hainbat konturi ere erreparatuz, alarma bat agerian lagako zuen kableren baten bila aritzen ginen, kanpotik ikusi ahal zenari begiratzen genioan, ez zagok kontu txikirik, hala esaten huen hik, dena hartu behar zuan aintzat, den-dena, edozer izan zitekean inportantea, denak behar zian behar bezala josi, huts bakar bat nahikoa izan zitekean, hilkorra, harrokeriarik ez, gero, horregatik pistola behin eta berriz garbitzen eta olioztatzen genian, eta arrazoi berberagatik saiatzen gintuan auto on samarrak lapurtzen ekintzetarako, halakoa hintzen izatez, gauza horiek zaintzen hituen, hitzak zaintzen hituen moduan ekintzak gureganatzeko agiriak idaztean, aurrezki-kutxarena sinatzeko Durruti komandoa aukeratu genian, anarkistaren omenez, hura ere bankuak lapurtzen ibili zen-eta, tradizio horren jarraitzaileak ginela emango genian aditzera hala, haren borroka eta gurea, tarteak tarte, borroka bera zela, Durrutik eta bere lagunek sindikatu

bati laguntzeko lapurtzen zutelako, eta gu, berriz, sindikatuen kontra eta gure klase osoaren batasunaren alde ari gintuan, etsaiak batzen gintian, ordea, anarkista haiek eta geu kapitalismo ahalguztidunaren kontra ari gintuan, betiko jauntxoen eta haien txakur leialen kontra, ez jainkorik, ez jaberik, lelo ederra, ederrik egotekotan, haiena baina gurea ere bazena, haiek bezala, guk ere ez genian inoren menpeko izan nahi, libre bizi nahi genian herri libre batean, guk bankuak lapurtzen segitu genian, lehenbizikotik pare bat hilabetera egin genian bigarrena, Bitorixan bertan berriz ere, baina auzoz eta kutxaz aldatuta, Judizmendi auzoko Arabako kutxaren bulegoan, hura ere erraza izan zuan, aurreko lanean baino gutxiago bildu genian, berrogeita hamar mila pezeta gutxiago, zehatz esate aldera, dirutza, hala ere, guretzat, baita hura jaso zuten langileentzat ere, seguru asko, grebak urriagoak zituan ordurako, baina egon artean bazeudean, eta gogorrak, Michelingoa halakoa zuan, nagusiek beren arma guztiak zerabiltzatean, legalak eta ilegalak, langileek ahal zutena egiten zuten bitartean, milaka pezeta batzuek lagunduko zitean, baina zerbait gehiago beharko, haiek eta guk ere haiekin batera eskirolen kontra jotzea, esaterako, edota enpresaren zuzendari-

tzakoen kontra jotzea, bi aukera horiek ikusi genitian, beldurtu behar genitian, haiek egiten zuten bezala, eskirolen autoak erretzen hasi gintuan, kristaletako bat apurtu, auto barrura molotov bat bota eta alde, dida, bospasei kiskali genitian hala, enpresaren zuzendaritzakoak eta poliziak langileek beraiek egindakoa zela uste bazuten, zuzendaritzakoak jipoitzea ezinezkoa zuan ordea, ondo babestuta egoten zituan, horiekin gerra psikologikoa generabilean, gauez hots egiten geniean, kaleko telefono kabinetatik beti, eta mehatxu egiten geniean, langileek eskatutakoa onartzen ez bazuten, zer gertatu ahal zitzaien azaltzen geniean, zuk ikusi zer komeni zaizun, zuri eta zure familiari, hori bota eta segituan moztu, mehatxatuari erantzuteko aukerarik gabe lagaz, pentsatu egin behar zitean, ez berriketan jardun, baina gure mehatxuek ez zitiztean kikiltzen, aldiz, gero eta ausartago ari zituan langileen kontra, guk ere halaxe behar genian, beraz, eta haietako bat bahitzea bururatu zitzaiguan, non bizi ziren jakin eta segitzen hasi gintuan, egun gutxi batzuk nahikoa izan zituan alferrik ari ginela konturatzeko, halako ekintza batek bitarteko asko derrigortzen zian, guk izan ez eta lortu ere ametsetan lortu ezin genituenak, gordelekuak behar zituan, autoak,

guk ez genuen azpiegitura bat, azken finean, ordura arteko lana baliagarria gertatu zitzaiguan, hala ere, zuzendari horietako bat Armentiatik hurbil bizi zuan, txalet batean, gauez bonba bat ipiniko genioan etxeari, ez etxea txikitzeko nahikoa, baina bai bertan bizi zirenak izutzeko bestekoa, eta horixe egingo genian, beti bezala jokatuko genian, gauean lehergailua ipini behar genuen baino hiru ordu lehenago bilduko gintuan, lehergailua osatu eta jartzera joango gintuan, hainbat aldiz egina genuena, errutina zuan kasik, baina dena okertu zuan, osagaiak Troskoren kontu geratu zituan, hark eraman behar zitian biltzeko lekura, eta hara azaldu behar genian guk biok ere, Bitorixan lapurtutako autoarekin, horixe egin diagu, joan gaituk eta Ford Fiesta bat ekarri zioagu Troskori, hark eskatu bezala, baina autotik jaitsi eta aurkitu dugunak seko ikaratu gaitik, belarrik gabeko gune bat, errautsezkoa, ertz beltzak dituena, eta hor gorpuzki odoltsuak ageri dituk han-hemenka, soin-atalak, hanka baten zatiak, esku batenak, Troskorenak denak, segituan konturatu garenez, dardarka gaudek, botaka hasteko puntuan, negarrez, parean dugun ikuskizun higuingarriak erasanda, ez zakiagu zer egin, baina bazakiagu zer edo zer egin behar dugula, lehenbailehen gainera, ekin-

tzarako ekarri dugun linternari esker garbitu ahal izan diagu hura zertxobait, salatu ahal gaituen edozein arrasto desagerrarazten saiatu gaituk, horretan aritu gaituk buru-belarri, ahal moduan negarrari eutsiz, bukatu dugunean, Bitorixara bueltatu gaituk, ordu batzuk lehenago lapurtu dugun lekutik gertu laga diagu Ford Fiesta, bertan ezer ahanzten ez zitzaigula ziurtatu eta gero, *Egin* egunkariari hots egin zioagu topatu dugun lehen telefono kabinatik, burkidearen, lagun maitearen hilotzetik geratzen dena non dagoen azaldu zioagu telefonoa hartu duenari, baina hor ere zerbait hautsi zuan betiko, beste aro bat hasi, mugarria, betiko moduan, heriotzak ipini zian, hark adierazi ziguan kito, bukatu duk, gureak egin dik, eta biok makurtu gintuan hitzik behar ez zuen lege horren aurrean, denbora behar genian, negar egiteko denbora, agur esateko denbora, zer gertatu zen ulertzen saiatzeko, zer joan zen gaizki, non okertu zen guztia, galdera asko, berandu ibili izan ez bagina, bizirik egongo ote zen Trosko, edo, ostera, garaiz ailegatu izan bagina, hirurok egongo ote ginen hilda, hala hobeto akaso, talde osoa desagertuko zuan, agertu bezala, bere lana bete ondoren, zeruan itzaltzen den izar baten antzera, hura bezain isilik, lan eskasa gurea ordea, boteretsuen

erasoak ez zian etenik, eta eragiten genien kaltea euli batek elefante bati eragin ahal diona baino barregarriagoa zuan, ezin gure burua engainatzen segitu, Delegazioko deskalabruak eragin zigun krisia txiki lagatzen zian hark, eta ezin etsi ere, hildako lagunari zor genioan, guk borrokatu bitartean, Troskok bizirik iraungo zian, gure ekintza bakoitzak haren bizitza luzatuko zian, horretan geundean, ezer gutxirako balioko zuten ekintzak, noski, Troskori gertatutakoa guri ere gertatu arte inoiz, bonba bat eskuetan lehertu edo poliziak tirokatuta erori arte, gertatuko ahal zitzaigun onena akaso, Troskorekin atzera bildu eta betiko bakea izango genian, denborarik eta beharrik gabeko eremu epel batean, eta handik begiratuko geniokean munduari, urrun hartatik, ederra mundua, planeta urdin bat, biribila, perfektua, heroina lehen aldiz hartzea bezala, handik bai, benetako munduan, Bitorixan, oso bestelakoa zuan dena, bere familiak hileta-elizkizunak egin zizkioan eliza gorroto zuen Troskori, eta San Vicente eliza beteta egon zuan, gu hara ezta hurbildu ere, zer egingo genuen guk, ezkutuko poliziez gainezka egongo zen eliza batean, Trosko omentzera inora joatekotan, lagunek antolatutako omenaldira joango gintuan, baina hara ere ez gintuan hurreratu,

omenaldi hunkigarria izan zuan, antza, haren argazki bat handitu eta ikurrina baten gainean ipini zitean, aurresku bat dantzatu ziotean, bertsoak kantatu, eta, amaieran, hik bai baina nik artean ezagutzen ez nuen gure Joxek hitz egin zian, lagunaren izaera eta ibilbidea aipatzeko, haren koherentzia eta ausardia goratzeko, hitzaldi bikaina izan zuan, komunikabideen gezurrak salatu zitian, besteak beste, Trosko autonomoa zela eta ez, egunkariek-eta zioten moduan, ETAkoa, argi utziz, eskertzekoa bezain harrigarria hire ustez, Joxe troskizalea zelako, Trosko gutarra bihurtu arte izan zen bezalaxe, Joxek adierazitakoen berri jasotakoan, sektakeriarik gabe jokatu izana txundigarria zitzaiguan, urte hartako giro sektarioan ohituta, esan egin hion, harekin Zapateriako taberna batean topo egin huenean, hik esan eta hark eskertu, hitz-aspertu hartan jakin huen, hark ere duda gaitzak zituela eta Liga, bere betiko partidua, uztekotan zebilela, haren dudak eta gureak antzeko samarrak zituan, nonbait, zertan ari ote zen, zertarako balio ote zuen egiten zuenak, bere egoera pertsonala ere kaskarra zuan, bizi zen neskarekin arazoak zitian, arazo potoloak, kontatu zidanez, dena, bere ordura arteko bizitza osoa bertan behera zetorkiolakoan zegoan, dena, sendoena ziru-

diena ere ari zitzaioan zatika erortzen, guk ondo ezagututako sentipena, inondik ere, biok zenuten jakinmin intelektuala, nik inolaz ere ez nuena, inoiz izan ez dudana, zuek dena irakurtzen zenuten, zinemaz, liburuez, musikaz eta politikaz, pixka bat nekagarria zuan niretzat, denbora guztia haren izena hire ahotan, Joxek esan du, Joxek egin du, ez nian begitan hartuta, baina oso gustuko ere ez nian, egia esan, hi konturatu egiten hintzen, eta barre egiten hidan, jeloskor al haiz, galdetzen hidan, alu horrek, eta nik pikutara bidaltzen hindudan, Joxe harekin batera pikutara, ez haiz fio, ezta, galdetzen hidan, baina kontua ez zuan hori, beste zerbait baizik, Joxe hark antz handia zian gure Troskorekin, eta errezeloa nian Joxe ez ote zen izango haren ordezkoa, lagun hil berriari egindako traizioa iruditzen zitzaidaan gainera, hura ezagutu eta gero ohiturak aldatzen hasita hengoen, iluntzean Kutxira jo ordez, beti bezala, Zapara jotzen huen, hango taberna zaratatsuetara, haxixa erretzen zen haietara, eta asteburuetan Donostiara joaten hintzen, berobero hinduen hango neska batengana, Bitorixan bakarrik geratzen nintzen asteburuetan hara jotzen nian nik ere, horietako batean ezagutu nian Joxe pixka bat hobeto, El Sotano tabernako zoko ilunean txirri bat

hark bildu eta hitz-aspertu luzeak izaten genitian, ez hirekin izaten genituenen mailakoak, baina hartaz nuen iritzia aldatzeko balio izan zutenak behintzat, ni haxixarekin zaletzeko ere balio izan zuten moduan, Zapako tabernetako berriketa haietan sarritan aipatu genian Trosko, edo Kepa, Joxek deitzen zion bezala, nahiz eta haren benetako izena, hildakoan jakin izan genuenez, Roberto izan, Roberto Idiakez, maite zian, hunkitu egiten zuan, sentipen horrek batzen gintian, hirurok jota utzi gintuen istripu tamalgarria zuan sortzen ari zen gure adiskidetasunaren oinarria, harrezkero ezberdina izan zuan dena hirurontzat, aldatzeko premia sentitu genian, bakoitzak bere modura, baina hirurongan nabaritu ahal izan zuan hori, Joxek, esate baterako, bere partidua utzi behar izan zian, ito baino lehen, horrek arazo ugari ekarri zioan, inork halakorik aurpegiratu ez zion arren, traidoretzat jo zitean, ordurako hondoratzen hasita zegoen itsasontzitik ihes egin nahian zebilen arratoitzat, amore erraz ematen zuen gizon makaltzat, mingarria izan zuan Joxerentzat, batez ere Puik, bere betiko emakumeak ere horixe uste zuela konturatu zenean, horrek gogor jo zian, nahi zuen bezala pentsatzeko eskubidea zuela aldarrikatu zian, eskubide hori, noski, aitortu ziotean, be-

raiek Joxez nahi zutena pentsatzeko zuten eskubide berbera izaki, klase borrokaren zartadak eramateko gauza izan ez zen burges txiki bat iruditu zitzaiean, alferrikakoak izan zituan Joxeren azalpenak, egiten ari zen traizioa ez ziola partiduari egiten, langileei, herri osoari ari zitzaioan egiten, argi laga ziotean, bere Pui maiteak lehena, erruki nioan, latza izan behar zian kalean zenbait aste lehenago arte bere burkide eta lagun-minak izandakoek agurtu ere ez egiteak, kalean edo taberna batean topo egitean, horregatik joaten zuan Zapara, Kutxi ahaztuta, beharbada haiek dioten gisara duk eta burges ttipi belaxka bat baino ez nauk, duda egiten zian batzuetan, duda dudaren gainean, egun batean iluntzean elkartu eta lana utzi berri zuela esan ziguan, El Abuelon gintuan, lana utzi diat, iragarri ziguan, zor zizkidaten sosak jaso eta ez naizela itzuliko jakinarazi zieat, ezin esan Joxeren erabakiak harritu gintuenik, aspalditxotik ari baitzitzaigun laga behar zuela abisu ematen, bejondeiala motel, poztu gintuan gu ere, ospatu beharra zagok, atera itzak garagardo batzuk, atera ezak nahi duana, berandu arte iraun zian ospakizunak, taberna guztiak itxi arte, eta, biharamunean, sekulako ajeaz lanean ari ginela, artean ohean gozo-gozo egongo zen Joxeren inbidia izan ge-

nian, zer ari ote ginen han, beste norbaitentzat lanean esklabo, bakoitza bere lantokian, baina biok galdera hori egin genioan geure buruari, iluntzean hirurok berriz elkartu ginenean, aitortu genuenez, galdera horri gutako bakoitzak eman zion erantzuna ezberdina izan zuan, hi berehala lagatzeko moduan hengoen nonbait, ni ez ordea, ez nekien-eta besterik egiten, menpekoa izateko jaio nintzela esaten diodanetan, Gloriak barre egiten zidak, baina hala duk, nagusi petral baten mendean egon edo droga baten mendean egon, azkenean, berdintsu, ezin libre izan, askatasuna garrantzitsuena duk, esaten dik xalo-xalo, behin ere lan egin ez duen Gloriak, garrantzitsuena, hala uste genian eta hala uste diat nik oraindik ere, haren atzetik ibili nauk bizitza osoan, baina hark hamaika ezkon-nahi duen neska irtirin baten moduan jokatu beti nirekin, begiratu justu-justu eta muzin egin izan zidak beti, hik ere barre egin hidan gau hartan, nire beldurra ikusita, trankil egoteko esan hidan, gutxi behar dela bizitzeko eta niretzat ere irtenbide bat egongo zela, diruaren truke lan egiten diagu, dirurik bagenu, ez genikek lanik egingo, baina guk badiagu dirua, non, non dugu diru hori, eta hik, harrotuta, non izango da ba, bankuetan, aurrezki kutxetan, dendetan, gasolindegietan,

edozein tokitan, handia hintzen, edo ni artaburu galanta, edozein modutan, irtenbide bikaina zuan hik proposatutakoa, bizimodua konponduko zigun lanbide ederra, lanbide hitza ez zitzaian gustatu, gureak ekintzak izango zituan, ekintza iraultzaileak, Trosko komandoa gaituk orain, ez ahaztu, kapitalismoaren aurka jardungo diagu aurrerantzean ere, gure lan-indarra saltzeari uko egiteaz gain haien etekinei egingo zieagu atximur, ezer ez hori baino arriskutsuagoa kapitalismoarentzat, hik azaldu bezala izan dadila, prest nengoan, borrokari jarraitzeko irrikaz, hala ere, pare bat baldintza ipini nizkian, bat, lehergailuak ahanztea eta burdinak baino ez erabiltzea, eta bi, komandoa gu biok osatzea, beste inork ez, biharamunean ez gintuan lanera joango, ez eta ondorengo egun eta asteetan ere, akabo, esklabo izateari laga behar genioan, betiko.

11

Edertasuna da dena niretzat, hori bilatu dut bizitza osoan, nekagaitz, eta aurkitu ere askotan aurkitu dut munduan, gutxien espero nuen toki eta lagunengan; horretarako hezi ninduten, eta, nola edo hala, horra eraman naute egin ditudan urrats gehienek, begiak lehen aldiz zabaldu nituenetik, besterik ez baitut inguruan izan, guraso biak eta sorterria, itsasondoko hiri hau, guztien inbidiagarri, badia, bertako argia... Zorionekoak gu.

Hala esan ohi zidaten –Jorgek lehendabizi, Gonzalok gero– negozio bidaietatik etxeratzen zirenetan, zorionekoak gu, hemen baino hobeto inon ez, hala uste dut nik ere, bada hainbat hiri zoragarri bazterretan, Venezia, Paris, San Petersburg, pilo bat, baina kantuak dioenez, Donostia bakarra dago munduan, eta ez nuke beste inon bizi nahi, ezta hainbeste miresten dudan New Yorken ere. Hiri zoragarri hori dela medio hasi naiz edertasunaz pentsatzen, Josek hara joateko gonbita egitean, The Plaza edo Waldorf Astoria hotelak aipatu ditu, ni liluratzeko asmoz, ohartu gabe ez naizela *parvenu* bat, bera den bezala, bera ezagutu baino

berrogeitaka urte lehenagotik ezagutzen ditudala New Yorkeko hotel onenak, Jorgerekin ezkondu eta eztei-bidaian hara joan nintzenetik, hain zuzen ere, orduko hartan Park Avenuen egon ginen, The Marmara dagoen tokitik hurbil, eta hotel horrexetan egon nintzen Jorge Mount Sinai ospitalean egon zen hiru hilabeteetan, eta hartara itzuliko nintzatekeen, Arturorekin batera, hura hil izan ez balute, gure ametsa zen, Central Parken barrena eskutik lotuta paseatu, Russian Tea Roomen afaldu, dendak bisitatu, Broadwayko musikal bat ikusi, ondo hitz eginda genuen, batzuetan, amodioa egindakoan, ezagutzen ez zuen Sagar Handiaz hitz egin niezaiola eskatzen zidan, eta han sagardotegirik ote zegoen galdetzen zidan, eta negozio ederra izango litzatekeela ziurtatzen, puntako klub eta diskoak ere ezagutu behar genituen, Area erraldoia, The Roxy eroa, eliza izandako Limelight, pasa den mendeko laurogeiko hamarkadan puri-purian zirenak, ikusi eta ikasi nahi zuen, batez ere Ibizan zabaldu berri zuen diskoa gogoan.

Arturo ameslaria zen, ameslari zuhurra, edozer egin aurretik dena ondo aztertzen zuena, hala negozioetan nola harremanetan, oso bestela zirudien arren: bat-batean, aliritzira, berezko jatortasun batek

bultzatuta jokatzen zuela ematen zuen, gauzak bi aldiz pentsatu gabe. Itxurazko xalotasun hori zuen armarik onena, hemen, Ibizan edo beste edonon hurbiltzen zitzaiona berehala gelditzen baitzen harrapatuta, haren irribarrearen sarean, ni gelditu nintzen era berean, hain eskuzabal jokatzen zuen beti, hain maitekor, hain libre, zaila zen inolako kalkulurik susmatzea irribarre haren atzean, denboraren joanaz, dena itxura besterik ez zela jabetu nintzen arte, baina orduan ere, haren xarma ez zen nire begietan murriztu, alderantziz, handitu egin zen, zeren eta horrek gaiztakeria puntu bat ematen zion, puntu polit bat, guztizko *voyou* bilakarazi zuena, ordura arte gizonak izanik nire atzetik ibilitakoak, nire menpekoak, bada, nola gertatu zen ulertu gabe, haren mendean ikusi nuen neure burua halako batean, eta horregatik Jorgeri minbizia diagnostikatu eta New Yorkera lagundu nuela, menpekotasun hartatik askatuko nintzela uste nuen, baina distantziak, urruntasun fisikoak kontrakoa eragin zidan, Arturorekiko mendekotasuna areagotu, eta egunero hots egiten nion telefonoz, haren ahotsa entzuteko irrikari eutsi ezinik.

Jorgeren gaixotasuna gogorra izan zen, maite ez nuen arren, senar eta alabaren aita nuen haren zain-

du beharrak urrundu baininduen gehien maite nituenengandik. Eugenia txikia Iruñean zegoen, ostiztarrenean, ondo, baina, amaginarrebarekin hitz egindakoan, alabatxoaren ahotsa entzuten nuenean nekez eutsi ahal nien malkoei, eta, malkorik gabe, antzeko zerbait gertatzen zitzaidan Arturoren faltarekin ere, hitz egitea ondo zegoen, lasaitu egiten ninduen, nire orduko bizimodu beti berdina eramaten laguntzen zidan; hitzek, ordea, ezin ordezkatu besarkadak, gorputz maite baten beroa, joaten utzi nahi ez diguten beso batzuen indar samurra, eta, hain zuzen ere, horixe behar nuen nik. Goizez eta arratsaldez azaltzen nintzen ospitalera, eta askotan erdi lotan aurkitzen nuen Jorge, lasaigarriez lepo, gelako leihora hurbiltzen nintzen halakoetan, eta pareko eraikinen artean ageri zen Central Parken zatian finkatzen nituen begiak, gogoa Atlantikoaren beste aldera zihoakidan bitartean, edo, bestela, ohe ondoko besaulkian eseri eta Greenwich Villageko denda batean erosi ohi nuen *Hola*-ren orrialdeak pasatzeari lotzen nintzaion. Hango argazki koloretsuetan ageri zirenei begira, zer egiten ari nintzen, ospitale triste hartan, galdetzen nion neure buruari, eta senarraren agonia luzea lehenbailehen buka zedila desiratzen nuen; Eugenia ikusi nahi

nuen, Arturo ikusi, bizitzara itzuli nahi nuen, nire bizimodura, lagunekin egon nahi nuen, jendez inguratuta bizitzen ohituta, oso bakarrik nengoen. Telefonoa nuen, tentagarria beti, ohean etzan eta, Espainiako ordua kalkulatutakoan, Iruñeko, Donostiako edo Ibizako zenbaki bat osatu, eta azkenean entzun maite nituenen ahotsak, maite nindutela gogoraraziko zidaten ahotsak, eguna pitin bat gozatuko zidatenak, preso ninduen isiltasunetik, laburki bazen ere, libratzen nindutenak, uler nitzakeenak. Jorgerekin gutxitan hitz egiten nuen, eta labur, zer moduz nengoen galdetzen zidan ozta-ozta, eta gauza bera galdetzen nion nik, ondoren isilik geratzeko biok, ez zen hitzen beharrik gure artean, dena argi zegoen, heriotzak dena argitzen zuen, elkarrekin alaba zoragarri bat izandako ezezagunak ginen, elkarrekin baina elkarri bizkarra emanda bizi izandako bikote bat; hitzik gabe ere, Jorgek laguntza eskertzen zidan, bere ondoan egotea. Batzuetan, morfinak eragindako lozorrotik une batez irten eta nire eskua bilatzen zuen, eta gogor estutzen zidan, hura balitz bezala bizitzarekin geratzen zitzaion lotura bakarra, eta ospitale hura atzean utzi eta Central Parken zehar edo denda erraldoi horietako barnebideetan zehar ibiltzen nintzen, arnasa berriz hartu

ahal izaten nuen arte. Zuhaitzek, era guztietako salgaiek babestuta, pitin bat lasaitu eta heriotzari iskin egin nahian iritsi nintzela hara jabetzen nintzen, hari ihesi, haren hotza Jorgeren eskuan nabaritu orduko.

Emazte eredugarria izan nintzen bukaera arte: Jorgek azken hatsa eman zuela, aldamenean ninduen, nire eskua berean, Ostiz zaharra bere alabetako batek lagunduta azaldu zenean, ospitalean aurkitu ninduten, senarraren gorpuaren zaindari, eta hirurok egin genuen negar, nahiz eta negar egiteko haien arrazoiak eta nireak ezberdinak izan.

Gorpu bat Espainiaratzeko prozedura korapilatsua zen, gutxienez beste pare bat aste gehiago bertan egoteko prestatu nuen neure burua; beraz, Arturorekin hitz egin nuenean, pazientzia izan beharko dugu esan nion, sekulako purrustada bota zidan, pazientzia zela berak gehien falta zuena, nahikoa izan dut azken hiru hilabeteetan, nik baietz, niretzat ere gogorra zela –Eugenia aipatu nion–, baina ez genuela beste aukerarik. Ezetz?, utzi nire kontu. Inoiz ez dut jakin nori esker ginen handik bi egunetara Madrilgo Barajasen, nor arduratu zen behar ziren agiriak lortzen; Ostiz zaharrak telefonoa hartu eta artean Madrilen gelditzen zitzaizkion lagunei hots egin zien laguntza eske, eta gauza

bera egin nuen nik, Laura Ybarrari deitu, hala ere, susmoa dut Arturoren eskua izan zela burokrazia astindu eta mirari erako hura gauzatu zuena, lagun asko eta garrantzitsuak baitzituen, Ibizan eginak, denetarik, antzezleak, futbolariak, bankariak, politikariak, horietako baten batek egingo zion mesedea, gobernuko sozialistaren batek. Edozein eratan, hiru egun geroago Iruñeko hilerrian, ostiztarren panteoian utzi genuen, betiko atsedena har zezan, bere arbaso loriatsuen lagun. Emakume librea nintzen azkenean, Arturo erabat maitatzeko libre; horrek ez zuen gure harremana aldaraziko, noski, baina arintasun moduko bat eman zidan, gauzei begiratzeko patxada, elkarrekiko etorkizun baten aukera, zeren eta, ni alargundu berri nintzen antzera, hura ere alargun baitzitekeen egunen batean, eta, hori gertatuz gero, bion ezkontza posiblea zitekeen, edo biok elkarrekin bizitzen jartzea Hendaian. Argazki batetik baino ezagutzen ez nituen Arturoren seme-alabak eta Eugenia irudika nitzakeen elkarrekin jolasean, algaraka, Txingudiko badia zoriontasun horren lekuko, halakoak nerabilzkien nire artean, Arturori inoiz aipatu gabe, txorakeriatan edo, okerrago, bere bizitza kontrolatzeko asmotan nenbilela pentsa ez zezan.

Arturo!

Gizon librea zen, inoren agindupean egoteari gorroto ziona, askotan erakutsi zuenez, gaztetatik, garaiko pilotalekuen zurruntasunari muzin egin zionetik, eta joera berdina izan zuen negozioetan ere, Nauticoko batzuen eskandalagarri, handira jokatzen zuen salbuespenik gabe eta, harrigarriena, harrokeriarik gabe, haizea alde edo kontra, dena kemen lasai berberarekin hartzen zuen, sartuta zegoen atakatik, edozein izanda ere, onik irtengo zela seguru. Eskarmentuak erakutsi zion: azken tantoa arte partidua ez zegoen galduta, borrokatu beharra zegoen. Ez nituen aintzat hartzen berari buruzko esamesak, haren etsaiek, inbidia ziotenek barreiatutako zaborra, eskarmentuak erakutsi zidan neuri ere, Jorge gizajoari buruz bazterretan idatzi eta esandakoa gogotik kendu ezinik, kartzelara lehendabizi, eta heriotzara ondoren, eraman zuen hura guztia, banekien Arturoren ondoan egongo nintzela, eta, zerbait sinestekotan, haren ahotik irtendakoa baizik ez nuela sinetsiko. Haren andrea nintzen, Jorgerena inoiz izan nintzen baino hamaika aldiz haren andreagoa. Hark ez bezala, Arturok bazekien emakume bat erabiltzen, bazekien ni babestua sentiarazten, maitatua eta mimatua, berezkoa zeukan, berezkoa

zeukan bezala negozio-gizon bikaina izatea, ahalegin nabarmenik gabe egiten zuen guztia, beste aukerarik ez balu bezala, horrek egiten zuen erakargarri, dirua izan, emakume bat izan, erraz antzera eskuratuko zituen, nahi gabe bezala, erretzen zituen Lucky Strike haietako bat erretzen ariko balitz bezala, patxada ederrean, ezer eta inor behartu gabe, berez-berez, nahi zuen guztia lor zezakeela iruditzen zitzaidan, ez baitzegoen hura geldiaraziko zuenik, hala uste nuen orduan, laurogeiko hamarkadan, heriotzaz zeharo ahaztuta.

Alarguntasuna zoragarria iruditu zitzaidan hasieratik: inoiz baino libreagoa nintzen, nahi nuen edozer egin nezakeen. Betiko eran, esan zidan Laura Ybarrak, bizimodu berriaz telefonoz ari nintzaiola eta egia osoa zen. Betiko eran, bai, baina orain ezkutatu beharrik gabe, zure laguntzarik gabe, hala erantzun nion haren ironiari. Amaren iritzia ezaguna zen niretzat, dibortziatzeko aukerari buruz izan genuen solasaldietan gauza bera errepikatu zidan, Jorge ez uzteko, bera bezala egiteko, maitale bat topatzeko eta alabaz baizik ez arduratzeko, jakin gabe maitalerik banuela, izan nezakeen onena gainera, gizon puska, ez Ritxi Letamendia on baina txepelaren erako norbait. Arturo, aldiz, borro-

kalaria zen, txikitatik, Alde Zaharreko kaleetan lehendabizi, pilotalekuetan ondoren eta negozioetan azkenean, bera bezain gogorrak ziren beste batzuekin borrokatzen ohituta zegoen, eta era horretan irabazi zuen jendearen begirunea, kontrario latza eta lagun eskuzabala zela argi utzita. Hori dena nire artean pentsatu nuen, amak hitz eta pitz jarraitu bitartean, dibortzioa gora eta dibortzioa behera, bukatu ohi zuen bezala bukatzeko:

Gizonak!

Ez nion kontra egin, ezin, ezin nire kutuna hizpidera ekarri gabe, New Yorketik bueltan nire egoeraz hitz egin behar genuela adierazi zidanean, Arturoz mutu jarraitu nuen, alarguna izan ordez, artean emakume ezkondua banintz bezala, zure egoeraz hitz egin behar dugu entzun orduko bai bainekien zer zetorkidan, zeri buruz hitz egin nahi zidan, baita zer esango zidan ere.

Gaztea zara oraindik, eta Jorgek ekarri dolua bukatutakoan ere hala izango zara, gizonak ez zaizkizu faltako.

Ama!, kexatu nintzaion. Berriz ezkondu behar omen nuen, horixe egin nezakeen onena, horixe nik eta, batez ere, Eugeniak behar zuena, aita bat, maite eta zainduko zuen gizon egoki bat, egokia harentzat

eta neuretzat ere. Zerrenda moduko bat egina zuen bere hautagaiekin. Ez irakurtzeko eskatu nion, bakea emateko, gogoratzeko aste gutxi batzuk baizik ez zirela igaro Jorge Iruñean hilobiratu genuenetik.

Goizegi iruditzen zaizu, baina halako gauzetarako sekula ez da goizegi, konturatuko zara.

Dibertitu egiten ninduen: amak baleki. Sekretu berberaren jabe, barre egiten genuen Laurak eta biok, amaren ateraldien kontura, Laurak Amsterdametik hots egiten zidan, gauez beti, eta hango gizonen edertasuna goraipatzen zidan, bisita egiteko gonbita onar niezaion. Jorgek ere bazeuzkan ile hori eta begi urdinak, eta, ni alaba zoragarri baten ama bihurtzeko izan ezik, ez zuen beste ezertarako balio izan; Arturo kankailua izanda, ordea, xamur-xamurra izan zitekeen, zoriontsu egin nintzakeen, horregatik esan nion Laurari holandar eder mardulak ahazteko eta, Amsterdamera joatekotan, Arturorekin joango nintzela, berarekin lasai egoteko, hain ederra omen zen hiri horren kale meharretan barrena harekin batera galtzeko.

Arretaz entzun zuen nire proposamena Arturok, eta pentsakor geratu zen une batez, ezetz erantzun aurretik, ezin zuela, lanpetuegi zebilela, Ibizako diskoa zela-eta. Bere ezezkoak eragin zidan tristuraz jabetu-

ta, beste bat egin zidan: uda osoa Eugeniarekin batera Ibizan igarotzea, nik ez nuen ezer egin behar, bera arduratuko zen denaz, eta egunero egongo ginen elkarrekin. Berehala argitu zitzaidan begitartea: ezin zitekeela plan hoberik.

Niri bikaina iruditu zitzaidan ideia ez zitzaion amari batere atsegin izan, nire planak berea zapuzten zuen, nonbait, ez zidan aitortu, baina banekien planak lotura zuzena zuela bere zerrendako gizonekin eta uda horretarako profitatu nahi zuela haiek aurkezteko, Madrildik Donostiara uda pasatzera etorri ohi ziren gizon *interesgarri* haiekin guztiekin, niri orduan bost axola zitzaizkidanekin. Hurrengo urteko udan beharbada, baina goizegi zela inorekin ibiltzen hasteko esan nion, ez zela zuhurra, komeni zela tarte bat uztea, min egiteko aukera ez emateko mihi gaiztoei, haien pozoitik babesteko, hori alde batetik; bestetik, Eugenia eta biok ginen, azken hilabeteetako agonia eta gero, bake pittin bat derrigorrezkoa genuenok, zenbait hilabetetan bereizita egon ondoren, elkarrekin egoteko premian geundenok. Ezin hobeto egin nuen, nire argudioak aletu ahala, ilunduz joan baitzen amaren kopeta, eta, bukatu nuenean, hitzik gabe zegoen. Kontuz ibili, esan zidan soilik, eta nik baietz, Ibiza uharte lasaia

zela, atseden hartzeko espeziala, eta berak ere etorri beharko lukeela noizbait gu bisitatzera, Laura Ybarrak seguruenik egingo zuen bezala.

Ekainaren hasierako goiz lainotsu batean abiatu ginen Sondikatik, haraino eraman gintuen Ritxi Letamendia agurtu ondoren, eta Ibizara iritsi ginenean, hegazkinetik irten orduko, begietan jo ninduen argiaren bortitzak harritu ninduen, eta istantean betaurreko beltzak bilatu nituen zorroan, eta kapela txuri bat Eugeniaren burutxoa babesteko.

Aireportuan Arturo genuen zain, bere larruazal jada beltzarana nabarmentzen zuen alkandora zuri batez eta praka berdin zuri eta zabalez jantzita, bibotea utzita eta ilea, garai hartako modaren arabera, kizkur-kizkur eginda, inoiz baino erakargarriagoa iruditu zitzaidan, eta bertan jango nukeen musuka, Eugeniarengatik ez balitz. Niri musu eman aurretik, alabarengana makurtu zen: Ongi etorriak!

Diskotekaren furgoneta batean etorri zen aireportura –bere Lamborghinian ez zegoen tokirik guk ekarritako maleta pilorako–, eta villa ederra aurkitu zigula iragarri zigun pozez ezin kabiturik, piszina eta guzti, esan zuen Eugeniari begira, eta ondoren, begirada niri zuzenduz, diskotekatik oso hurbil gainera, kilometro

batera gutxi gorabehera, Sant Rafel de Sa Creu izeneko herrian. Ez zen nik villa hitza entzunda espero nuena, gure Donostiakoaren erako etxe handi sendoa alegia, solairu bakarreko etxe zuri zapal bat baizik, hango baserri bat nolabait, eta, haren bistan hartu berria nuen zaputzaz ohartuta, nonbait, etxeko barrua ikusi arte ezer ez esateko eskatu zidan Arturok; bada, eskerrak kasu egin nion, barregarri geratuko bainintzatekeen bestela, bertako ate nagusia ireki orduko konturatu nintzenez. Kanpotik nekazal etxe arrunta zirudiena jauregi moduko bat zen benetan, erosotasun eta trepeta moderno guztiez hornituta egoteaz gain, gustu ikaragarriz dekoratuta zegoena, New Yorken Jorgeren aldamenean igaro behar izan nituen egun luze aspergarrietan begiratzen zaletu nintzen *Architectural Digest* aldizkariko orrialde koloretsuetatik zuzen ateratakoa zirudien: bizileku eroso eta aldi berean estetikoki miresgarria sortu zuen artista hutsa zen norbaitek. Nire esker ona Arturori eskaini nahian, ahalegina estimatzen niola utzi nahi izan nion argi, hartara jakin zezan ez zitzaidala oharkabean pasatu, areago, maitasun froga nabarmen haren bitartez ni hunkitzea lortu zuela. Hunkituta nengoen, bai: albo banatan gehien maite nituen biak neuzkan, eta maitasun hori guztia

gordetzeko eta babesteko espresuki pentsatu bezala sortutako leku miragarri bat ageri zitzaigun, ipuin batetik irtendakoa, hirurok zoriontsuak izateko lekua.

Hemengo andre bat hartu dut etxeko lanak egiteko, eta neska gazte bat, lotan dagoen bitartean Eugenia zaintzeko badaezpada ere, azaldu zidan, alabaren ilea poliki harrotuz. Lasai egon zitekeen, inon ez zegoen neu baino emakume zoriontsuagorik, inork ez zuen inoiz nik orduan maite nuen eran maite izan, seguru nintzen, nik baino lehenago beste askok maite izan zutela banekien arren. Belarrira xuxurlatu nion: maite zaitut.

Dena joan zen Arturok esan bezala. Bidali zigun andrea, Mercè, ama izateaz gain amona ere bazen andre txiki musugorri jator eta langile fina gertatu zen, Eugeniarekin maitekorra eta ulerkorra nirekin, eta, espainieraz egiteko lanak bazituen ere, hasieratik ondo moldatu ginen elkarrekin; goizean goiz etorri, eta jaikitzen nintzenean, txukun aurkitzen nuen dena, jantziak garbi eta lisatuta, landareak ureztatuta, eta, alde egin baino lehen, halaxe uzten zuen nire logela ere, egurastuta, maindireak aldatuta, ohea ederki eginda, eta hozkailuan jateko zerbait egoten zen beti, sukaldari iaioa izaki. Niretzat, Ibizako hura izango da

betiko mundurik onena, gazte, libre eta maitasunez inguratua izan nintzen hura, Eugenia txikiaren eta Arturo handiaren maitasunaz ari naiz, edozein eguzkik baino gehiago berotzen zuen maitasun hartaz, bete egiten ninduen hartaz, beste inorenarekin alderatu ezin daitekeen eta, hala eta guztiz, beste edonorenarekin ezinbestean alderatzen dudanaz, horretaz ari naiz, hain zuzen ere.

Eguerdian hondartzara joaten ginen eta bertan ematen genuen eguna –Eugenia eta biok batez ere, Arturo lanpetuta ibiltzen zen eta–, harik eta eguzkiak behera etorri eta etxera itzultzen ginen arte, dutxatzera, pixka bat afaltzera eta gauerako prestatzera, eguna alabatxoarena baitzen, eta gaua, aldiz, Arturorena, harekin egoteko garaia. Batzuetan etxeratu eta sukaldean aurkitzen genuen, lanean, Mercèk utzitakoa berotzen eta entsalada bat atontzen, eta bainugelatik entzuten genuen nola zabaltzen zuen botila bat ardo eta nola jartzen zituen platerak eta edalontziak mahai gainean, eta hots etxetiar horiek edozein hondartzak baino gehiago lasaitzen ninduten, nirekin bainatu ondoren Eugeniaren azal leunari zerion garbi usainak beste. Perfektua.

Arturoren begietako ninia diskoteka zen, gehien harrotzen zuena, bere arrakastaren sinbolo argia, bestela debekatuta izango zituen giro eta leku batzuetan sartzeko giltza izateaz gain, eta zaindu behar zuen, bere andrea bezainbeste edo gehiago; Arturo sinestera, munduko diskotekarik handiena zen, eta bazitekeen hala izatea, milaka lagun hartzen baitzuen gauero, haietako batzuk benetan bereziak, eta denek irten behar zuten handik pozik, itzultzeko gogoz, hura goraipatzeko arrazoiez gainezka, eta hori lortzea ez zen erraza, lan egin beharra zegoen, jendea etengabe harritu beharra. Hori dela eta, dantzariak zituen –neska gazte lirainak–, DJ sonatuak, kea eta argiak, su-festak, inor asper ez zedin, asmo ezin hobea, baina gauzatzen nekeza, eskerrak Arturo, hala emakumeetan nola lanean ere, nekagaitza eta irudimen gaitzekoa zen: norgehiagokak antolatzen zituen, gai bati lotutako jaiak, mota askotako ospakizunak, edozein aitzakiak balio zion, kontua bezeroak pozik edukitzea zen, ez zegoen besterik, hori beste inork baino hobeto zekien Arturok. Nirekin ere antzera jokatzen zuen: ustekabez ustekabe ninderaman, aspertzeko betarik eman gabe, bere Lamborghinian uhartea zeharkatzen genuen, bazterreko taberna batean ez dakit zein arrain mota

jateko edo ez dakit zer-nolako ardoa edateko, egun bakoitzak berezia, ahaztezina behar zuen haren ustez, egun erdipurdikoa zen bestela, egun bakoitza azkena balitz bezala bizi beharra zegoen, bizitza laburra izango zuela susmatuta beharbada, eta guztiok egiten genion kasu eta berak urratutako bidetik segitzen genuen, zoriontsuak izateko edozer egiteko prest. Izugarria zen haren xarma, edonoren lagun bilakatzeko berezko zeukan gaitasun niretzat sinesgaitza: hemengo baserritar eta arrantzaleak bezain ondo ezagutzen zituen Ibizakoak ere, uhartean zeharreko ibilaldi haietan ohartu nintzenez, eta, esan beharrik ez, jatetxe eta tabernetakoak, bertakoa izango balitz bezala, eta ez kanpotar bat; Fermin Calbetonen ibiliko balitz bezala zebilen Dalt Vilako kaleetan, jendea ezker-eskuin agurtzen, eta kalean gertatzen zitzaiona ezer gutxi zen diskotekan gertatzen zitzaionarekin alderatuta. Han guztien eskuak estutzen zituen, guztien masail edota ezpainei egiten zien musu, guztiei esaten zien zeinen eder zeuden, zeinen ederrak ziren, eta gauza bera adierazten zioten berari, bakoitzak ahal zuen eran eta hizkuntzan, zu ere primeran zaude, nik ere egingo nuke zurekin, hitzik behar ez duten kontuak,

azken finean, izen bakar batean laburbil zitekeen desira lotsagabe ageriko bat:

Arthur!

Hala deitzen zioten gehienek. Etorri trago bat gurekin hartzera, geratu pixka bat gurekin, eta berak guztiei eskertu, guztiei irribarre bana eskaini, baina aurrera beti, Exclusive zeritzan aldera iristen ginen arte, bere bulegoa eta etxeko gonbidatuentzako klub pribatua zeuden aldera.

Arthur!

Hollywoodeko antzezle, produktore edo zuzendari bat izan zitekeen, gugana zetorrena, edo futbolari ezagun bat edo eskuineko politikari bat, edo ezkerrekoa, halakoak baitziren klub berezi hartarako sarrera zutenak, jende printzipala, jende ezagun eta boteretsua, argiak, dirudunak, ederrak ere bai asko, denak alai eta jostariak, pozik berdinen artean, egon behar den tokian, egon behar den jendearekin egoteaz pozik. Amerikako nahiz Asiako aberatsak Europako aristokrazia zaharrarekin nahasten ziren, whiski bana eskuan, kantari famatuak bankako edo industriako nagusiekin, eta hori dena Arturori esker gertatzen zen, berak biltzen zituen, berak gonbidatzen zituen, elkar ezagut zezaten, eta berak ordaintzen zuen jaten eta

edaten zutena, askotan diskreziorik gabe hartzen zuten kokaina ere berak ordaintzen zuen.

Arthur!

Oihua irteten zen eztarri guztietatik, Exclusiven bildutakoen eztarrietatik zein behean, piszina alboko dantza-gune nagusian, jo eta su ari zirenetatik: guztiok bereganatzen gintuen zeremonia ia erlijioso haren apaiz nagusia zen, kongregazio haren burua, eta Ibizara iritsi berriak ere bazekien horrenbeste.

Arthur!

Nire gizona, alegia, uharteko emakume inbidiagarrienetakoa egiten ninduena, ez beharbada ederrena –Arturok baietz esaten zidan, banintzela–, ez seguruenik aberatsena ere, baina, zalantzarik gabe, zorionekoena; nagusiaren andrea nintzen, nik aspalditxotik izan nahi nuena, neskato zoragarri baten ama, eta Ibizan nengoen, munduko tokirik bizienean aldi hartan, edertasun eta talentuz inguratuta, zer beste eska nezakeen? Beti izaten da ordea, arrakala txikiren bat, alderdi laiotz bat, zalantzarako eremu zingiratsu bat, eta, pixkanaka, ezezagun zitzaidan sentipen bat ernatu zen nigan: jelosia.

Donostian ez bezala, Ibizan arriskua edonon egon zitekeen, luze gabe jabetzen hasi nintzenez, diskoan,

hondartzetan, tabernetan, kaleko azokatxoetan, handik ibiltzen baitziren firin-faran, munduko emakumerik ederrenetako batzuk, izan Hollywoodeko izarrak eta top-modelik topenak, izan printzesa eta era askotako nobleziakoak, edozein emakume maitemindu ikaratzeko moduko panorama.

Ondo gogoan dut noiz eta non sentitu nuen lehendabizikoz; Ibizara iritsi eta biharamunean izan zen, Arturo uhartea erakusten ari zitzaigula, Es Canára eraman gintuen, hippyen azoka ikustera, eta, han ginela, azala kafesne kolorekoa zeukan emakume gazte lerden eder bat azaldu, eta besarkatu egin zuen Arturo, intimitateak baizik ezin eman dezakeen ziurtasunaz. Bat-batean izerditan nengoen, urdaila iraulka neukan, ahotik irteteko gertu, eta han sobera nengoela, traba besterik ez nuela egiten sentitu eta, eskuak Eugeniaren sorbaldan neuzkala, pare bat urrats egin nuen, oharkabean, atzerantz.

Ez nion Arturori tutik aipatu, bertako salmahaiei begira jarraitu nuen, eskuz egiten zituzten bitxiei eta zintzilik zituzten soineko luze zuriei begira, ezer gertatu izan ez balitz bezala, baina luze gabe zerbait susmatu eta galdezka hasi zitzaidan, eta, nire erantzunek ase ez zutenez, beste galdera batzuk egin zizkidan,

harik eta barrez lehertu zen arte, bekokia iluntzen zidana zer zen asmatu zuelakoan. Gloria, mesedez. Bizpahiru aldiz elkarrekin oheratuak zirela aitortu zidan, nirekin topo egin aurretik, ondoren niretzat baino ez omen zeukan begirik. Azalpena onartu eta hor buka zitekeen dena, baina ez, mesfidati jarraitu behar nik, nahiko era nabarmenean, hainbeste, non Arturoren hasierako barrea haserre bilakatu baitzitzaion, eta, bitan pentsatu gabe, gehien mindu ahal ninduena bota zidan:

Emazte bat nahikoa dut, Gloria, ez dut beste bat behar.

Bere onetik atera nuen: Gloria apetatsuarekin ari zen berriz ere, lainezaz betetakoarekin. Ez ote nintzen fio jakin nahi izan zuen, zerbaitetarako balio ote zuen bere hitzak, eta nik orduan, nire hanka-sartzeaz ohartuta, baietz erantzun nion behingoan, fio nintzela, ezerk ez zuela niretzat balio bere hitzak baino gehiago, eta besarkatzen eta musukatzen saiatu nintzen, baina bera pixka bat alboratu eta Eugeniari begiratu zion, hobe genuela gure auzia gerorako uztea adierazteko, nire ustez, eta izozki bat nahi ote zuen galdetu nion alabatxoari orduan, gure ika-mikari azken puntua jarri nahian.

Arturo!

Hitzen bitartez ez, laztan eta musuen bitartez konpondu genuen gau hartan goizeko auzia, haserretzen ginen guztietan konpondu ohi genuen bezala, su batean, muturtuta igarotako denbora berreskuratzeko ahalegin betean, hura alferrik galtzeaz damututa biok, kosta egiten zitzaigun ulertzea zer zela-eta jokatu genuen hala, berriki arte elkarrekin egoteko izan genituen zailtasunak gogoan, batik bat; inozoak ginen, bai, eta horixe aitortzen genion elkarri, amorruz ia, eta nahikoa zela, hark azkena behar zuela, ez zela errepikatuko, gurea maitasuna zen, benetakoa, ez sexu hutsa, ez bi gorputz izerditu plazeraren bila etsituta, beste zerbait sakonagoa baizik, horixe esaten zidan Arturok, ni lasaitu nahian seguruenik, inguratzen zuten emakumeak aipatzen nizkionetan.

Ahal dudan baino emakume gehiagorekin egitea izango nuke gauero, nahi izanez gero, esaten zidan, baina ez dut behar, badut nahi dudan guztia.

Hori entzun eta nigana erakartzen nuen areago, nire kontra tinkatzen nuen, hautsi nahiko banu bezala; kontrakoa nahi nuen, ordea, gorde, bakarrik niretzat gorde eta babestu, betiko, zeren eta ni ez nintzen handik zebiltzan hippy horietako bat, ez nuen maitasun li-

brean sinesten, jabego pribatuan sinesten nuen, nirea nirea da eta ez beste inorena, Arturo nirea zen, beraz, ez diskoa betetzen zuten sirena apetatsu haiena, ez eta Exclusiven zehar narras ibiltzen ziren sugegorri zahar aristokratikoena, alkoholaren edota drogen eraginez lotsagalduta guztiz, gizona musuka lapurtu nahi izaten zidatenenak, bazekien haiengandik askatzen; horregatik, haietako bakoitzari zegokiona esan, musu arin bat kopeta, masail edo ezpainetan ere eman eta beste norbaitengana segi zezakeen, beste lagun ospetsu bati bostekoa ematera, esku boteretsua estutzera.

Irribarrea da nire hizkuntza, aitortu zidan behin, denek konprenitzen dute. Hala da, amerikarrek ondo dakite, New Yorken, ospitalean bertan, dendetan, edonon ikusi nuenez: irribarrea aurrena, profesional on baten eran, horixe baitzen Arturo, beste edozeren gainetik, bere lanbidea, haren gorabehera eta zoko-mokoak beste inork baino hobeto menderatzen zituen norbait, alkohola eta kokaina gustukoak izanagatik ere, halakorik lanean sekula hartzen ez zuena. Koka nirekin maitasuna egiteko atsegin zitzaion, plazera handiagotzen zitzaion, zeruan egotea bezalakoxea omen zen, bere azpian ninduela begiratu eta hain

ederra iruditzen nintzaion, non malkoak baitzetozkion begietara, hunkituta.

Hunkituta? Bai zera, drogatuta, hala zaude zu!

Barre egiten genuen.

Ezin naizela kexatu?

Kexatu egiten nintzaion koka ukatzen zidanean, txarra zela argudiatuz.

Hala bada, hala izango da zuretzat ere, kontra egiten nion, baina hark ezezkoan jarraitzen zuen, bera gizona zela, indartsuagoa, beraz, eta mendera zezakeela, eta orduan nik egiten nuen barre, nik bakarrik, gaiztoz, zergatik ukatzen zidan berak sentitutako plazera ulertu ezinik, sentsazio berezi hura. Edozein modutan, berdin zion, nahi izanez gero, erraz lor nezakeen niretzat onena nahi omen zuenak ukatzen zidana, diskoan gauero eskaintzen zidan norbaitek, denetarik, eta nik eskertu baina ezetz, eskuan neukan gintonica nahikoa.

Koka Arturoren kontua zen, neure-neurea ere bai, beraz, eta horrek jakin-minez betetzen ninduen, nirekin oheratu aurreko zeremoniaren lekuko, liluraturik jarraitzen nien Arturoren eskuei beren jardunean, nola plastikozko txartel batez koka xehatzen zuen hauts lerro bat osatu arte eta, ondoren, txartela nola garbi-

tzen zuen, hatz erakuslea erabiliz, eta hondar hori oietan igurzten, mahai gaineko lerroa sudurreratzeko azkenean, zilarrezko hoditxo baten bitartez. Hori egindakoan prest zegoen.

Arturo!

Haren lepoa nire besoek inguratu eta gihar guztiak tenk neuzkala, nire droga Arturo zela banekien ziur, menperatu ahal ninduen eta derrigorrezkoa nuen bakarra, izugarria zen, gure arteko istiluak gorabehera, harena nintzen ukitu orduko, zakila nola handitzen zitzaion nabaritzen nuen sabelean, epeltasun gero eta biziago bat, oso atsegina zitzaidana, nik edo kokak eragindakoa ote zen zalantza egin nuen arte behintzat. Behin baino gehiagotan gertatu zitzaidanez, kontu hori argitzea baino ez nuela iruditu eta norbaitek eskaini zidan hurrengoan baietz erantzun nion, beraz, baietz, nahi nuela, eta hark pasatutako papertxoa esku-ahurrean neramala, Exclusiveko bainugelara jo nuen, gehienek egiten zuten eran, baina bertan esnifatu ordez, bularretakoan gorde eta biharamunean, etxera itzulitakoan, Arturo bere gaueroko zeremoniari lotzen zitzaiola, ni bainugelan sartu eta diskotik ekarritakoa hartu nuen, hari ezer esan gabe.

Badaezpada ere, gutxi hartu nuen, eta, maitasuna egin eta gero, Arturori besarkatuta loaren zain nengoela, ezin asmatu zein heinetan zor nion kokari nire zorion hura eta zeinetan eskuartean nuen gizonari. Hori zela eta, hartzen jarraitu nuen, harik eta ez dakit nongo printzesa batek bainugelara laguntzeko gonbita egin, nik onartu, hura marrak sartzen hasi eta hainbeste esnifatu zuen, non gainezka egin eta sudur batetik irteten hasi zitzaion arte, muki zuri-zuri batean bilduta. Nazkagarria izan zen, eta bere hoditxoa pasatu zidanean, lotsagorrituta, ezetz adierazi nion keinu izuti batez, eta aitzakiak jarri nizkion, gehienak absurdoak, gerora ohartu nintzenez, baina higuina eragiten zidan hoditxoaren bista hutsak ere, eta ezin izan nuen besterik egin.

Harrezkero askotan gogoratu naiz muki zuri hartaz, Ibizan, Arturoren bitartez ezagututako zenbaiten berri izan eta irudi hori etortzen zait gogora oraindik ere, urteetan *Hola* eta halakoen orrialdeetan ikusi izan ditudan batzuk, azken aldian Telecincoko oilategi horretan dabiltzanak, adibidez, elkarri mokoka beti, oihuka beti, irainka, puztuta edo argal-argal eta azal zikin, bestela, denak itsusi, nik ezagutu gazte eder eta biziak irentsi zituzten munstroak, ikaragarriak, denak

kokak hondamendira eramanak, edo, okerrago, saio ziztrin horietan ere agertu ezin direnak, oroimen lauso eta errautsak haizetan baino ez diren horiek, ugari, izen bat ozta-ozta, une gozo baten pilpira urruna agian, ezer gutxi, batere ez: zuria beltz bilakatu oharkabean.

Drogak hil egiten du, esan ohi zuen Arturok txantxetan, bera ere hilko zuela susmatu ere egin gabe, ez aipatu berri ditudan horien eran, noski, egunez egun eta kameren aurrean, ikuslego aspertu baten dibertigarri, ezta kale bazter batean botata geratu zirenen eran ere; ostera, Arturoren heriotzaren albistea mundu osoan zehar hedatu zen, telebistetako albistegiak ireki zituen eta egunkarietako lehen orrialdeetan, letra larriz jaso zen, gizon berezi bati zegokion heriotza berezia eta, heriotza guztiak bezala, latza.

Bizitzak hil egiten du, Gloria, zuzendu izan dit Biterik zenbaitetan; hiltzeko era guztiak ez dira berdinak, ordea, duin hil daiteke edo lotsagarri, lasai antzera edo modu izugarrian, bizi daitekeen era berean, azken batean. Arturorekiko urte laburregiak izan ezik, nire bizitza lasaia izan dela uste dut, gorabehera nabarmenik gabea, alabaren heziketaz arduratu naiz eta Arturo tiroka hil ondoren senar izan nuen Gonzaloz

ere, ni baino hogei urte zaharragoa izaki, gertutik zaindu behar baitzitzaion, hil aurreko bizpahiru urtez.

Jakin izan bagenu, damu da Biteri, alferrik noski, etorkizun duguna asmatu ezin dugunez gero. Ibizan ere jakin izan bagenu, bestela jokatuko genukeen denok, nahiz eta nik zuhur samar jokatu nuela uste. Udako asteak igaro ahala, diskora gauero azaldu eta koka lerro baten truke edozer egiteko prest zeuden lagun batzuk ezagutu nituen, haietako asko nire adin bertsuko neskak, norbaiten eskutik Exclusivera sartzen zirenak eta bertako komunetan luze egoten zirenak. Neska itxurosoak izaten ziren, bular handikoak, baina arruntak, estilorik gabeak, puta merkeak izatera kondenatuak, hasieratik argi ikusi nuenez, ez baitzuten neurririk, ez zekiten nahikoa esaten, kito, honaino iritsi gara, hemen bukatzen da bidea, gehiago nahi zuten beti. Nik ere gehiago nahi nuen –Arturo gehiago–; txikitatik badut, ordea, neure buruari langa jartzeko ohitura, eustekoa, badakit zer den diziplina, eta hori garrantzitsua da, zeren eta horrek edonor salba baitezake, zeure buruari ezetz esateko gaitasun horrek, denboraren poderioz lortutakoa eta, inolaz ere, kamusten utzi behar ez zaiona; nik ez nion utzi, aldiz, ahalik eta gehien zorroztu nuen, neure burua ez

ezik, Arturo bera eta Eugenia babestu nahian. Norbaitek pentsatu behar zuen pitin bat, eta niri egokitu zitzaidan, Arturok gauza gehiegi zerabilzkien buruan, arazo eta asmo potolo gehiegi, eta lagundu behar zitzaion, esan behar zitzaion azkarregi zihoala, lasaitzeko premian zegoela, seguruenik ez zidala batere jaramonik egingo susmatzen nuen arren. Berdin zion, ez nintzen ahalegina egin gabe geratuko, saiatu gabe, hil ala biziko kontua izan zitekeen. Arturo, esan bezala, ameslari zuhurra zen, baina zenbaitetan bere alderdi ameslari hori nagusitzen zitzaion zuhurrari –batez ere kokaz gainezka zegoenetan–, eta zaila zen harekin hitz egitea halakoetan, bestela agerikoa zena ikusaraztea, zerbaitekin tematu eta harekin bueltaka ibil zitekeen ordutan, alderdi guztietatik begiratzen zion, eta zenbat eta gehiago aztertu, hainbat eta seguruago zegoen bere ideiaren egokitasunaz eta arrakastaz. Batzuetan, haserretu egiten zen norbaitek bere gaineko zalantzarik agertuz gero, mindu egiten zen, batez ere ni baldin banintzen hori egiten zuena, traizioa egin izan banio bezala urruntzen zen nigandik, berarekin bat nola ez nentorren ulertu ezinik, bat-batean asturu txarreko txori ninduen, bele karrankari gogaikarria, mailua bere garunean gupidarik gabe joka. Ez omen

nuen irudimenik, ukitu ahal nuena baino ezin omen nuen sinetsi, emakumetxo bat nintzen, jaiotzez aberatsa eta errazkerian hazia eta hezia, mundua buruz buru hartzeko ezgai, beraz.

Dena nahi dut, Gloria, ba al dakizu zer esan nahi dudan?

Zaila zitzaidan Arturorena erabat ulertzea: negozioak primeran zihoazkion, seme-alaba koskortu samarrak zituen eta ni ninduen gero, gutxi iruditzen al zitzaion? Zer falta zitzaion?

Hildakoak falta ziren, horiexek falta zitzaizkion hari ere, gauzak ziren bezala ikusteko, handik urte batzuetara erruz agertuko ziren haiek, artean gazte, eder eta dibertigarriak zirenak eta, gerora, zerrenda itxuraz bukatugabe bat osatuko zutenak, horiexek falta, Biterik mamuak deitzen dituenak, baina horiek pentsaezinak ziren orduan, irudikaezinak paradisu hartan, irudimen handiko norbaitentzat ere, Arturorentzat ere. Orduan hildakoak falta, eta orain, aldiz, ezin izan besterik.

Haiekin eta zurekin, beste inorekin ez dut azken boladan hitz egiten, aitortu zidan orain hurrena Biterik, eta ondo ulertu nuen, antzeko zerbait gertatzen baitzait neuri ere. Arturorekin aritzen naiz bereziki, nahiz eta zenbaitetan Gonzalorekin edota amarekin

ere aritu. Norbaitek ikusiko banindu neure buruarekin hizketan, burutik jota nagoela pentsatuko luke, esaten diot Cocori, baita Eugeniari ere, Madrildik telefonoz hots egiten didanetan. Ama erotzen ari zaizu, esaten diot, eta ezagutzen nauenetik horretan ari naizela erantzuten dit alabak trufari.

Gutxienez beste hogei urte gehiago biziko zara, iragartzen dit Biterik, ni ilun samar antzemandakoan. Eskertzen diot, noski, eta berari ere bizitza luzea opa, baina mamuez jarraitzen du hizketan, etengabe zuzentzen zaizkion mamuez, beraiekin biltzera etengabe ere gonbidatzen dutenez, eta alferrik da ni bihotz pitin bat ematen saiatzea, zer eginik ez duela sinetsita baitago, hilabete gutxi batzuk, aste gutxi batzuk baizik ez dituela mundu honetan izango, bereak egin duela. Lagun zaharrekin elkartzera noa, azaltzen dit, zoko bat gorde omen didate, ondo egongo naiz, ez kezkatu. Nik ere zoko bat nahi dut nire hildakoen artean, batez ere Arturoren aldamenean eta, bekatari galanta izan naizela ederki dakidan arren, horixe erregutzen diot Jainkoari, barkatzeko, dagokidan purgatoriotik igaro ondoren, maite izan ditudanekin betiko jartzeko.

Zuk baduzu nori eskatu, behintzat irribarre apal bat agertzen da Biteriren ezpain lehorretara hori esa-

tean; nik, ordea, mamuak baino ez ditut, gehitzen du, hustu dudan kopa atzera betez, zerbaiten alde, mamuen alde beharbada, topa egiteko asmotan balebil bezala. Pena hartzen dut halakoak entzunda, ume errugabe bat iruditzen zait Biteri, eta besoetan hartu eta kulunkatu egin nahi nuke, negar egiten zuenetan Eugenia hartu ohi nuen eran, lasaitu eta negarrari utzi arte; baina hori ezinezkoa denez, atetik Jose sar dadila nahi izaten dut, hizketagaiz aldatzeko, eguraldiaz berriketan aritzeko, gizon nirekin maitagarri nahiz soraio horrek, berak eskatu gabe ere Biterik parean ipini dion portoa edaten duen bitartean. Edozer, aipatu behar ez dena ez aipatzearren.

12

Dena aldatu zen hauteskundeekin batean. Lehendabizikoak ziren Franco eta gero, bere ondorengoek antolatuak. Hala teorizatu genuen, hala leitzen ahal zen ordurako baturik geunden troskizaleon *Combate* bakarrean. Itxaropentsu aurkeztu ginen, Gasteizen langileek gure alde eginen zutelakoan. Hautagai hoberenak genituen, hilabete batzuk lehenagoko borroketan nabarmendu zirenetarik anitz. Ongi lagundurik gindoazen, LCRz gain OIC, AC eta POUM historikoa biltzen zituen hautagai zerrenda batean: FUT, erran nahi baita, Frente por la Unidad de los Trabajadores. Araban Tomas Etxabe genuen zerrendaburu, Martxoak 3ko lider nagusietarik bat, eta Pui ere zerrendan zegoen, hondarrekoa, berak hala galdaturik.

Zer eginen nuke nik Madrilen, politikariez inguratua? Zure lankideen interesak defenditu, langile guztiena, arrapostu egin zioten zuzendaritzakoek, emakumeen ordezkaria izan. Nik ere burkideen eskaintza onar zezala nahi nuen, eta ahalegindu nintzen baiezkoa eman ziezaion. Alferrik, Pui kaskagogorra baita, zerbait izatekotan. Nolanahi ere, gu bezain esperan-

tzaz beterik zen izanen genituen emaitza bikainez. Horregatik, gainerakook hartu genuen zaplazteko bera hartu zuen hauteskundeen emaitzak argitaratutakoan.

Txarrak ziren, negar egiteko gisakoak. Aitzakiak goiti beheiti, ondorio argia atera zitekeen: langileek bizkarra eman ziguten, guri eta ezkerreko bertze koalizio eta partiduei. Guri bizkarra, eta eskuinekoei, Francozaleei, beren zanpatzaileei, bozka. Zaramagan gertaturikoa izan zen mingarriena: Adolfo Suarezen UCDk jaso zituen boz gehienak, hain justuki hilabete batzuk lehenago San Francisco elizan gertatutako sarraskia agindu zutenen partiduak.

Porrot izugarri hura mugarria izan zen, hor hasi zen gure gainbehera ez ezik, ezker osoarena ere: maozaleak urte gutiren buruan desagertuko ziren, eta Espainiako Partidu Komunista ahalguztiduna bera ere bazterreko partidu bilakatuko zen ohartu baino lehen. Aldeak alde, guri ere gisa horretako zerbait gertatu zitzaigun.

Egonarri iraultzailea zer zen bagenekien, zein zen sator gorriaren lana, baina titanen eginkizuna iduri zuen munduko langileria mendeetako bere alienazio pisutik libratzeak, eta artean gazteak izanagatik ere,

bizitza oso laburra izan daitekeela ongi ikasia genuen. Galdu genituen hauteskundeek sortutako lurrikara denboran luzatu zen. Plaka tektonikoek mugitzen segitu zuten, eta haiekin batera geuk ere mugitu behar izan genuen, egoera berriari egokitu. Nork bere zokoa bilatu behar izan zuen, bere aldea hautatu. Puik betiko gisan jarraitzea hautatu zuen. Nik, ordea, ez hautatzea hautatu nuen, dena denboraren eskuetan uztea. Lanean segitu nuen, eta, partiduak hala deliberatua, CCOOn nintzen, metal sindikatuaren zuzendaritzan, baina asperturik, laster sozialdemokraziara aldatuko ziren burokrata sasi komunista haien jardunaz eta kalakaz nekaturik. Bilkuretan kontra egiten banien ere, nire ahaleginak debaldekoak izanen zirela sinetsirik egiten nien. Halako batean zutitu eta haiek guztiak pikutara bidaliko nituzkeen. Puiri kontatzen nion. Ederki konprenitzen ninduen, baina kontu egin behar zitzaiola erraten zidan, iraultzaileon egitekoa zela, behinena. Iraultzaileen egiteko bakarra iraultza egitea da, aldarrikatzen nuen nik, eta hor hasten zen gure arteko kasaila, gero eta azkarragoa.

Politikak, ordea, zerikusi ttipia zuen gure harremanaren hondoratzearekin. Hura zerbaiti egoztekotan, denborari egotzi behar zitzaion, hark higarazi bai-

tzuen, urtez urte, eta egunez egun. Aldaketa behar genuen, baina, bertze hainbat konturekin gertatzen zen gisa berean, ezin zinez uste genuena erratera atrebitu. Hori egin ordez, urrundu egin nintzen, emeki baina urrundu, bai politikatik bai Puirengandik.

Kutxin ibiltzeari utzi nion, eta muinoaren bertze aldera egin nuen, ordurako LKI abandonatua zuen Kepa lagun bakarra nuen aldera. Hango ostatuetan nekez mintza zitekeen. Musikak galarazten zuen. Berdin zion, urteetan arituak ginen solas eta molas, eta menturaz bagenuen isiltzeko tenorea. Gero eta gehiago pipatzen genuen haxixezko zigarreta, txirria, elkarri pasatu eta aski zen.

Pui laster ohartu zen nire aldaketaz. Kezkatu egin zen. Kepa maite zuen, baina mesfidantzaz behatzen zion, partidua utzitakoan antikapitalistekin ibili ondotik, drogaren putzura erori omen zenetik.

Drogaren putzuan. Irrigarria, batez ere gero helduko zena gogoan. Zorigaitzez, Lou Reeden *Sweet Jane*rekin dantza eroa egiten zuen Kepa hark ez zuen nehongo zulora erortzerik izan. Hori baino lehen, prestatzen ari zen bonbak eskuetan zapart egin eta ehunka puskatan igorri zuen zeruan goiti.

Durduzatu egin ninduen Keparen heriotzak. Lagun bat galdu nuen, nire hoberena, eta sekulako hutsunea utzi zidan, hamaika galdera arrapostuezin uzteaz gain. Gibelera behatzen nuen eta nekez antzematen ahal lagun maitearen heriotza izugarria iragarriko zuen deus. Ezagutu nuen sasoira itzultzen nintzen, San Francisco elizara, ospitalera eramanen zuen auto baten bila eroturik aritu nintzen egunera. El Sotanon musikarekin batean burua mugitzen zuen gazte lerden alaia ikusten nuen oraino. Gelditzeko galdatu nahi nion, bakarrik ez uzteko. Nola maite nuen adierazi nahi nion, deus adierazteko sobera berant zelarik. Eta hunkitu egiten nintzen. Eta neure buruarekin haserretu, baita bertze zenbait lagunekin ere, bereziki Puirekin. Kepaz erran zituenak oroitzen zitzaizkidan, eta errabiatu egiten nintzen. Hura ere ahalke zen, ordea, damuturik Kepaz adieraziaz, horregatik laguntzera prest agertu zitzaidan, lagun erori berriari omenaldia egiteko nire asmoaz jakin orduko. Familiak antolatutako hileta-elizkizunak baino zerbait hobea merezi zuen, San Vicentera hurbildu nahi izan ez genuenok izan genezan hari hondarreko agurra ematerik.

Omenaldia hil zen leku berean egin genion. Berrogeita hamar bat lagun ginen, gazteak denak, mendira-

ko jantziak. Lehergailuaren eztandak belarretan sortutako soilgunearen inguruan paratu ginen, ikurrina eta bandera gorria albo banatan zituen Keparen argazki handitu bati beha. Joera politiko ezberdineko jendea bildu ginen hara, eta hori nabarmendu eta eskertu nahi izan nuen, solastatzeko txanda heldu zitzaidalarik. Kepa iraultzailea izan zela erran nuen, troskizaleekin hastapenean eta antikapitalistekin gero, baina iraultzailea beti, borrokalari nekagaitza. Goraipatu nuen haren alaitasuna, haren eskuzabaltasuna. Begiak gorriturik geneuzkan, *Sweet Jane*ren lehen akordeak ezagutu bezain fite. Musika, Puik ekarri eta partiduan hitzaldiak-eta grabatzeko erabiltzen zen garai hartako kasete batetik atera zen. Kanta ahitu, elkar besarkatu eta bueltako bidea hartu genuen taldeka, mutu, oraino tinko eramaki baikenuen eztarriko korapiloa.

Keparen heriotza, istripu latz hura, haren bigarren heriotza iduritzen zitzaidan. Lehendabizikoa: droga kontuetan nahastu zuten zurrumurruei leporatzen ahal zitzaiena. Zenbat eta horretaz gehiago pentsatu, hainbat eta argiago nuen. Pui ez ezik, partidu osoa zitzaidan susmagarri. Keparen gaineko gezur sektarioa-

ren sustatzailea iduritzen zitzaidan, urdekeria haren erruduna.

Horra ailegatuta, gibelera egiterik ez. Galdurik nintzen, ordura arte gidatu ninduen argi iraultzailea gero eta apalagoa zela nire begietarako. Nire bizitza zentzugabea iduritzen hasi zitzaidan. Lanean, ingurura behatu, urratuz eta ubeldurez betetako nire eskuei behatu, eta zer egiten ote nuen han galde egiten nion neure buruari. Iraultza egiten ari ote nintzen? Norekin, norendako? Zirt edo zart inoiz egin banuen, Salazar eta Biteriri esker izan zen, hein handi batean.

Mikel Salazar lehenagotik ezagutzen nuen, Gasteizko langileen koordinakundearen sasoitik, eta topo egiten genuenetan elkar agurtu eta gozoki solastatzen ginen. Abegikorra zen, politikaz arras jantzia. Biteri, aldiz, ezezaguna nuen. Zapako ostatu batean hurbildu eta Troskori egindako omenaldian erran nituenak eskertu zizkidan arte. Trosko gure Kepa zen, noski, zinez Roberto Idiakez zeritzan bion lagun zorigaitzekoa. Haiek ere lantegietan aritutakoak ziren urte luzez, baina utzia zuten, zanpatuak eta esplotatuak izateaz ase. Aise konprenitu nituen.

Pare bat aste geroago doi, ospatzeko zerbait bagenuela jakinarazi nien: Lana utzi diat. Besarkatu nindu-

ten, zoriondu, eta, Salazar garagardo gehiagoren bila joan zelarik, txirri bat bildu zuen Biterik. Ospatu beharra.

Ospatu edo deitoratu, nondik behatzen zaion. Puik lehenbizi eta partidu osoak ondotik, zorrozki gaitzetsi zidaten. Arduragabekeria hutsa omen zen, burges ttipikeria, damutuko zitzaidan zerbait. Bazitekeen hala izatea, baina nire hautua zen. Lana uztearekin batean, militantzia utzi nuen.

Zertaz biziko nintzen Puik kezkatuta galde egiten zidalarik, lasai egoteko erraten nion, zer edo zer eginen nuela, zer edo zer sortuko zitzaidala, ez nintzela bere lepotik biziko. Hori seguru, bihurritzen zitzaidan, bere harrotasun feministak beharturik.

Asmo argirik gabe utzi nuen lana. Sos batzuk banituen, eta hori aski zitzaidan. Haiek ahitutakoan ikusiko nuen, baina bitartean bizi egin nahi nuen, eguneko minutu bakoitza. Gauez bizitzen hasi nintzen, hortaz, fite nire lagunik hoberenak bilakatutako Salazar eta Biteri bizi ziren antzera. Urteetan lanera joateko goiz jaiki ordean eguerdia arte lo egitea plazer izugarria zen. Ahalke nintzen hain berant ezagutu izanaz. Eta nire baitan zin egin nuen hotsandiz, handik aitzina ahalik eta berantena altxatzera entseatuko nintzela.

Puiz ahantzirik zin egin nuen, pentsatzen ahal zuenaz axolatu gabe.

Behin, lanetik etxeratu eta ohatzean harrapatu ninduen. Zapart egin zuen egun hartan. Hondar aldian nire kontra pilatutako guztia bota zidan, laido eta lotsaizun anitz. Alferkeria leporatu zidan, egun osoz drogaturik izatea. Denetarik erran zidan errabia biziz, barnea guztiz hustu zuen arte. Alde egin zuen orduan, gure ganberako atea bere indar osoz hetsiz. Xixare lohi bat nintzen, Puiren ustez, txori-zirina baino gutxiago. Gau hartan, Salazar eta Biterirekin elkartu nintzelarik, berehala etxe bat beharko nuela jakinarazi nien. Irri egin zuten.

Etxe bat, non?

Mikel Salazarren galderak nahasirik utzi ninduen.

Nonahi? Donostian ere bai?

Hori aditu eta kopeta ilundu zitzaion Biteriri: Hirurok egingo dugu hire Kororekin ala? Salazarren neska zen Koro, Biterik begitan zuena, eta nabari zitzaion. Baina Salazar arras maitemindurik zen. Lagunak elkarri zirika ari zirelarik, Salazarren proposamenaz pentsaketan ari nintzen ni. Donostia hiri ederra zen, doi ezagutzen nuen hiri bat. Zerbait berria. Hutsetik hasteko leku egokia, menturaz. Zenbat eta luzeago har-

taz pentsatu, orduan eta erakargarriago zitzaidan ideia. Baita Donostian ere, erran nuen.

Hik ere Donostiara nahi? Biteri traizionaturik sentitzen zen nonbait. Pui bezala. Laster erran zidan etxetik alde egiteko. Bera joanen zen, bertzenaz. Nire puskak bildu eta Salazar eta Biterirenera joan nintzen, Paraguay karrikara. Liburuz eta paperez betetako zulo bat zen, hirurendako tokirik doi-doi zuena. Hilaren bukaeran utzi genuen, eta, harekin batean, hiruron bizitzan hain garrantzitsua izan zen Gasteiz bera ere. Ordurako Korok bazuen etxe bat guretako.

Amaran zen, Balleneros kalean, The Clash ikustera heldu eta gero pixka bat ezagutzen genuen Anoetako Belodromotik hurbil. Hiru ganbera zituen, eta, Korok hala iradokirik, ohatzerik handienekoa utzi genion Salazarri. Justua iduritu zitzaigun. Txortan egin zezatela, funditu arte txortan. Bekaizti ginen nolabait, baina aise ulertu genuen, Salazar izaki, nabarmenki, hiruretarik erakargarriena. Logikoa zen, hortaz, gu baino arrakastatsuagoa izatea. Hala ere, ezin kexa, noizean behin emaztekiren bat lerratzen nuen nire ohatzera. Biterik, iduriz, bertze interes batzuk zituen.

Kontua Gasteiztik heldua zen, jadanik han hasiak baikinen zaldia sudurretik sartzen, baina okerrera egin

zuen Donostian, batez ere Salazar eta Biteri orratza erabiltzen hasi zirenetik. Hor ni kikildu egin nintzen. Bainugelako konketa odol tantez zipriztindurik atzeman nuenetik, bertze gisa batez behatu nion gure zaletasun horri. Lagunei ezetz erraten hasi nintzaien, eskaintzen zidatelarik.

Ondo zagok, alegeratzen ziren. Norbaitek kontrolatu behar dik.

Ederki jo zidaten adarra: Trosko hauek jende serioak izan dituk beti, ez alproja batzuk, gu bezala. Alferrik adieraziko nien LKI aspaldi utzi nuela, Trotskik eta gainerakoak bortz axola zitzaizkidala. Bazekiten. Nik ere irri egiten nuen haiekin, baina, ukatu arren, troskismoak, marxismoak oro har, eragin handia zuen oraino nigan. Marxek erlijioaren gainean idatzitakoa nuen gogoan, erlijioa herriaren opioa dela, alegia. Drogaz lagunek baino gutiago nekien, baina erlijioaz arrunt gehiago, eta, hortaz, argi nuen Marxendako drogek makurrak izan behar zutela. Batez ere heroina, haren bitartez deuseztatu omen baitzuen amerikar estatuak Black Panthers mugimendu iraultzailea. Eta hemen Guardia Civila ari zen zaldia hedatzen.

Ezker Abertzalearen paranoiak, zioten nire lagunek. Bazitekeen hala izatea, jakina, baina banituen

kontu garrantzitsuagoak buruan erabiltzeko. Pui eta gero, bertze emazteki bat behar nuen. Txortan ari zirelarik, Salazarren eta Kororen aiene eta oihuak aditzean urduritu egiten nintzen. Gau bakar baterako harremanak ongi ziren, dibertigarriak, eta maite nituen. Baina bertze zerbait behar nuen, nire bizimodu zoroari oreka zerbait emanen ziona.

Maitemindu egin nahi duk, beraz?

Gustuko izanen nuen neska bat nahi nuen soilik. Sobera galdatzen ari ote nintzen? Nire ametsetako emaztekia antzeman arte, banuen konpondu beharreko bertze hainbat arazo. Guztietarik beharrezkoena: lana. Lana edo, hobeki errana, sosak. Hala adierazi nien lagunei gau batez, Trumoia ostatuan ginelarik.

Betiko moduan, irri egin zuten. Oraino ere, Mikel Salazarrez oroitzen naizelarik, hala oroitzen dut, irriz tai gabe. Bruce Springsteenek kantatzen duen bezala, gure loria egunak ziren haiek, sasoi hoberenak. Pelloren egia badirudi ere, bizirik ginen. Hirurok. Bizi-bizirik eta irriz. Erdi hilik den Biteri ere bai. Orduan maiz egiten zuen, ez orain bezala, gutitan eta bakarrik Gloriarekin. *Glory days*, bai horixe. *Fucking glory days*.

Gu ere miseria gorrian gaudek, aitortu zidaten, eta lanera bueltatu beharko diagu aurki. Hik nahi izanez gero, egongo duk hiretzat ere zereginik. Zer iruditzen?

Troskoren ordezkoa izango hintzateke. Beste Trosko bat, eta berriz egin zuten irri, kopeta ilundu zitzaidala ohartutakoan. Gidatzen badakik, ezta? Banekien. Pentsatu, eta zer edo zer esango diguk.

Hiru egun hartu nituen deus arrapostu aitzin. Pentsaketan egon nintzelarik, jabetu nintzen kontu bakar bat ebatzi behar nuela: zeri nion beldur handiago, putakume batendako putakume baten gisara egunero lanean aritzeari edo poliziari? Eskaintza onartu nienean, duda pixarrik gabe onartu nien, egitera joaki nintzenaz seguru. Lantegi batera itzultzea, han egunero zortzi oren ematea, jasangaitza iduritu zitzaidan, izugarria. Kartzela ezin hori baino makurragoa izan.

Ongi etorri Trosko komandora!

Banda bat ginen. Lapurrak, baina lapur iraultzaileak. Gu esplotatzeko eskubidea kentzeaz gain sosak ere kenduko genizkien kapitalistei. Bi txori akabatuko genituen harri bakar batez. Lapurrak izatearen ideia erakargarria zitzaidan. Proletarioekiko lilura galdurik, berriki arte mespretxatzen nituen lumpenengana itzuli nintzen, iraultza egitekotan haiek eginen zutelako-

an. Galtzeko deus ez zutenek. Munduko zaborra. Lapurrak ez ezik, ijito eta drogazaleak ere gogoan neuzkan, kartzelak betetzen zituztenak eta, koordinakunde baten bitartez, borroka latzean hasiak zirenak. Gure etekinen zati bat haiei emanen geniela deliberatu genuen, gure elkarte kriminala –hala deitu zuen Salazarrek umoretsu– sortu genuelarik.

Lehendabiziko lana Pasaian egin genuen, Gipuzkoako Kutxaren bulegoan. Bortz minutuko kontua izan zen. Ni kanpoan geratu nintzen, autoan, ihes egiteko prest. Eta trankil antzean alde egin ahal izan genuen, nehor ohartu gabe. Erabili genuen autoa erre ondotik, etxeratu ginelarik, ezin parean nuena sinetsi: zazpiehun mila pezeta eskuratu genuen. Lau zati egin eta, solastatu bezala, horietarik bat presoen koordinakundeari helarazi genion. Gainerakoarekin bagenuen zenbait hilabetetarako.

Lan erraza izan zen. Bulegoan sartu, pistolak erakutsi, lurrean etzateko eta haiek erran arte hala egoteko bezeroei eta langileei galdatu, sosak hartu eta agur betiko. Lasaiki egin zuten. Profesionalak izateaz gain artistak ere baziren. Biterik, konparazione baterako, auto bat ireki eta martxan paratzen ahal zuen mi-

nutu bakar batean. Anitz nuen ikasteko, baina irakaslerik hoberenak nituen.

Gure betiko bizimoduarekin segitu genuen. Berant arte gauez eta berant arte lo egunez. Nik Salazarrek erosi baina leitu gabe utzitako liburuak leitzen nituen, zinemara joaten nintzen, eta iluntzean lagunekin elkartzen nintzen Alde Zaharreko ostatuetan. Antzera banatzen zen haien denbora. Salazarren gehiena Korok hartzen zuen, bistan da. Biterirena, haatik, heroinarena zen gero eta gehiago. Bere ganberan sartu, musika paratu eta ordutan egoten ahal zen handik atera gabe. Drogak gauerako uzten nituen nik, ostatuetarako.

Horietan lagun anitz genuen. Sobera ere zenbaitetan. Kezkatzekoa hasi zen izaten. Salazarri erran nion. Onartu egin zidan: Bai, jende askotxo gonbidatu diagu azken boladan.

Hala segituz gero, polizia izanen diagu fite gibeletik, ohartarazi nion. Sosa erruz darabilgula hedatuko duk, eta nondik atera ote dugun jakin nahiko ditek. Baietz hark beti, Biterirekin solastatuko zela. Utzi nire kontu, bazakiat harekin nola hitz egin.

Bere hitza bete zuen. Hala erran zidan, handik egun gutira. Dena konponduta, erran zidan, hurrengo

lanerako dena prest. Harriturik behatu nion. Sosik gabe geratzen ari omen ziren. Honen goiz! Lanak nituen sinesteko, oraino aldi aski luze baterako geratzen baitzitzaidan niri. Nola zitekeen haiek dena eralgitzea hilabete guti batzuetan?

Gure bizimodua ez duk hirea bezain soila, gu ez gaituk seminariotik pasatutakoak, eztenkada eman zidan Biterik.

Eginen genuen, bada, haiek nahi bezala. Astebete doi behar izan zuten banku egoki bat bilatzeko. Irunen atzeman zuten, Colon pasealekuaren gibeleko karrika batean.

Nik gidatu nuen Biterik lapurtutako Volkswagen Golf beltza, eta bien zain geratu nintzen. Adi nengoen, ezker-eskuin beha. Halako batean zibilen Land-Rover bat agertu zen nire ispiluan, batek daki nondik. Istantean izerditan urturik nintzen eta duda larrietan. Klaxona jo behar ote nuen, mintzatuak ginen gisara edo pasatzera utzi. Ordukoan ere, zorionekoa izan nintzen, Land-Rover berde iluna eskuinera hartu eta nire bistatik galdutakoan atera baitziren Biteri eta Salazar bankutik.

Pasaian eskuraturikoa baino ttipiagoa izan zen han bildutako kopurua: bostehun mila pezeta. Nolanahi

ere, anitz zen, nire ustez. Lagunek bertzerik uste zuten, eta, Irungoaren ondotik, lapurreta handia, hondarrekoa izanen zena hasi ziren aipatzen. Oharkabean, gure ametsa bilakatu zen. Etxean, ostatuetan, horixe erabilki genuen malenkoniatsu, hiru gazte bipil izan ordean, hiru agure bagina bezala. Nora joanen ginen, zer eginen genuen eztabaidatzen genuen. Salazarrek Hego Amerikara, Mexiko edo Venezuelara joatearekin amets egiten zuen. Biterik, aldiz, bertan gelditzea nahiago eta ostatu bat irekitzeko deia egin zigun, pilaturik izanen genuen dirutza garbitzeko, baita gure bizimodu erosoaren zergatia argitzeko baliatuko genuena. Niri, egia erran, bortz axola bataren zein bertzearen proposamenak, kontua elkarrekin izatea zen.

Irungo lana eta gero, hala ere, dudei emanago nintzen ametsei baino. Ametsez lagunekin solastatzen ahal nintzen, bederen, baina dudak nire baitan egosten ziren, eta handik ezin atera. Haien argitan itsusi ikusten nuen neure burua, koldar, eta, batez ere lagunen konfiantza merezigabea. Traizioaren itzala ere hor zegoen, egin ez nuen baina egitekotan izan nintzen traizioarena, handik lehenbailehen ihes egitearen ideia pasatu baitzitzaidan burutik. Makurrena horixe

zen, goitik behetik kakazten ninduena. Ezezaguna zitzaidan Joxe bat agertu zen orduan nire begien parera, gizon ttipi, berekoi eta ezdeus bat, guztiz mespretxagarria. Tokitan nik idurikatutako iraultzaile ausart eskuzabala.

Errealitatearen gordinak izutu ninduen. Urduri ibilki nintzen. Eta hain zen hori nabarmena, non, drogaren lainotik gero eta gutiago ateratzen ziren Biteri eta Salazar ere oharturik, zer pasatzen zitzaidan jakin nahi izan baitzuten: gazte eta libreak ginen, sosak genituen, nahi genuena egiten ahal genuen. Zer gehiago galdatzen ahal zen?

Arrazoiak ongi ziren –begi-bistakoa zena onartzea–, baina ez aski. Biltzen ahal nuen sosegu apurra drogen bitartez biltzen nuen. Txirriak pipatzen nituen lo geratu arte, edo zaldi pixka bat sartzen nuen sudurretik, bertzenaz. Hala joaki zitzaizkigun egunak.

Parrandan ibiltzen ginen, rock kontzertu gero eta gehiagotara joaten ginen. Drogak eta sosak ere agudo joaten ziren, eta ohartu baino lehen fitsik gabe ginen, eta berriz ere lanari lotu behar. Salazarrek erositako bigarren eskuko Renault gorri batean sartu eta Gipuzkoako nahiz Nafarroako iparraldeko herriak bisitatzen

genituen, eginen genuen hurrengo bankuaren bila. Turistak bagina bezala ibiltzen ginen.

Bi lapurtu genituen sei hilabetetan, Gipuzkoako Kutxaren bulegoa Urnietan eta Altsasuko Banco de Bilbaorena. Arazorik gabe burutu genituen biak, nahiz eta aitzinekoetan baino gutiago eskuratu. Hori kezkagarria zen. Gure lanaren arriskua areagotzen zuen. Lapurretak nabarmenki ugaritu ziren, eta bankuek zuhurki jokatzea deliberatu zuten.

Zaila zen. Hala ere, bagenekien, seguru ginen, izan bazela guk bilakaturikoa, esperoan genuela nonbaiten noiz atzemanen, denbora kontua zela.

Hurrengo lana egiteko Tolosa hautatu genuen: Banco de Vasconia. Hara azaldu gara, ba, goiz hotz ilun batean, sartu-irten fite bat egiteko asmoz. Salazar eta biok ongi joaki ginen, baina Biteri ezin okerrago. Bankurako bidean bala arrasto bat uzten ari zela ikusi nuen izuturik. Neure burua eskaini nuen haren ordezko. Lasai egoteko, erran zidan Salazarrek, galtzetako sakelan zulo bat zuela eta moldatuko zirela, ez zela Biteri hala joaki zen lehendabiziko aldia. Moldatuko ziren.

Egiazki haserre nintzen, lehendabiziko aldiz, Salazarrekin. Bera ere Biteri bezain drogaturik ote zen? Hi

txoferra haiz, hemen behar haugu, arrapostu zidan, bera ere haserretzen hasia. Ez arduratu gero, aspalditik ezagutzen diat, eta bazakiat eramaten.

Irunekoa baino arrunt makurragoa izan zen Tolosako hura. Auto barnean nintzelarik, eskuak bolanteari azkarki atxikiak, beldurrez dardarka nintzen, hura molde itsusi batez finituko zelakoan. Zainak menderatzeko eginahalak egiten nituen, eten gabe ezker-eskuin ez behatzeko. Minutuak ikaragarri luzeak ziren, nire eskumuturrekoaren orratzak baratxe ibilki ziren, eta nehola ere pentsatu nahi ez nuena ari nintzen pentsatzen. Irunen bezala, ihesa tentagarria zitzaidan, hil edo bizikoa ere. Ahantzi ero pare hori, aholku egiten nion neure buruari, salba hadi, ahal duan bitartean. Baina geratu egin nintzen. Ez dakit nola, beldurrari kontu egin eta bertan segitu nuen, autoko motorra bero.

Sekula baino luzeago egon ziren bankuan, ia hamar minutuz. Atera zirelarik, herrestan eramaki zuen Salazarrek Biteri, lepotik atxikia. Bertze eskuan plastikozko zorro beltz bat zeukan, nik sosez gainezka nahi eta espero nuena. Haatik, aski muzindurik geldi-tu ginen hirurok, zorroak gordetzen zuena ikusi eta

zenbatu ahal izan genuelarik: bostehun mila pezeta baino pixka bat gutiago.

Tolosako hura mugarria izan zen. Arrisku handietan ibiliak ginen, nehoizko diru kopururik ttipiena biltzeko. Salazarrek dena ongi joan zela adierazi bazidan ere, argi zen gezurretan ari zitzaidala. Biteri ikustea aski. Pixa egitean bere zakilari nekez atxikitzen zionak nola atxikiko zion, ba, pistola bati. Seguru nintzen arazoak izan zituztela, doi ihes egin zutela.

Zer zela eta nintzen hain seguru? Alde egitean, Tolosako udaltzainen autoa ikusi nuen atzerako ispiluan. Langileren batek alarma jo eta agertuko ziren, zorionez guretako, berant. Jakina, hori nire hipotesia da. Benetan zer gertatu zen zekitenek –ez batak, ezta bertzeak ere– ez zidaten fitsik kontatu, eta nik galderarik ez egitea nahiago izan nuen.

Bertze kontu batengatik ere izan zen Tolosakoa mugarria. Ordura arteko ohiturari muzin eginik, gu hiruron artean banatu genuen lapurretaren emaitza, presoez ahantzirik. Harritu ninduen, baina sosak gorde nituen. Aurreztera deliberaturik nintzen, eta pezeta haiek ongi helduak izanen ziren, nire kapital oraino urria handitzeko.

Egia erran, Biteriren egoerak eta Salazarren zuhurtzia faltak ikaraturik nintzen. Neure burua atxilotua ikusten nuen, torturatua, eta lotan amets gaiztoek itotzen ninduten. Kolpean iratzartzen nintzen orduan, izutua, izerdi lapetan. Lagunengandik bereizi behar nuen, gibelean utzi eta bertze bizimolde bati lotu, bertze nonbait menturaz, urrun. Horretarako sosak behar nituen, baina hori bigarren mailako kontua iduritzen zitzaidan orduan, Salazarren eta Biterirengandik libratzeko beharrarekin alderaturik.

Egunak eman nituen hausnarrean. Noizbait, Kororekin solastatzea bururatu zitzaidan. Ongi konpontzen ginen. Salazarrekin koleratzen zelarik, nigana hurbiltzen zen, laguntzaren bila. Anitz kasaila izaten zuten, bereziki Koro haurdun gelditu zenetik. Mikel ona da, agertzen zidan, oso ona, baina drogak galbidetik darama. Hainbertzerako ez zela erraten nion nik, Salazar ez zela Biteri, nik ere drogak hartzen nituela. Ez da gauza bera, Joxe. Zu serioagoa zara.

Bai, serioagoa nintzen, drogak utzi nahi nituen. Egiten ahal nuen hoberena zen, haren ustez, nire lagunek ere egin behar luketena, batez ere bere Mikelek, laster aita bilakatuko zena. Aitatasunak bertze jokamolde bat derrigortzen zuen, Kororen ustez, ardura

pixka bat. Nire erabakia traizioa izanen ote zen haiendako, egin nion galde, hori baitzen gehien kezkatzen ninduena. Baliteke, arrapostu zidan, baina egin beharrekoa berdin egin behar duzu. Berriz ere akort izan ginen.

Salazar sukaldean bakarrik harrapatu nuen batean, eman nion egitera joaki nintzenaren berri. Isilik aditu zuen, niri beha.

Ondo pentsatu duk, argi zagok. Pena duk, baina erabakia hirea baino ez duk. Hik ikusi behar duk.

Txoferrik gabe, bankuak lapurtu ezinik, gasolindegi, denda eta ostatuetan aritu ziren, betiko salbatuko gintuen ideia distiratsuaren esperoan zirelarik.

Zain izan gabe, mugitzeko tenorea nuela iritzita, etxez aldatu nintzen, lehenik eta behin. Amaratik Egiara joan nintzen, Ametzagaina karrikara, ikasle etxe batera. Ni baino gazteagoak ziren, baina aise laketu nintzen han. Auzoz aldatu arren, Biteri eta Salazar ikusten segitu nuen, Alde Zaharreko ostatuetan gehienetan.

Sekula baino bereizezinagoak ziren, nire alde egiteak bien harremana bizkortu izan balu bezala. Ordurako aita zen Salazar. Oihane izena paratu zioten ala-

bañoa besoetan zuela idurikatzen nuen Koro, bakarrik, beti bezala berandutzen ari zen gizonaren zain.

Lapurretak betiko utziak nituela sinetsirik, sosak bertze nonbaitetik ateratzera beharturik nintzen. Zorionekoa izan nintzen orduan ere: Trumoian nengoen batean, Rafa hango nagusiarekin solasean, bertan lan egiteko norbait behar zuela aipatu zidan. Neure burua eskaini nuen, behin eta oso aspaldi baizik ez nuela ostatu batean lanik egin argi uztearekin batean. Ikasiko duk, neuk erakutsiko diat. Biharamunean hasi nintzen.

Konstituzio enparantzako ostatu hura talaia ederra zen, karrikan pasatzen zenari behatzeko. Arkupetan haxix saltzaileak egoten ziren, eta egarri zirelarik edo polizia inguruetan susmatzen zutelarik, gurean edo Kazkabarran bilatzen zuten babesa. Denak ezagutzen nituen. Poliziak ere bai, hainbertze aldiz plazan ikusirik. Uniformerik gabe ere sumatzen zitzaien. Pistola nabaritzen zitzaien, Rafaren ustez. Aski ahoberoa zen, baina lagun ona, eta denbora-pasa ezin hobea haren kalaka. Anitz irakatsi zidan, ostatugintzaz nahiz bertze zenbait kontuz.

Biteri eta Salazar maiz agertzen ziren Trumoiara, ia egunero. Jonki zailduak ziren ordurako, zer sartu atzeman arte atsedenik ez zutenetarik. Halakoetan

eneagarriak izaten ahal ziren, jasateko gaitzak. Gehienetan, aldiz, umoretsu egoten ziren, trenpu onean. Adarra jotzen zidaten, guk hirurok baizik ezin konprenituzko solas molde batez. Betiko ametsa berritzen zidaten noizbehinka, lapurreta handia eta akasgabea, laster eginen genuena.

Jonki kontuak ziren niretako, fildarkeria, ostatura agertzen ziren bertze jonki batzuen gisakoak. Leloa ongi ezagutzen nuen: hauxe eginen dugu, bertzea eginen dugu. Kaka zaharra, ez baitzuten fitsik eginen.

Korok ere bisita egiten zidan batzuetan. Banekien zertarako heldu zen, noren bila. Eskua altxa eta agurtu egiten nuen nire zokotik, hurbiltzera gonbidatzen. Batzuetan kasu egiten zidan, eta barraraino hurbiltzen zen. Oihane ttipiaz galde egiten nion, eta begi izugarri haiek piztu eta ostatu osoa argitzen zuten. Mikel Salazar aipatzean, ilundu egiten zitzaion begitartea. Ikusi duzu? Baietz nik, ostatuan egon zela. Biterirekin al zebilen? Baietz, berriz ere. Bazekien Salazarren bihotzaz jabetzeko borroka dorpean galtzailea bera zela. Baina irabazlea?

Irabazlea Biteri izaten ahal zen, noski, baita heroina ere. Nornahi edo zernahi zelarik, herioaren ordaina haren mutila zen, baitezpada. Bitxi da, sasoi hartan ez

nukeen nehoiz pentsatuko Salazar Biteri baino lehenago hilko zenik. Hala izan zen, haatik. Erraten ahal da Biteri berrogei urtez izan dela hil-hurren, bere agonia anitzen bizitza baino luzeagoa izaten ari dela. Iturrin beha gelditzen natzaio zenbaitetan, eta zeinahi momentutan erortzen ahal dela iduritzen zait, zeinahi momentutan hil. Erkin eginik ikusten dut, mendre. Zalantzarik gabe, errukiak egin zidan traizio, lanerako hartu nuelarik. Erruki malapartatuak.

Ez da langile txarra, baina ordaintzen diodanaren truke, gazte segail indartsu bat izaten ahal nuen, zonbi zahar horren ordez, horixe baita Biteri, finean. Emaztekiekin arrakasta harrigarria duen zonbi bat, hori aitortu behar zaio. Barra bukatzen den zoko horretan maiz paratzen den emazteki gaztearekin, konparazione baterako, Biterik eta Gloriak filosofoa deitzen duten horrekin. Argia omen da, oso ikasia, eta, hala ere, Biteri bezalako bati egiten dio kasu, bere adin bertsuko norbaiti egin beharrean. Zerk erakartzen du harengana?

Oi Jose, ze gaizki ezagutzen gaituzun, erraten dit Gloriak, nire harridura ikusirik. Emaztekiak konprenitu nahian eman dut bizitza alferrik. Pui, Gloria bera, oraino ere misterioak dira niretako. Ann da ustez konpre-

nitzen dudan, baita konprenitzen nauen bakarra, salbuespena. Eta, hala ere, berehala utziko nuke, hogeitaka urte eta gero, Gloriak galdatuko balit.

Gloria ere emazteki berezia da, bereziena, nire ustez. Horregatik konpontzen da hain ongi Biterirekin, horregatik kontatzen dizkio niri sekula kontatuko ez lizkidakeenak, nahiz eta elkarrekin ez joan ohatzera. Txortan egindakoan, burua nire bularrean pausatu eta bere amets eta aiherren berri eman beharko lidake. Bai zera! Biteriri izan ezik, bertze nehori ez dio Gloriak urririk deus ematen. Ordaindu egin behar da. Batez ere, bere gorputz oraino zirraragarria ukitu nahi izanez gero. Naturaren mirari hori ferekatzea, horri larrua jotzea, hozka egitea ez baita nornahiren esku. Jainkosa bat da, eta halakoek jainkoren bat nahi izaten dute, Midas bat. Nik badut aski sosa haren denbora pixka baten erosteko, alaba Madrildik bisitan heltzen ez zaion asteburu batzuetan. Gure harremanean bera da nagusia, bere enbeiaren arabera mugitzen da. Berak agintzen du beti. Hala da Gloriarekin, berak paratutako arauei segika ibili edo fini. Behin ere ez du deus behar izan, ezagun du. Deus ez, batez ere gizonik. Nahi baino gehiago ere izan ditu, bi moldetakoak: aberatsak eta arrunt aberatsak. Bi taldetakoak ibili ga-

tzaizkio eroturik gibeletik. Gloriak goitik behatzen du, baita bera baino garaiagoak direnei ere. Goitik behatu eta gu denok ttipi-ttipi ikusi, xinaurrien pare. Eta, nahi izanez gero, gu ere, bere miresleak, bere manupekoak, bere petzero eta jopuak, xinaurriak bezalaxe zanpatzen ahal gaitu. Orpo luze meharreko txarolezko zapata gorriez edo larru beltzezko bota luzeez, nahi gisara, makina bat zapata pare baitu, zernahi parada eta eguralditarako. Denetarik du eta izan du, behar baino gehiago. Hala eta guztiz ere, gehiago nahi du, aseezin. Sexurako izan ezik, horretan berehala asetzen baita.

Maitale deusgabea naiz, menturaz. Ez Pui, ez Ann ere ez zaizkit nehoiz kexatu, baina baliteke hala izatea. Nolanahi ere, harrituko ninduke Gloria ni bezain maitale emana sekula izateak. Ohatze batera eramatea erreusitu nuen lehendabiziko aldiaz oroitzen naiz. Ainhoako Ithurria hoteleko ohatze batera eraman nuen, beheko jatetxean ausarki afaldu eta gero. Ithurria leku zoragarri batean da, eta hura miretsi genuen hoteleko ganberarik handieneko zurezko balkoi gorritik, maletak hustu baino lehen. Ostirala zen, asteburu osoa genuen aitzin, hortaz, eta nik ezin sinetsi egun hura, hondarrean, ailegatua zenik. Besoa luzatzen

ahal nuen eta Gloria ukitu. Ukitzera entseatu nintzen, egia erran, nehongo arrakastarik gabe. Aiher zitzaion nehork bera ukitzeari. Afariko ardoari eta afari ondoko whiskiari esker, gauean aiseago izan zitzaidan. Musukatzera utzi ninduen, biluztera eta ohe zabalaren gainean paratzera. Han gur egin nion, han urtu nintzen harenganako grinaz eta mirespenaz, han izan nintzen sekula baino gehiago bere jopu itsuki leiala. Hari beha, noizbait berak ere nire beharra izatea deliberatu nuen. Berak nigan sorturikoa sorrarazi nahi nion. Mendekua nahi nuen. Edo egindako inbestimenduaren etekina, menturaz. Krokodilo larruzko zapata berdeak eta bularretako eta tanga beltzak erantzi gabe, zangoetan goiti hasi natzaio musuka eta milika. Tanga hortzez kendu diot. Ondotik luzaz aritu natzaio, nekatu gabe, mingaina haren sabelpeko ilunean. Maite dut Gloriaren alua, haren inguruko ile urdina. Maite dut hura nire tuaz bustitzea. Gloriak ere maite du egin diezaiodan, bistan da. Horregatik aritu nintzaion gisa horretara, ez zela aski, gehiago nahi eta behar zuela ohartu nintzen arte. Orduan goiti segitu nuen, zilborretik iraganik, bularretako parpailadun dotoreraino eta, hura libratutakoan, titiburuak jan nizkion, leunki baina fermuki. Hoberena izan nahi nuen, sexuaren atleta bat, bainuge-

lan, Gloriaren gordean, hartutako Viagraren laguntzaz. Liluratu nahi nuen nire gazte trenpuaz, bere droga bilakatu nahi nuen. Mingainaz belarri-gingiletan ibilki nintzaiolarik, nire eskuinaren erdiko hatza pinportan ibilki zitzaion. Hala, torra eta torra, musuka eta fereka, ailegarazi nuen noizbait orgasmora. Etorriko ziren bertze biren aitzindaria. Esker oneko izanen nuela pentsatu nuen, zordun izanen nuela. Gizajoa, masailean patto arin bat egin, eta bizkarra erakutsi zidan.

Eskerrik asko.

Horixe erran zidan, ate bat ireki eta pasatzera utzi izan banu bezala. Hori bertzerik ez, eta lo gelditu zen, ohatzean bakarrik egonen balitz bezala. Eta arras umiliaturik nerorri, zakila potolo eta tente, zer egin jakin gabe. Hamaika aldiz madarikatu nuen. Eta opa nion makurrena: minbizi dorpea, Alzheimerrik erabatekoena... Hamaika aldiz egin nuen kaka bere enda endekatuaren gainean. Baita neure enda berdin endekatuaren gainean ere, ergel hutsa izan behar baitu batek, ni nintzen bezala izateko. Penagarri, irrigarri, errukigarri, halaxe nintzen. Burua sutan eta zakila ere bai. Gloriaren ipurdi loriatsuaren kontra neukalarik, haren taupada erotua aditzen nuen. Pixkanaka, zakil menderakai-

tzaz hasi nintzen naturaren artelan hobeezin hura torratzen.

Ordurako pisua zen emaztekiaren hatsa. Haren arabera mugitzen nintzen. Memento batez hats hartzeari uzten ziolarik, gelditu egiten nintzen, esperoan, adi. Hatsa berriz astuntzen zitzaiolarik, ordea, lotzen nintzaion lehenago hasitako dantzari. Ari eta ari, gerrialdakak inarrosten nituen, gero eta biziago. Goiti eta beheiti ari nintzen, burdina gorizko haga bat iduri zuen hura ondo-ondoan nuen emaztekiaren zulo bakoitzean sartzen nuela amets.

Luzaz aritu nintzen, harik eta trakets, barraka, odol zuria isurarazi nion arte. Gozoa izan ordez, mikatza izan zen niretako. Mikatza, baina libratzailea.

13

Ispiluak. Edonon. Inguratuta gauzkate. Norberaren etxean ez ezik, kale, denda eta tabernetan ere badaude. Edonon. Hiperrean ere bai. Asko. Geure burua ikus dezagun. Nahitaez. Ispiluen diktaduran bizi gara. Diktadura guztietan bezala, batzuk pozik daude: pozik egoteko arrazoiak dituztenak eta, hala egoteko arrazoirik ez izanagatik, badituztela uste dutenak. (*Herrschaft und Knechtschaft*, berriz ere).

Esfingea da horietako bat. Iturriko barra atzeko ispilu luze zabalean miresten du bere burua. Modu nabarmenean egiten du, ispiluan bertan idatzitako pintxoen izen eta salneurriei begira dagoelako itxura egin gabe. Bere burua miresteko, baita tabernako beste bezerook mirets dezagun ere. Halakoa da oilo zahar pinpirin hori. Babalore, artobero hori. Biteriren adiskide mamia. Dagozkidan zintzotasun intelektualak derrigortuta, ordea, harrotzeko arrazoiak dituela aitortu behar dut.

Nor da erreinuko ederrena, galdezka entzun dezaket nire zokotik. Edurne Zuriren amaorde hobeezina litzateke, Walt Disneyren film batean. Amaorde lirain zi-

tala. Film horretan egongo banintz, zer egingo nukeen galdetzen diot neure buruari, zein nintzatekeen. Edurne Zuri agian? Bururatzea ere. Itsusi samarra naiz eta ez dut amaorde tiraniko bat.

Pertsonak ere ispiluak izan daitezke, ispiluak izan ohi dira. Mari da horietako bat niretzat. Biteri ere bai, nolabait. Ama ez. Amarengan ez dut sekula aurkitu nire ezer. Ez itxuraz, ezta izaeraz ere, naizen guztia (inoiz izan ez dudan) aitari zor banio bezala. Txikitatik bilatu eta sekula aurkitu ez dudan arrotz bati. Mamu bati. Biteri izeneko beste mamu batenganaino ekarri ninduena. Nire ausardia zigortzeko, agian. Mamu baten atzetik ibiltzeko ausardia beste baten bitartez zigortzeko. Bakea eman behar diodala aditzera emateko? Hala balitz, mamuen lurralde lainotsutik bidalitako mezulari iluna litzateke Biteri. Ispilua izateaz gain.

Biteri!

Giltza izan zen niretzat, iraganaren ate karrankari astuna ireki zidana. Amari entzun nion behin. Behin baino ez, beste hainbat izenekin batera. (Inoiz izan ez dudan) aitaz hitz eginarazi diodan aldi bakanetariko batean. Oihuka. Amorratuta. Begiak gorrotoz dir-dir. Salazar, Mikel, aita, benetan maite izan duen gizon ba-

karra zela aitortu zidan egun berean aipatu zuen. Nahi gabe, uste dut, haserreak eraginda. Izena buruko zokoren batean geratu zitzaidan. Horregatik, zenbait urte geroago berriz entzun nuenean, jakin-mina jabetu zen nitaz istantean. Urtziren ahotan entzun nuen, bezperako parranda kontatzen ari zitzaidala. Galdetu egin nion. Dena jakin nahi nuen. Miresmenez hitz egin zidan Biteriz. Haren jatortasunaz eta umoreaz. Adinez zaharra zela azaldu zidan, baina gazte baten moduan eta gazteekin sarritan ibili ohi zela, Alde Zaharrean nahiz Egiako tabernetan, batez ere Bukowskin. Jonkia izan omen zen gaztetan, eta gizon naturala zen, Urtzi Estebanen ustez. Ezagutu egin nahi nuela esan nion.

Ziur nintzen irribarretsu agurtu ninduen gizon hura amak aipatutakoa zela. Ilea urdinduta zeukan, baina ugaria, aurpegia zimurrez betea. Horien artetik irteten ziren begi uherrek bazeukaten indar berezia, erakargarri bilakatzen zutena.

Zaharra dun hiretzat, esan zidan Marik, telefonoaren bitartez egindako haren argazki bat erakutsitakoan. Hire aita izan liteken. Hau da, (inoiz izan ez dudan) aita.

Zaharragoa dun hire senarra, adinez Biteri baino gazteagoa izan arren, esatekotan egon nintzen. Hipe-

rrean nuen lagun bakarra galtzeko beldurrez eutsi nion mihiari. Bakartasunaren beldurrez.

Batere atseginak izan ez nituen hitz haiek lanartean esan zizkidan. Zigarretari brau tira egin eta modu berean bota zizkidan. Nik, aldiz, kafeari azken hurrupa egin, plastikozko edalontzia marruskatu, eta barnera jo nuen besterik gabe.

Lanean ari nintzela (egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...), Marik esan berri zidanaren oihartzunak nigan zirauen. (Inoiz izan ez dudan) aitaren ordezkotzat hartu ote nuen Biteri? Zenbat eta horri buruz gehiago pentsatu, orduan eta zalantza handiagoak nituen. Zer ikerketa mota zen nirea, baldin eta ikerketa bat bazen? Zintzo jokatzen ari ote nintzen, ni bezalako norbaiti eskatu ahal zitzaion gutxieneko zorroztasun zientifikoaz?

Jakin-minak bultzatuta hurbildu nintzaion Biteriri, (inoiz izan ez dudan) aitaz nekien apurra baieztatu eta, batez ere, ez nekienaren berri emango zidalakoan. Zalantzez eta beldurrez hurbildu nintzaion, noren alaba, noren umezurtza nintzen jakinarazi gabe. Nitaz fida ez eta nirekin hitz egiteari uko egingo ote zion errezeloz. Argi nuen: haren konfiantza lortu behar nuen, beste edozeren aurretik. Horren premian nengo-

en, beste edozein urrats eman baino lehen. Egonarria behar nuen. Lasterka ibiltzea arriskutsua zitekeen nire asmoetarako. Dena modu naturalean egin behar nuen. Ezer behartu gabe.

Hura joaten zen tabernetara joaten hasi nintzen Urtzi Estebanekin. Eta, pixkanaka, Biteriren kuadrilla zabaleko kide bilakatu nintzen. Biteri atsegina zen nirekin. Filosofoa deitzen zidan, baina gaiztakeriarik gabe, orain ez bezala. Ia miresmenez esaten zidan orduan. Urtzi ere ohartu zen, eta jeloskor samar jarri zitzaidan, hainbeste miresten zuen hark egiten zidan harreraz bekaizti: Maite zaitu, argi dago.

Harreman ona genuen, baina horrek ez zuen gauza handirik esan nahi, Biterik jende guztiarekin baitzuen harreman ona. Berehalako enpatia eragiten zion edonori, hain zen bere xalotasuna nabarmena. Horregatik, ulergarria da Esfingea bezalako aberaskume harroputz bat ere haren xarmaren biskan harrapatuta geratzea. Edozein modutan, gustura egoten ginen elkarrekin. Edo hala iruditzen zitzaidan, behintzat. Igande gauetan ikusten nuen, biharamunekoa jaieguna baitzuen astero. Berandu ikusten nuen, Iturri taberna itxi eta gero.

Bukowskin egoten ginen, eta hara azaltzen zen bera, aldarte onean beti. Garagardo bat eskatzen zuen eta txirri bat biltzen. Pasatzen zidanean, eskertu baina ezetz esaten nion. Eta ezezkoa berritzen nion beste zerbait eskaintzen zidanean ere, lana aitzakia.

Lagunak parrandan utzi eta etxera joan behar izatea gogorra zitzaidan. Eskerrak kafea dagoen. Bestela ezingo nuke hiperrean esna eta tente luze iraun. Kutxa azpian izaten dut, etxetik ekarritako termo batean. Aspe urruntzen ikusitakoan ateratzen dut eta hurrupa txikietan edaten. Nire droga da.

Biterirena koka da, horretaz ere ez dago dudarik. Bere kutuna, ezen ez bakarra, beste batzuei ere ez baitie muzin egiten. Heroina izan ezik, ia edozer hartzen du. Edan, garagardoa baizik ez. Lanean ez du edaten, baina Iturritik kanpo garagardo botila eskuan egoten da denbora gehiena. Hala gogoratzen dut: botila eskuan eta irribarrez. Elkartu behar gintuen eta betiko bereizi gintuen zoritxarreko gauera arte, irribarrez hartzen baininduen. Hitz gutxikoa da Biteri berez, baina egun haietan zer edo zer aipatu ohi zidan elkarrekin topo egindakoan. Kontu txikiak, tontakeriak askotan. Aintzat hartzen ninduela aditzera emango zidan zer edo zer.

Jakina, gehiago nahi nuen. (Inoiz izan ez dudan) aitaz jakin nahi nuen, harekin izan zuen harreman motaz. Galderak kolkoan gordeta neramatzan, handik ateratzeko une egokiaren zain. Hori zela eta, edozein kontuk balio zezakeen nire asmoetarako. Belarriak erne behar nituen, Biteriren ahotik irtendako edozein xehetasun garrantzitsua izan zitekeen. Urruntasun ironikoaz begiratzen zion zerbait zen iragana Biteriren-tzat, denbora alferrik galtzeko modu ganorarik gabea.

Hala eta guztiz ere, iragana agertzen zen noizean behin gure parrandetara, gutako inork gonbidatu ez arren. Odolez blaitutako iragana. Biteri goibeldu eta hitz erdika mintzatzen hasten zen, mehatxuren bat sentituko balu bezala.

Ondo ulertzen nuen. Neure eskarmentuz, ordurako banekien iragana zerbait larria ere izan daitekeela: edonor irentsi dezakeen munstroa. Iraganak edozein unetan edonoren eskutan egin dezake eztanda. Egiak bezalaxe. Haren ahotik entzutea espero nuen egia, (inoiz izan ez dudan) aita itzuliko zidana. Edo, behin-tzat, hura nire baitan osatzeko hainbat zati emango zi-dana.

Biteri iman bat zen (eta, zoritxarrez, da) niretzat. Edo ni naiz orratz magnetikoa eta erakartzen nauen

poloa bera. Edozein modutan izanda ere, harengana joan behar nuen, beste batzuk beren dosiaren bila joan behar duten bezalaxe. Droga kaltegarria ere baita niretzat Biteri. Ezer eman ez eta asko kentzen didan droga zikin bat. Oso bestela uste nuen orduan. Hain bestela, non halako batean neure buruari aitortu behar izan bainion egiaren bilaketa ez zela harengana erakartzen ninduen zera bakarra. Begi-bistan zegoen Urtzirentzat ere. Gero eta zakarrago jokatzen zuen nirekin.

Amorragarria zen. Noren baimena zuen, nire atzetik ezkongai jeloskor baten moduan ibiltzeko? Esan egin nion. Ulertu ez nion zer edo zer esan zidan zezelka, ondoren barkamena eskatzeko. Eta barkatu nion, funtsean bost axola zidalako hark pentsatu edo esan zezakeenak. Lagun nuen eta hala jarraitu nahi nuen harekin, baina libre. Biteriren neskame, haren menpeko bilakatzeko libre.

Herrschaft und Knechtschaft.

Horregatik, sanjoan gauean, lerrotxo bat nahi ote nuen galdetu zidanean, ezetz erantzun beharrean, baiezkoa eman nion. Bukowski jendez beteta zegoen. Komunera joan ginen.

Komunera sartzeko jende ilara zegoen. Haien atzean jarrita, gure txandaren zain geratu ginen. Biteriren arnasa nabari nezakeen, nola puzten zitzaion bularraldea, nola apaltzen. Pozik ginen, tabernako giro alaiaren zati, euforia kolektiboaren menpeko biok. Seguru asko horregatik komunean azkenean sartu ginenean, ezer esan gabe, Biteriri lerroak atontzen utzi gabe, bere ahoa bilatu nuen nireaz.

Ustekabean harrapatu nuen. Ez zuen atzera egin eta nire mihiari atxiki zion berea. Bion eskuek hegan egin zuten, gure gorputzen atal batetik bestera. Elkarri heldu genion indar osoz, elkar hautsi nahi izango bagenu bezala. Biterik bazekien musuak ematen. Ondo gainera. Indartsuak ziren, baina gozoak. Ez dakit zenbat denbora igaro genuen hala. Norbaitek atean jo zuen arte. Bereizi egin ginen eta Biterik lerrotxo bat jarri zidan parean. Kokaren botika zaporea nabaritu nuen berehala listuan.

Kanpoan, lagunengana itzulitakoan, musuek jarraitu zuten. Modu berean, koka sartzen jarraitu genuen, baita garagardoak edaten ere, Bukowski itxi zuten arte. Besteak Cactus aldera abiatu zirenean, aldiz, Biteriren etxerako bidea hartu genuen guk. Lepotik helduta ninderaman, eta sekula baino zorion-

tsuago sentitzen nintzen. Eta arin, oso arin, hezur-haragizkoa izan ordez, airezkoa banintz bezala.

Grosen bizi da Biteri, Karkizano kalean: nahasmena eta axolagabekeria espero nuen tokian, ordena aurkitu nuen. Nire gelako moduko zerbait espero nuen, eta amaren etxearekin nolabaiteko antza zuen etxebizitza txiki baina gozoa aurkitu nuen. Biterik pare bat garagardo ekarri zituen sukaldetik eta geratzen zitzaion koka jarri zuen sofa pareko mahaitxoan, nik banatzeko. Hori egitera nindoala, ziztada bat maskurian nabaritu eta komunera joan behar izan nuen korrika. Handik itzuli nintzenean, bi lerro zuri aurkitu nituen mahaitxoaren gainean, nire banku-txartelaren eta hamar euroko billete baten ondoan. Berehala desagertu ziren.

Presatuta genbiltzan. Presa metafisikoa zen gurea. Elkarrengan berpiztu nahi genuen. Elkarrengan galdu, odolaren jarioan galdutako kokainaren antzera. Hori sentitu nuen. Hori desiratu nuen. Orduko zoriontasun betea mugarik gabe luzatzea. Posible ez ezik, ezinbesteko neritzon.

Zoritxarrez, luze gabe onartu behar izan nuenez, koka sartu orduko, ustekabean, erabat aldatu zen Biteri. Barre kontuak utzi eta bekokia ilundu zitzaion, be-

girada zorroztu. Arrotz bati begiratzen zaion moduan begiratu zidan, errezeloz, bat-batean mesfidati. Aztoratu egin nintzen. Dardarka hasi nintzen. Zer gertatzen ari zen, zer gertatzen ari zitzaion jakin nahi nuen. Biterik, aldiz, ezer gutxi zioen. Nor zaren ari zitzaidan, hitzik gabe galdezka. Izututa zirudien. Nik izututa. Harrezkero sarritan bezala, zer esan, zer egin ote nuen gaizki galdetzen diot neure buruari. Nolatan ni bezalako andre gazte ezerez batek izuaraz zezakeen gizon zaildu hura. Ulergaitza zitzaidan. Ulergaitza zait orain-dik ere.

Zerbait esan zuenerako, barkamena eskatzeko hitz egin zuen. Nirekin ordez, bere baitarako arituko balitz bezala. Gaixo zegoela aitortu zidan, oso gaixo. Laster hilko zen zahar bat zela. Inozo bat. Eta ni neska bizkor bat nintzela.

Ezetz eta ezetz nik, horiek tontakeriak zirela, aurreiritzi ergelak. Baina alferrik, Biteriri masailean muin egin eta etxerako bidea hartu behar izan nuen.

Negarrez nindoan Groseko kale isiletan barrena, ezin ulertuz zer zela-eta zapuztu zen hain modu bortitzean zoragarria zirudien gau hura.

Hire erruz, zalantzarik gabe aurpegiratu zidan Marik, gertatutakoa kontatu nionean. Auskalo zer

esango huen. Hi ezagututa, edozer gauza. Eta gizonekin kontuz ibili beharra zagon. Ezin zaien edozer esan. Erraz mintzen ditun. Gu baino askoz errazago. Oso gogorrak ematen diten, baina ahulak ditun, kakati hutsak.

Zer esan nion ba nik? Gau hartatik nire isiltasuna dut gogoan. Hitz eta pitz aritu nintzaion, ziur, baina barrena erretzen zidaten hitzak aditzera sekula eman gabe.

Sanjoan gaua zen, gau berezia, gure lehendabizikoa, eta ez nuen hondatu nahi. Inolaz ere ez. Gau sorgin hartan edozer gerta zitekeen. Eta gertatu egin zen. Zer gertatu? Biteri jator eta maitekorra oraingo munstroa bilakatu zela. Horra zer gertatu zen. Ni ere beste norbait bilakatu nintzen. Oihane izatetik Alizia izatera igaro nintzen, ispilua zeharkatu zuen Alizia hura, ustekabean bere burua beste mundu batean ikusi zuena. Mundu arrotz eta ulertezin batean. Buruz behera eta atzekoz aurrera zegoen mundu batean. Mundu hartan ezer ez zen zirudiena, kontrakoa baizik.

Artean negarrez, Kursaaleraino iritsi nintzen. Urrunean, zetorkigun egunaren estreinako zantzuak antzeman nituen. Zauri txiki bat ilunpean. Zirrikitu bat ozta-

ozta. Hari begira geratu nintzen. Oldozten. Gero eta bizkorrago zihoakidan buruari eusteko ahaleginean.

Droga alua!

Amak hamaika aldiz errepikatutako madarikazioa. Lotsatu egin nintzen. Lotsatu, haren ahotan nire onetik atera ohi ninduen esaldi gogaikarri hura neurean entzunda. Eta, hala ere, ezin ukatu drogak bazuela eragin zuzena Biteri eta bion arteko hartan. Hori behintzat, argi zegoen: azken lerroa eta gero etorri baitzen haren aldaketa bortitza. Zer ikusarazi zion Biteriri, hain modu erabatekoan aldartez mudarazteko? Neure benetako izaera salatu zion agian?

Mugarria izan zen gau hartakoa gure harremanean. Edo gure ez-harremanean, esan beharko nuke agian. Edo ez egoteagatik, beste ezer baino presenteago dagoen zerbait. Mamu bat. Mamu-harreman bat: nik ezin diot berari begiratzeari utzi eta hark ez nau ikusi ere egin nahi. Harengana egiten dudan urrats bakoitzari, atzerantz egindako beste urrats batez erantzuten dio Biterik.

Beste zerbaiten inguruan dabil, heriotzaren inguruan. Hark erakartzen du. Biterik artean hitz egiten zidanean, heriotza sarritan aipatzen zuela ohartzen

naiz. Ia obsesioa zuela. Adinaren kontua izango da, seguru asko.

Gelditzen zaidanerako, esan ohi zuen. Laster ez nauzue hemen izango. Halakoak botatzen zituenean, barre egiten genion. Ez genion sinesten. Aspalditik ezagutzen zutenek egiten zioten barre gehien.

Heriotza ikusi ote zuen nigan? Baliteke. Neuk ere ikusten dut batzuetan, ispiluaren aurrean nagoela. Kokainak ikusaraziko zion bestela nigan ikusiko ez zukeena. Kokaina ere ispilua da agian. Hala izan daiteke Biterirentzat. Bere burua ikusiko zuen, nire itzala bere atzean. Kikildu egingo zen.

Beldurra ulergarria da beti. Edonorena. Zaharrena, gazteena. Biterirena, neurea. Ulergarria ez dena, aldiz, ni ikusteko duen ezintasuna da. Mamu bat naiz berarentzat. Ezta hori ere. Ezertxo ere ez. Ni mamu eta bera robot bat, hiperrean jarri berri dituztenen moduko bat.

Bezeroak makinaren alde batean jarriko ditu erosi nahi dituenak. Makinak zenbat den adieraziko dio. Bezeroak, adierazitako diru kopurua makinan sartu eta hark erositakoa itzuliko dio, plastikozko zorro biodegradagarrietan sartuta. Txukun-txukun. Hitz egitea besterik ez zaie falta (Egun on, zer moduz, aspaldiko,

nahi al duzu...), hori ere egingo dute laster. Nahi adina hizkuntzatan. Guk egiten dugun guztia egingo dute. Guk baino hobeto.

Langile akasgabeak dira, edozein nagusiren ametsa. Ez dute komunera joan beharrik. Oporretara ere ez. Ez dira haurdun geratzen. Ez dira gaixotzen. Ez dute sindikaturik. Mariri esan diot: Laster putak denok, beste ezer ez zaigun geratuko. Zer esango ote din hire senar maiteak orduan?

Gure partez robotak ipintzen badituzte, puten partez ere ipiniko ditizten.

Robot batek ezin din guk bezala txortan egin, seguru. Mari ez dago ironiarik entzuteko moduan, ordea. Zer egingo dute gurekin? Marik ez du zalantzarik: Akabatuko gaitizten. Ez badugu ezertarako balio, horixe egingo diten. Edozein distopiatan agertu ohi den etorkizunik beltzena baino ilunagoa da Mariren erantzuna. Egia hutsa.

Hik uste dun robot bat, aurreratuena ere, gure Aspe bezain esaneko, hura bezain otzan izan daitekeela? Hor harrapatu dut. Bekainak estutu ditu, hausnarrean egoten denean bezala, eta, azkenean, amore eman du: Zaila dun hori, oso zaila.

Izan daitekeen robotik onena da Aspe, manukorrena. Agintzen dioten guztia ezin hobeto egiteaz gain, hiperraren interesen aldekoa izango den edozer ere egingo du. Bere burua programatzen duen robota da. Bere buruaren aurka askotan.

Bai, Aspe maitea, esango nioke, zu ere kale gorrian geratuko zara, gu bezalaxe. Zure geroa eta gurea bera da. Gu begipean izateko behar zaituzte, ez beste ezertarako. Gu gabe ezingo zara inoren zaindaria izan. Alferrikakoa izango zara. Guztiz. Dena ordenagailu nagusi batek zuzenduko du. Hotzikarak eragiten dizkizute nire hitzek. Badakit. Zientzia-fikzioa iruditzen zaizu, baina uste duzun baino askoz lehenago ikusi beharko duzu. Jubilatu aurretik. Ez zara libratuko.

Inor, ezer ez da libratuko. Emakumeak eta gizonak alferrikakoak izango gara. Robocop modukoak bihurtuko gara, erdi makina erdi gizaki. Metala eta haragia. Txipak eta odola. Kito gorputzaren egia orduan, geratzen zaigun egia bakarrenetariko hori.

Nahikoa dun Oihane, lasaitu hadi pixka bat, eskatu ohi dit Marik, herio-haizeak jo eta purrustadaka hasten natzaionean.

Barregarri irizten dio nire larritasunari. Berak inoiz hala adieraziko ez balu ere, burges txiki aspertu baten

burutaziotzat hartzen du. Nire larruan egongo bahintz esanez bezala begiratzen dit, eskuan daukan zigarretari darion kearen atzetik. Hau da, ama bahintz. Mundua dakusadan moduan ikusita, ulergarria zaio ama izan nahi ez izatea. Baina Biterik nahi izango balu?

Hori entzunda, azkenean barre egiteko txanda iritsi zaidala uste dut. Bururatzea ere.

Biterik nahi izango balu, bizpahiru ume izango nituzke!

Ez dut uste haurdun uzteko bezainbeste hurbilduko litzaidakeenik inoiz Biteri. Nazka eragiten diot, nonbait. Desitxuratuta ikusiko nau, naizen baino itsusiagoa. Egon baitaude desitxuratu egiten duten ispiluak. Beren parean geratzen dena luzatu, laburtu, mehetu, loditu egiten dutenak. Jatorrizko munstrokeriara itzultzen gaituztenak.

Biteri gogaitu egiten du nire presentziak. Eta antzeko zerbait gertatzen zait amarekin ere. Gogaitu egiten dut. Ni ikusi eta urduri sumatzen dut, arazoren bat dakarkiodala ziur. Ea oraingoan zer den, pentsatzen ari da. Berriro zapuztu behar dit eguna.

Zer gaiztakeria mota ote den nirea jakin nahi luke. Saiatu da ni psikologoarengana eramaten, baino uko egin diot beti. Utikan psikologoak, utikan txerpolari

iruzurgile horiek. Psikoanalistak balira, behintzat. Lacanen jarraitzaileak edo. Horietako batek gidatutako azterketa onartuko nioke pozik, ordainduko balit. Baina amak berehalako emaitzak nahi ditu, inolaz ere ez urteetan luza daitekeen azterketa garesti bat.

Bere moduko alaba nahi du amak. Hau da, ni egundo izango ez naizena. Bilobak emango dizkion alaba bat nahi du, bere senarraren antzeko senar bat izango duena. Ama dei diezaion suhi bat nahi du, astebururo bazkaltzera gonbidatuko duena. Biteriren antipodetan egongo litzatekeen norbait. Norbait gazte, osasuntsu eta guapoa. Diruduna, ahal izanez gero.

Halakoak pentsatzeari uzteko gomendatu diot. Ez dit jaramonik egin. Esperantzari atxikitzen zaio, noizbait aldatu beharko dudalakoan. Berari men egiten ez badiot, bizitzari berari egin beharko diot. Horri kasu egin behar zaio, nahitaez. Noizbait nire okerraz jabetu, damutu eta eskerrak emango dizkiot. Ezin bestela izan.

Gaur gaurkoz, oker dagoela uste dut. Aukeran, hiper honetatik urrun egon nahi nuke. Institutu bateko ikasgela batean, Platon, Spinoza edo Hegel azaltzen, agian. Institutu batek eta hiper batek uste baino antz handiagoa dutelako susmoa badut ere. Bietan daude

bezeroak (ikasleak) eta langileak (irakasleak). Bietan saltzen eta erosten da. Bietan daude hartu-emanak (Egun on, zer moduz, aspaldiko, nahi al duzu...). *Herrschaft und Knechtschaft* bietan.

Kaka zahar bera beti. Ez dago ihes egiterik. Kantek aspaldi ohartarazi zigun: Gizona (emakumea) hain zur okerraz izan da landua, non zalantzagarria baita zerbait guztiz zuzena atera ahal izatea inoiz harengandik. Hala dela jakiteko, nahikoa neure buruari begiratzea. Okerra da naizen zura, atomo bakoitza. Okerra da nire larruazala, nire zain eta neuronak. Gurasoen ondoretza. Haiek utzitakoa, haiek pasatutakoa. Mende askotako bizigai traketsa. Adabegiz betetako zura gurea, zizelkatzeko latza. Horregatik izango naiz honen moldakaitza.

Behin eta berriz esan didate. Amak esan dit. Marik esan dit. Urtzik esan dit. Aspek ere bai. Bakoitzak bere modura, baina gauza bera adierazi didate denek: moldakaitza, egoskorra zara.

Uko egiten diodalako haien ustez sagaratua den orori. Egoskor, ez naizelako uko egiteaz nekatzen, behar edota nahi ez dudanari ezetz esaten. Amak, Marik, Urtzik, Aspek, denek nahi naute beren antzeko, beren neskame, funtsean. Aspek izan ezik, beste hiru-

rek familia baten oinarri nahi naute. Ama nahi naute. Normala nahi naute.

Amak esan ohi didana sinetsiz gero, (inoiz izan ez dudan) aitari egotzi behar zaio nire jatorrizko bekatua, eten gabe bihurritzera behartzen nauen errebeldia menperakaitz hau. Haren oinordetza omen da. Errebeldia hutsa, bakerik ematen ez didan azkura antzeko zerbait. Inolaz ere ez, iraultzarako gogorik, (inoiz izan ez dudan) aitak izan omen zuen bezala.

(Adabegiz betetako zura, zuzendu ezina).

Utopiatik distopiara azkar igaro daiteke. Askapenetik, tiraniarik izugarrienera. Horixe da pasa den mendeak irakatsitakoa. Baita mende honetako nire bizipenek irakatsitakoa ere. Sanjoan gaueko utopiatik oraingo distopiara iritsi naiz zuzen-zuzen. Loriazko maitasun distiratsutik sentipenen txirotasun kolorge honetara. Aberastasun, oparotasun irudigaitz batetik nire oraingo guztizko miseria honetara. Emaitzak begibistan daude. Onartu beharra dago.

Baina nik onartu ez. Nahiz eta ezinbestekoa izan errealitatea aldatzeko. Nik, aldiz, kostata onartzen dut. Mende honetako izurriteak eragozten dit. Hau da, nartzisismoak. Madarikatu egiten dut, nire burua madarikatzearekin batera. Zentzugabea da, absurdoa.

Hala ere, hor dago, hor dirau, hartatik libratzeko egin ditudan ahaleginak barregarri utzitakoan. Utikan, egiten diot garrasi. Naizen baino hobea izan nahi dut. Besteak (ama, Mari, Urtzi...) baino hobea. Onena.

(Adabegiz betetako zura, zuzendu ezina).

Nartzisoren antzera, neure burua ederresten dut uretan ikusita. Ur lo batean, ez goi mendietako putzu bateko ur ezinago aratzean. Ur lohi batean. Kirats pairaezina darion ur nabar batean. Muin egiten diot ur ustel horri. Ispilu likits horretan agertzen zaidanari musu ematen saiatzen naiz, Biteri balitz bezala. Murgil egiteko irrikak jotzen nau orduan, senarraren eskuak Mari jotzen duen bezain bortitz. Iturrira azaltzen naizenetan Biterik erakusten didan axolagabekeriak, haren mespretxu hotzak bezain bortitz. Lehorrean jarraitzen dut, ordea, neure burua oraindik bota gabe. Zorabioak ez nau oraindik harrapatu.

Noiz arte?

Bizirautea da kontua. Biteriri begiratzen diot, eta hala iruditzen zait. Gauza bera Esfingearengana itzultzen naizenean. Kosta lain kosta iraun. Eustea irabaztea omen denez, irabazle nabarmenak bi-biak. Agian horregatik hartzen dute hain ondo elkar. Berdinen ar-

teko konfiantza izango da. Elkar ulertzearen lasaitasuna. Nik sekula ezagutuko ez dudana. Nire utopia.

Nire neurriko utopia: epikarik gabea. Biteri ezagutzera iritsi nahi nuke. Esfingeak bezain ondo. Asko al da, gehiegi? Ezetz zirudien sanjoan gaua baino lehen. Biteri ezagutzea denbora kontua iruditzen zitzaidan orduan. Bi lagun libre ginen: dena zen posible.

Denborak, konfiantza ekarri ordez, mesfidantza ekarri zidan. Denboraren poderioz, basamortu agor bilakatu zen nire ametsetako baratze joria. Hurbil eta eskuragarri zirudiena, urrun eta eskuragaitz bilakatu. Bi planeta, bi galaxia bezain urrun elkarrengandik. Ama eta biok bezala.

Beti ez zara gazte izango, ohartarazten dit. Zu ere ez zaharra, nik, gaiztakeriaz. Berehala ulertzen du. Aipatu behar ez dena aipatu eta begiak apaltzen ditu, modu horretan bere porrota aitortuz. Horra hor horma. Inork gainditu edo saihestu ezin duen horma, guztiok inguratzen gaituena. Pitzatu ere ezin dena.

Heriotzaren heriotza iragartzen diot. Egoteko lasai, aholkatzen diot, laster gaixotasun guztietarako sendabiderik egongo dela ziurtatzen. Denbora kontua da, ama, zuk oraindik baduzu. Amak begirada goratu eta nigan jartzen du, harpa jotzen ari ote natzaion

jakin nahian. Hala ari natzaio, noski, baina serio jarraitzen dut. Nietzsche aipatzen diot, nire berriketaren sinesgarritasuna areagotzeko. (*Argumentum ad verecundiam* delako hori lagungarria izan ohi da amarekin). Heriotzarik gabe, jainkorik ez. Gizona (ez oraindik emakumea) da jainko berria.

Baietz, ama, baduzula. Ikusiko duzu. Diru asko dago tartean, jende asko gau eta egun lanean. Europan, Amerikan, Asian. Lasterketa moduko bat da, nor lehenago iritsi. Denbora kontua da. Lehena iristen denak dena irabaziko du. Botikarik desiratuenaren jabea izango da. Munduaren jaun eta jabea, beraz. Jainko ahalguztidun bat. Jainkorik behar ez duen supergizona.

Adinez emakume osoa beharko lukeen nerabe baten hitzak iruditzen zaizkio nireak, ausarta bezain ezjakina den norbaitenak. Oroimen txarrak ekartzen dizkion norbaitenak. (Inoiz izan ez dudan) aita gogorarazten diotenak. Urrun nahi lukeen iragana hurbiltzen diot. Nahi gabe ere, hori egiten omen diot. Eta ez dit barkatzen. Nire kontra bihurritzen da. Mendekua nahi izaten du. Horixe bilatzen du, ahal duen guztietan eta ahal duen moduan. Ni mintzeko hitzak bilatzen ditu.

Batzuetan huts egiten du, baina beste batzuetan, bete-betean harrapatuz gero, hondoa joarazten dit. Gaur alderantziz gertatu da: ama negarrez hasi da. Ni mutu geratu naiz, amaren zotinak ez bestek zulatzen zuen ekaitza ondoko isiltasun sakonean.

Nire mututasunaren elurraren azpian sumendi bat dago, ordea. Edozein unetan egin dezake eztanda. Laba borborka ari da aspalditik. Suak, gasek gora nahi dute, kanpora, libre. Zulotxo bat nahikoa dute irteten hasteko. Horien indarra sentitu dut, salda gori hori erraietan. Itsasoa bilatu dut, badaezpada ere. Hura nahi dut nire leherketa hurbilaren lekuko bakar. Ez dut beste inor aldamenean nahi. Arriskutsua izan naiteke. Barruan pilatu zaizkidan gasak pozoitsuak dira, hilgarriak. Oso. Amak eragindakoak den-denak. Hau da, haren hitzek eragindakoak.

Sagues aldera noa. Itsasoaren kolorea dute nire pentsamenduek, ilun zikina. Gora eta behera doaz, uhin harroen antzera. Eta haiek, kostaldea bezala, jo egiten naute. Behin eta berriz. Pentsamendu astunak, luze oldoztu beharrekoak. Nire orain arteko bizitza, nire uste, amets eta desirak koloka larrian utz ditzaketenak.

Uhin harro indartsuak dira gaurkoak. Jo harkaitzak, harrizko babes gaitzak, eta aparretan hausten dira orroka. Beldurgarriak dira, gorgarriak. Hala ere, gorgarriagoak zaizkit amaren hitzak, entzuten ari naizen hitz koleratuak. (Inoiz izan ez dudan) aita berriz hiltzen dutenak. Neu ere, hein batean, hiltzen nautenak. Orain arte izan naizena, behintzat.

Nazkatuta daukat, (inoiz izan ez dudan) aitari buruzko galdera errepikatuak medio. Bakea nahi omen du.

Egia. Hitz hori izan da txinparta. Urteetan pilatutako lehergaiak eztanda egiteko behar izan duena. Egia jakin nahi nuela esan diot. Egia jakin behar dudala.

Egia? Zertarako? Hildakoak berpiztuko al ditu?

Amak ez du inor berpiztu nahi. Ostera, kostata lurperatu zuena bertan utzi nahi du. Nik ez bezala. Amak gordean nahi dituen mamuak dira nik agerian behar ditudanak. Horiek berpitz nazakete, beste inork ez.

(Inoiz izan ez dudan) aitaz galdetzeaz gain, Biteriz ere galdetu diot, gainera. Horra beste txinparta bat. Masailezurra irtengo zitzaiola pentsatu dut une batez. Zaunka hasi da, izen hori entzun orduko.

Hortaz, egia jakin nahi duzu? Ez kezkatu. Horixe esango dizut eta. Egia osoa. Ea zer iruditzen zaizun.

Karta guztiak mahai gainean jarri nahi izan ditu amak. Erronka jo dit, hordagoa: Salazar, Mikel, zure aita, ez zen zuk uste duzun santu iraultzailea izan. Halako saltsatan aritu zen inoiz, baina nik ezagutu nuenerako utzia zuen. Ordurako politika eta politikoak madarikatzen zituen, eskuinekoak nahiz ezkerrekoak. Denak. Gezurti kuadrilla galanta. Hala esaten zuen. Traidoreak omen ziren, lau txakur txikiren truke kapitalismoari, estatuari salduak. Okerrena ez zen hori, hala ere. Okerrena, langile jendeak ere bere burua saldu izana omen zen. Saldu eta bere buruari gezurra esan, sinestezinak zirenak sinetsi nahian. Zuretzat bezala, egia inportantea zen harentzat ere. Berea, noski, besteona bost axola. Horretan ere antz handia duzue. Zutaz haurdun geratu eta laster, ohartu nintzen: heroinarekin zaletuta zegoen, hark harrapatuta. Bera eta bere lagun-mina, Biteri. Hark sartu zuen giro ilun horretan. Batzuetan, kalean ikusi eta justiziarik gabeko mundu batean bizi garela iruditzen zait. Nola liteke, bestela, zabor puska nazkagarri horrek bizirik jarraitzea eta, Salazar, aldiz, aspalditik kanposantuan egotea?

Salazar ez zen zuk uste duzun heroia. Jonki bat zen, baina Biteri kakazorro hori baino hobea bazen,

behinik behin. Mila aldiz hobea. Eta hori esatea asko esatea da, Salazar alproja izugarria zen eta. Bizkorra zen, hizlari bikaina, baina ez gintuen maite, ez ni, ezta zu ere. Ez guk behar beste, edozein modutan. Batzuetan egunak pasatzen genituen haren berri izan gabe. Parrandan ibiliko zen, bere bihotzeko Biterirekin batera. Gainera, azkenean agertzen zenean, ezin nion ezer esan, ezer galdetu, sarkina eta polizia baino okerragoa nintzela entzun nahi ez banuen. Horixe aurpegiratzen zidan, berak menperatzen zuen dialektika nire kontra erabiliz. Ez zituen arrazoiak asmatzen zituen, nik eskatutako arrazoiak barregarri uzteko. Bizi nahi zuen. Gaztea zen eta horixe nahi zuen, urte asko alferrik galdu eta gero. Hil arte bizi. Haren gerra oihua zen, haren leloa. Bera hil arte bizi. Ardurarik ez gu nola geunden, zer behar genuen. Berak zaldia izanez gero, dena ondo. Berekoia zen. Berekoi bihurtu zen, edozein jonkiren moduan. Eta edozein jonkiren moduan hil zen.

Hil egin zuten, zuzendu nion.

Hil zen, hil zuten. Berdin dio. Gu nola utzi gintuen da kontua. Ni eta, batez ere, zu. Nini bat kasik. Eskerrak Sixto agertu zen. Auskalo non egongo ginen gu biok, Sixtorengatik ez balitz.

Ez dut gehiago entzun nahi izan. Belarriak amorruak buxatuta, gor natzaio amaren edozein hitzi. Badakit zer esango duen. Dagoeneko hamaika aldiz adierazi didana errepikatuko dit. Nietzscheren mailua nonbaitetik atera eta dinbili-danbala ari zait, alaba harroputz inozo txoropito honen hilkutxako azken iltzea behar bezala sartzeko ahaleginean. Beste alaba bat nahi du. Esker onekoa izango den alaba ulerkor bat.

Normala da. Ama ulerkor bat nahi izango nukeen nik ere. Noizbehinka entzungo lidakeen ama bat. Ispilu izango nuen ama bat. Bakea nahi du amak, ordea. Beste edozeren gainetik, bakea. Eta ni gerra naiz. Gerra dakarkiot, (inoiz izan ez dudan) aitak zekarkion moduan. Betiko ahaztu nahi lukeena dakarkiot bueltan, haizeteak zaborrarekin egiten duen antzera. Herio-sunda aditzen hasten da. Kirats jasanezin bat. Gerrarena. Bizitzarena, azken batean. Betiereko itzulera.

Nietzsche berriz ere. Harentzat nihilista bat litzateke ama. Aita, aldiz, supergizona: berekoia eta bizizale amorratua. Irakurri ote zuen inoiz Nietzsche? Ezagutu ote zuen? Baliteke. Asko irakurtzen omen zuen. Gehiegi ere bai, amaren ustez. Gehiegikerietan eman zuen bizitza. Ez zuen neurriaren zentzurik. Bizitzak eta he-

riotzak ere ez duten modu berean, emakume-gizonok harrapatuta gauzkan alderdi biko batasun funtsezko ulergaitz horrek. Edozein filosofo barregarri uzten duen horrek, hain zuzen ere.

Utzi filosofiak, eskatu ohi dit amak, eta emadazu bakea. Ama maitea, esango nioke, pozik emango nizuke, ahal banu. Ez dudana ezin eman, ordea. Bideren bat ezagutzekotan, infernurainokoa ezagutuko nuke, baina hiperbole hutsa litzateke hori, nire ahotan.

Saia zaitez drogekin. Ez txarrekin, noski, (inoiz izan ez dudan) aitak eta bere *adixkideek* hartzen zutenekin, besteekin baizik. Legalekin, botiketan eros daitezkeenekin. Prozacekin, adibidez. Saia zaitez horrekin. Edo, bestela, betiereko bakea bilatu.

Kemena behar da horretarako, ordea. Adorea. Supergizona izan beharra dago, eta gu bi emakumetxo baizik ez gara. Beldurrez eta izuz betetako bi emakumetxo ezdeus, maitasun pixka bat behar dutenak. Horren gutxi. Horrenbeste. Pare bat emakumetxo, hiperreko korridoreetan galduta bezala ibili ohi diren horien tankerakoak. Zalantza etengabean. Zer erosi ezin asmatuz. Zerbait hartu, gainetik begiratu eta apalategira itzultzen dugu, beste zerbait eskuratzeko laster. Behin eta berriz. Ezer ez da dirudien bezain egokia.

Etiketa koloretsuen atzean ezer gutxi dago. Ezer gutxi dago gauzen distira itsugarriaren atzean. Ezer gutxi amaren etxe eta bizimodu itxuraz baketsuaren atzean. Ezer gutxi Mariren familia ustez ederraren atzean. Eta, zer esanik ez, nire filosofia ikasketen atzean, filosofiaren miseria ez bada. Marxek zorrotz aipatutako hura.

Mundua aldagaitza begitantzen zait, baina. Bakea, utopia galanta. Tirabirak, ika-mikak, gatazkak saihetsezinak dira. Nagusiak eta morroiak diren bezalaxe, Marxen burutazioak gorabehera.

(Adabegiz betetako zura, zuzendu ezina).

Munstrokeriaren aurka borrokatu beharra dago, itsuskeriaren aurka. Baina horiek inoiz menperatuko ditugula sinetsi gabe. Ezer espero gabe. Estetika hutsaren amoreagatik. (Inoiz izan ez dudan) aitak agian egin zuen moduan.

Ulertzen dudala uste dut. Ulertzen eta maitatzen dudala, ama, Mari edo Biteri ulertzen eta maitatzen ditudan antzera. Beren funtsezko ezintasuna ulertzen dut, nirea ere baita. Haiek, ordea, ezin dute nire ulermen eta maitasuna jaso. Gehiago edo gutxiago, hilda daude, eta eman bai, baina ezin dute ezertxo ere jaso,

beraz. Egoera bertsuan nago ni. Neu ere hilda nago agian.

14

Akabo, bukatzen ari duk, ez zagok segitzerik, aditzen al didak, Mikel, aditzerik ba al daukak, inportantea duk, hirekin bildu behar diat-eta segituan, bazakiat, zerbaitek esaten zidak, kito, honaino ailegatu gaituk, nahikoa duk, hi al haiz hori iragartzen didana, nahi nikek, hire beso sendoak nahi nitizkek, besarkatzen hain ondo dakiten horiek, denborak nire memorian suntsitu ezin izan dituen horiek, ni altxatzeko lurretik, hire besarkada gozoan berpizteko, esnatzeko halako batean, inoiz, nahi baino gutxiagotan, esnatu ginen moduan, ez zagok astirik, egin beharrekoa presaka egin beharra zagok, ezin atzeratu, ezin biharko laga, beti egin dudan moduan, kontuak orain garbitu behar ditiat, hirekikoak batik bat, oraindik aipatu ez ditudanak, aipatzen ausartu ez eta baztertzen ahalegindu naizenak, mingarrienak, lotsagarrienak niretzat, horregatik luzatu nauk hainbeste honaino ailegatzeko, seguru asko, hiri entendiarazteko nire bidea, traizio ankerrera eraman ninduen bide zoritxarreko hau, hiri entendiarazteko eta neure buruari ere bai, misterio iluna da-eta niretzat ere, makina bat buelta eman

arren urteetan, azpitik eta goitik begiratu arren, dena alferrikakoa izan duk, hitz eta pitz zentzugabea, berriketa nahasi eta aldrebes hau, ze, egia biluzik azaldu beharra zagok, bere gordinean, jira-bira eta apaindurarik gabe, traizioa, egin daitekeen traiziorik beltzena, egin nian nik, eta, gainera, hori gutxi balitz bezala, horixe berritu diat hogeita hamarka urte geroago, bizitza oso bat geroago, hik ia ezagutu ez huen hire alabarena, hain justu, nahiz eta azken traizio horretarako, lehendabizikorako ez bezala, aitzakiarik izan, ez-jakintasunaren aitzakia, ez nekielako hire alabarekin ari nintzenik, ez zakiat nola ez nintzen konturatu, baina hala gertatu zitzaidaan, agerian zegoena oharkabean pasatu zitzaidaan, itsua izan behar da nabarmena dena ez ikusteko, ez konturatzeko haren musuak eta hireak oso antzekoak zirela, haren besarkada eta hirea, haren beroa eta hirea, baina, drogekin edo drogarik gabe, itsututa nagok, itsututa egon nauk akordatu ahal naizenetik, gaztetatik, lehenagotik ere akaso, amak esaten zidaan, Ezpeleta zaharrak ere bai, habil kontuz, begiak ondo zabalik, eta nik kasurik ez, kontua ez ikustea zuan, inguratzen ninduen kaka piloa ez ikustea, lantegia, herria, eta gauza bera Bitorixan ere, hango sobietaren ahuldadea, langileen hainbat buru-

zagirena, inork uste baino askoz azkarrago izoztutako amets sukartsu haren berezko makaltasuna, ez aipatzearren heroinak eskainitako paradisuaren goibeltasun hiltzailea, geroago garai diferenteak izan dituk, bolada onak eta txarrak, baina guztietan eutsi zioat ez ikusteko borondate absurdo berberari, heriotzak begiak bortitz ireki zizkidan arte, begira ezak, alu horrek, begira egiok ondo hire bide ziztrinari, hire mundualdi hutsalari, begira, begira, eta horixe egin behar, burua bueltatu eta bide ertzean pilatutako gorpuei kirik egin, horixe baino ez, unetxo bateko kontua, nahikoa hala ere izututa geratzeko, izerdi hotzetan, dardarka hasteko, ez damutzeko, ordea, horretarako ez, zertarako damutu, ez dik ezertarako balio, noizbait balio zezakean, Lete-eta damutu ziren urteetan akaso, baina orain ez, orain demokrazia sendotuta zagok, presoak dituk gaur egun damutzeari etekin zerbait atera diezaioketenak, eta hori ere ez duk batere segurua, espainolak ez direlako inoiz barkaberak izan, ostera, inkisizioa asmatu zitean, juduak kanporatu zitiztean, milaka lagun hil, ahal izan zuten bitartean, mundu osoan, horiengandik ezer gutxi espero litekek, beraz, ezer onik ez, behintzat, horixe erakutsi zigutek mendeetan, hil, torturatu, umildu, mespretxatu egin gaitiz-

tek, ahal izan duten guztia egin ditek gu desagerrarazteko, geure burua gorrotarazteko, eta lana ondo egin dutela aitortu behar, guk aitortu behar gure trakeskeria, gure miopia, gure ezintasuna eta, batez ere, gure zurikeria, gure abilezia harrigarria bizi ez garen munduan bizi garela sinesteko, ipuintxo politak geure buruari kontatzeko, gezur gozoak, artistak gaituk horretan, *The New York Times*en agertzen gaituk, nazioarteko gida-liburuetan, onenak gaituk sukaldaritzan, gutxi baina finak, jatorrak, atseginak, maite gaitiztek, gezurra bazirudik ere, hala duk, orain bai, Donostia gustatzen zaiek, hondartzak eta Alde Zaharra, ez huke orain ezagutuko, turistek betetzen dituzten jatetxe eta taberna gastronomikoen erresuma duk gaur egun, gure Joxeren eta haren tankerako beste nagusi batzuen pozerako, aberats berriak dituk, Tokolo berriak, baina drogak mugitu eta saldu ordez pintxoak saltzen ditiztek, eta sariak jasotzen ditiztek, Joxe, esate baterako, urrezko danborrerako izendatu ditek, hiriaren alde egin omen duena eskertzeko, negozio-gizon eredugarria duk, argia, ausarta, nik al dakit, denetarik, hemengo egunkariek eskaini dizkioten artikuluak irakurri behar hituzke, batez ere haren biografia, gurekin ibili zen urteak desagertu, lurrindu egin dituk, Zuga-

rramurdin jaio eta Iruñean ikasi zuela ziotek, ondoren Parisera joan zuan eta han aberastu, baina sorterrira itzuli nahi omen zian, eta, sorterrian, non hobeto Donostian baino, horra, bi hitzetan, egunkariek diotena, Bitorixa, garai bateko Donostia, horiek ez dituk inon ageri, eta gu ere ez, nahiz gu bioi bost axola izan, edozein modutan bitxia duk ikustea zein erraz ahaztu zaion nik burutik kendu ezin dudana, gezurretan ari ote da, bere interes komertzialak zaintzearren edo gurekin egindakoaz lotsatuta, ez zioat inoiz galdetu, eta hark ere ez zidak ezer esan, diskrezioa gustatzen zaiok Joxeri, beti gustatu izan zaiok, troskoekin ikasiko zian akaso, edo Iruñeko seminarioan bestela, negozioetan inportantea duk diskrezioa, gureetan ere hala zuan, baina, noski, lapurreta txikiak egitea eta jatetxe kate oso bat zuzentzea ez duk gauza bera, guri ez zigutek inoiz urrezko danborra emango, zerbait ematekotan, jipoi ederrak emango zizkigutek, muturra apurtuko zigutek, hanka hautsiko, jonki zikin batzuek merezi zutena, azken finean, ez gehiago ez gutxiago, eta hori gintuan, hori izango gaituk beti, heriotzak baino ezin garbitu duen zikinkeria, kaletik atera beharreko zaborra, Gloriak eta Joxek denetarik ditek, inoiz xahutu ahalko dutena baino askoz diru gehiago, eta, hala

ere, ezin errenditu, ezin, nire antzera, kimikarik gabe behar bezalako atsedenik hartu, marka ederra droga kontuetan xanpainetik harago sekula joaten ez diren kirolzale horientzat, gimnasiora joaten dituk, korrika egiten ditek, baina ezin lo ondo egiteko beste nekatu, mamuek eragotziko zietek loa, haiekin jardungo dituk, ni hirekin bezala, Joxerenak ez ditiat ezagutzen, baina Gloriaren batzuk, bai, berak kontatuta zakizkiat, senarrak, maitaleak eta halakoak, damutzeko ugari beraz, Joxek ere izango duen antzera, nahiz horrenak nik ezagutu ez, gure Joxe gizon diskretua duk, esan diat, ezkutatzeko asko duelako, seguruena, gorpu asko ohepean, edozein negozio errentagarri bihurtzeko pilatu beharrekoak, horien hitzotsa isilarazte aldera pilulak behar izateko, gorpu horiek ez dira-eta inoiz mutu geratzen, hizketan jarduten ditek etengabe, zor zaharrak behin betiko kitatu nahi ditiztek, dirutan ordaindu ahal direnak eta, batez ere, dirutan ordaindu ezin direnak, denak nahi ditiztek, berehala, azkar, deiadarka eskatzen ditek, eta kimikak baino ezin ditik uxatu, hurrengo gauera arte, mamuak, gorputzik ez duzuenez, ez zaretelako hilgarriak, neu ere laster izango ez naizen moduan, eta hor egoten zarete beti berriketarako gogoz, denboran atzera egiteko prest, ez dakizue-eta

zer den beldurra, gorputza galtzearekin batera galdu zenuten, eta edozein haitzulo edo osin ilunetan sartu ahal zarete, zuen sukaldean sartuko bazinete bezala, patxada berberaz, Joxe Iturriko sukaldean sartzen den bezain trankil, denok bere esanetara gaudela seguru, bertako guztia berea delakoan, zartaginak, lapikoak, platerak, kikarak, labanak, den-dena bere diruak erosita, langileok bezalaxe, baina ez pentsa Joxeren kontra ari naizenik, ez horixe, esker ona besterik ez zioat, lana eskaini zidan-eta, jendeak ihes egiten zidanean, eta hori ezin ahaztu, duintasun pixka bat eman zidaan, borrokan segitzeko halako indar pixar bat, behin ere ez zidaan kontu zaharrik aipatu, nire egoeraz baino ez zian galdetu, nire osasunaz, eta hori ere, iragana ez aipatzea alegia, eskertu nioan, neuk ere Joxeren antzera betiko ahaztu nahi nituzkeelako nire bizitzako hogeita hamar urte, gutxienez, zaborretara botako nitizkek, ahal banu, sutara, horien arrastorik txikiena ere ke bihurtu arte, batez ere harritzar bat baino astunagoa den nire damu eramanezin honetatik libratzeko, hil ondoren ere lagunduko didan traizioaren kirats honetatik, hiri, nire lagun-min maiteari egindako traizio bikoitzak eragindakotik nola libratu, ordea, hilhurren bere arima salbatu eta infernuari iskin egin

nahi dion bekatari izutu baten tankeran nabilek, baina hala zaudek gauzak, traizioak nahi gabe, oharkabean kasik gertatu zirela esan nezakek nire alde, baina ez diat esango, alferrik lukek, orain bai, dena itzaltzen ari den honetan bai, joanak joan esan nezakek, birus maltzur baten modukoa duk, hor zagok beti, hesteetan, urdailaren baztertxo ilun batean zelatan, eta, halako batean, atzera azaltzen duk, gu ederki izorratzeko, hutsaren hurrengo garela gogorarazteko, aditzen al didak Mikel, aditzerik ba al daukak, birus horrek hire alabaren itxura hartu zian, ez nian ezagutzen, ez nekian hire alaba zenik ere, kasu egiten zidan neska gazte bat zuan, hori baino ez, atsegina, bizkorra, ausarta, hi, gu gaztetan izan ginen modukoa, Egiako tabernetan ikusten nian, hik eta Joxek hain gustukoa zenuten Bukowski idazlearen omenez bataiatutako taberna batean batez ere, zahar bati adeitasunez, karitatez akaso, kasu egiten zion gazte bihotz oneko bat, jakina, sekula ez nian pentsatuko gure artean ezer gertatuko zenik, burutik ere ez zitzaidaan pasatu, gertatu zuan ordea, gauez ikusten nian beti, Iturri itxi eta gero, eta normala zuan, beraz, biok hala suertatzea, gau hura berezia zuan, San Joanekoa, edozer gertatu ahal den gau bat, eta horixe gertatu, drogak gorabe-

hera, gogoz hartu nitian Oihaneren besarkadak eta musuak, gosez eta egarriz, urteak zirelako baten batek halakorik ematen zidala, txoratu egin ninduan, sinesgaitza zitzaidaan gertatzen ari zena, baina gertatzen ari zuan, eta harrotu egin ninduan, taberna itxi zutenean, auzoan irekita geratzen zen pub bakarrera segitu beharrean gainerakoekin batera, nire etxera joan gintuan, hara eraman nian, gaua elkarrekin bukatzeko asmotan, eta hala izango zuan, baldin eta ohera baino lehenago azken lerroak ipintzera nindoala, koka xehatzeko laga zidan plastikozko txartelean haren izena irakurri izan ez banu, Oihane Salazar Urbieta, hire eta Koro Urbietaren alaba, eta izutu egin ninduan, egitera nindoanaren garrantziaz jabetu ninduan batbatean, berriz ari ninduan hiri traizioa egiten, bigarrenez, nazka sentitu nian, baina hitz trakets batzuk baino ez zitzaizkidaan bururatu, harentzat baino gehiago hiretzat ziren hitz nahasi ilun batzuk, barkamena eskatu nizuen, mila aldiz, nire errua onartu nizuen, edozein disimulu baztertu, edozein mozorro kendu eta hil-hurren nintzela, ibili zebilen hildako bat nintzela aitortu nizuen, neure burua pixka bat zuritu nahian, egia osoa azaldu nizuen, besterik ezin egin nuelakoan, modu nahasian, baldar, hitzekin batere

abila ez izaki, ez behintzat hi edo Joxe bera bezain trebea, seguru asko horregatik jardun nauk atzealdean beti, intendentzia lanetan, horniduran, agerian ez diren kontuetan, aurreneko lerroa ez zuan niretzat, zuentzat baizik, gauzak aztertzen, zehazten, behar bezala azaltzen zenekitenentzat alegia, barkatu esan nezakean soilik, barkatu eta mila aldiz barkatu, esaten ari nintzenak ezertarako balio ez zuela ondo banekien ere, nire erreguak ezin zuelako Oihaneren begietan antzeman nitzakeen malkoak eragotzi, ezin hinduelako berpiztu, erregu patetikoa zuan, mamu patetiko batek eginda, horren jakitun ninduan, baina ezin besterik egin, beranduegi zuan, beranduegi duk beste edozertarako, kaiku baten azken egunak dituk nire oraingo hauek, txotxolo penagarri batenak, egiten ari naizen hau baino ezin diat egin, ez nauk beste ezer egiteko gauza, kalaka honekin jarraitzea duk egin dezakedan guztia, berriketa absurdo honekin tematzea, oraindik zerbait egiterik balego bezala, bizirik banintz bezala, hilda nagok, ordea, hire alabari esan nioan, nigandik urruntzeko, bere adineko baten bat bilatzeko, baina ez diat uste ulertu duenik, Iturrira etortzen jarraitu dik, barra bukatzen den zokoan bakarrik egoten, nitaz mendeku hartzeko akaso, nahi gabe izan arren,

eragin diodan mina akordarazteko, zein petrala naizen, horregatik batzuetan, harengana hurbildu eta nahikoa dela, ni zigortu nahi izan badu, lortu duela, mina bueltatu didala, hil hindutenetik egunero sentitu dudana, ez zirelako hire bila joango hire izena eman ez banu, ergela ez beste ni, tximinoa bizkarrera igo eta pentsatzea eragotzi zidaan, behar bezala pentsatzea, egitera nindoanaz benetan jabetzea, baina ototzen ari ninduan eta arnasa hartu nahi nian, kosta lain kosta infernu hartatik irten nahi nian, erraza zuan, nonbait, nire esku zegoan, hartu ezak esaten zidatean, hartu ezak lasai, ona da-eta, onenetarikoa, eta nik begiak ezin urrundu hauts zuri-zuri hartatik, oso gaizki nengoan, gero eta okerrago, izerdi hotzetan, dardarka, neure burua botatzea pentsatu nian, eta barne heze ilun hartan ez zegoen leihoa bilatu nian alferrik, paretaren kontra buruz jotzea ere bai, pare bat saio ere egin nian, baina eskuak lotuta neuzkaan, eta erraz heldu zidatean, pareta jo aurretik, aitzakiak noski, zuritu ezin dena zuritzeko nire beste ahalegin barregarri bat, jonki baten aitzakiak, ze, azkenean, hire izena aipatu nian, nahikoa izan zuan, Mikel Salazar esan eta gutxira infernutik irten eta, bat-batean, zeruan nengoan, ezerk inporta ez zuen toki lasai eta

argi gozoko batean, han ez zegoan guardia zibilik, ez zegoan ostiko, muturreko, oihu edo irainik, bakarrik nengoan, baina ez nian aldamenean lagunik behar, ezer ez nian behar, nire betetasuna osoa zuan, ezerk ez zidaan trabarik egiten, ez zakiat zenbat denbora pasatu nuen hala, dakidana duk heroinaren esku amatiarrek abandonatu nindutenean, leku berean jarraitzen nuela, bakarrik, pareko mahaian, nire odolaren arrastoa zuen xiringa ikusi nian, heroinatik geratzen zen apurra, hura hartu nahi izan nuenean, kaka zaharra, eskuak lotuta neuzkala konturatu ninduan, gehiagoz ere konturatzen hasi ninduan, nire traizioaren larriaz batik bat, bakarrik eta eskuburdinak jarrita banengoen, bahitu nindutenak hire bila joan zirelako zuan, argi eta garbi, hik gordetako zaldiaren bila, hire zatiaren bila eta, hala izanez gero, luze gabe egongo zituan bueltan, hi ekarrita gainera, baina, atzera azaldu zirenean, heroina gordetzen zuen hire larruzko zorro handia zekartean, hori baino ez, eta niri kendutakoaren ondoan ipini zitean, Goietxerena baino ez duk falta, baina horrena ere hemen egongo duk laster, harrotu zituan, eta nik orduan, hitaz hain arduratuta egon izan ez banintz, beharbada oker zeudela eta Joxerena betiko galduta zuela pentsatuko nian, hura ez

zutela hi eta biok bezain erraz harrapatuko, handik oso urrun egongo zela ordurako, Hego Amerikan edo, horregatik hire izena aipatu, hi traizionatu baino lehen, Joxerena aipatu niean, harekin jai zutelakoan, eta hala ematen zian, harena zen-eta faltan zuten herena, beste biak, gureak alegia, han zitiztean, bistan, lapurtu genuen gehiena, hi, aldiz, ez hengoen, eta hori kezkagarria zuan, non hengoen, non hinduten galdetzekotan egon ninduan, baina ezer galdetu ahal izan baino lehen, preso nindutenek erantzun zidatean, buruan nerabilena jakingo balute bezala, hire lagunak baino zorte hobea izan duk, esan zidatean, baina ahoa itxita eduki behar duk, haren atzetik joan nahi ez baduk, hik ez dakik ezer, ez duk ezer ikusi, nik baietz eta baietz, noski, nahi zuten guztia egingo nuela, ez niola inori gertatutakoaren berri emango, seguru egon zitezkeela, hala gaudek, badakigu-eta hi non topatu, hala zuan, dena zekitean, bazekitean gu jonki alproja batzuk baino ez ginela, ero galantak, bazekitean ikaratuta nindutela, seguru zeudean, bai, horregatik eskuburdinak kendu eta *mahaia garbitzera* gonbidatu nindutenean, ez zidatean bitan esan beharrik izan, xiringa hartu nian eta akorduan dudan hurrengo gauza zera duk, pinudi batean nagok, lurrean luze-luze egin-

da, eta euri zirin bat ari duk, traba egin ordez gozo zaidana, hor nagok ba, batere kexurik gabe, gustura, pixkanaka bizkarrean min sor bat nabaritzen hasi naizen arte, eta, horrekin batera, entenditu diat zer gertatu zaidan, zer dela-eta nagoen egoera penagarri horretan, altxatzen saiatu nauk, eta minak ez naik laga, eztena sartu zidak, bizkarretan ez ezik saihetsetan ere bai, zorrotz, arnasa hartu diat, ahal izan dudan sakonen, berriro saiatu baino lehen, tarteka ilargia nabaritu ahal diat pinuen adaburuen artetik, ilargi biribil bat, ia betea, bat, bi eta eup, pinu bati heldu zioat, arbolaren izerdiak eta eskuan neuzkan urratuen odolak isuri likatsu bat osatu ditek, ahal izan dudanean, fraketan garbitu dudana, ulu bat aditu diat, hontzaren batena akaso, edozein modutan erne nagok, hanka mugitzea eta urrats bat aurrera egitea eragozten didan beldur berak ernatuta, eta hor nonbait, pinuditik kanpo edo, nire zain egongo balira, hau dena nire bahitzaileen amarru bat besterik ez balitz, orduan zer, orduan haien eskuetan egongo nindukek, edozein modutan hala nengoan, haien menpe erabat, bazekitean non ibiltzen nintzen, aurrera egin diat, beraz, eta ahal moduan pinuditik irten diat, gau betea duk oraindik, baina laster argituko duela iruditu zaidak, mendi bide

batetik noak, beherantz, hala ailegatu nauk noizbait errepide batera, eta han, zuhaitz baten kontra, atseden hartu diat, han ere ez duk ezer aditzen, ez duk autorik pasatzen, ez duk inguruan argirik antzematen, sortaldean hazten ari den gorritasuna duk esperantza zerbait ematen didana, beste egun bat zetorrek, laster dena mugitzen hasiko duk, txoriak kantari eta gizon-emakumeak lanean, kanpaiak adituko dituk, egunerokotasunaren hots ezagunek munduak biraka jarraitzen duela adieraziko zidatek, lasaitu egingo naitek, hori pentsatu diat, baina, motor bat benetan aditutakoan, urduritu egin nauk, lasaitu beharrean, eta zuhaitz handi baten atzean ezkutatzera egin diat, handik lastoz gainezka datorren kamioi koxkor bat ikusi dudan arte, ezkutalekua laga eta errepidera azaldu nauk, nire beso minduak astindu ditiat, kamioiak bere martxa moteldu eta guztiz geratu duk, baserritar itxurako gizon mehar batek gidatzen dik, goitik behera begiratu zidak, mesfidantza begirasunean, nor ote naizen eta zer egiten dudan han, leku urrun bakarti hartan, galdezka ari duk bere artean, nire arropa zikina, aurpegian dauzkadan urratu eta ubelduak ikusita, argi dik nire egoera ezin dela parte onekoa izan, euskaraz agurtu dudanean pixka bat lasaitu dela iruditu zaidak,

non ote gauden galdetu zioat aurrena, Gaztelun, hurrengo galdera egin baino lehen nire piura negargarriaz zerbait esan behar diodala pentsatu diat, lapurtu eta lapurrek bertan laga nautela kontatu zioat, ez duk, seguru asko, istorio sinesgarria, baina sinistu ez badu, sinistu duelako itxura egin dik behintzat, Tolosara zoak eta, bai, eramango naik nahi izanez gero, kamioian pentsamenduek hiregana naramatek ezinbestean, hi ere pinudiren batean egongo hintzen akaso, horixe pentsatu nahi nian, sinistu, hala ez bazen, askoz okerrago izan zitekeelako dena, okerrena, pentsaezinena, eta guardia zibiltzat hartu nituen haien hitzak aditzen nitian, hire lagunak baino zorte hobea izan duk, esaldiak mailu baten moduan jotzen nindian, nire egoera baino txarragoa: heriotza, ez zitzaidaan besterik bururatzen, halako batean negarrez hasi ninduan, nire laguntzaileak ez zekian zer egin, beharbada ni hartu izanaz damututa zegoan, Tolosan sartu aurretik, kamioia gelditu zian taberna baten parean, kafe bat edatera gonbidatu nindian, zorionez zotinari eustea lortu nian, eta nire laguntzaileak lasaitu ederra hartu zian, bekokian nabaritu nioan, eskuen mugimenduan, hala ere mutu edan genian kafea, azkar samar, goizeko albisteak irakurtzen ari zen aurkezle baten ahotsa zuan

bertan aditu ahal zen bakarra, ETAk egindako azken atentatuaz ari zuan, telebistatik ailegatzen zitzaigun ahotsa baino ozenago aditu ahal izan nian ingurukoek gogoan zerabiltena, ETAkoa ote nintzen, edo ETAk bahitutako baten bat bestela, batera ala bestera, arazo potoloak, horixe erabakiko zitean, begiak gugandik baztertu ezinik, eskerrak hangoak bukatu eta kamioira bueltatu gintuan, eskerrak jada Tolosan, akordu gazi-gozoak zekarzkidan hiri horretan geundean, baserritarrak tren geltokiaren parean laga nindian, Donostiarako trenean, baten batek abandonatutako egunkari bat hartu nian urduri, lehen orrialdean, ez nian ezer topatu, ezta arretaz miatu nituen gainerakoetan ere, poztu ninduan, bazitekean hi ere beste tren batean egotea, etxerako bidean, edo ni izan ninduten barne heze ilunaren antzeko beste batean bestela, libratu aurretik, nirekin berriro bildu aurretik, elkarri traizioa eginda egongo gintuzkek, berdinduta biok, eta azken egunetakoa amesgaizto bat baino ez lukek izango, itsusia baina urruna, oso urruna, edo, hobeto, bazitekean amesgaizto hark biok gehiago elkartzea, gure harremana estutzea, bazitekean amets gozo batek hura ordezkatzea, dena zuan posible goiz hartan, trenak kulunkatuta, etxerantz, ustez hiregana

nindoala, hutsetik hasiko gaituk, zerotik, baina moldatuko gaituk, elkarrekin bai, ederki moldatuko gaituk, horixe agintzen nian, herriak pasatzen ikusten nituen bitartean, Anoeta, Villabona, Andoain, Urnieta, Hernani, Martutene, Loiola eta etxea, baina gure etxea hotz eta hutsik zegoan, hire arrastorik gabe, eta Joxeren arrastorik gabe, hala hobeto, libre ibiliko zuan auskalo non, auskalo zein lurralde oparo urrunetan, hori Joxe, baina hi, non ote hengoen hi, eta nik, zer egin behar ote nuen, dutxan sartu ninduan, arropak aldatu nitian, eta laster kalean ninduan berriz ere, Konstira joan, inor ez han, autobusa hartu eta Amarara ondoren, Tanit itxita zegoan, goizegi ari ninduan, kalez kale ibili ninduan, denbora pasatze aldera, Tangerren kafe bat edan nian, Paseo Berrian ibili ninduan, indarrean zetozen olatuei begira, eta, azkenean, Konstira bueltatu ninduan, ordurako Trumoia irekita zegoan, harritu zuan Rafa ni ikustean, goiztiar habil gaur motel, goiztiar eta bakarrik, hori ez zian esan, baina argi adierazi zidaan haren galderak, non utzi duk adixkidea, denboratxo bat hartu nian erantzun aurretik, isildu behar nuena argi nian, nire kezkaren berri ez emateko arrazoirik ez zegoan, hortaz, horixe eman nioan aditzera, lagun maitearen faltak eragindako atsekabea, herstu-

ra, haren albiste zehatzik ez izateak eragindakoa, non zegoen eta nola zegoen ezjakite puta hura, espero zitekeena jaso nian Rafarengandik, animo asko eta arratsalderako zer edo zer lortuko zidalako promesa ere bai, garagardo bat eskaini, eta nire kontu tristeak aditu zitian, gainera, beste bezero batzuk sartu ziren arte, gehienak ezagutzen nitian, eguerdiro agertzen zituan, tragoa hartu eta kanpora, arkupeetara irteten zituan, haxix erretzera, segituan gintuan biok bakarrik, beraz, jarraitu zezakean nire lantuak, jarraitu nezakean Rafari lata puta ematen, baina lotsagarria iruditu zitzaidaan, halako batean, inoren errukia bilatzea, arratsaldean bueltatuko ninduan, iluntzean, eskua patrikan sartu eta nuen dirua zenbatu nian, ezer gutxi, gutxiegi edozein modutan, Rafak inguratu behar zidana ordaintzeko, etxera joan beharko nian, nire ohearen behealdeko zirrikitu batean gordeta nuenak bertan jarraitzen ote zuen begiratzera, baina ez nian batere gogorik, goizean bertan topatu nuen nahaste-borrastea zetorkidaan akordura, dena hankaz gora, arropak, liburuak, paperak, kaseteak edonon eta edonola, etxe osoan barreiatuta, profesionalen lana, nabarmena zuan, hara hurbiltzeko gogorik gabe ere, hara joan ninduan, beste inon baino seguruago egongo nintzela-

koan, bazeukatean nahi zutena, zatirik handiena gutxienez, bazekitean nork lapurtu zien, eta, horrenbestez, ez zituan atzera etorriko, ohe azpian zirrikitua bilatu nian eskuineko eskuarekin, papera sentitu nian atzamarren puntan, bost mila pezetako billete more batena, hain justu, dirua topatu izanak dezente hobetu zidaan aldartea, zamarra baten patrikan agertu zitzaidan haxix puskatxoa ahaztu gabe, txirri bat egin eta The Clashen musika adituz erre nian, aurreko egunetan bizitutakoen hausnarrean, hire lagunak baino zorte hobea izan duk, esaldi horrekin talka egiten zian nire edozein pentsamenduk, iraindu, mehatxatu, jipoitu, torturatu egin ninditean, tximinoaren atzaparretan laga ninditean, eta, hala ere, bertan Bilbo, zorionekoa guztiz, nor izango ote zen martirizatu nindutenentzat zoritxarreko, hi, nor bestela, hamaika buelta emanda ere, ez zegoan beste erantzunik, ezin zitekean egon, hobe nian lehenbailehen onartzea, atzera bueltarik ez zuen-eta, hori entenditu, hori neureganatu nuenean, auskalo zergatik, musikaz aldatu behar izan nian, *London Calling* atera eta, Troskoz akordatuta, Lou Reed bilatzen hasi ninduan, nire inguruko kaosean, kostatu zitzaidaan, baina *Coney Island Baby* topatu nian noizbait, eta Louren ahotsa aditu nuela, begiak busti zi-

tzaizkidaan bigarrenez egun hartan, requiem bat zuan hura, hire modukoa, Troskoren modukoa, merezi zenutena, hire, gure tragediari zegokiona, nire malkoek derrigortzen zutena, hain zuan triste ahots hura, hain zian munduaren errotiko goibeltasuna agerian uzten, batez ere glory of love kantatzen zuenean, kasetearen azken kantan, malenkoniaren gailurra zuan hura, glory of love, glory of love, maitasunaren loria, horra entenditzen nuen zera bakarra, nahikoa oilo-ipurdia jartzeko, nahikoa hire ondoan egon nahi izateko, glory of love, nahikoa nire galeraren handiaz konturatzeko, hire izena ahoskatu nuenean, aurpegia tapatuta zeramaten haien aurrean, aukeratu behar izan nian, eta, maitasunaren loria aukeratu ordez xiringarena aukeratu nian, edozein jonkik egingo zuena egin nian, azken batean, edo ez, akaso ez, hik ere egingo al huen, zenbat aldiz ez ote diot galdera horri heldu behar izan harrezkero, hik zer egingo ote huen, aditzen al didak, Mikel, aditzerik ba al daukak, nik egin nuena egingo huke edo eutsi egingo hioke, seguru asko eutsi, nik eutsi nion moduan, ahal izan nuen arte, tximino aluak lepora salto egin zidan arte, hiri ere egingo zian, auskalo, beharbada tiroa sindromea sentitu baino lehen jo ziaten, sarritan saiatu nauk hire he-

riotza imajinatzen, nork jarri zian pistola buruan, sarjentuak jarriko ziala egingo nikek, bere menpekoetako batek hala deitutakoan, izenak debekatuta zeudela haserre akordarazi zionak, aurpegirik gabeko ahots ahaztezin hark, oraindik ere amesgaiztoetan jarduten zaidana, ahots neutro bat, albisteak leitzen dituzten kazetari horietako baten modukoa, galdera bera milioi bat aldiz errepikatzeko gauza den ahots beti bera, hik eta nork gehiago, izenak, eta nik ez zegoela beste inor, ez nuela zaldia beste inorekin banatu nahi, nik antolatu eta egin nuela dena, hik bakarrik, hik eraman hituen pakete guztiak kobazulotik furgonetara, bai zera, tabakoa pisutsua duk, kutxa handiak, eta ezingo huke bakarrik hain azkar egin, eta nik baietz, nekez, baina ahal izan nuela, eta orduan berriz muturrekoak, berriz plastikozko poltsa buruan, berriz itomena eta hiltzeko gogoa, hura behin betiko amaitzeko nahi bizia, eta oihuak, mehatxuak, irainak, Joxe aipatu nuen arte, atsedenaldi bat orduan, eten bat, bakarrik laga ninditean, joan zituan, Joxeren bila noski, baina haserre bueltatu zituan, esku-hutsik, txoriak hegan egin zian nonbait, beraiek ailegatu baino lehenago, zorte txarra, okerrena orduan hasi zuan, tximinoaren lehen haginkadak sentitu nitian, konortea galduko

nuela pentsatu nian, besteak, esadak nor gehiago egon zen han, nork lagundu zian, esan dizut, bion artean moldatu ginen, sarjentua mesfidatia zuan ordea, eta profesionala, bazekian bere lana egiten eta ez zidaan konortea galtzen laga, bazekian soka laxatzen, ondoren berriz tenk egiteko, ez zuan nekatzen, denbora kontua zuan, jakitun zuan, niri agortzen ari zitzaidan denbora, hozka ari zitzaidan primate asegaitza presatuta zegoan, hark ez zian atsedenaldirik ametitzen, sarjentua konturatuko zuan noski, udako eguzkitan izozki bat urtzen den moduan ari nintzen-eta haren parean urtzen, nire eskuen dardarak eskuburdinetan eragindako hots metalezko gero eta ozenagoa adituko zian, puntuan zagok, pentsatuko zian, luze gabe beste izen batzuk akaso eroriko zituan, zeridan lerdearen antzera, nire aho puztutik, laxatu eta tenk egin, amuari hozka egindako arrain bati egiten zaion moduan, xiringak mahaiaren gainean segitzen bazuen ere, amu zorrotza jada ari zitzaidaan barrena urratzen, hire izena aurki aipatuko zuan infernu hartan, Mikel Salazar, eta hori izango zuan guztiaren bukaera, edo guztiaren hasiera, nondik begiratzen den, hire izena ez zuan artean agertzen, baina hi hintzen, biharamuneko egunkariaren azalean argazkia ikusi nuenean,

berehala ezagutu hindudan, nahiz eta argazkia iluna, kaskarra izan eta hi buruz behera egon, etxe azpiko tabernan ikusi nian, gosaldu bitartean, eta goitik behera leitu nian albistea, hil hinduen tiroa bertatik bertara egin omen ziaten, buruan, eta ziplo erori hintzen, ezer sentitu gabe, non hintzen ez zuan seguru, baina besoetan hituen markek adierazten zutenez, jonki bat hintzen, drogazale bat, zaborra, Tolosaldeko mendi bateko xendra batean botatakoa eta inguruko baserritar batek topatua, nork hil eta utzi zuen han, berriak ez zian hori argitzen, baina drogaren aurka ETAk zeraman kanpaina aipatzen zian, gertakizun ilun bat zirudian, bai, ez ordea, sasoi hartan egunero gertatzen ziren beste asko baino ilunagoa, kontu garbiketa bat izan zitekean, mendeku bat, zor baten kitatzea, hipotesiak ugariak izan zitezkean, hiltzeko moduak eta arrazoiak bezain ugariak, gehiegizko dosi bat sartu, esaterako, eta edozein egunetan hil nintekean neu ere, jonki bat hamaika eratara hil zitekean, batez ere jonki pobre bat, ia eskale bat, Tokolori lapurtutakoa bueltarazi zidatenetik, ahal nuena egiten nian zaldia inguratzeko, eta horretan xahutzen nian lortzen ahal nuen dirua, gutxi beti, sekulan ez beste ezer ordaintzeko lain, hori zela-eta etxetik alde egin behar izan

nian hilabete gutxiren ondoren, kale gorrian nengoan eta zoritxarraren estigma neraman larruan tatuatuta, hil zutenaren lagun-mina ninduan, bizirik jarraitzen zuena, horrek susmagarri bihurtzen nindian, hura hil zuena izan nintekean, hura hil ez baina traizioa egin ziona, saldu zuena, edozein izugarrikeria leporatu ahal zidatean, eta horixe egin zitean, hasieran ez adituarena, ez ikusiarena egiten nian, irribarre egin eta aurrera segitzen nian, gor eta itsu ibiliko banintz bezala, bost axola zer zioten, nik neurea eta kito, nire eguneroko dosia eta hor konpon gainerako guztia, hi gabe, berdin zidaan, hi gabe, ezerk ez zian zentzurik, edo, hobeto esanda, hi gabe heroinak baino ez zian zentzurik, hark eskaintzen zizkidan lasaitasuna eta bakea, baina edonon eskuratu ahal zuan, edozein hiri edo herritan, inork ezagutzen nindenetan ere bai, Bitorixara bueltatu nintekean, edo urrunago, Bartzelonara, esate baterako, Tokolo eta haren lagunengandik ahalik eta urrunen, haren esku luzea iritsiko ez zen nonbaitera, komeni zitzaidaan haiek nitaz ahanztea, erabat, nire izena, nire aurpegia, haientzat mamu bat bihurtzea, itzal baten itzala, horretarako hemendik alde egin behar nian lehenbailehen, mamu batek bezala lekutu behar nian, horregatik Bartzelonarako

trena edo autobusa Donostian hartu beharrean, Altsasun hartu nian, herrian ibili eta atzetik inor ez neramala ziurtatu eta gero, banindoaan eta betiko nindoala iruditu zitzaidaan, nolabait nire buruaz beste egitera nindoaan Bartzelonara, hiltzera eta berpiztera, beste bat bihurtzera, nintzen jonkia akabatu nahi nian, hartatik libratu, zaila zuan ordea, aurki konturatu nintzenez, França geltokian bertan, hain justu, hara ailegatu eta segituan nabaritu nuen-eta bertako mugimendua, begirasunak, imintzioak, irribarreak, hitz erdiak, bostekoak, agurrak, horiek denak seinale argiak zituan jonkien hizkuntza ezagutzen zituen edonorentzat, azoka handi bat deskubritu nian han, baina, kantak dioen moduan, hegan egiten dik denborak, egunak pasatzen dituk, gauak niretzat, asteak, hilabeteak, urteak, dena pasatzen duk, uste baino azkarrago, eskuetako atzamarren artetik joaten zaiguk denbora, niri ere hala joan zitzaidaan Bartzelonan, hiriak irentsi egin nindian, haren oparotasunak, orduan behar nuen guztia ematen zidaan, sexua, drogak eta rock&rolla, Troskori hainbeste gustatzen zitzaion Ian Duryren leloak dioen bezala, sarritan kantatzen zian, eta guk barre egiten genioan, akordatuko haiz, hura ere herrena zelako gustatzen zitzaiola esanez, eta hark kantu hura

bai, gustukoa zuela, baina beste batzuk ez, inolaz ere, Lou Reeden edozein kantu bezainbeste, eta horretan hirurok ados, Lou bezalakorik inor ez, idolo guztiak txikitu ondoren, geratzen zitzaigun idolo bakarra zuan, horregatik Bartzelonan joko zuela jakindakoan, ezin nuela galdu erabaki nian, Bikinin lan egiten nian orduan, eta nagusiarekin nahiz lankideekin negoziatu nian, kontzertuaren gauean lanera berandu ailegatzeko, estreinako notatik Trosko izan nian akorduan, gizajoa, bizitza justua ez delako froga iruditu zitzaidaan hura han nire aldamenean ez egotea, hura han eta ni haren tokian, Arabako lurraren pean, baita hi ere ez egotea, nahiz eta hire falta nabaritzeko inongo kontzertutara joan beharrik ez izan, oinaze zahar baten modukoa izan haiz-eta niretzat beti, egunero sentitu diat, gero eta zorrotzago, berriz elkartuko garen eguna hurbildu ahala, nire mamutasuna guztiz osatuko den eguna, xelebrea izan nauk bizitza osoan, gaua eta eguna batera, argia eta iluna, txukuntasuna eta zikinkeria, horien guztien nahasketa arraro bat, itxuraz behintzat kontrarioak direnen halako batuketa bitxia, sekula betetzen ez nituen promesak egiten nizkioan neure buruari, nire mundua beste bat zuan, gauekoena, gauez lan egiten nian, gauez bizi ninduan, gau

guztiek gau bakar bat osatzen zitean, bertan goxo nindukan gaua, edozein aldaketa etengabe atzerarazten zidana, txukun samar moldatzen ninduan, banian dirua, Borne aldean alokatutako etxebizitza txikitxo bat, eroso mugitzen ninduan gero eta hobeto ezagutzen nuen hirian, gustura nengoan Bartzelonan, eta bertan jarraituko nian, heriotzagatik izan ez balitz, barre egingo duk, ordurako heriotza ederki ezagutzeko makina bat arrazoi banuela pentsatuko duk, eta hala duk, banian, Trosko eta hi, besteak beste, hala ere, urte haietan Bartzelonan, nire inguruan gertatzen ari zena beste zerbait zuan, jendea, banan-banan hiltzetik, samaldaka hiltzera pasatu zuan, ezker-eskuin erortzen zituan nire inguruan, gerra batean egongo banintz bezala, gauez jokatzen zen gerra batean, eta, noski, gauekoak zituan hildako soldadu gehienak, lagunak batzuk, ezagunak asko, heriotza gose zuan eta aseezina, gehiago nahi zian beti, edozein jonkiren antzera, bere aho handi itsusia zabaldu eta ahal zituen guztiak irensten zitian, pazientziarik gabeko Gargantua bat zuan, ehiztari anker bat, eta denok izutu gintuan, zer ote zen hura, zein motatako izurritea, letra handietan baino idatzi ezin zitekeen HERIOTZA hark edozein esperantza eragozten zian, handik trote egin

behar nuela hasi ninduan pentsatzen, handik alde egin, nora ote, Donostia zuan niretzat erantzun bakarra, nonbait hiltzekotan, hemen nahiago, lagunengandik gertu, higandik ahalik eta hurbilen, hori pentsatu nian, susmatu ere egin gabe erabaki horrek ekarriko zizkidan buruhausteak, gerora eragingo zidan damu astuna, baina artean ez nian iraganaren indarra ezagutzen, ez nekian horren mamuen berri, ez nekian berriz egin ahal niala traizioa, aditzen al didak, Mikel, aditzerik ba al daukak, ez nekian, dena zekielakoan bizi zen ezjakin galanta ninduan, horixe, eskarmentua banian, eta horrekin nahikoa zela uste nian, mundua ezagutu ondoren etxera bueltatutako seme galdutzat hartzen nian neure burua, azken portura ailegatutako marineltzat, babestoki bat bilatzen nian, Bartzelonako gerratik urrundu eta bakea nahi nian, gelditzen zitzaidana bizitzeko sosegua, nekatuta nengoan, aldatu nahi nian, gaueko lanak ahaztu eta eguneko bihurtu, horretan ahalegindu nauk harrezkero, batez ere Joxerekin topo egin nuenez gero, asko zor zioat, beste aldera pasatu zaiguk, baina nagusi ona duk, nirekin behintzat, lana eskaini zidaan gehien behar nuenean, medikuengana joanarazi nindian, eta ez duk haserretzen ospitalean egoten naizenetan, eutsi egin behar

diok, hala esaten dik besoak zabalduz eta ukabilak estutuz, Anoetan egongo bagina bezala, nire partida honek ez dik inongo interesik, ordea, ez dik emoziorik, azken emaitza jakina duk aldez aurretik, heriotzak irabaziko dik ezinbestean, esan egiten zioat, baina hark berean jarraitzen dik, eutsi egin behar diok, bere filosofia duk, luzeen eusten duenak irabazten dik, hala irabazi omen dik berak, asko irabazi dik, lapurtzeko hobeki gorbata, pistola bat baino, hori ere haren filosofiaren beste ale bat duk, abila duk alua, zomorro-zomorro, eutsi eta eutsi, nahi duena lortzen dik, Gloriaren kasuan ere hala izan duk, kostatu zaiok baina eskuratu dik, Gloria bezalako emakume bat eskuratu ahal den heinean, behintzat, ze Gloria praktikoa duk, bazakik zer nahi duen eta nola inguratu, Joxek ere bai, noski, kalamidade hutsa dela eman arren batzuetan, Gloriari mozolo baten moduan begira geratzen zaionetan batik bat, halakoetan ume garaiko Joxe ikusi zezakeat, Iruñeko gozotegi baten parean, amaren eskutik, kristalaz beste aldeko opil eta gozokietan begiak josita, irrikaz gainezka, nik bezalaxe, Gloriak berak ere nik ikusitakoa ikusi zezakek, bere botereaz jabetuta zagok, edozer eskatzea zaukak, Joxek emango diola seguru, bitxi bat, soineko bat, bidaia bat, burutik pa-

satzen zaion edozer, aitortu egin zidak, gogaikarri samarra da, baina eskuzabala, hala esan zidaan, oso eskuzabala, gehituko nikek nik, nirekin hala izan duk, eta Gloriarekin are eta gehiago, hire alaba agertu arte Joxe izan duk kasu gehien egin didana, nire osasunaz arduratzen duk, pilulak hartu ditudan jakin nahi izaten dik, aspergarria izatera ere ailegatzen duk batzuetan, ondo nagoela erantzuten zioat, noski, medikuak agindutako guztia zintzo betetzen dudala, dena gezurra, alkohola, tabakoa eta drogak debekatu zizkidak, normala denez, baina, boladetan erre eta edan eta esnifatu egiten diat, debekatuta dudan guztia egiteko gogo eutsiezin batek hartu eta horixe egiten diat, drogak gibela ederki izorratuko didala jakitun, edo horrexegatik akaso, berdin ziok, honezkero bai, aste gutxi batzuk gorabehera, akabera hurbil diat, azken portura ari nauk ailegatzen, hiregana ailegatzen, horregatik nire ardaila, hitz eta pitz nahasi eta aldrebes hau, hildakoak ere aspertzeko moduko berriketa zentzugabe hau, gauzak argitu nahi eta dena gehiago zikintzeko baino balio ez duen hitzontzikeria penagarri hau, kaka esplikatzeko ahalegin absurdo hau, zuritu ezin dena zuritzeko, gertatu zena gertatu zuan, kito, ez zagok besterik, traizioa egin nian, bitan, jakinaren gainean

aurrena, okerrena, atzera egiterik ez zuena, bigarrena, ordea, oharkabean egin nian, eta jakin behar duk, zer, non, noiz, nola, zeinek, dena, zehaztasun guztiak ezagutu behar dituk, ez zioat kokainari errua botako, ez zuan dotorea izango, baina badakik zer eragina izaten duen, nola harrotzen garen hura odol jarioan dugula, nola edozerk erraza ematen duen, benetan den baino errazago, samurrago, ederrago, hala agertuko ninduan hire alabaren begietarako, irinak ikusarazi ziona ez nintzen-eta ni, beste norbait baizik, berak ikusi nahi zuena, hain justu, eta nik, zer ikusi nahi ote nian neuk, ikusi ezer ez, sentitu egin nahi nian, aspalditik sentitzen ez nuena sentitu, beste gorputz baten beroa, ezpain batzuen laztana, esku arrotz batzuek eragindako kilika, beste batengan desagertzeko irrika, berdin zitzaidaan, patuari, destinoari axola zitzaioan, ordea, eta mundu ziztrin honetako milioika lagunen artetik, hire alaba aukeratu zian, gaiztoz, mina egiteko, bazterrak nahasteko, patuak heriotza dik salgai, ordea, beste ezer ez, horixe pentsatu izan diat hire alabari begira, zeharka begira, barraren muturreko zoko horretan nabaritzen diat, haren begirasuna sentitzen diat bizkarrean, zigor ederra patu txatxu horrek jarri didana, ia egin ez nuen zerbaitengatik, gainera, ez za-

kiat kokaren eragina izan ote zen, baina izen hura, Oihane Salazar Urbieta, ikusi eta hor laga nian bertan behera dena, hor bukatu zuan, momentu horrexetan, ipuin batean bezala, Gloriak, kontatu nionean esan zidan bezala, gauerdia ailegatu eta akabo sorginkeria, akabo xarma, barkamena eskatu nioan, eta horrekin dena konponduta zegoela sinisteko bezain inozoa izan ninduan, kokak berriz ere, horrek eragindako optimismo neurriz kanpokoa, ze, gau zoritxarreko haren ondoren, nitaz ahaztu beharrean, obsesio bihurtu nintzaioan, eta harrezkero kasik egunero azaldu izan duk Iturrira, berak hainbeste gorrotatzen dituen burges txikien paradisu zarpail honetara, pintxoen Mekara, horri esker aberasten ari zaiguk Joxe, horiei esker, baita bakeari edo dena delako horri esker, ETAk burdinak utzi zituenetik, Alde Zahar hau, gurea izan zena, haien eskuetan zagok, eta Ezker Abertzalekoak, garai bateko jaun eta jabeak, Ikatz kaleko beren ghettoan zokoratuta zaudek, terroristak desagertu dituk, beldurra desagertu, eremu arriskutsu debekatuak desagertu, eta horren atzetik turistak azaldu dituk, bertako batzuk eta espainol asko aurrena, kamerak lepotik zintzilika, terrorismoaren errai goibelak barrutik ezagutzeko irrikatan denak, jonkiak ere aspaldi joanarazi zi-

tiztean, inork ez zitian nahi, itsusi egiten zitean, eta beste nonbaitera joan behar izan zitean, argazkietan, gida-liburuetan agertzen ez diren auzoetara, turisten lasaigarri, terrorismoaren ibilbidea egiten duten espainolentzat, esaterako, Gregorio Ordoñez hemen hil zuten leitzen dutenentzat, pipak jateari laga gabe, Tokoloren akorduan eta omenez ere egongo al da baten bat, hil zuten lekuan, seguru asko, lotsagarria miliek etorri behar izana, hire hiltzaileari mendekua hartzeko, Bartzelonan nengoan hori gertatu zenerako, *La Vanguardia* zahar bat leituz jakin nian, poztu egin ninduan, hil hinduten modu berean hil zuten-eta hura ere, pistola buruan ipini, tiro egin eta haren burmuinak alde guztietara zabaldu, ez diat uste izugarri poztu nintzenik, dena den, hura eta hari lotutako edozer ahazten urteetan ahalegindu ondoren, aspaldiko mamu bat zuan ordurako niretzat, oso atzean lagatako bizitza baten azken txingarretako bat, inozo ez bestea ni, halako kontuak atzean laga daitezkeela pentsatzea ere, bueltatu egiten dituk beti, bueltatu gure bila, kontu eske, zorretan gaituztela akordaraztera, ez gaituk hitaz ahaztu, adiskidea, ordaindu ezak lehenbailehen, heriotzaren mezulariak dituk, hark bidalitakoak, haren iragarleak, batzuetan horixe iruditzen zaidak

hire alaba ere, kontu eske etorri zaidan norbait, hitaz mendekatzera azaldu zaidana, hik bidalita akaso, aditzen al didak, Mikel, aditzerik ba al daukak?

15

Hildakoak ez dira gutaz sekula ahazten, lagunik onenak ditugu, hutsik edo traiziorik egingo ez digutenak, inoiz egin baziguten ere; hildakoak ez dira isiltzen, kalaka etengabean aritzen zaizkigu, baina ni adi, benetan adi, Arturori egoten natzaio, hari eta Gonzalori ere bai noizean behin, hura gizon zuhurra izan baita beti, eta estimatzen ditut haren gogoetak eta aholkuak; besteei, nire lehen senar Jorgeri eta Gonzalo ondorengo maitaleei, aldiz, ez diet hainbeste jaramonik egiten, guztientzat astirik ez izaki. Coco ere hor dago, gainera, eta arreta eskatzen dit, jeloskor jartzen baita bestela, eta zaunka hasten zait, protestan, gizonezkoren batek ni besarkatu edo musukatuz gero: bati baino gehiagori egin izan dio hozka. Besteak beste hori dela eta, nahiago ditut maitaleak nire etxetik kanpo, hotel on bateko gela eroso batean, ahal dela. Lagun horiekin eta alabaren gaueroko deiarekin nahikoa, ez dut beste inor behar, norbaitek aldika opariak egitea, afaltzera gonbidatzea, dantza egitera eramatea eta, batez ere, potxotxa miazkatzea atsegin badut ere. Muskuilua jango dizut, esan ohi zidan Arturok, tri-

kua jango dizut, eta bero-bero jartzen ninduen. Ez dut, beraz, Joseren beharrik ere; ez diot inoiz esan, baina hala da, eta honezkero berak ere jakin behar luke.

Jose gizon bizkorra dela agerikoa da; sortu duen taberna eta jatetxe katea horren frogarik nabarmenena, baina tontotu egiten da nirekin, berak aitortu izan didanez. Jakina, baliteke horixe bera esatea beste edozein emakumeri, baliteke gezurti hutsa izatea, iruzurgilea, gizon gehienen antzera. Ez dut uste; begira-begira nola geratzen zaidan ikustea nahikoa da esaten dizkidanak benetan sentitzen dituela jakiteko. Nabaritu egiten zaio, esan zidan Laura Ybarrak, Iturritik etxerako bidean gindoazela ezagutu zuen gauean: Txora-txora eginda daukazu, Gloria.

Gizonak!

Laurak, alargundu berri, Madrildik alde egin nahi izan zuen, eta Donostian bilatu zuen aterpea, nire etxean. Mme. Licheronen ikastetxetik ordura arte etenik gabe luzatutako gure adiskidetasun paregabeak harritzen gintuen; lagunak baino gehiago, ahizpak gara, izan ez nuen ahizpa izan da Laura niretzat, bizitza oso bateko gorabeheretan, galderarik eta juzgurik gabe, aldean izan dudana, eta era berean, behar izan duen aldi gutxietan, aldean izan nauena, Lauraren bi-

zitza ordenatua eta lasaia izan baita, enbaxadore baten emazteari eta seme-alaba askoren ama bati dagokionez. Eta orain biok alargun, izan zen Lauraren azken ondorioa, Biteriren hitzak gogora ekarriz: bi alargun dotore mardul, bi alargun sexy, hala esan zigun, batez ere Laurari bihotz eman nahian, baina seguru naiz benetan hala uste zuela, horixe baikinen, izan ere. Laurak muzin egin zion nik adierazitakoari, eta ez zuela gizon gehiago behar etsi zuen, nahikoa zuela seme-alabekin. Baina gauzak ziren erakoak ziren eta, Biterik esan bezala, gu emakume desiragarriak ginen, oraindik bai, esan nion.

Ez, Gloria, ikusi orain zenbat zimur, kontra egin zidan. Ez dugu gure adineko gizon gehienek daukaten upeltzarra, behintzat. Barre egin zuen. Ez zuen uste Josek halakorik zuenik. Ezetz, ez zuela esan nion, korrika eta pilotan aritzen zela eta sasoiko zegoela.

Ondo zaindu, beraz, halako gutxi dago eta.

Zaindu dezala berak bere burua, nik nahikoa lan neurea zaintzearekin. Lauraren aholkuak zentzuzkoa zirudien, Jose ez da gizon arrunta, baizik eta itxura on samarrekoa, diru askoren jabea, zer gehiago eska dezaket? Eta, hala ere, bada harengan asebetetzen ez nauen zerbait, alderdi ilun ezkutu bat sumatzen diot,

beste hein batean Biteriri ere sumatzen diodana, zer izan daitekeen asmatzera iritsi gabe; alderdi hori gizonezko guztiengan ote dagoen jakin nahian, nire bizitzakoak ekarri ditut gogora banan-banan, aitarengandik hasita, agerikoa iruditu zait-eta haren alderdi iluna, hala nola Jorgerena eta, beste era batean, Gonzalorena. Arturo da balizko arau horren salbuespen bakarra. Hura gogoratzen dudanean, gizon xalo bat gogoratzen dut, azpildurarik gabea, zurikeriarik gabea, fidagarria, eta horrek sekulako lasaitasuna ematen zidan, harekin ezin zitzaidan ezer txarrik gertatu, eta sentipen hori zoragarria zen gutxi bezala, zeren eta, hura atzera lortzen ahalegindu banaiz ere hainbat gizon bitarte, guztiekin huts egin dudala aitortu behar, handiagoa edo txikiagoa baina huts beti: Arturo, denboraren poderioz ikasi behar izan dudanez, errepikaezina izaki. Laurak behin baino gehiagotan gogorarazi dit, beste edozein gizonekin ez konparatzeko, baina niri hori eskatzea gehiegizkoa da, harekin konparatuko baitut, ezinbestean, hurbilduko zaidan beste edonor.

Gizonak!

Ez naiz inoiz haien atzetik ibili, hori behintzat ondo ikasi nion amari, beraiek izan ditut atzetik beti, be-

raiek mugitu behar izan dute, nitaz arduratu, ni zaindu eta pozik izan, ondo baitzekiten zer gertatuko zen bestela, berehala utziko nituela, neu nintzela nagusia, zenbaitetan kontrakoa iruditu arren. Arturok bazekien hori, behin baino gehiagotan eta itxuraz txantxetan aitortu zidanez.

Serio ari zen, ordea, bere negozioetan aritzen zen era berean; laztana eta zigorra erabil zitzakeen, losintxa eta mespretxua, behar zen neurrian eta unean baizik ez, nagusi on batek jokatu behar duen bezala. Jakina, langile onak izanda errazagoa da, eta izan halakoak ziren Arturok Ibizan zituenak, hemengoak, euskaldunak asko, finak, garai batekoak ziren erakoak, Donostia inguruko baserrietatik etorritako neska gazteak gehienak, edo gurean zaharraren zaharrez hil zen Josepa, amona bat anaia eta biontzat, beste ama bat, benetakoa baino gozoagoa, ulerkorragoa niretzat. Ia familiako bihurtu ohi ziren neskame maitekorrak tokitan daude egun, inork ez du neskame izan nahi, eta etxe batean lan egiteko prest daudenak ez dira fidatzekoak, kanpotarrak dira, moroak, hegoamerikarrak, Mongoliakoak, Errumaniakoak, nik al dakit, denetarik, baina espainol alerik ez, horregatik kontuz ibili behar da haiekin, estu zaindu beharrekoak dira, batez ere

nirea bezalako etxe batean, gauza eder eta baliotsuez betea, atea irekitzen zaien une beretik erne egon beharra dago. Zilarrezko erretilu eta mahai-tresneria, urrezko bitxiak, perlak eta harribitxiak, zapiak, oinetakoak, era askotako jantziak arriskuan daude, batez ere indio horietako bat inguruan ibiliz gero, zeren eta horiek dira okerrenak, darabilten hizkera gozo horren bitartez edonor xaramelatzeko gai izaki, bai andrea, andreak nahi bezala, mila esker, andrea, hala aritzen zaizkit, baina nirekin jai dute, ez naute liluratuko, ez diet utziko, jakingo dut kate motzean lotzen, gure familiarenak betidanik izan direnak inork lapurtu ez diezazkidan. Saiatu moroekin, Gloria, langile onak dira, esaten dit Laura Ybarrak, nire beldurra aitortutakoan, eta hala da, seguruenik, berak dioen eran, bizitza erdia igaro baitu enbaxadaz enbaxada eta ondo jakin behar du.

Ez naiz fio, moroak maltzur azeriak iruditu zaizkit beti, fanatikoak, eta ez nuke terrorista bat nire etxean nahi, inolaz ere, urteetan guk jasan behar izan dugun terrorismoarekin nahikoa izan dut, urte gogorrenetan ere kalera irten izan naiz lasai asko, nire lagunak Alde Zaharrean sartzen ausartzen ez zirenean ere, ni hemen ibiltzen nintzen, terroristei eta jonkiei ezaxola;

orain, aldiz, beldur ibiltzen naiz askotan, etxetik irten orduko moroak ikusten ditut kantoian, drogak erretzen dituzte edota paper marroizko, plastikozko zorroetan sartzen dute burua drogatzeko, lekeda esnifatzen dute, Josek kontatu didanez. Hori dena guztion aurrean, non dago ba polizia, udaletxekoa edo Ertzaintza, berdin zait, biak ordaintzen ditugu gure diruaz. Inon ez, horri esker ibil daitezke moroak ibiltzen diren bezala, hemengo jaun eta jabe. Gorrotatzen gaituzte, ezagun dute, nola begiratzen diguten nahikoa da horrenbeste jakiteko, gorroto horrek beldurtzen nau, gau batean etxerako bidean inguratu, jo eta lapurtuko didatela pentsatzeak eragiten didanak, edozein basakeria egiteko gai dira mutur handi horiek, bonba bat jar dezakete autobus batean edo Anoetan, futbol egun batean, edo hementxe bertan, turistek betetako kale hauetan.

Tokitan daude garai bateko turistak ere, Maria Cristinan edo Londresen geratzen zirenak eta Juanito Kojuan edo Nicolasan bazkaltzen eta afaltzen zutenak, klase pixka bat bazeukatenak, ondo jantzitako eta hobeto hezitako gizon-emakume eder haiek guztiak. Beste garai batzuk ziren, ez dago esan beharrik, denok bakean bizi ginen garaiak, terrorismorik ga-

beak, Espainia osoko familiarik nabarmenenek udak hemen igarotzen zituztenekoak, zoriontsuak izan ginenekoak.

Zoriontsuak? Batzuetan bai, beste batzuetan ez hainbeste, zoritxarrekoak ere izan ginen, gurasoak bereizi eta anaia eta biok eskola banatara joan behar izan genuenean, gogorra izan zen, baina asko ikasi nuen, diziplina adibidez, edozein tokitan eta unetan duin agertzeko borondate menderakaitza, zeren eta Mme. Licheronenean, Ongi Jinen ikasitako bertute edo dena delako horregatik izan ez balitz, hilda nengokeen aspaldi, horregatik eta artean nire premia zuen Eugeniarengatik, noski, ezin bainuen mundu doilor honetan, hain txikia, bakarrik utzi, errugabe halakoa, Arturoren heriotza ankerrak eragin zidan oinazea jasanezina izanagatik ere. Eta alaba izan nuen gogoan Gonzalori ezkontzeko baiezkoa ematean, baldintza bat baizik ez nion jarri, Donostiara, nirera etorri behar zuen bizitzera, nahiz eta enpresa Bilbon eduki; berak, aldiz, beste zerbait proposatu zidan, Algortan biziko ginen astegun zurietan, baina asteburu osoa Donostian igaroko genuen, ezetz esan nion, eta azkenean nire asmoa onartu behar izan zuen, betiko galduko ninduen beldurrez, ordurako pitin bat ezagutzen ninduen,

eta guztiz sinetsi baitzidan mehatxua. Andre potrodu-na zara, esan zidan, zurekin txantxa gutxi, eta hala zen: barrabilak moztuko nizkioke nire etorkizuna edo alabarena arriskuan jarriko zuen edozein gizoni, eta bazekien.

Ibizan ezagutu nuen Gonzalo, Arturoren bitartez, hura eta haren emaztea sarri azaltzen baitziren disko-tekara; sei seme-alaba zituzten, ordurako hainbat aldiz aitona-amondu zituztenak. Gu baino hogei urte zaharragoak ziren arren, bazekiten bizitzaz gozatzen, unean unekoaz, gazte baten sukarrik gabe, baina so-fistikazio handiagoz, *savoir faire*, *savoir vivre* gehia-goz, bikote bikaina osatzen zuten, dibertigarria, inbi-diagarria niretzat. Emaztea, Begoña, artista zen, eta itsasoa pintatzen zuen behin eta berriro, itsaso bare urrezkoa, itsaso haserre urdinkara bitsaren zuriak ozta arindua, suak hartutako ilunabarreko itsaso gorria, oi Mediterraneo aldeko argia, esaten zuen miretsita, zein ezberdina gure itsasoarenarekin alderatuta, eta Gon-zalok burua pitin bat mugitzen zuen, seguruenik ha-maika aldiz entzuna zuen hura lehen aldiz entzungo balu bezala; polita zen ikusteko, are hunkigarria, Artu-rori aipatu nion, eta hark bere betiko eran barre egin eta pintatzen ikasteko esan zidan, bera jadanik enpre-

saria baitzen, Gonzalo bezala, eta horixe egingo nuela agindu nion, edozer haien erako bikote bat osatzeko Arturorekin, elkarrekin egoteko haiek bezain luze. Asmo polita nirea, baina nahiko begilaburra, zeren ahaztu edo oharkabean pasatu zitzaidan hura eragotzi ziezadakeena, agerikoena, gure edozein asmo zapuztu ohi duena: heriotza.

Itsasotik urrun harrapatu zuen Begoña, Bilboko ospitale batean, pare bat hilabete lehenago buruan aurkitu zioten tumore txar baten ondorioz. Arturo, aldiz, bala batek hil zuen, asasino baten pistolatik irtendakoa. Biek ala biek hutsune erraldoi bat utzi zuten beren atzean, elkarri lagunduz Gonzalo eta biok betetzen ahalegindu ginena. Begoñaren heriotzaren berri hil eta hilabeteetara izan nuen, Gonzalok telefonoz hots egin zidanean, Arturorengatik doluminak emateko; egunkari eta telebista guztietan agertu zenez, gertatutakoaz jakin eta nik huts egin nituen hileta-elizkizunetara etorri eta han ikusi ez ninduenez, nola nengoen jakin nahi zuen. Zer esanik ez, gaizki nengoen, lehen aldiz alargun sentitzen nuen neure burua, elbarri, nire gorputzari atal bat moztu izan baliote bezala, moztutakoa ez zegoen jadanik, baina mamu-minak han jarraitzen zuen, bertan egondakoaren oroigarri,

eta hain zen latza, non, Eugeniarengatik izan ez balitz, Arturoren atzetik joango bainintzen neu ere. Horixe aitortu nion Gonzalori, eta ondo ulertzen ninduela esan zidan, berak ere antzeko zerbait sentitzen zuela, batez ere lan-bidaietatik itzultzen zenetan, etxeko bakartasunak, hango isiltasun astunak estutzen zuela, urteetan bizitasunez eta zarataz betetako etxe hura hilkutxa bat iruditzen zitzaion.

Benetan lagundu zidan Arturo hil ondorengo hilabeteetan, asteburuetan Donostiara etortzen zen, Londres hotelera, eta zinemara edota afaltzera eramaten ninduen eta Eugeniari opariak ekartzen zizkion, baita neuri ere, nahiz ezer behar ez nuela adieraziz protestatu. Hartzeko lasai esaten zidan, Parisen, Frankfurten, Erroman edo Bruselan zegoela, niri oparitutakoa nonbait ikusi, niretzat egokia zela pentsatu, dendan sartu eta, besterik gabe, erosi egin zidala. Gonzalo eskuzabala zen, baina, urteak gorabehera, gizon galanta ere bazen, horregatik ez nintzen harritu, igande bateko arratsaldean, Londres hoteleko haren gelako ohean bukatu nuenean. Arzakenean bazkalduak ginen eta, dezente edan genuenez, badia osoa ikusmira zuen gela hartara atseden pixka bat hartzera joatea normala iruditu zitzaidan, Gonzalok beregana erakarri

eta kopetan muin egin zidan; bitxi sentitu nintzen, baina ez deseroso, artean indartsuak ziren beso haiek babestuta, eta antzeko zerbait gertatu zitzaion berari ere, amodioa egindakoan aitortu zidanez. Alkoholaren lurruna ordurako gure buruetatik aparte, pozik ginen biok, arindu ederra hartuta, dolua bukatu eta bizitzarekin jarraitzeko garaia iritsi zitzaigula ulertuta.

Handik aurrerakoa nahikoa azkar joan zen, Eugenia eta Gonzalo ondo konpontzen ziren, alabak ia izan ez zuen aitatzat hartu zuen nolabait, aita batek egin beharreko guztia egiten baitzuen hark. Mimatu egiten zuen, ia ni mimatzen ninduen beste, eta, Arturo etenik gabe gogoan izanik ere, estimu handitan nuen, gustura egoten nintzen harekin, maitagarria izateaz gain entzule eta hizlari fina baitzen, eta, batzuetan, hirurok ispiluren batean ikusi eta familia ederra osa genezakeela iruditzen zitzaidan, hori dela-eta ez nuen bitan pentsatu behar izan, berarekin ezkontzeko eskatu zidanean; biok alargunak gara, esan zidan, onuragarria izango da biontzat, jakaren barne patrikatik kutxatxo beltz bat atereaz; ireki zuenean, zafiro eder bat ikusi nuen, eta ezkerreko eskua hartu zidan eta hura hatzean ipini.

Nire gustuko udatiarrak bezala, beste garai bateko gizona zen Gonzalo, printzipio eta balio sendokoa, baina malgua aldi berean, ulerkorra, nortasun horrek erakartzen ninduen, urteek emandako oreka niretzat inbidiagarriak babestuta sentiarazten zidan. Bizkorra zen, Arturo ezagutu zuen, bazekien ezin zela harekin lehiatu, ez zuen harekin lehiatu nahi, are eta gutxiago haren oroimenarekin, haren mamuarekin, horregatik saihesten zuen haren aipamena, ni mintzeko beldurrez. Hasierako grina nahikoa azkar baretu zen gure artean, elkarrekin bizitzen jarri eta urtebetera edo, eta harrezkero, paseoan ibiltzen zen bikote bat ginen, kafetegietako terrazen eguteran esertzen zena, Paseo Berriaren buelta amaitutakoan, eguerdiro vermoutha edaten zuena. Horra, funtsean, gure bizimodua.

Zailena niretzat, Arturoren heriotzaren urteurrena izaten zen –oraindik ere hala da–, baina horretan ere jaun baten eran jokatu ohi zuen Gonzalok, egun horiek –hilaren bosta eta ingurukoak– hartzen baitzituen egin beharreko negozio-bidaiak egiteko, egun batzuez nirengandik diskretuki urruntzeko, niri bakea emateko, nire min eta oroimenekin bakarrik uzteko. Nire mina zela eta, mina hartzen zuen, eta horrek gaizki sentiarazten ninduen, horregatik eskertzen nion alde egi-

tean eskaintzen zidan nahi beste negar egiteko aukera, inork ez zuen nitaz errukitu behar, lasai berritu nezakeen otsailaren hasierako gau hotz bateko izua, gertatutakoa jakitean hartu ninduen ikara, leiho ondoko besaulkian eserita, egun zoritxarreko haren testigantzak gordetzen zituen kartoizko kutxa magalean, eta badiari begira, barnera nintekeen oroimenaren zingiran.

Arturo!

Nire kutxa: egunkarietatik moztutako albiste, erreportaje, elkarrizketa eta argazkiak, nire altxorra, hainbeste maitatu nuenarengandik geratzen zitzaidan bakarra, gorde nitzakeen haren hondar bakarrak, besteak, benetakoak, emaztearen esku egonik, Arturok aspalditik maite ez zuen haren esku, egunkari guztietan seme-alabez inguratuta agertu zen beltzez jantzitako ile-horail polit baina arrunt haren esku. Hark egunkariei adierazitakoaren arabera, senar eta aita ezin hobea zen Arturo, maitekorra, zintzoa, langile porrokatua, gizon on bat, azken batean, jendekina eta lagun askokoa, ez *Egin* egunkariak aurkeztutako diruzale bihozgabea. Nola ibiliko zen droga kontuetan sartuta, *Diario*ko argazkian agertzen ziren seme-alaba ederrak izanda? Galdera egokia zen, eta nire artean

eskertu nion bihotzez, ia gainerako guztia, aldiz, gezurra; gezur politak ziren alargun ofizialarenak, edonor hunkitzeko erakoak, baina amorragarriak niretzat, ondo bainekien haien harremana ustelak jota zegoela aspalditik, dena itxura hutsa zela, antzezpen interesatu nazkagarria, emakume haren estilo eza agerian uzten zuena. Nola liluratu zuen Arturo: ulergaitza zitzaidan, eskerrak garaiz jabetu zen haren gaiztakeriaz, eta eskerrak nirekin topo egin zuen beste norbaitekin baino lehen, bestela memelo oker horrekin jarraituko baitzukeen, eta zoritxarrekoa izango zen bizitza osoan. Nirekin zoriontsua izan zen lehen egunetik, koldar gaizto batzuek atzetik hil zuten gau madarikatu hura arte.

Arturo!

Zein misterio handia maitasuna, hain dira bihurriak haren bideak, eta apetatsuak haren aukerak, hain itxura eta mozorro ezberdinak har ditzake. Horretaz aritu gara Biteri eta biok behin baino gehiagotan, gure hizketagai kutuna dela esan daiteke, bioi gehien interesatu zaiguna. Maitasunak alderdi bat baino gehiago du, sustrai eta adar luzeak, eta maite izan duguna desagertzen denean ere, maitasunak hor jarraitzen du, inoiz baino biziagoa batzuetan, heriotzak,

itzali beharrean, suspertu egin izan balu bezala, nire kasuan hala izan da eta Biteriren kasuan ere hala izan dela esango nuke. Izenik aipatu ez arren, berak ere bere Arturo duela eman dit nolabait aditzera, bihotzean badaramala inolaz ere ahaztu ezin duen norbait, bere kutuna, nirea bezala hilda dagoena, baina, nire kontrara, Biteriri ez zaio atzera begiratzea atsegin, hil arte bizi, esaten dit, hori omen zen ahaztu ezin duenaren leloa, eta horixe baliatzen du iraganari itzuri egiteko, mina saihesteko, azken finean, izan ere, hori, eta ez besterik, da kontua, biona, edonorena, mina saihestea edo, bestela, ahalik eta arinen eramatea.

Arturok eta biok bizi genuenari ostera begiratzen diodala, zoriontasun betea ikusten dut, akasgabea, oso-osoa, elkarrekin egoteko ezkutuka ibili behar izan genuen aldian ere; mina ondoren agertu zen, hura hiltzean, mina eta amorrua ere bai, horixe sentitu bainuen, ezintasun izugarri batekin batera: hil zutenak asasinoak izateaz gain, lapurrak ere baziren, bizirik jarraitzeko gogoa lapurtu zidaten, itxaropena, horregatik gorrotatu izan ditut eta gorrotatuko ditut aurrerantzean ere, bekatu larria dela jakin arren. Barkatu beharko nituzke, kontzientziak eta bizi omen dugun bake

giroak horretara naramate, baina ezin, Biteriri azaldu diot, traizioa irudituko litzaidake, nolabait.

Traizioa hitz larria da Biterirentzat, adarra jotzeko gogoa guztiz eragozten diona, serio jartzen duena, filosofoa Iturrin agertzen denetan bezala. Maiteminduta duzu gajoa, jakinarazten diot, hari harpa jotzeko tentaldiari eutsi ezinik, eta berehala pikutara bidaliko nauelakoan. Maiteminduta ez, gaixorik dagoela esaten dit, gehiegi pentsatzen duela, eta horrek burua nahastu diola, ondoren gaineratzeko: zuk Joxeri bezala. *Touché*. Irribarre xalo batez esaten dit eta biok barre egiten dugu, ezin hobeto baitakigu Jose eta biona berez barregarria dela, denbora-pasa atsegin bat ozta-ozta, eta hasi bezala bukatuko dela lehenago baino geroago, tirabira berezirik gabe, era lasai berean.

Biterik kontatutako guztia ez da barre egiteko modukoa, ordea, zer hausnartu ematen dit, ustekabe harrigarriren bat noizbehinka, orain hurrena, filosofoaz ari ginela, eman zidanez: hari ere, zuri bezala, gehien maite zuena kendu zioten modu bortitzean, esan zidan. Zu alargun utzi zintuzten, hura umezurtz.

Ordura arte ikusi egin ere ezin nuen neska ilunak beste itxura bat hartu zuen Biterik esandakoaren argi-

tan: asasino bihozgabe batzuen biktimen biktimak ginen, memoriaren menpeko erabatekoak, etenik gabe berritzen zen oinaze sor batean kideak. Hori ginen biok, nahiz eta elkarrekin behin ere ez hitz egin. Hildakoek batzen gaituzte, Biterik esan zidanez.

Asko ikasten da berriketan harekin, asko ikasten dut neure buruaz ere, barneko zurrunbiloa hitzetan jartzen dudala, zentzu pitin bat hartzen du ordura arte batere ez zuenak, kaosa ordena bilakatzen da hitzak ahotik irten ahala, iluntasuna argitasun, horretan laguntzen dit, eta, gainera, bultzatu egiten nau, ni zalantzatan ikusi orduko, Jorge nire lehen senarrarena kontatu nionean egin zuen bezala. Pitinka kontatu nion, zatika, atzera eta aurrera, baina laster eta ondo ulertu zuen: Homosexuala zenuen senarra, Gloria, gay, maritxu, nahi duzun moduan. Halaxe, gordin eta ziplo bota zidan hitzetan jartzen sekula ausartu ez baina nolabait banekiena; zuzena da, zuzenegia ere bai zenbaitetan, estimatzen diot zuzentasuna, ordea, Arturori estimatu nion bezala, erakarri egiten nau halako jendeak, hain dira ausartak, hain bizizaleak, non ez baitira gai heriotzaren itzal luzeaz ohartzeko ere, eta libreak izan daitezke hala.

Dena ezin da, ordea, askatasunak eta diziplinak ez dirudite bateragarriak, eta ni diziplinarako eta diziplinatik hezi ninduten, eta halaxe hezi dut alaba, mundu zatar honetan ibiltzeko mesede egin diodalakoan, haren hobe beharrez, emakume batek ezinbestekoa baitu diziplina gizonen munduan sartu eta nabarmentzeko, eta, hain zuzen ere, hori lortu du Eugeniak Madrilen, lan egiten duen finantza konpainia amerikar handian, bertako nagusiei edozein gizon bezain ona edo are hobea dela argi utziz, eta, han irabazten duen diruari esker, paradoxikoki, emakume gazte libre bat da. Harro egongo zen haren amona, nitaz baino harroagoa seguruenik, normala den bezala, zeren haren bizitza eta nirea nahikoa antzekoak izan dira, gizonei dagokienez behintzat, mendean izan ditugu, bai, baina haien beharrean ere egon gara: biotako inori ez zitzaiokeen lan egitea burutik pasatu ere egingo. Duintasun kontua zen, klase kontua, aspaldiko kontuak, nolanahi ere, betiko galdu edo azkar galtzen ari den mundu batekoak, Internet eta sakelako telefonoak baino lehenagokoa, ezin sendoago, aldagaitza zirudiena.

Gero eta ederragoa zaude, esan ohi dit Josek belarrira, Iturrin sartu eta ikusten nauenean, eskertzeko

modukoa, edozein eratan, eta horixe egiten dut, eskertu, baina berak adierazitakoa aintzat inolaz ere hartu gabe, etxera itzulitakoan, bakarrik, nire logaleko ispiluaren aurrean eserita, makillajea kendu, aurpegia garbitu eta betiletarako seruma zabaldu ondoren, krema suspergarriekin ari naizela, argi eta garbi ikus dezaket denboraren laztanak azalean eragindakoa, pitinkako sarraski etengabe hori, patetiko bilakatzen da orduan edozein lausengu, hitz gozo edo gezurtxo onbera, alferrikako edozein maskara edo mozorro, nire gainbehera agerikoa da, eta ez du aitzakiarik, ez du gelditzerik, nahiz eta asteazkenero pilates egitera joan eta udan goiz eta arratsaldez igeri egin.

Eta, hala ere, jarraitu beharra dago, bizitzak orain-dik ekarri ahal diguna hartzeko prest, ez baitago inoiz jakiterik; nik, adibidez, bilobatxo bat nahi dut aspalditxotik, eta Eugeniak badaki, saiatzen naiz, ama, baina gaurko gizonekin ez dago zer eginik.

Gizonak!

Bi senargai izan ditu orain arte alabak, madrildarrak biak eta gure tankerakoak, baina gaizki joan zaio biekin, ezin okerrago, egia esan, eta etsi egin du, beste mutil batekin hasi da duela gutxi, mutil ona itxuraz, eta, Eugeniari sinestera, maitagarria, baina inolaz

ere ez aurrekoak bezain guapo eta aberatsa. Ulertu egiten dut, zapuztuta dago eta beste klaseko batean aurkitu nahi du bere klase berekoek ukatu diotena, zuzen da beharbada, ez baitago jakiterik nork sentiaraziko digun zoriontsu.

Arturo!

Ez diot hori esan, noski, pentsatu bai, eta Jainkoaren eskuetan utzi dut dena azkenean, ulergaitza baitzait alabari gertatutakoa, hain neska bakana izaki; dena dauka, edertasuna, adimen zorrotza, alaitasuna, dirua, gehiago eska al daiteke? Zer gertatzen ote da, zerk huts egiten du? Bizi garen garai zoro honen errua izango da, oraingo gizon gazteena, batek daki. Edozein modutan, alabaren zoriona nahi dut nik, beste edozeren gainetik, gainerakoa berez etorriko da, bilobak eta hori dena, Eugenia bera etorri zen antzera, opari bat, bizitzarena, bere aitaren eta bion arteko harremanak utzi zuen gauza eder bakarra.

Gutxitan gogoratzen naiz Jorgez, Eugeniaren zerbaitek –keinu batek– gogorarazten didanean baino ez; heriotzaz sarritan pentsatzen dut, ordea, eta batzuetan mesede egiten digula iruditzen zait, zeren eta Jorge eraman izan ez balu, ezingo nukeen, seguruen, Arturorekin ezagutu nuen zoriontasun erabatekoa

ezagutu, ezingo nintzateke berarekin Ibizan egon, ezta berari esker han egindako lagunak eduki ere, Gonzalo bera.

Zoritxarrez, heriotzaren mesedetzat hartu dudan hori ez zen musu-truk izan, ez zen opari bat, mailegu bat baizik, eskura jarri zidanak urte gutxi batzuen ondoren kendu zidana, era ezin bortitzagoan; gainera, bere ordezkariak bidali zizkion Arturori, urte batzuk lehenago Jorgeri Manhattaneko ospitale batera bidali zizkion era berean.

Eta, guri, nora bidaliko ote dizkigu?

Niri hona bidali dit, erantzun zidan Biterik, filosofoa egoten den zokoaren aldera begira, ulertu nuen, gero eta hurbilago sentitzen zuen heriotzaren mezularia zen hura Biterirentzat, horregatik zion niretzat ordura arte ulergaitza zen beldurra. Ez da harritzekoa Biterik hala hartzea, bestela itsusia ez litzatekeen neska horren itxura ikusita: goitik behera beltzez jantzita beti, pasa den mendean Parisko kafetegietan ibiltzen ziren existentzialista horietako bat balitz bezala, guztiz *demodé*, berak kontrakoa uste badu ere, harroa da, seguru naiz, eroa izateaz gain, harroa izan behar baita Biteri gizajoa gogaitzeko, martirizatzeko, zerbait egin izan balio bezala, zerbait larria, baina ez da hala izan

–Biteriri berari galdetu nion–, egin dion bakarra jaramonik ez egitea izan da; filosofoak hori nahi baitu, haren maitasuna, hain zuzen ere, hark eman ezin edo eman nahi ez diona, bien artean dagoen adin tarteari gehiegizkoa iritzita, seguruenik, edo laster hilko delakoan bestela, hori izanik bere obsesiorik nabarmenena, denbora osoan buruan darabilena.

Nekatuta omen dago, nekatuta egunero hamaika pilula eta botika hartzeaz, nekatuta urtero gutxienez pare bat aldiz ospitalera igo eta bertan gelditu behar izateaz, nekatuta lan egiteaz eta gauez ibiltzeaz, mendira joatearekin egiten du amets, baserri batean bizitzearekin, toki gozo bat nahi omen du munduari azken agurra emateko, betiko desagertzeko.

Gora bihotzak, Biteri, segi aurrera, zoaz mendira, edozer egin, baina ez etsi, mesedez, ez galdu esperantza, bizitza harrigarria da, sekula ez dago jakiterik, norbait agertuko da bat-batean zure bizitzan, bizimodua hobetuko dizun botikaren bat aurkituko dute, beste zenbait alditan ere azaldutakoak berritu nizkion, eta denbora osoan begira izan nuen, irribarre amultsu bat ezpainetan, ahalegina eskertzen zidala, baina alferrik ari nintzaiola jakinarazten zidana. Ahoa ireki orduko banekien hori pentsa zezakeela, hitz egite alde-

ra ari nintzaiola, nik neuk ere ez nituela berari esandakoak sinesten; sinesten nituen, ordea, ez beharbada guzti-guztiak, baina bai gehienak, garrantzitsuenak, bizitza harrigarria dela sinesten nuen eta sinesten dut oraindik ere, eta, era berean, borroka azken uneraino egin behar dela sinesten nuen, baita dena azkar aldatzen dela ere. Ez naiz beltzez jantzitako neskaren erako filosofo bat, noski, baina hiru kontu horiek agerikoak dira niretzat, eskarmentuak irakatsitakoak, nire jendearen ondoan ikasitakoak, amaren ondoan edo Arturoren eta Eugeniaren ondoan, besteak beste.

Entenditu dizut, Gloria.

Ez, ez didazu ezertxo ere ulertu, nahiz eta esan dudan guztia zuk zeuk lehenago adierazitakoa izan, zuk eta ez beste inork goraipatu baitizkit medikuntzaren aurrerapenak, eta Sovaldik salbatu zaituela, zenbat aldiz ez ote didazu esan?

Bizimodu nahikoa latza izan du, nire ustez, drogaketa tartean, galduta ibili omen da urteetan, Bartzelona aldean aurrena eta Donostian bertan ondoren, sekula ez dit gauza handirik kontatu eta, noski, nik ez diot inoiz galdetu, diskrezioa garrantzitsua baita niretzat, baina eskarmentua keinu bakoitzean nabaritzen zaio, batez ere begiradan, samur-samurra edo gogor-

gogorra izan daitekeen horretan, argi-argia edo ilun-iluna, muturreko sentipenak izaten baitira Biterirenak, goian dagoenetan oso goian egoten da, eta behera datorrenetan, aldiz, zulo sakonaren hondora erortzen da, eta ez dago hortik ateratzerik.

Pasatu eginen zaio, lasaitzen nau Josek halakoetan; gaztetatik ezagutzen du, baina ikusi gabe egon zen urte askotan, hogeita hamarretik gora, berak Frantzian emandakoak, hain zuzen ere. Halako gora-beherak izaten ditu, baina alaia da berez, hala izan da ezagutzen dudanetik, lagunaren aldarte aldaketa bortitzak zuritzen saiatzen da Jose. Ez du oso gogor saiatu behar, Biteri irribarretsu hori izanik aldi gehienetan nik ezagutu dudana, edozein bezero ondo hartzen duen hori eta ni neu ere maitekor hartu ohi nauena, niri konfiantza ematen asmatu duena, ni entzuten jakin duena, gainerakoak –izan ditudan maitaleak-eta– askoz interesatuagoak egon baitira nire gorputzaz, kontatzeko nuenaz baino. Biteri ez, Biteri ezberdina da, zenbaitetan gizona ere ez dela lirudike, hain egoten da gizon gehienen kezka eta nahietatik urrun, beste planeta batekoa balitz bezala.

Ez al duzu amodioa egin nahi horrekin, galdetu izan diot, filosofoa bere betiko zokoan zegoela, eta Bi-

terik, irribarrea zabalduz, ezetz, bere bizitzan izan behar zuen sexu guztia gaztetan izan zuela, asebeteta dagoela, ez duela gehiago behar, eta ondo bizi dela bizi den eran, istilurik gabe, eta sexuak, batez ere adin batetik gora, buruhausteak baino ez dituela eragiten, zapuztuta uzten duela, garestiegia izaten dela.

Txortan egiten duzu norbaitekin behin, eta badirudi horrekin ezkondu behar duzula, betiko maite behar duzula, eta nik ez dut horretarako balio, ez naiz fio zurekin egin eta ia berehala zutaz maitemintzen direnez.

Hitz egokiak Biterirenak, neuri ere hori iruditzen baitzait eramangaitzena, maite zaitut errepikatu eta gogaikarri hori, Joseri, adibidez, askotxotan entzun behar izan diodana. Badirudi hori esaten duenak baduela ondoren edozer egiteko eskubidea, gure nagusia izan daitekeela, baina nik ez dut inongo nagusirik nahi, Arturo eta gero, behin ere ez dut nahi izan, libre izan nahi dut, nire kasa ibili, inoren menpe egon gabe, Biterik ere nahi duen bezala. Askatasun egarri bera dugu biok, bere iraganaz kontatu didan apurrak aditzera ematen duenez; nire antzera, suertatu zitzaionera moldatu behar izan zuen, eta orain, bizialdiaren azken zatian bere buruaren jabea izan nahi du, behingoz. Egarri bera dugu biok, baina ni bizitzara naraman

bitartean, hura heriotzara darama, dagoeneko hilik dago agian.

16

Larunbat epel bateko gaua zen. Jendez mukuru zen Alde Zaharra. Ostatu bateko atean topo egin genuen, hura handik ateratzen ari zelarik, eta Ann eta biok sartzen. Elkarri beha gelditu ginen, ezagun zitzaigun arrotz hura nor ote zen arranguraturik.

Joxe?

Biteri?

Besarkada batean bildu ginen. Biteri arras zaharturik zen, baina bizirik, eta hori bazen zerbait, hila uste bainuen aspalditik. Parisen oroitu nuen bakoitzean, Keparen eta Salazarren saihetsean idurikatu nuen. Trosko komandoa: noizbehinka ametsak ozpintzen zizkidan mamu taldea.

Iturri hartu aitzineko garaia zen, eta arratsaldegau atsegin bat iragateaz bat, han ireki nahi genuen ostatua eramaki genuen gogoan, Hendaiatik abiatu ginelarik. Ostatu bat Donostian, Alde Zaharrean. Sosak banituen, Annen oniritzia ere bai; leku egokia falta. Horren bila ari ginen, nolabait, Biterirekin topo egin genuenean.

Ormazabalera joan ginen. Hango mahai bakanetarik bat harrapatzeko zoriona izan genuenez, bertan eman genion elkarri gure ordura arteko bizitzaren berri, bakailao-tortilla afaldu bitartean. Biteri Bartzelonan ibili zen, ostatuetan lanean beti, eta harritu egin zen, ni ere gisako zereginetan aritua nintzela jakindakoan. Paris aldeko nire ibiliak laburbildu nizkion, hortaz, zehaztasun handirik eskaini gabe.

Niri baino dezente hobeto joan zaik, Joxe, argi zagok.

Iduriz bederen hala zen, etxera bidean Annek baieztatu zidanez. Drogak aipatu nizkion. Oraino horretan al da, jakin nahi izan zuen. Ez nekiela, erran nion, galdera noizbait Biteriri berritu behar niola pentsatuz. Jakin-min morboso batek baino gehiago, interes profesional batek bulkatzen ninduen hori jakin nahi izatera. Ideia bat izan nuen: Biteri izan zitekeen Donostian behar nuen gizona. Edo gizonetarik bat gutienik.

Eta drogak?

Annek berean segitzen zuen. Hura argitu gabe, ezin deus deliberatu.

Gaiari zuzenki lotu beharrean, itzuli-mitzuli ibili nintzen Biterirekin, zer gerta ere. Dudak neuzkan. Gai-

tzituko ote zitzaidan? Laidoztatuko ote nuen? Biterik berak argitu zizkidan zalantzak, nik fitsik galde egin gabe.

Oraindik gustatzen zaizkidak, aitortu zidan. Koka, batez ere. Baina zaldia aspaldi laga nian. Gaitz erdi.

Aski zen. Nire asmoa agertu nion. Osasunaz makal zebilela kontatu zidan berak, horren kausaz zela lanik gabe. Pentsakor gelditu nintzen. Barraren bi aldeetatik ostatu bat zer zen hark baino hobeki jakinen zuenik, guti. Alde Zaharra ederki ezagutzen zuen. Aspaldiko adiskideak ginen.

Hi trankil, Bite, erran nion. Inportanteena osasuna duk. Ongi zaindu. Gainerakoan aise konponduko gaituk, eta jakaren barne sakelatik dirua atera eta hirurehun euro paratu nizkion eskuan, serioski ari nintzaiola konpreni zezan.

Eskertu egin zidan. Ahaleginduko zela agindu zidan. Apustu egin nuen haren alde, eta asmatu nuela erraten ahal dut egun, zinez lagundu izan bainau, duela guti arte. Lehen-lehenik, Iturri zaharra salgai zegoela jakinarazi zidan. Horri esker erosi nuen, espero baino arrunt merkeago. Zerbitzariak, sukaldariak, denetarik ekarri zidan, nonahi zituen lagun eta ezagunak baliaturik. Beharrezko genuen zernahi inguratzeko

abilezia zuen, dudarik gabe karriketan bereganatua. Gloria berak aurkeztu zidala, ahantzi gabe, jakina. Horrek merezi ditu ospitalera eraman behar izan dudan aldiak, hartu izan dudan kolpeko ikaraldi bakoitza.

Emateko bakea galdatu dit halakoetan, eta nik ezetz, oraino bertze anitzetan eraman beharko nuela Anoetatik goiti. Ezetz, Gloriak ere erraten omen zion bezala. Borrokan segitu behar zuen.

Borrokan? Ni esplotatzen jarraitu nahi duk, alu horrek.

Ustezko txantxak zinez uste direnen mozorroak direla aditu izan diot Anni, eta baliteke Biterik hori uste izatea nitaz, erran nahi baita, bera esplotatzen aritu naizela. Nolanahi ere, leialki jokatu du nirekin, lagun batek bezala. Kalte larria egiten ahal zidan, nahi izanez gero. Gloriarena Anni kontatzen ahal zion. Gure *affaire*-a, hark izendatzen zuen gisa, dugun harremana ziztrina izan ordean, *glamour*-ez betetako zerbait balitz bezala. Baina hori, nehon izatekotan, eramaten dudan hoteletan litzateke.

Gloriarekiko zorraz gain, bertze bat izan dut betidanik Biterirekin. Hein handi batez berari esker eskuraturiko kapitala izan bainuen oinarri nire lehendabiziko ostatua irekitzeko.

Tokolorendako lanean hasia zela kontatu zigun egun batez. Gaueko lana: gure aitak urte luzeetan egindako bera, nolabait. Fite egin eta xarmanki ordaintzen omen zioten. Kartoizko kutxak ziren garraiatu beharrekoak, kanpoaldean Lucky Strike idatzirik zutenak. Kutxak Hondarribiko hondartza ttipi batera ailegatzen ziren, mukuruz betetako txalupa batean. Ilargirik gabeko gauetan lan egiten zuten. Errandako orenean seinale bat egiten zuten argi baten bitartez, kutxak ekarritako arrainontzitik, eta gisa berean egoten zitzaien arrapostu lehorretik, txalupa igortzen ahal zutela adierazteko. Hura hustutakoan, kutxak hondartza ttipian uzten zituzten, labarretan ongi gordetako kobazulo hertsi batean, biharamunean handik eramateko.

Aise konprenitu genuen Biteriren plana. Furgoneta batean joanen ginen, eta hartan sartuko genituen kobazuloan gordetako kutxak. Ondotik, leku seguru batean, irekiko genituen banan-banan, tabakoaz gain heroinaz jabetzeko. Lapurreta perfektua omen zen, zalu eta garbia, pistolarik gabea.

Biteri eta Salazar kontent ziren. Niri, ordea, sobera erraza iduritu zitzaidan. Begiraleak utziko dituzte, erran nien. Ezetz, Biterik. Baietz, nik. Hondarrean Salazar mintzatu zen, eta erdibide bat iduri zuena eskai-

ni zigun: Hurrengoan guk zainduko diagu. Ikusiko diagu zein den zuzen eta zein oker.

Akort hirurok.

Biharamunean hondartzara eraman gintuen Biterik. Operazioa nondik behatuko genuen hautatu genuen, Biterik kontaturikoaren arabera. Handik hondartza osoa ikusten ahal zen, baita harako bidexka eta sastrakek gordetako kobazuloa ere.

Argirik gabe ezinen diagu deus ikusi, oroitarazi nien.

Ostia, Joxe, hi bai festa-zaputz, arranguratu zitzaidan Biteri. Linternen argia ikusiko duzue. Gure mugimendu guztiak.

Hala izan zen, Biterik erran bezalaxe. Hark kontatu guztia berritu zen gure parean: itsasotik egindako seinalea ikusi dugu, luze gabe kutxez betetako txalupa hondartzara arribatzen, eta, berehala, hari zuzendu zaizkion itzal batzuk, ilunpetik ateratzen. Lehenik txalupa hustu zuten. Ondoren kate bat osatu zuten, kutxak sastraka arteko zulora igotzeko.

Ikusi baino gehiago, hori dena hauteman egin genuen gure talaiatik. Txalupa hustu bezala burutu zuten afera osoa: fite eta isilik. Haien autoak urruntzen aditzearekin batean mugitu ginen Salazar eta

biok. Sasien gibelean okerturik izan ginen, eta giharrak oinazeturik geneuzkan. Hotz ere baginen, baina han segitu behar genuen, begiak kobazulotik milimetro bakar bat ere urrundu gabe, zer pasatuko. Termo batean eraman genuen kafe beroa edan eta hobeki sentitu ginen, Salazarrek gure zaintza zorrotza deitu zuenera itzultzeko indarberriturik.

Goiztiria ederra izan zen. Nekatuak ginen, mindurik, hotzak akabaturik, baina kontent: nehor ez zen kutxen bila agertu gau osoan. Biteri zuzen zen, hortaz, egiten ahal zen.

Erraza izan edo zaila izan, Biterik eta Salazarrek mesfidati ninduten. Hori zen, funtsean, zalantza egitera bulkatu ninduena. Tolosako hondamendia nuen oroimenean iltzaturik, nola egin nion neure buruari zin, hura hondarrekoa izanen zela. Sobera arriskutsua. Bi haiekin zernahi bilakatzen ahal zen arrisku. Gero eta okerrago ziren, gainera, iduriz heriotzara zuzenki eta fite eramaki zuten zaldi zuri banatan ongi jarriak. Alde horretatik behatuz gero, ezezkoa izan behar zuen nire arrapostuak. Bizirik segitu nahi nuen. Ordurako itotzen ninduen karrikako girotik urrundu nahi nuen, nola edo hala. Euskal Herritik alde egin nahi nuen, Amerikara edo. Eta bazekiten.

Inora ospa egiteko dirua beharko duk, ohartarazi zidaten. Sosak Hondarribiko labarretan ziren, jakina, gure esperoan.

Ederra. Zeinahi jonkiren ametsa. Aise lokamuts bilakatzen ahal zena, alegia, ordurako ongi nekienez. Horregatik, amore eman ordean, bertze galdera bat egin nien lagunei: Susmagarrienak zuek izanen zarete, horretan lanean aritu zaretenak. Zer erran behar diok Tokolori?

Askotxo gaituk, eta denok gauza bera esango diagu: ez dakigula ezer.

Ez dizue gozo-gozo galde eginen, gero. Sos anitz zagok tartean.

Ni lasaitzera entseatu zen Salazar, denak ezin zituztela torturatu argudiaturik, eta, gainera, hala balitz, Biterik onik ateratzen asmatuko zuela segurtatuz, bertze ataka larri batzuetatik ateratzen asmatu izan zuen gisan. Hunkigarria, Biterirekiko zuen konfiantza. Argigarria ere bai, begi-bistan uzten baitzuen zein kamusturik zen Salazarren behialako adimen zorrotza. Eta beldurgarria, hondarrean, haien eskaintza onartuz gero, zoro pare haren patuari lotuko bainuen nirea.

Esku batean hori neukan. Bertzean, aldiz, hutsetik hasteko parada ezin tentagarriagoa. Tentaldian erori

nintzen, bistan da, susmoak susmo eta aiherrak aiher. Loriatu ziren lagunak, baiezkoa eman nielarik. Komandoa berrosaturik zen. Gora komandoa!

Hondarrekoa, ohartarazi nituen.

Irri egin zuten, espero nuen gisara: Ikusiko diagu.

Nire zatia hartu bezain fite, aire!

Berriz irri egin zuten.

Baina dena ongi pentsatua nuen. Behar bezala loturik nituen planaren hari guztiak. Gero eta gehiago joaten nintzen Zugarramurdira, eta banekizkien jakin beharrekoak, solastaturik nintzen solastatu beharrekoekin.

Lehorreratzearen eguna azken unean jakiten omen zen, ahalik eta berantena. Hori zela eta, ernerik ibiltzen ginen ilargirik gabeko egunen bezperetan. Salazar eta biok Biteriren zain egoten ginen, hura noiz agertuko. Noizbait, ailegatu zen egun berantetsia.

Arratsaldean erran zigun Biterik, seiak aldera. Berehala abiatu ginen Hondarribira. Aitzineko aldian hartutako eskarmentuari esker, ongi prestatuak joaki ginen. Zer jan, zer edan, eta non jarri eramaki genituen, zer gerta. Baita pistola bana ere.

Uko egin nion Salazarrek eskainitako armari. Hastapenean. Ordura arte ongi moldatu nintzela armarik

gabe, eta berdin segitzeko asmoa nuela agertu nion. Gaurko hau beste zerbait duk, Joxe, erran zidan, hau ez duk gasolindegi bat edo herri koxkor bateko aurrezki kutxa.

Pisua iduritu zitzaidan Parabellum zahar hura, Salazarrek esku-ahurrean paratutakoan. Berriz protestatzera ahalegindu nintzen, eta berriz isilarazi ninduen: Eraman ezak!

Hondartza ttipia hutsik zen. Inguruak ere bai. Ibilki zen bakarra itsasotik helduriko haizea zen. Muturik jarri ginen gure talaian eta hala izan ginen itsasotik keinuka ari zen argia ikusi arte.

Lehendabiziko aldian bezalaxe joan zen dena: txalupa agertu zen, hustu zuten, kutxak kobazuloraino eraman eta han gorde zituzten... Eta joan egin ziren. Sasi artetik atera baino lehen, adi egon ginen aski luzaz. Haizeak segitzen zuen, baina itsasoaren orroa ekarki zigun, bertze deus ez. Gordelekua utzi genuelarik, mantso ibili ginen, urrats bakoitzari begiratuz, ahalik eta zaratarik ttipiena ateratze aldera. Hala heldu ginen furgoneta genuen tokiraino, deus susmagarririk aditu edo susmatu gabe. Eztiki-eztiki eraman genuen, argia piztu gabe. Bortzehun bat metro izan ziren, baina arrunt gehiago iduritu zitzaizkigun.

Zuloraino ni jaitsi nintzen. Salazar goian gelditu zen. Lana guk uste baino zailagoa izan zen. Kutxak ez ziren sobera pisuak, baina eginahala egin beharra zen ni nengoen tokitik igotzeko. Biterik erran zigunez, gehienez oren laurden baten kontua izanen zen gurea. Oren erdi bat behar izan genuen, ordea.

Donostian Biteri genuen esperoan, ordurako aski arranguraturik, baina trankildu egin zen furgonetaren barnea ikusitakoan. Astirik galdu gabe, Igara aldera joan ginen, mendian goiti ezagutzen genuen zoko batera. Kutxak han ireki genituen.

Paketeak plastiko beltzean bilduak ziren, kutxa bakoitzean bina. Berrogei kutxa ziren, laurogei pakete bete heroina genituen, hortaz. Biterik paketeetarik bat ireki zuen. Zuri-zuria zen, oso ona, haren ustetan. Nekez sinesten ahal genuen gure zoriona. Baina nire planari segitu behar nion eta, niri zegozkidanak harturik, lagunak agurtu, eta han utzi nituen, Lucky Strike paketez inguratuak.

Tratua egina nuen ordurako. Heroina Urdazubira pasatu eta afera burutuko nuen. Gaueko lana. Aitarena. Hark ibilitako bideak ibiliko nituen, haren aitak eta aitatxiak ibilitakoak. Mendian goiti abiatu nintzen zalu, hurbil sumatzen nuen goiztiriaren beldur.

Agudo egin nahi nuen bidea, baina iluntasunak galarazten zidan. Hondarribian oren batzuk lehenago bezala joaki nintzen, ia itsumustuan, nekeak erasana. Etsi gabe, hala eta guztiz: xedea hurbil nuen, eta horrek aitzina segitzeko trenpuan paratzen ninduen.

Urdazubiri buruz jaisten hasi nintzelarik, zeruaz jabetua zen eguzkia. Gelditu egin nintzen, eta egoera etsaminatu nuen. Pare bat gauza berehala egin behar nuen. Lehendabizikoa, baitezpadakoena, pistolatik libratzea. Ondotik paketeetarik erdia lurperatuko nuen, badaezpada ere.

Bide nagusietatik bazter ibili nintzen, gordeka, zuhaitzen geriza bilatuz. Beldurraren kausaz, gizon bozak aditzen nituen, txorien kantuak aditu ordean. Baina aitzina segitu behar.

Erreka batera heldu nintzelarik, han bota nuen Salazarrek emandako pistola. Nire ordura arteko bizitza eraman zuen urak Parabellum zaharrarekin batean. Hori nahi nuen. Ondotik, zulo bat egiteko zoko egoki baten bila hasi nintzen.

Urdazubiko elizaren dorrea ikusten ahal nuen. Zuloa finitu nuelarik, lohi neuzkan eskuak, eta izerditan nintzen.

Zuhurtziak behartutako kontua izan zen paketeetarik erdia gordetzea. Erosle izanen nituenak fidatzekoak zirela segurtatu zidaten arren, kasuz ibiltzea hobetsi nuen. Ongi joan zen dena, ordea. Erosleak, akordatu bezala, esperoan nituen, eta fite eta ustekaberik gabe burutu genuen trukea. Telefono zenbaki bat eman zidaten hondarrean. Dei eginen nien, zuloan gordetakoa handik ateratakoan. Gau hartan Bordelen lo egin nuen, eta biharamunean Parisera eraman ninduen trena hartu nuen.

Berehala maite izan nuen Paris. Denetarik zen: mundu osoko jendea, molde anitzeko denda, jatetxe eta aferak. Iruñean ikasi frantsesak irakurtzeko balio bazidan ere, deus gutxi zen solastatzeko momentuan. Jendea sobera agudo mintzo zen, gisa konprenigaitzez. Hori zela eta, Boulevard Raspaileko Alliance Française delakoan ikasten hasi nintzen. Han ezagutu nuen Ann.

Ikasten hasi baino lehen Urdazubira itzuli nintzen. Hara abiatzekotan nintzelarik, Zugarramurdira deitu, eta anaiarekin solastatu nintzen. Nigana etorriko zen.

Harekin elkartu nintzenerako guztiz buruturik nuen Euskal Herrira gibelera ekarri ninduen afera. Mendi aldeko gordelekutik aberats bilakaraziko nindu-

ten paketeak atera eta erosleen eskutan utziak nituen. Harrezkero hobeki hats egin nuen. Bertze aro baten hastapenean nintzen, hala adierazi nion anaiari. Bereizi ginelarik, bisita eginen zidala agintarazi nion.

Parisera arribatu nintzen arte, ireki gabe izan nuen anaiak Urdazubin emandako zorroa. Trikota lodi bat eta amak paratutako hainbat janari eta gauzez gain, hondar asteetako *Egin* egunkariaren ale batzuk ere atzeman nituen haren barnean. Horietarik bati esker jakin nuen Salazarri gertatutakoa.

Berriak zioenez, Tolosako auzo batean agertutako gorpua Miguel Angel Salazar Osarena zen, donostiarra eta drogazale ezaguna. Bala garunaren gibeletik sartu zitzaion, hura istantean porrokatuz. ETAren hondar krimena omen zen, ezaguna baitzen talde terrorista droga eta, bereziki, heroinaren kontrako borrokan ari zela aspalditik. Mendeku bat ere izaten ahal zen, nola ez, jonkien arteko borroka baten ondorio zorigaiztokoa, baina herexa guztiek terrorismoarekin lotutako hilketa bat zela ematen omen zuten aditzera. Horraino albiste-agentziek adierazitakoa. Egunkariari, ordea, arras susmagarria iduritzen zitzaion gertakizun ilun hura. ETAk erabili ohi zuen munizio bera erabili

zuen Salazarren asasinoak, egia, baina munizio hori salgai zen, nornahik erosten ahal zuen. Gainera, hil aitzin torturatu egin zuten. Oin zolak erreak zeuzkan, hatz muturrak ere bai, eta zauri eta odoluriak nonahi. Odolaz tindatutako estatuaren eskua iradokitzen zuen, zuzenki aipatu gabe, *Egin*ek.

Sekula agertu ote zen Salazar ETAren agirietan? Ezetz erranen nuke. Nolanahi ere, Tokolorena zen nik ikusitako eskua. Zinez luzea haren besoa, urrun heltzen ahal zen. Jonki gizajo batzuk, marmalo zikin batzuk, gordetzen ziren zuloraino ailegatzeko bezain luzea, bederen. Arrangura izateko arrazoiak nituen. Dudek azkarki jotzen ninduten: Non ote da Biteri? Hila ote zen hura ere, edo ihes egiterik izan ote zuen, nik bezala?

Hala ere, bertze kontu batzuk ziren gogoan gainezka egiten zidatenak. Annen gaineko kontuak, hain justuki. Solastatzen hasiak ginen, eta Alliancetik ateratakoan, Boulevard Saint-Germain goiti joaten ginen Auzo Latinora, edo Alliancetik aski hurbil zen Le Gladiateur ostatura, bertzenaz. Frantsesez egiten genuen, baldarki, baina luzaz aritzen ginen solas eta solas.

Ann harrigarria zen. Berdin zion zertaz ari ginen, zernahiz zuen iritzi zuhurrik. Unibertsitatetik atera berria, frantsesa ikasi nahi zuen, eta horren kausaz zen Parisen. Emazteki bizkor, argi, alai eta ederra zen, baina praktikoa, batez ere, bakarrik amerikanoek izaten dakiten gisara. Gauzen funtsera jotzen zuen berehala, eta zernahi egiten zuelarik, ongi egitera entseatzen zen. Moral protestantearen emaitza zela erraten nion, burlaka.

Maitemindu egin ginen. Elkarrekin egon behar genuen egun osoz eta, hortaz, elkarrekin bizitzen hasi ginen laster. Place d'Italie inguruetan alokatutako apartamentu batean bizi ginen, zoriontsu. Lan baten bila hasiko zela jakinarazi zidan egun batez, eta hori galarazi nahian, biok kudeatuko genuen negozio bat sortzea bururatu zitzaidan.

Zein gisatakoa?

Egiten nekienaz pentsatzeari lotu nintzaion orduan. Gibelera behatu eta aitzineko urteetan ezagututako lantegietara itzuli nintzen aldi batez. Peoi aritu nintzen guztietan, eta deus guti ikasi nuen.

Etsituta aitortu nion Anni nire ezina. Dena O.K. zegoela eta zerbait bururatuko zitzaigula erran zidan, berezko duen baikortasunaz. Kasu egin nion, eta han-

dik aitzina bera axolatu zen gerorako planaz. Zuzen zela agerian utzi zuen denborak. Gare du Nord aldean ibilki ginen arratsalde batez, jatetxe amerikar baten parean suertatu eta han afaldu genuen. Haragia jan genuen. Txarra. Bertze hainbat gauza ere bai. Dena berdin txarra. Haserretu egin zen Ann, bere aberriari egindako laido bat iduritu zitzaion.

Haserrealdi hari esker bururatu zitzaion gerora aberastuko gintuena: egiazko, kalitatezko janari amerikarra eskainiko zuen jatetxe bat irekiko genuen. Hala sortu zen Prairie Cooking, Bellevillen, bertze Prairie Cooking anitzen lehendabizikoa.

Jatetxearen arrakasta sinesgaitzak bertze batzuk irekitzera bulkatu gintuen, Parisko bertze hainbat auzotan. *Fast food* famatuaren kontra ari ginen, plastikozko janariaren kontra. Harro ginen.

Hiriburutik Frantziako bertze hiri handietara joatea izan genuen hurrengo erronka. Hala jatetxeak ireki genituen Lyonen, Bordelen eta Tolosan, hurrenez hurren. Lan azkarra zen, kontu anitz ziren kasu egin beharrekoak, baina gurea, eta hori handia zen. Horretan ari ginelarik joan zitzaizkigun urteak, hoberenak. Ohartu ginenerako, berant zen. Zahartzen hasiak ginen. Horregatik jatetxe-katea saltzea eta, horren truke eskuratu-

tako milioiei esker, ordurako erosia genuen Hendaiako etxe ederrean bizitzera etortzea deliberatu genuen. Nik, aldiz, amets bat izan nuen urte haietan guztietan: jatetxe bat, ostatu bat –euskalduna, ez amerikarra– Donostian irekitzea noizbait, ahal izanez gero, Alde Zaharrean. Ibilbide oso baten gaina iruditzen zitzaidan, horren bururatze biribila. ETAk armak behin betiko utzi ondorengo giroa egokia zen horretarako.

Ordurako Tokolo hilik zen, eta Intxaurrondoko haren lagunak aspalditik bizi ziren bertze nonbait. Mikel Salazarren heriotza eta sasoi hartako hainbat gertakizun dorpe ahaztuak ziren. Hala hobeki guztiendako. Lasai itzultzen ahal nintzen.

Tokoloren heriotzaren berria gertatu bezain fite heldu zitzaidan. Frantziako egunkari nagusietan agertu zen. ETAk beregain hartu omen zuen haren hilketa, agiri baten bitartez. Hura sinestera, Tokolo heroinaren trafikatzaile nagusietarik bat zen, Intxaurrondoko zibilekin harreman ezin hobeak zituena. Egunkariak –*Le Monde*-k– hildakoaren hurkoek hori dena gezurtatu zutela gaineratzen zuen, baita hilaren izena hainbat prentsa txostenetan azaldua zela ere, drogarekin loturik beti.

Albisteak durduzaturik utzi ninduen. Ahantzirik nahi eta uste nuena sekulako trenpuz berragertu zen, kolpean, nire bizitzan.

Autonomoetan ibilitako laguna ETAk mendekatu izanak bazuen, nire aburuz, paradoxatik anitz, mundu honetako gauza gehienen iduriz. Paradoxa batean bizi nintzen neu ere: kapitalista bilakatu kapitalismoaren aurkako norbait nintzen. Bai, paradoxa erraten nion aspalditik gaztaroan kontraesan gorria erranen niokeenari.

Oraino ere maite ez dudan munduaren kontra borrokatu ordean, harekin batean joatea hobetsitako norbait nintzen ordurako. Hura aldatzera ahalegindu nintzen gaztetan, nehongo arrakastarik gabe. Nire puska egin nuen, zegokidana zegokidalarik: aski. Ondotik neure buruaz axolatu behar izan nuen. Batez ere lehendabiziko Prairie Cooking-a irekitakoan.

Sukaldariekin, zerbitzariekin, hornitzaileekin mintzatu behar izaten nuen, haiekin negoziatu. Horretan joaten zitzaizkidan egunak. Beharrik Ann nuen lagun. Negozioa berak zuzentzen zuen, hein handi batez. Hautu estrategikoak berak egiten zituen. Inbestimenduak non, noiz eta nola egin zehazten zuen. Bankuekiko harremanak kudeatzen zituen. Nik beti falta izan

dudan zorroztasunaren jabea da, zorionez, eta horri esker atera gara onik orain arteko herstura makur guztietatik. Ezetz erraten jakin izan du, nire ameskeriak irrigarri uzten. Hori dena maitasunez. Ann izan baita –eta oraino da– gehien maite izan nauen emaztekia.

Txanponaren bertze aldea Gloria izanen litzateke. Eta, hala ere, harekin egon nahi izaten dut, seguruenik bere baitan erdeinu egiten zidan emazteki berekoi horrekin. Horregatik Annek Amerikara itzuli behar duela erraten didalarik, tristatu ordean, alegeratu egiten naiz. Neure burua gorrotatzen dut halakoetan, baina hala dela ezin ukatu.

Guraso zaharrak ditu Annek, eri handi. Iowako herri batean bizi dira bakarrik, eta horrek hara gero eta gehiagotan joatera eta gero eta aldi luzeagotan bertan gelditzera du behartzen. Gurasoak laguntzen eta begiratzen ari den bitartean, Gloriaren gibeletik ibiltzen naiz ni, nerabe ergel baten gisara. Ahalkegarria da. Eta ahalke izaten naiz.

Nire damua sobera ahula da, haatik, Gloriak nigan sortutakoaren aldean, eta behin eta berriz erortzen naiz harekin egoteko tentaldian. Zera masokista bat da, neure burua behin eta berriz kakaztera behartzen

nauen halako joera itsu suntsigarria. Zerk sortua? Nik dakita. Dena delako sortzailea indartsua da. Neure burua baino arrunt indartsuagoa.

Emazteki arriskutsua da, errepikatzen dut nire baitan, halako mantra bat. Zernahi droga bezain arriskutsua. Horrexegatik erakartzen ote nau hainbertze? Baliteke. Menturaz adrenalinaren menekoa naiz. Zorabioa sentitu behar dut, hutsune gaitz bat urdailean, banku batera lapurtzera sartzekotan banintz bezala. Gloria makurrarekin sentitzen dut, Ann maitagarriarekin ez. Harekin ere sentitu nuen luzaz, baina dena porrokatzen du denborak, egunerokokeriak. Arriskuak, aldiz, dena biziberritzen.

Konparazione baterako, larrua jo gabe hilabeteak eramaki genituelarik Annek eta biok, gaztetan bezain sutsuki aritu ginen gau batez, oren batzuk lehenago Gloriarekin egin eta gero. Harritu ez ezik, alegeratu ere egin zen Ann, nire ustekabeko desira zela eta. Eta nik, ahalke berriz ere, Gloriak baino arrunt hobeki egiten zuela deliberatu nuen.

Bai, pentsatu nuen, mesedegarria da Gloria gure harremanerako. Hori pentsatu nahi izan nuen, nire traizioa zuritze aldera. Hotel bateko gela batean hartutako zaputza lagungarri zitzaidan Ann maitatzeko

tenorean. Nehor maitatzekotan, hura bainuen nik. Horregatik Gloriak, goazen amodioa egitera, gonbita egiten didalarik, antzarak ferratzera igortzeko gogoa ematen dit.

Amodioa egin? Halakorik. Bertze zerbait nahi dut nik. Zer? Gloriak zakila jan diezadan, hain justuki. Zimurrek oraino hondatu ez dizkioten ongi marraztutako ezpain horien artean sartu eta jan diezadan. Behin eta berriz.

Ametsak, jakina, Gloria berehala nekatuko bailitzateke, edo aspertuko, edo biak batera. Niri dagokit lan egitea, niri ordaintzea, gizon sortu nintzenez gero. Idatzi gabeko lege bat da hori, neskato eta sehiez inguraturik hazi zuten emazteki horrendako. Manupekoei agintzen ohitua da, eta horixe egiten du, oharkabean ere. Hala jokatzen du nirekin, bere zerbitzarietarik bat izanen banintz bezala. Izan ere, horixe naiz, finean: hark nahierara mugitzen duen txotxongilo irrigarri bat. Lotzen nauten soketatik tira egin eta horra joaki naiz ni, ezker-eskuin, hark nahi duen aldera. Bere Coco nardagarri horri sekula eginaraziko ez liokeena eginarazten dit niri: Hona, Jose, zatoz hona!

Larruazalean baino gehiago, bozean hautematen zaizkio Gloriari urteak. Hori erraten didalarik, atso ba-

tena iduritzen zait berea. Beharrik asteroko pilates saioek perfektu mantendu dituzten bere zangoei behatzen diedan laster, sabel berdin akasgabe horri, ttipi-ttipiak eta tente harroak dauzkan bularrei. Beharrik genetika eta elikadura onen mirakulua agertzen zaidan begi-bistara, bertze zernahi ahantzarazteko. Oroimenik gabe uzten nau, ohatze gainean, linjeria ezin ederragoan bildurik, eskaintzen zaidan gorputz oraino zoragarri horrek. Zentzu guztiak ezeztatzen dizkit. Larrua jotzeko ere eranzten ez dituen oinetako lirain dotoreetan hasi, eta zangoetan goiti, tangak zedarritutako triangeluaren misterioraino igotzen da nire behako gosetia. Sabelpeko horretan luzatzen da, batere presatu gabe. Miaztu, zurrupatu, murtxikatu egiten du, eroturik. Ni naiz zangartea jaten ari zaiona, ez bera niri, baina berdin dio. Neure burua umiliaturik ikustea gozo zait halakoetan. Jainkosa ahalguztidun baten eskuetan naiz, haren meneko. Dagokidana ari naiz egiten, hortaz. Gurtu behar dut, jauretsi. Gorrotatu behar nuke, baina maite egiten dut. Zigortu behar nuke, baina ferekatu egiten dut. Akabatuko haut puta zikin hori, erranen nioke, ahal izanez gero. Gloria laztana, bihotza, kutuna, erraten diot, haatik. Egin nahi nukeenaren kontrakoa egitera beharturik naiz. Para-

doxen zirrika eroan harrapatua, itzuli-mitzuli ari naiz etenik gabe. Zorabio batek harturik nauka eta hona eta hara eramaki nau, goiti eta beheiti. Gloria deritzan nire zorabioak, nire mindurak.

Gloria!

Herioaren ezizena ez ote den pentsatu izan dut zenbaitetan. Mingaina tangaren azpitik sartzen ari natzaiolarik, hori bururatu eta hotzikara batek zeharkatzen nau. Beldurrak ez, desirak sortutako hotzikara batek. Mingaina zaluago mugitzen dut orduan, ongi busti daitezen hortz tartetan gelditzen zaizkidan ile urdinak. Guztiak janen nizkioke. Banan-banan. Ahal banu, plazerez hilko nuke. Gisa berera, kontent utziko nuke ni plazerez hiltzen. Besarka nazazu trinkoago, erranen nioke. Besarka nazazu azkarrago. Otoi. Tinka nazazu ito arte.

Mugak, hesiak, bere burua begiratzeko behaztopak paratzen ditu Gloriak inguruan. Berak izan behar du nagusia. Errabiagarria da, baina hala da. Behin ere aipatu ez dizkidan haren arauak argiak dira. Zer egiten ahal den eta zer ez den egiten ahal, biok dakigu. Solasa soberan da gure artean. Gloriaren behako bat aski. Maiz larderiatsua den behako fier hori, ez nauela deusetarako behar argiki adierazten didana. Armarik

makurrena du hori, ni izutzeko molderik eraginkorrena. Bera gabe, asperturik, ilusiorik eta bizigarririk gabe nintzatekeela baitaki.

Zein drogak sortuko lidake Gloriaren gorputz zerutiarraren ikuskizunak sortzen didan estasia? Ohatzearen gainean luze etzanda nire esperoan, tentagarri bere gelditasunean, ezin dotoreago bere biluztasunean. Hor dut pare-parean, gero eta hurbilago eta gero eta urrutiago, aldi berean. Menderakaitza. Mirail dut edertasun itsugarri hori, gainera. Neure burua erakusten dit, bertze zernahik baino hobeki: zahartzen hasia den gizajo irrigarri bat. Hain justuki, Gloriak ikusiko duen gizajo bera. Berarekin egiteko hartu ohi dudan Viagra mirakulutsu horrengatik ez balitz, irrigarri utziko ninduke zakilak, nire pentsamenduen ilunak hartaratua. Haren behakoan axolagabekeria dago, ordea. Areago kilikatzen nauen axolagabekeria.

Konprenitzen dut. Gizakion eguneroko huskeriak ikusezinak dira jainkosa batendako. Eta Gloria hori da, jainkosa bihurri bat. Nirekin bederen, hala jokatzen du. Bere zerutik behatzen dit. Handik mintzatzen zait.

Halakoak adituta, oker naizela erran dit Biterik, Gloria ez dela nik uste dudan munstroa, penatzen ere dakien emazteki sentibera bat baizik. Hala izanen da,

menturaz. Biterik aipatutako alde sentibera hori arras ezezaguna da niretako, baina baliteke hala izatea, bera ni baino gehiago mintzatu baita Gloriarekin, eta, batez ere, sakonago. Gure solasak azalekoak izan dira. Sosez, sukaldaritzaz, modaz, autoez eta bertze hamaika kontu txepelez mintzatu baikara.

Bekaizkeriak joa naiz. Nirekin noizbehinka ohatzera joaten bada ere, deus guti kontatu izan dit bere egiazko sentimenduez edo bizitzaz. Badakit alaba bat duela Madrilen. Badakit alarguna dela, bi senar lurperatu ondotik. Horra funtsean dakidan guztia. Deus guti, bistan da, batez ere Biteriri kontatu dionarekin alderatuz gero.

Behin baino gehiagotan ahalegindu naiz Gloriak kontatu diona niri konta diezadan. Alferrikako eginahalak izan dira nireak. Nire galderak saihestu izan ditu Biterik. Bertze zerbait aipatu izan dit berehala, mintzagaia aldatze aldera. Gloriaz zerbait atera diodan aldi bakanetan, halabeharrez atera diot, ia oharkabean. Hala jakin izan dut, konparazione baterako, Alde Zaharrari dion atxikimendu niretako harrigarriaren zergatia. Gure artean iraganaz aritu garen aldi bakanetarik batean kontatu zidan.

Zergatik itzuli zen Donostiara egin nion galde, zergatik Alde Zaharrera. Salazar aipatu zidan Biterik, harekin zuen zorra. Zein zor ote zen hura galde egin niezaiokeen, baina adi jarraitu nuen, halako batean Gloriaz ari zela oharturik. Hark ere leialtasunagatik segitu omen zuen Alde Zaharrean barna ibiltzen, bere klasekoak hona sartzera atrebitzen ez ziren garai makurrenetan ere. Avenidaz bertze aldeko ostatuetan gerizatu ordez, bere ohiturari atxiki eta ordura arte bezala segitu zuen, ETAren aldeko afixa eta pankartei behatu ere egin gabe, han egonen ez balira bezala. Etsai izan zuen giro batean moldatu zen, nehoiz amore eman gabe. Noizbait maitatu izan zuenari zion leialtasunagatik dena. Biterik Salazarri zionaren antzekoa, nonbait.

Bere buruaz ari zen Biteri funtsean, Gloriaz ari zelarik. Bi arima bizki ziren. Seguru naiz biek hori sentitzen zutela, elkarrenganako hurbiltasun bera. Biteriri konprenitu nionez, gehien maite zutena kendu egin zieten biei. Biei bortizki. Salazarren heriotzaz ari zitzaidan, aspaldiko lagunaren izena behin ere ahoskatu ez bazuen ere. Gloria, aldiz, nortaz ari zen?

Biterik ez zekien, edo, baldin eta bazekien, ez zidan argitu nahi izan. Hastapenean. Jakin nahi ba-

nuen, Gloriari berari galdetzerik banuela pentsatuko zuen. Finean, ni nintzen harekin ohatzera joaten zena, ez bera. Ez nion nehoiz galde egin. Ez nintzen ausartu. Berdin zitzaidala erran nion neure buruari. Nehola ere egin nahi ez nuen bidaia zen iraganerakoa. Gibelean utzirikoa ongi zen han, hilak kanposantuetan nola. Guztionak. Hobe genuen haiei bakea ematea. Hobe genuen haietaz ahantzi eta bizitzen segitzea, sekula ezagutu izan ez bagenitu bezala. Neke da, badakit, baina hori dugu aterabide bakar, bizitzen segitu nahi izanez gero, bederen. Bizitzeko hil egin behar da, naturak egunero irakasten digunez. Paradoxa da, gero, baina hala da. Hilak hil behar ditugu.

Oroitarazi nion. Hildako batzuk hilezinak dira, bota zidan orduan. Hil eta hiru egun geroago berpiztu zen Jesukristoz ari ote zen, Che Guevaraz edo John Lennonez menturaz? Bion lagunez ari zen, erran gabe doa. Haiek zituen gogoan, hil eta urte andana baten ondotik. Gloriak ere halako hil hilezin bat zuen. Segur.

Arturo, amore egin zuen Biterik noizbait.

Arturo zer?

Arturo, hori zen nonbait, hartaz zekien guztia. Izena. Jakin-minez utzi ninduen Biterik. Gloriari berari galde egiten ahal diot, lagunak iradoki bezala, baina

badakit ez dudala egundo eginen. Pikutara zuzenki igorri ez arren, sarkinak gorrotatzen dituela oroitaraziko zidan, behako baten bitartez. Aski ni isilarazteko.

Behako horrek zernahi poliziak baino areago izuarazten nau, zernahi mafiak baino areago. Noiznahi galtzen ahal dudala adierazten dit. Eta nik amen erraten diot emazteki anker horren gutiziamendu bakoitzari. Erotzeko gisakoa da. Hainbertze, non, nire argialdi bakanetan, neure buruari egiten baitiot galde: Zer egiten duk hik faxista horrekin?

Arrapostu logiko bat izan nahi nuke, arrazoiren bat. Bururatzen zaizkidanak ezdeusak dira, ordea. Zozokeriak. Pitokeriak. Jolas masokista gisako bat da nolabait. Nagusi dut Gloria, manuko nauka berak. Sadismoa ote da harena? Ezezkoan nago. Hori izatekotan, gainera, klase sadismoa izanen zen Gloriarena, sehaskan bertan txertatu ziotena. Erran nahi baita, berezkoa duela, betidanik hala izan dela.

Eta nire baitan galdera bera berriz ere: Zer egiten dut nik faxista horrekin?

Faxista hori Herioa da menturaz. Ohatzean lagun dituenak hiltzen dituen alargun beltza da. Dama zuria. Italiar futuristen ametsa.

Udaletxetik edo elizatik iragan gabe ere, senarra nauka, heriotzak bereizi arte. Berak alargundu nahi duen arte. Horregatik kontent ukan behar dut. Horregatik afariak, bidaiak, harribitxiak, jantziak, oinetakoak... Horregatik opari guztiak. Denbora irabaztearren. Ez segitzeko hilik edo doi bizirik direnen orpotik. Biteriren orpotik, konparazione baterako.

Biteriz pentsatzen dudalarik, Gloriarekin txutxumutxuka harrapatu nuenetan ez ote zitzaion denbora gehiagoren galde ari bururatzen baitzait. Bai, horretan ari zen menturaz, besoak barran bermaturik eta burua ia emaztekiaren buruaren kontra. Baten kopeta bertzearen kopetaren kontra, Iturrin biak baizik ez zirela. Bi mamu.

mila esker

Edorta Mataukori

Juan Mari Mendizabali

Beñardo Goietxeri